

zakilixut

**ANTTON OLARIAGAREN UMORE GRAFIKOA
“EGIN” EGUNKARIAREN SORRERAN
‘ZAKILIXUT’ SERIEAREN DISKURTSO UMORISTIKOA (1977)**

EL HUMOR GRÁFICO DE ANTTON OLARIAGA
EN LOS COMIENZOS DEL PERIÓDICO “EGIN”
DISCURSO HUMORÍSTICO DE LA SERIE ‘ZAKILIXUT’ (1977)

THE GRAPHIC HUMOR OF ANTTON OLARIAGA
IN THE BEGINNING OF THE NEWSPAPER “EGIN”
HUMORISTIC DISCOURSE OF THE SERIES ‘ZAKILIXUT’ (1977)

Autorea

Aitor CASTAÑEDA ZUMETA

Zuzendaria

Eneko LORENTE BILBAO



**Doktorego tesia
2017**



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MDe

Master eta Doktorego Eskola
Escuela de Máster y Doctorado
Master and Doctoral School

Antton Olariagaren umore grafikoa “Egin” egunkariaren sorreran. 'Zakilixut' seriearen diskurtso umoristikoa (1977)

El humor gráfico de Antton Olariaga en los comienzos del periódico “Egin”. El discurso humorístico de la serie 'Zakilixut' (1977)

The graphic humor of Antton Olariaga in the beginning of the newspaper “Egin”. The humorous discourse of the series 'Zakilixut' (1977)

Egilea: **Aitor Castañeda Zumeta.**

Zuzendaria: **Eneko Lorente Bilbao.**

Azala: **Aitor Castañeda Zumeta, © Antton Olariagaren irudi batekin**
(EGIN, 1977/09/29, or.31).

Tokia: **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.**

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA.

Leioa, Bizkaia.

Ikerlan honetan agertzen diren ilustrazioen eskubide guztiak irudion oinpean zehazten diren autoreenak dira, © izenpean.

Todas las ilustraciones de la presente investigación son propiedad de sus autoras y autores, que se especifican al pie de cada una, con el signo ©.

All the illustrations included in this book are property of their authors, whose names appear at the bottom the pictures with the sign ©.

AURKIBIDEAK

EDUKI OROKORRAK

Tesi honen nondik norakoak.....	7
Irakurketa gida.....	8
Ikerlanaren hizkuntzak.....	8
Euskal Herriaren kontzeptuaren izendapena.....	9
Zita politika eta bibliografia.....	10
Eranskinak.....	11
Irudiak.....	11
Laburdurak.....	12
1. Sarrera.....	13
1.1. Umorearen kontzeptuaren analisia.....	13
1.1.1. Umorearen analisia. Ikuspegi psikologikoa.....	18
1.1.2. Umorearen analisia. Ikuspegi soziologikoa.....	20
1.1.3. Umorearen analisia. Bide estetikoa.....	26
1.1.4. Umorearen analisia. Bide diskurtsiboa.....	29
1.2. Umorea zer den.....	31
1.2.1. Umorearen artikulazioa. Gainezkatzea eta isotopiak.....	32
1.2.2. Denboraren eragina.....	35
1.2.3. Euskal umorearen nolakotasunak.....	36
1.3. Umore grafikoa zer den.....	43
2. Artearen egoera.....	47
2.1. Umore grafikoa erreferente teorikoak Euskal Herrian.....	48
2.2. Umore grafikoa Trantsizioan aztertzen duten ikerketak.....	51
2.3. Zentsura ikertzen duten ikerketa erreferenteak.....	51
2.4. Umore grafikoa Euskal Herrian. Autoreak.....	53
3. Ikerketa-objektua.....	68
3.1. Euskal prentsaren afera.....	71
3.2. EGIN egunkaria.....	74
3.2.1. EGIN eta hizkuntzaren erronka.....	78
3.2.2. EGIN zuzendaritzak eta estrategia komunikatiboak.....	79
3.2.3. Egunkariari egindako kritika(k).....	81
3.3. Umore grafikoa 1977an.....	83
3.4. Antton Olariaga, Zakilixuten sortzaile.....	89
3.5. Ikerketaren unibertsoa.....	96
4. Atal metodologikoa.....	98
4.1. Elkarrizketaren analisia.....	99
4.2. Diskurtsoaren analisia.....	104
4.3. Glosarioa. Nozio diskurtsiboak.....	108

5. Metodoaren aplikazioa eta emaitzak.....	111
5.1. Elkarrizketaren emaitzak.....	112
5.2. Diskurtsoaren analisisa.....	122
5.2.1. Nazionalismo klasikoaren desegitea.....	139
5.2.2. Aldarrikapen feminista.....	145
5.2.3. Egunerokotasunari keinua: egunkaria.....	149
5.2.4. Euskararen erabilera Zakilixuten mintzairan.....	152
5.2.5. Olariagaren komikigintza.....	158
6. Ondorioak eta diskusioa.....	160
Esker onak.....	169
7. BIBLIOGRAFIA	170
7.1. Doktorego tesiak.....	170
7.2. Artikuluak aldizkarietan.....	170
7.3. Prentsa-artikuluak.....	172
7.4. Monografiak.....	172
7.5. Bestelakoak.....	176

EDUKIEN TAULAK

Taula 1: Diskurtsoaren analisisian edukiaren eta adierazpenaren planoak abordatzeko eskema.	107
Taula 2: Diskurtsoaren analisisa abordatzeko eskema.....	122
Taula 3: Zakilixuten Programa Narratiboaren egoerak.....	130
Taula 4: Zakilixutek topatzen dituen elementu naturalen zerrenda.....	133
Taula 5: Zakilixutek lurrari botatzen dizkion kalifikazioak.....	139
Taula 6: Zakilixutek tarteka esaten dituen hitzak euskara ez batuan.....	153

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Mafaldaren pasadizo bat.....	33
Irudia 2: 'Supermendikute' pertsonaiaren zinta komikoa.....	35
Irudia 3: Olariagak EGINen argitaraturiko lehen zinta komikoa.....	45
Irudia 4: Mesbah Yazdi aiatolah krokodiloa.....	53
Irudia 5: 'Ir a por lana y...' komikia.....	54
Irudia 6: 'Zer den'.....	56
Irudia 7: Teles eta Nikoren lehen istoriotxo 'Euzko Deyan'.....	57
Irudia 8: 'En las garras del monstruo centralista' biñeta.....	58
Irudia 9: 'Nuevo Estilo' istoriotxoaren xehetasuna.....	59
Irudia 10: 'El pastor guerrillero' istoriotxoaren biñeta.....	62
Irudia 11: Txikiren txiste politiko bat.....	63
Irudia 12: 'Profesor Pelito' pertsonaia.....	64
Irudia 13: 'Txorizo ta Txistorra', 'Mortadelo y Filemón' euskaratua.....	65
Irudia 16: 1977ko ekainaren 15eko hauteskunde orokorren emaitzak alderdika.....	70
Irudia 17: 'La Voz de España' egunkariko albiste bat euskaraz.....	74
Irudia 18: EGINen lehen 'Solasjaipausa' orrialdea (1977/09/29, or.31).....	84
Irudia 19: Jon Zabaletak urriaren 8an eta 9an egindako zintak, hurrenez hurren.....	85
Irudia 20: Zabaletaren zinten kokapena 'Solasjaipausa' orrialdean.....	85
Irudia 21: Juana Bixenta eta Zakilixut pertsonaien kokapena 'Solasjaipausa' orrialdean.....	87
Irudia 22: Eguillorren zinten kokapena 'Solasjaipausa' orrialdean.....	88
Irudia 23: Olariagaren 'Mozorrozko' pertsonaia.....	90
Irudia 24: Zakilixuten berezko zenbait hitzak agertzen dituen zinta komikoa.....	91
Irudia 25: Zakilixuten zinta, ia xehetasunik gabeko zuhaitzekin.....	94
Irudia 26: Zakilixuten zinta, 'pop' estiloa nabarmen.....	94
Irudia 27: Biñeta-arteko elkarrizketa Zakilixuti.....	95
Irudia 28: 1977ko Gabonetako Zakilixuten zinta komikoa.....	96
Irudia 29: Zabaletaren barraskiloa, Juana Bixenta eta Zakilixut Eguillorren zinta komiko batean.....	97
Irudia 30: 1977ko Gabonetako Zabaletaren zinta komikoa.....	97
Irudia 31: Profesor Cojonciano, ©Óscar Nebreda marrazkilariaren pertsonaia.....	100
Irudia 32: Roberto Fontanarrosaren komiki-konpilazio baten azala.....	116
Irudia 33: Zakilixut, guztiz biluzik.....	117
Irudia 35: Kalekoren lehen zinta.....	126

Tesi honen nondik norakoak

Txikitatik izan dut marrazteko ohitura. Ezinezkoa zait nire haurtzaroaren txokorik ezkutuenetara jotzea arkatx edo margo bat gertu ikusi barik. Hamar urte eskas bete nituela, oraindik gogoratzen dut ama amonarekin berbetan, azken honek nire urtemugarako opari originala egin nahi zidala. Amaren erantzuna, niri egin zidakeen oparirik hoberena “papera eta arkatza” zirela. Horren zehatz, horren xume.

Marrazkilaritzarekin izandako enpatia pertsonala izan da, beraz, ikerketa hau egiteko lehen motibazioa. Haurtzaroa pasa nuen marrazki bizidunak ikusten eta paperera pasatzen. Gerora, komiki narratiban sartu zitzaidan interesa, nire lehen istoriotxo traketsak ekoiztuz, biñeta bakoitza folio oso bana zela. Teknika eta pazientziak lagundu ahala ikasi nuen orrialde batean biñeta bat baino gehiago sar zitezkeela, eta 15 urterekin hasi nintzen Irungo *Gazteleku* eraikinean komiki klaseak jasotzen, Jorge Madejón marrazkilariak asteazkenero ematen zituenak. Beti egongo natzaio eskertuta, 2005ean bere laguntzaz baliatuta *Poker Face* fanzine moduko aldizkaria argitaratu baikenuen beste kide batzuekin batera, Irungo Udalak lagunduta. Garai artatik Arte Batxilergoa egiten nengil, Irungo Pio Baroja ikastetxean, eta bertoko aldizkarian komikiak argitaratzen zizkidaten. Jorgek irakatsitakoa aplikatzeko aukera bikaina, beraz.

Urteak pasa ahala, ez dut inoiz ilustrazioan eta komikian interesik galdu: Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatu aurretik, Gasteizko Arte eta Diseinu Eskolan Irudigintza ikasketak egin nituen, bai eta aldizkari zein egunkariaren batean zinta komikoak argitaratu ere.

Eta karrera amaituta masterra egiten ari nintzela, 2011. urte aldera, tesia egitea planteatu nuen. Denboraren inbertsioari so, gutxienez hiruzpalau urte egingo nituen ikerketan. Merezki zuen zinez gozatuko nuen ikerketa objektu bat aztertzea. Gizarte komunikazioa eta komikigintza elkartzten zituen objektua behar nuen, eta horra non piztu zitzaidan lehen argia: umore grafikoari buruzko tesia egitea. Are gehiago: karreraren hasieretatik interesa pizten zidan autore bati buruz egingo nuen, Antton Olariaga (hemendik aurrera A.O.) ilustratzailea, zeinaren zinta komikoak BERRIA egunkaritik gogo biziz irakurtzen nituen.

Aski ziren orduan Espainia mailako umorista grafiko famatuei buruzko tesiak, batez ere Trantsizio garaikoak; ordea, A.O.ri ez zion, orain arte behintzat, inork tesirik dedikatu. Are gutxiago beraz Zakilixuti, periodiko irakurle euskaldunen artean hain ezaguna den pertsonaia lizun eta atrebitu horri.

Honela jaio zen 2012ko irailean aurkeztu nuen tesina, *Umore berbal eta bisuala* Zakilixuten, Gizarte Komunikazio Masterreko titulua eskuratzeko. Emaitzak

probetxugarriak izan ziren, eta urte bat geroago, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak diru-laguntza eskaini zidan A.O.ri buruzko tesi hau burutzeko. Banuen beraz, tesinatik lorturiko material bibliografikoa, finantziarioa eta liluratuko ninduen ikerketa-objektua.

Zalantza barik, ikerketa hau izan da, nire formazio prozesuan egin dudan gauzarik probetxugarriena, eta aztertu dudan jakintza arlorako beste horrenbeste izan dadila nahiko nuke. Bai eta A.O handiaren gustuko, bere arkatzari zor baitio Euskal Herriak azken urteotan tokiko umore grafikoak izandako bultzadarik oparoenetakoa.

Irakurketa gida

Edozein ikerketa lanetan, beharrezkoa da sistemak ezartzea: adierazkortasuna eta ulergarritasuna eskutik joan beharra dute, zehaztasunarekin batera. Hurrengo epigrafean, irakurketa egoki baterako irakurleak jakin beharrekoak zehazten dira. Ikerketaren hizkuntzen kudeaketatik hasiko da, ezein lanaren hizkuntza euskara izanda ere, hizkuntza honen egoera gutxituak ez duen onartu erabilitako bibliografia osoa euskaraz topatzea, eta ondorioz, ingelesezko zein gaztelerazko hainbat zita ere sartu dira. Hizkuntzak nahastu ez daitezzen **sistema tipografiko zehatza diseinatu da**, non hizkuntza bakoitzari tipografia desberdin bana esleitzen zaion, irakurleak jakin dezan unean-une zer hizkuntzaren aurrean dagoen.

Bestalde, zita-politika ere zehaztuko da, *A.P.A Harvard* estiloaren pean, bai eta bibliografia nola antolatu eta gestionatu den *Zotero* kudeatzaile bibliografikoa baliatuz, ikerlari honek ezagunen duena eta luzaz erabili duena argitalpenetarako. Beharrezkoa da gestorearen aspektu tekniko batzuk ñabartzea, zita-sistema bera eta bibliografiaren ordena ere ulertzeko.

Esandakoaz gain, ikerketaren corpus barneko erreferentziak nola kudeatzen diren adierazten da: nola idazten diren monografiak, egunkarien eta aldizkarien izenburuak, tipografia desberdinekin, betiere irakurleak jakin dezan zein motako obraren aurrean dagoen. Halaber, badira hainbatetan eranskinei egiten zaizkien erreferentziak, ikerlanaren amaieran eta **zenbakitze propio batekin** txertatu direnak irakurlea behin eta berriz bertara joan dadin informazio bila, ikerlanaren gorputzak bere exekuzioan zehar izan dituen luzera-aldaketek azken honen ordena alderatu ez zezaten.

Amaitzeko, irudiak nola zitatzen eta corpusean nola txertatzen diren azaltzen da, eta testuan erabiltzen diren laburduren esanahia zehaztu.

Ikerlanaren hizkuntzak

Ikerketa honen objektua, Zakilixut pertsonaiaren komiki zintak hain zuzen, euskaraz zeudenez, tesia berorren sortzaile Antton Olariagaren (A.O.) pertsonaiaren hizkuntzan egitea erabaki zen. Euskarak, dagoeneko zientzia arloan moldatzeko adina normalizazio eskuratu duenez, euskara **batua** erabili da, Euskaltzaindiaren arauak modu ahalik eta estuenean betez.

Halaber, beharrezkoa iruditu zitzaidan euskarazko bibliografia erabiltzea. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK (E.H.U.) hainbat ikerlan argitaratu ditu hizkuntza honetan, eta Unibertsitateko liburutegian diziplina ezberdinetako zenbait obren bertsio euskaratuak topatu ahal izan dira. Zoritxarrez, euskaratutako obren bertsioak ezin izan ditut beti eskura izan, ez E.H.U.n, ez bertotik kanpo, eskuragarri ez zeudelako, edo existitzen ez direlako. Hala izanik, euskaraz topatu ezin izan ditudan iturriak **ingelesez idatzitakoan artean bilatu ditut**, askoz eskuragarriago eta zientziaren nazioarteko hizkuntza izanik.

Euskaraz zein ingelesez topatu ez diren ikerlanak, gazteleraz ekarri ditut –izatez, moldatzen naizen hizkuntzak **euskara, gaztelera eta ingelesa** baitira–. Hortaz, nahiz eta tesia euskalduna izan, eta erabilitako bibliografia ahal bezain euskalduna ere, badira hainbat zita ingelesez eta gazteleraz, **jaso diren iturrien hizkuntzan mantendu direnak**. Halaber, **badira kasuan-kasu zenbait zita gailegoz eta frantsesez**, hizkuntzok gaztelerarekin duten antza ortografiko eta sintaktikoagatik ulermen arazo handirik suposatzen ez duenak.

Irakurlearengan nahaste handia ez sortzearen, tipografikoki ere ezberdindu dira erabilitako hizkuntzen zitak:

- a) Euskarazko testuak, Times New Roman tipografiarekin idatzi egin dira.
- b) Ingelesezkoak, Arialekin.
- d) Gazteleraz zein bestelako erromantze-hizkuntzatan idatzitakoak, Garamondekin.

Hizkuntza bati edo besteari letrakera bat edo beste esleitzeko irizpidea subjektiboa izan da, baina betiere irakurgarritasuna laguntzeko.

Euskal Herriaren kontzeptuaren izendapena

Ulermenaren ildotik, euskaraz ere politikoki korapilatsua izan daitekeen terminoetako bat nola erabili zehaztu beharra dago, ikerketan hainbatetan agertzen dena: Euskal Herria (E.H.). Ikerketa, umore grafiko euskaldunean zentratzen denez, mahiz agertzen den izendapena da hau.

E.H., EUSKALTZAINDIAK Abadiñon 2004. urtean indarrean jarritako 139. arauari segika ulertzen dut:

Euskaltzaindiak, politika alorretik landa eta sineste zein ideologia guztien gainerik [...] nahitaezkoa dakusa *Euskal Herria* izenaren egokitasuna eta zehaztasuna berrestea. Izen hori guztiena da, eta horregatik ezin daiteke alderdikeriaz erabil, zoritxarrez inoiz gertatu eta orain ere gertatzen bada ere. [...] Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela izate politiko administratibo konkretu baten baliokide.

EUSKALTZAINDIA, 2004, or. 470

Hortaz, edozein ulermen politikotik hartuko dut E.H., **hizkuntz-komunitate jakina izendatzen duen berba bezala**. Esandakoari gehitu behar zaio Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeek egun elkarren artean sortutako autonomia erkidegoari 'Euskal Autonomia Erkidegoa' (E.A.E.) deitzen diodala, bide juridikotik. Izendapen horretatik aparte *Euskadi* ere erabiltzen dut hiru lurraldeen batasuna izendatzeko, beste behin bide juridikoari jarraituz.

Ñabardura politikoei jarraiki, ikerketa honetan hainbat dira jorratuko diren gaiak, E.H.ko historiaren zati jakinei dagozkienak. Bereziki politikoak diren gaiak azaldu behar izan dira sarritan, Espainiako Trantsizio uneko afera soziopolitikoari men egiten dietenak, gauzaturiko analisiak ongi uler daitezten. Deskribatzen diren inguruko gertakarien balorazio pertsonalik ez dut eman: kutsu politikoa ager dezaketean azalpen guztiak ikerketa-objektuak hala eskatuta eman dira, autorearen iritzi pertsonala gibelean utziz. Modu berean, terminoak ahalik eta tentu handienez maneiatu dira, kontraesanik gerta ez dadin. Irakurlearen ulermenarekin kontatzen da, beraz, une oro.

Zita politika eta bibliografia

Erabili den zita sistema *A.P.A. Harvard*¹ izan da. Sistema ohikoena da zientzia aldizkarietan, bai eta erosoena ere zitak eta erreferentziak testuan txertatzeko. Gainera, oinpeko notak eta bibliografia orrialdeetan nahastu ez daitezela saihesten du.

Halaber, tesiaren corpusean bertan txertatzen diren liburu, entziklopedien, monografiaren eta egunkariaren izenburuak MAIUSKULA TXIKIZ idatzi dira, eta artikuluen, aldizkariaren eta bestelako dokumentuaren izenburuak, *italikoz*. Modu honetan, eta batez ere artearen egoerari dagokion atalean, errazten da obrak begiz jota sailkatzea, beste behin irakurgarritasunaren mesedean. Halaber, eta aipaturiko forma tipografiko hauei segidan, italikoak ere baliatu dira testu barnean txertatzen diren zitatarako **hauek euskaraz ez badaude**, eta modu honetan, gainontzeko testuaren hizkuntzarik desberdintzeko. Aldi berean, alderdi politikoen, erakundearen eta ikerketa-taldearen izenak ere MAIUSKULA TXIKIZ idatzi dira.

Hainbat baliabide digital ere erabili dira tesi honen buruketarako. Bibliografia, sarri askotan sarean dago eskuragarri, kasuan kasu aipatu beharreko datua. Sareko baliabideen estekak oso luzeak dira askotan, irakurlearentzako deserosoak. Modu berean, gaur U.R.L jakin batean dagoena, bihar tokiz aldatu daiteke. Aipaturiko bi arazoak saihesteko:

- a) Bibliografian agertzen diren U.R.L.ak beti dira laburrak, hots, webgunearen izena, / barra eta, gehien jota, **hiru etiketa**.

¹ A.P.A estilori buruzko informazio eta xehetasun guztiak apastyle.org webgunean aurki daitezke (2016/02/11).

b) Material bibliografikoaren kokapena askoz aurretik aipaturikoa baino luzeagoa izango balitz, *Googlek* eskaintzen duen U.R.L laburtzailetik (<http://goo.gl>) pasa izan da. Edozein kasutan, beti adierazi da materiala noiz kontsultatu den (parentesi artean, urtea, hilabetea eta eguna, zenbakietan).

Bibliografia atalean, material guztia bost bloketan sailkatua agertzen da: doktorego tesiak, artikulua aldizkarietan, prentsa-artikulua, monografiak eta bestelakoak (azken honetan biltzen dira aurrekoetan sailkatu ezin izan direnak).

Eranskinak

Ikerlan honi lau eranskin txertatu zaizkio. Lehen biak labur xamarrak badira ere, laugarrenak ikerketarako lagin osoaren orrialdeak eta euren analisi tematikoaren garapena daukate. Honela, eta dokumentu berean ikerketa eta eranskinak sartzea orrialdeen zenbakiak ikerketaren gorputza eraldatzen zen heinean etengabe aldatzea suposatzen zuenez, eranskinak amaieran kokatzea erabaki zen, txosten independente moduan, eta numerazio berezko batekin: eranskinen lehen orrialdetik, 1 zenbakia hartu eta amaierara arte doaz orrialdeak. Honela, ikerketaren corpusean eranskinen bati erreferentzia egitean, zuzenean zehazten da eranskinen ataleko zer orrialdetan dagoen, beti berdina dena eta irakurleari lanak aurrezten dizkiona.

Irudiak

Tesi hau irudietan oparoa da. Irudiak, zinta komikoak gehienbat, aldizkari eta periodikoetatik ateratakoak dira. Irudi bakoitzaren oinean **iturria adierazten da beti**, jatorrizko medioa, data eta orrialdea zehaztuz. Kasuan kasu, Internetetik jasotako irudi guztiekin aurreko atalean aipaturiko arau bera segitzen da: iturrian U.R.L.a adierazi, dataren segidan.

Irudia

Irudia X: Irudiaren izenburua.
Iturria: Irudiaren iturria/U.R.L.a (uuu/hh/ee)

Irudiak ez dira bibliografiaren atalean jaso, berez bibliografia ez diren aldetik. Alta, irudien aurkibide bat prestatu da, auren identifikazioa errazteko.

Laburdurak

Testuan zehar, hainbat termino eta kontzeptu etengabe errepikatzen dira. Irakurlea ez nekatzearren, eta idazketa ekonomiagatik, laburdura guztiak ikerketa hasi aurretiko atal honetan jaso dira, irakurlea bertara etor dadin behar duen beste.

Hala ere, irakurketa erraztearren, testuan agertu ahala ere aurkeztuko dira laburdurak.

Ikerketa objektuari lotutako kontzeptuak	Metodologiari lotutako kontzeptuak	Alderdiak eta mugimendu politikoak	Herrialdeak	Instituzioak
A.O.	E	E.E.	A.E.B.	E.H.U.
Antton Olariaga. Marraskilaria.	Egoera.	EUSKADIKO EZKERRA. 1977ko ezker abertzaleko alderdiak elkartzen zituen koalizio politikoa (gaur egun P.S.E.* alderdian integratua, P.S.E.-E.E./P.S.O.E.*ren pean).	Ameriketako Estatu Batuak.	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.
B.E.E.	F	E.T.A.	E.A.E.	R.A.E.
<i>Barraskiloa eta Elefantea.</i> Jon Zabaleta marraskilariak EGINEN marrazturiko zinta komikoen seriea.	Figura.	EUSKADI TA ASKATASUNA. Banda armatua.	Euskal Autonomia Erkidegoa.	REAL ACADEMIA ESPAÑOLA.
B.S.B.	O	P.S.E.	E.B.	
<i>Beltza Superbeltza.</i> Juan Carlos Egillor marraskilariak EGINEN marrazturiko zinta komikoen seriea.	Objektua.	PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI. P.S.O.E.* alderdi sozialistako federazioa Euskadin (P.S.E.-E.E.*P.S.O.E.).	Erresuma Batua.	
E.H.	PE	P.S.O.E.		
Euskal Herria.	Paper Ekintzailea.	PARTIDO SOCIALISTA OBRERO ESPAÑOL. Espainiako alderdi politikoa.		
J.B.	PN	U.C.D.		
Juana Bixenta Olabe. Pertsonaia komikoa.	Programa Narratiboa.	UNIÓN DE CENTRO DEMOCRÁTICO. Espainiako alderdi politiko ohia.		
K.G.	S	H.B.		
Komunikazio grafikoa.	Subjektua.	HERRI BATASUNA. Euskadi eta Nafarroako alderdi politiko ohia.		
U.				
Umorea.				
U.G.				
Umore grafikoa.				
Z.				
<i>Zakilixut.</i> A.O.*ren pertsonaia.				
Z.K.				
Zinta Komikoa.				

1. Sarrera

Sarreratik justifikatuko da lan honen ikerketa objektua zein den.

Izenburura joz, *Antton Olariagaren umore grafikoa EGIN egunkarian*. Zakilixut *seriearen diskurtso umoristikoa (1977)* esaten da, agerian utziz zer aztertuko den hurrengo orrialdeetan. Antton Olariaga (hemendik aurrera A.O.), euskal umorista grafiko ezagunenetakoa da, erreferentea EGIN, EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta oraingo BERRIAN, bide luzaz bere pertsonaiarik aitzinekoena, Zakilixut (hemendik aurrera Z.), berezko duelarik. Z EGIN egunkarian jaio zen 1977ko irailaren 29an, eta gaurdaino biziraun BERRIA egunkarian. Azken honetan kontrazaleko azken orrian dauka tokia, kolorez, ikusgarritasun deigarriaz. Eta beti euskaraz.

Izenburuaren hitz gakoa *umore grafiko* berba da (hemendik aurrera, U.G.). A.O.ren U.G.a da tesi honetan ikertzen dena, oso berezko duen pertsonaia baten bitartez. Lehen sarrera honetan, beharrezkoa da beraz U.G.a zer den definitzea.

Baina U.G.aren kontzeptuak bi termino gordetzen ditu bere baitan: 'umore' eta 'grafiko'. Bigarrena ezagunagoa bada, lehena definitzeko zailtasunak ez dira gutxi. Hala ere, U.G.a zer den ulertzeko, **umorea ere zer den jakin beharra dago**. Honela, hurrengo puntuan hain korapilatsua izan daitekeen termino baten definizioa eskainiko da, unean-uneko erreferente teorikoei helduz.

1.1. Umorearen kontzeptuaren analisisa

Hiztegietara joz, gaztelera hizkuntzan erabilera ohikoenetakoak diren R.A.E hiztegia (*Real Academia Española*) eta Casaresena baliatuko dira, terminoak eguneroko bizitzan izan ditzakeen erreferentziarik topatzeko –gazteleraazko hizkuntzan, euskaraz besterik ez badago–.

R.A.E hiztegian *humor* hitza bilatzen bada, ondoko definizioa topa daiteke:

1. m. Genio, índole, condición, especialmente cuando se manifiesta exteriormente.
2. m. Jovialidad, agudeza. Hombre de humor.
3. m. Disposición en que alguien se halla para hacer algo.
4. m. Buena disposición para hacer algo.
5. m. humorismo (modo de presentar la realidad).
6. m. Cada uno de los líquidos de un organismo vivo.
7. m. Psicol. Estado afectivo que se mantiene por algún tiempo.

Casaresen hiztegiak, bere aldetik, kontzeptutik bere definiziora joatea ahalbidetzen du, bai eta alderantzizko bidea egitea ere, hots, kontzeptu batekin zerikusia duten terminoetatik kontzeptu nagusi horretara jotzeko aukera. Ondorioz, bilatzen diren terminoen azpian, bakoitzarekin zerikusia duten beste hainbat hitz zerrendatzen dira.

Humor hitza hiztegi honetan bilatzen bada, berorren azpian terminoen zerrenda luzea agertzen da, **gehienak gorputzen fluidoekin lotuak** (... *linfa, húmedo radical, humor pecante, humor vítreo, flema, mucosidad, bilis, grasa...*). R.A.E.k aldar-teari lotzen dio umorearen definizioa (*genio, índole, condición, jovialidad...*), bai eta egoera afektiboari (7. definizioa). Ordea, gero Casaresen erakusten diren fluidoek kontzeptuari heltzen die R.A.E.k, “*Cada uno de los líquidos de un organismo vivo*”, Casaresen hiztegiak zehaztu bezala, gorputzaren isurkinak. 'Umore' hitzak zuzenean eramaten du beraz Antzinate Klasikora, non umoreak **gorputzeko fluxuak ei ziren**, zer eta aldar-tearekin lotutakoak: isurki baten edo bestearen gailentasunak gizakiaren aldarte mota bat edo beste sortaraziko zuten.

Los estados de ánimo de los humanos se corresponden, según las primeras teorías de esbozadas por los griegos Aristóteles, Hipócrates² y Galeno, a los cuatro humores o líquidos internos que se alojan en el cuerpo y que en su equilibrio o desequilibrio, hacen mostrarse al humano como saludable o enfermo. Así, de la “justa mezcla” o proporción de la sangres, flema o pituita, bilis amarilla y bilis negra, depende el equilibrio de la personalidad. La descompensación de estos humores produce los seres melancólicos, flemáticos, sanguíneos o coléricos.

Conde, 2005, or.20

Honela, medikuntza hipokratikoan –Hipokratesek izena eman diona– umoreak aldartearen determinatzen duten fluxuak adierazteko erabiltzen ziren. Horregatik, egun, umore 'onez' edo 'txarrez' egotea esaten da, bai gazteleraz zein euskaraz, aldartearen kontzepzioa gorde izan delako. Nabari bedi ere 'umore' hitza, erromantze hizkuntzatan, hezetasunarekin lotuta dagoela, Fernández de la Vega idazle galegoak zehazten duen bezala:

Orixinariamenten tratase dunha palabra latina —humor o umor— que significa **humidade, fluidez**³. De aí vén, con significados semellantes, o francés “humeur”, o italiano “umore” e o castelán “humor”. Esta palabra desenvolveu, nas linguas romances, favorecida pola teoría dos humores, o senso de talante, estado de ánimo, o que chaman os alemáns “laune”.

Fernández de la Vega, 2002, or. 38

2 Zientzialari honek ematen dio izena medikuntza hipokratikoari, medikuntzaren oinarriak ezartzen dituen. Medikuntzaren aita kontsideratu dute zenbait adituk. Bere planteamenduaren erroa zera da: gaixotasunak ez direla jainkoen zioaren arabera agertzen edo sendatzen. Umorearen giza fluidoek teorizazioa lehen medikuntza honetan kokatu behar da.

3 Letra beltza nik jarritakoa da.

Jada ordea XVIII. mende hasieran, 'umore' berba arlo medikutik irten eta literaturara jauzi egingo du, eta Fernández de la Vegaren postulatuaren arabera, Cervantesek Don Kixoteren obra idatzi ostean gertatuko zen aldaketa, garaiko autore ingelesek *humor* hitzarekin genero literario jakin bat izendatzen hasi zirenean, autore espainiarra erreferente hartuz (Fernández De La Vega, 2002, or.39). Genero horretan, zer eta **ironia** zen nagusi:

Da complexa, rica e variada interpretação cervantina feita por ese românticos —os Schegel, Tieck, Novalis, Schelling, Jean-Paul, Heine, etc.—, destacan, como momentos essenciais em Cervantes, a ironía humorística, o simbolismo [...] dos personaxes e, sobre de todo, a invención o descubrimento pleno do humorismo.

Fernández de la Vega, 2002, or. 25

Ironia zer den R.A.E hiztegian ikuskatu ezker, zera dio:

1. f. Burla fina y disimulada.
2. f. Tono burlón con que se expresa ironía.
3. f. Expresión que da a entender algo contrario o diferente de lo que se dice, generalmente como burla disimulada.

Definizio hau oso antzekoa da Casaresen hiztegiak ironiarentzat proposatzen duenarekin:

Ironía. Burla fina y disimulada. Figura retórica que consiste en dar a entender lo contrario de lo que se dice.

Modu honetan, gaztelerazko bi hiztegiak *humor* hitzarentzako medikuntza hipokratikotik eratorritako esangura adierazten dute. Alta, *humor*- erroa duen beste termino bat ere iradokitzen dute, zein eta *humorismo*. R.A.E.n begiratu ezker, *humorismo* delakoa zera da:

De humor e -ismo

1. m. Modo de presentar, enjuiciar o comentar la realidad, resaltando el lado cómico, risueño o ridículo de las cosas.
2. m. Actividad profesional que busca la diversión del público mediante chistes, imitaciones, parodias u otros medios.

Casaresenak, ordea, dio:

Humorismo. Género de ironía amable en que se emana lo alegre con lo triste.

XVIII. Mendeko literato ingelesek, zioen Fernández de la Vegak, une jakin batean *humor* medikuntzatik atera eta literaturara eramaten dute. Nabaritu bedi hitz bera erabiltzen dela ingelesez gaztelerazko *humor* eta *humorismo* adierazteko. Oxforden hiztegian begiratu ezker, esaten da:

1. The quality of being amusing or comic, especially as expressed in literature or speech.
2. A mood or state of mind.
3. Historical count noun Each of the four chief fluids of the body (blood, phlegm, yellow bile (choler), and black bile (melancholy) that were thought to determine a person's physical and mental qualities by the relative proportions in which they were present.

Honela, *humor* berbak denotazio desberdinak gordetzen ditu bere esanguran. Gazteleraz zein ingelesez **aldartearen egoera** jakinak izendatzeko erabiltzen da, bai eta gorputzaren zenbait isurki izendatzeko. Ordea, Oxfordek *the quality of being amusing or comic* esangura adierazteko *humor* erabiltzen badu, gaztelerak *humorismo* baliatzen du, eta **iseka eta ironiarekin** lotuko lituzke, azken hau errekurtsio erretoriko moduan hartuta, non adierazten denak ez duen lotura zuzenik esanahiarekin. Euskaraz, bestalde, gramatikalki desberdintasuna markatzen da gaztelerarekin: Cervantesen hizkuntzako *humor* esateko, 'umore' erabiltzen da, eta hizkuntza bereko *humorismorako*, 'umorismo'. Ordea, medikuntzatik eratorritako isurkinei *humore* deritze, hatzez.

Ikerketa honetan beraz egokiagoa litzateke 'umorismo' berba erabiltzea euskaraz, gazteleraz *humorismo* bezala definitu denaren bidetik ulertzen baita esku-artean dagoen objektua. Ordea, ikerketaren erreferenteak ingelesez hartu direnez, non 'umore' eta 'umorismoren' artean desberdintasun morfologikorik ez dagoen, **'umore' terminoa erabiliko da**. Nabarmentzen da halaber txosten honetako 1.2.3 epigrafean (“Euskal umorearen nolakotasunak”), euskaraz garatutako umorea ikertzen duten erreferente teoriko gehienek –aurreratzen da Juan San Martin (1962, 1987), Joxerra Garzia (1987) eta Kike Amonarriz (2017) direla– 'umore' berba baliatzen dutela 'umorismo' beharrean, Pío Baroja izan ezik, zeinak gazteleraz idazteagatik *humorismo* erabiltzen duen, materia honi dagokion obra aipagarria den LA CAVERNA DEL HUMORISMO entseguaren izenburutik bertatik (Baroja, 1986). Hala bada, 'umore' erabiliko da lerro hauetatik aurrera, eta terminoa, momentuz, honela ulertuko:

umorea errealitatearen aurrean hartzen den jarrera baikor eta alaia da, non umoristak errealitate hori adierazten duen –ez bakarrik modu linguistikoan, baizik eta arteak ametitzen dituen formatu amaigabeetan– errealitate horren alde positibo eta dibertigarria nabarmenduz.

Jarraian ekarriko diren erreferente teorikoen postulatuak aztertzea geratzen da ordea, emandako definizio probisional hau hobetua izan dadin.

Zehaztu behar da jarraian ekarriko diren erreferente teorikoek sarri askotan umoreaz hitz egin baino, berorrekin loturarik izan dezaketen fenomeno eta kontzeptuez arituko direla, adibidez, barreaz. Barrea ez da umorea, baizik eta artikulazio psikiko konplexu baten bidez agertzen den manifestazio fisikoa, jeneralean alaitasuna adierazten

duena (R.A.E., 2017). Ordea, R.A.E.ren definiziora bueltatuz, *Modo de presentar, enjuiciar o comentar la realidad, resaltando el lado cómico, risueño o ridículo de las cosas*, argi dago umorearen ondorioz edo ekintza umoristiko baten aurrean jartzen denak barre egin dezakeela. Hortaz, autore jakinek barreaz hitz egingo dute berorren atzetik artikulatzen diren prozesuak aztertzeko (moralak –Aristoteles edo Platon, adibidez) edo psikologikoak –Freud–), eta hortik eratorri daiteke umoreaz ezartzen dituzten lehen postulatuak.

Hau dena esanda, ikertutakoaren arabera, umorearen (hemendik aurrera, U.) analisirako hiru bide proposatuko dira jarraian, eta bideotan autore eta premisa konkretuak:

- **U.aren analisia, bide psikologikotik.** Hemen sartuko dira U.-ekintza berorren sintoma fisiko eta psikologikoetatik definitzen dituzten autoreak, Antzinatasun Klasikotik hasita.
 - Horiek dira: Aristoteles (Aristotle⁴, 2008) eta Sigmund Freud (1927, 1979).
- **U.aren analisia, bide soziokulturaletik.** Hemen sartuko dira U.aren funtzio sozialak identifikatuko dituzten autoreak, U.-ekintzak gizartea gidatzen duten hainbat portaeren artean txertatuz.
 - Horiek dira: Platon (Plato, 369-347 K.a./1892), Hobbes (1995), Joubert (1579/2002), Bergson (1899/1914) eta Berger (1998).
- **U.aren analisia, bide estetikutik.** Bloke honetan, U.-ekintzak joko modura ulertzen dituzten erreferenteak daude, ekintza jostagarri gisa, mintzairaren bidez artikulatzen direnak eta atzetik estrategia jakinak ezkututzen dituztenak.
 - Horiek dira: Richter (1812) eta Eco (1980).
- **U.aren analisia, bide diskurtsibotik.** U.-ekintzek diskurtsoari zer ekarpen egin diezaioketen aztertzen duten autoreak sartzen dira hemen. Halaber, zenbait genero artistiko ere aipatzen dituzte bloke honetako autoreek, umore-ekintzatik at ulertu ezin daitezkeenak.
 - Horiek dira: Aristoteles (Aristotle, 360 K.a.) Zizeron (Cicero⁵, 46. K.a.) eta Kintiliano (Quintilian⁶, 95 K.o./2011).

4 Bibliografian, izena ingelesez.

5 Bibliografian, izena ingelesez.

6 Bibliografian, izena ingelesez.

1.1.1. Umorearen analisia. Ikuspegi psikologikoa

Atal honetan, denboraz elkarren artean urrun dauden bi pentsalariren lanak aukeratu dira: Aristoteles eta Sigmund Freud. Filosofoa bata, psikoanalista bestea, biek eskaintzen dute U.aren ikusmolde **sintomatiko bat**, garai desberdinetatik bada ere: Aristotelesentzat, U.a katarsian amaitzen den jokaera lasaigarria da, behe-mailako antzeppen-generoa den komediaren bidez lortu ahal dena. Freudentzat, ordea, U.a haurtzarorako erregresio modua da, non inkontzientea⁷ tentsioetatik liberatu egiten den araututa dauden mugetatik gaindi. Hel dakien banan banan.

Filosofo greziarrak onartu egiten zuen gizakia gizaki dela irribarre egiten hasten denean⁸. Badirudi U.aren manifestazio gizatiar ohikoena barrea omen dela, pasio gizatiarrak liberatzen diren unean agertu daitekeena.

Barrea, gizarte/kultura bakoitzean bere 'erabilera arau' propioak dituen, bere atzetik dagoen **efektu psikologikoaren sintoma** besterik ez da: norbera pozten duen zerbaitetik, patologia mental bateraino. Edozein kasutan, **barrea ez da U.aren sinonimo**, ez eta beti berorren sintoma ere. U.a, barrearen atzetik mugitzen den ezer da, barrea sortarazten duena edo dezakeena.

Barrearen sintomatologia aipatuta, antzerki-generoei buruz hitz egitekotan argi ei dago **komedia** aipatu daitekeela U.-formetatik gertuen dagoen genero modura. Eta komedia, Aristotelesentzako, **behe-mailako generoa da**, publiko-aurrean irudikatzen diren antzerki generoei so. Bere berezitasun partikularrena, **itsusia erakusten** duela da, gizartearen imajinario orokorrean gaitzezgarri kontsideratzen dena agerian uzten duena, eta pena ematen ez badu, hilaritatea sortarazten du:

Comedy is [...] an imitation of characters **of a lower type**, not, however, in the full sense of the word bad, **the ludicrous being merely a subdivision of the ugly**⁹. It consists in some defect or ugliness which is not painful or destructive. To take an obvious example, the comic mask is ugly and distorted, but does not imply pain.

Aristotle, 2008, atal.V

Pentsalariaren aburuz, itsusia ederraren kontrakoa da, hots, bere parteen antolaketan ordenamendurik ez duen eta begiaren pertzepziotik ihes egiten duen errealitatea (Aristotle, 2008, atal.VII). Itsusiak emozio ezberdinak sortaraz ditzake, beldurra kasu, edo barregura.

Eta nolakoa da *itsusi* hori barregura sortzeko? Ez du zehazki aipatzen. Hala ere, pentsa liteke komeriak ekintza umoristikoa artikulatzen duela **aurkezpenaren bidez**: aitzitik ezkutua zegoen zerbait, itsusia eta itxuragabekoa, argitara ateratzen da. Itsusi

7 'Subkontziente' hitza jendarteratu bada ere, psikoanalistak baliatzen duen jatorrizko terminoa 'inkontzientea' da, alemanaren *unterbewusstsein*.

8 Ildo honetatik, Peter L. Berger soziologoak Aristoteles parafraseatu zuen, termino berri batekin, alegia, gizakia gizaki izanen dela *homo sapiens* izatetik *homo ridens* izatera pasatze denean (Berger, 1999, or.225).

9 Letra beltza nik jarritakoa da.

horrek beldurra edo errukia sortarazi ez badu, barregura bultza dezake.

Zentzu horretan, lotura estua dauka tragediarekin, nahiz eta azken hau “goi mailako generoa” izan Aristotelesentzako. Gizakiak, diren baino hobeto aurkezten ditu tragediak, eta tratamendu dramatikoaren bidez, galbidera eramaten. Komedian, **ikuslearen azpitik** dagoen gauza itsusiak erroreak eta gabeziak aurkezten ditu, eta barregarria dena **katarsira** daroa. Bai tragedia, bai komedia, **gizakiaren imitazioa dira**: bata, beldurra eta errukia sortzen ditu; besteak barregura, eta bien jomuga katarsia da, hots, giza pasioen askapena.

Komediak barrea askatzen du, hilaritatea, lasaitasuna. Efektu psikologikoak dira hauek denak. Zentzu horretan, populua dibertitzeko generoa da komedia, eta U.a beraz, barrea sortaraz dezakeen hori, jolasa besterik ez litzateke, katarsirantz habiatzeko bidea.

Pentsalariak komediari buruz hainbat idatzi bazuen ere, idazkiok denborak jan ditu. Ordea, bere “Poetika” lanean (THE POETICS, Aristotle, 335-323 K.a./2008) komeriari buruz ikertu zituen zenbait aspektu sintetizatzen ditu, olerkigintza dramatikoaren artetik.

* * *

Aristotelesen kasuan katarsiaz mintzo izan da, eta pasioen askapena aipatu. XX. mende hasierara jota, psikoanaliaren aita Sigmund Freudek askapen psikologikoaz ere hitz egingo du, inkontzientearen mekanismoen berri emanda. Ametsak, inkontzientearen adierazpen sinboliko dira askotan, eta U.-ekintzak ere bai. Konkretuki, bere EL CHISTE Y SU RELACIÓN CON LO INCONSCIENTE obran (Freud, 1905/1979), txistearen berri ematen du, erregresio modura ikertuz, alegia, gizakiaren inkontzientearen barruan dauden ezinegonen sublimazio teknika gisa.

Txistea kontakizun bat besterik ez da, U.aren sinonimo ez dena. Kontakizuna, beti laburra (Freud, 1979, or.15), **inkongruentziak, absurdoak eta joko erretorikoak baliatzen ditu adierazpen forma gisa**, eta diskurtso jakin bat artikulatzen du, entzuleak ulertutakoan plazera sortzen diona, jokoan parte hartzen du, efektu plazerrezkoa lortuz. Txistea zergatik sortu eta kontatu? Bada, erregresioa suposatzen duelako, ametsak bezala, egoera infantiletara: seriooki **esan ezin dena**, egoerak edo gizarte arauak hala eskatuta, forma bitxi eta alternatiboa hartzen dute txistearen bidez.

1927an artikulua laburra ere idatzi zuen Freudek, *El humor*, non EL CHISTEN jasotako abiapuntuetatik, U.a zer eta sentimenduen aurrezpen bezala kokatzen duen:

No hay ninguna duda de que la esencia del humor consiste en ahorrarse los afectos a que habría dado ocasión la situación y en saltarse mediante una broma la posibilidad de tales exteriorizaciones de sentimiento.

Freud, 1927, par.2

Egoera latz baten aurrean, U.-ekintza sublimazioa da, egoera zailei aurre egiteko modua, non subjektuak **bere handitasuna gailentzen duen egoeraren aurrean plazera ematen dion joko argi baten bidez**. Kasu honetan, eta hasieran ikusi bezala, ez da bozkarioak mugitutako ekintza, barne tentsioak baizik. Jokoa, plazera bilatzen duena, **sentimendu aurrezpena** suposatzen du inkontzienteki, eta modu honetan, lasaitasunaren bidez aurrera egitea.

Ondorioz, Freuden tesiaren arabera, U.a gizakiaren aurre-egiteko modua da, portaera argia eta bat-batekoa, jarrera konkretuetan gorpuzten dena (kasuan kasu, txistea kontatzea) eta ezinegonaren sublimazioa suposatzen duena, norbera bere inguruko egoeren gainetik kokatuz garatzen den fikzio pertsonala. Aristotelesentzat ordea katarsi joko bat da, herri xeheak ondo pasatzeko joko xumea.

1.1.2. Umorearen analisisa. Ikuspegi soziologikoa

Epigrafe honetan sailkatzen diren erreferenteek, umorea (U.) gizartearen arau-urraketa modura seinalatzen dute. Beste hitz batzuekin: U.ak gizartearen arauen barruan zer funtzio betetzen duen aztertzen dute. Gizartea, Peter L. Bergerren hitzetan, gizaki talde konplexu baten kideen arteko elkarreragiketa egituratua da (Berger, 1998, or.34).

Aurreko epigrafean bezala, kasu honetan barreaz egingo dute berba autore gehienek. Ez da bistatik galdu behar barreaz egiten dutenean ez dutela manifestazio sotilari buruz hitz egiten, baizik eta barrea eragiten duen barne-disposizioaz, alegia, errealitatearen ikuspegia zein den barrea eragiteko, eta horrek zer eragin soziologiko dituen pertsona-arteke bizitzan. Erreferenteok, kronologikoki, Platon filosofo grekotik hasten dira bere “Filebo” (PHILEBUS) lana hartuaz (Plato, K.a. 369-347/1892), non barrea –ondorioz ere berau mugiarazten duen edozein ekintza umoristiko– arimaren makurduraren ondorio gisa hartuko duen.

Mende batzuen tartea ere hartuko da ondoren, Elizak instituzionalizatutako Erdi Aroko gizartean adierazpen umoristikoek zeukaten funtzio mugatzaileaz aritzeko, arau estuetatik **distrakzioa** suposatzen zutelakoan. Jada berpizkunde garaian Thomas Hobbes filosofoa ekarriko da, non bere gobernu modu perfektua XVII. mende amaieran planteatzen duenean bere LEVIATHAN obran (Hobbes, 1651/1995), gizakiaren portaeraren nolakotasun guztiak kategorizatzeke lana hartzen duen hastapenetan, eta barrearentzako tokia hartu: Platonen antzeko posizioa hartuaz, barrea **biktima baten gutxitzearen eta norberaren goraltzearen ondorioz sortzen den manifestazioa da**, eta ondorioz, uzkurkeriaren ondorio, bizitza publikoan mugatu beharrekoa.

Hobbesek 1651ean LEVIATHAN argitaratuko bazuen, bere aurretik Laurent Joubert mediku frantziarrak bere “Traité du ris” (bibliografian TRATADO DE LA RISA) plazaratzen du 1579an (Joubert 1597/2002). Irizpide kronologikoaren arabera Hobbesen aurretik aipatu behar bada ere, hurrengo garaikidearekin badu postulatu komunik, Henry Bergsonekin hain zuzen: Joubertek barrearen ikusmolde aristotelikoa berreskuratzen du

–itsusia edo lizunaren aurrean barre egiteko fenomenoaz, U.ari halako funtzio zentsuratzaila antzemanaz–, eta jada 1914an, Bergsonek bere “Le rire” (THE LAUGHER) publikatu zuen (Bergson, 1914), non bere dedukzioaren arabera, barrea ez da baizik eta arau sozialen urraketaren ondorioz gizarte-kideei esnatzen zaien fenomenoa, **araua urratu duen horren zuzenketarako**. Hortaz, bai Joubertek, bai Bergsonek, U.-ekintza halako zuzenketa sozial onartu gisa ulertzen dute, eta euren aurrekoek, makurdura morala.

Peter L. Bergerrekin amaitzen da epigrafea, zeinak U.a, gizarteak gizakiari inposaturiko araei aurre egiteko portaera bezala hartzen duen, U.a pertsona batek aurretik inposatutakoa den errealitate baten berrirakurketa egiteko kemen bezala definituz (Berger, 1998, or.113-114).

* * *

Platon helduz, filosofoak ez du begi onez ikusiko Aristotelesen “Poetika” lanean jorratutako katarsi umoristikoa, ezein U.a –barrearen bidez adierazia– **errealitate itsusi baten gagnetik** gauzatzen den ekintza izaki, norberaren goraltzea suposatzen duen, eta ondorioz, moralaren makurdura. Tesi hau sostengatzeko, PHILEBUS lanean (Plato, 369-347 K.a./1892) elkarrizketa sokratikoa planteatzen du Platok, non beronen maisu Sokrates, Filebo pentsalari gaztea eta azken honen jarraitzaile Protarkok poztasunaren inguruan eztabaidan dauden, bi eskoletan banandurik:

- a) Giza plazer dionisiarrak eta unean-unekeo plazerren defendatzaileak (Filebo eta Protarko),
- b) eta jakituriaren eta arrazoimenaren defendatzaile Sokrates.

Sokrates eta Protarko bat datoz: eskala batean neurtuta, plazerik altuenak gorputzaren bidez dastatzen dira. Ordea, plazeraren esperimientua altuagoa izango da, plazer hori dastatzeko desira zenbat eta handiagoa izan. Baina plazerik handienek ere sor dezakete mina (Plato, 369-347 K.a./1892, atal.The pleasures of wantonness are more intense than those of temperance):

- Soc. [...] Answer now, and tell me whether you see, I will not say more, but more intense and excessive pleasures in wantonness than in temperance? [...].
- Pro. I understand you, and see that there is a great difference between them; the temperate are restrained by the wise man's aphorism of 'Never too much', which is their rule, but excess of pleasure possessing the minds of fools and wants becomes madness and makes them shout with delight.
- Soc. Very good, and if this be true, then the greatest pleasures and pains will clearly be found in some vicious state of soul and body, and not in a virtuous state.

Ekarritako dialogo-zatiaren arabera, **plazer handienek ere sor dezakete dolua**, eta ondorioz, horiek dastatzea arimaren eta gorputzaren dispozizio txarraren ondorio dira. Plazerek, beraz, osagarri nahasiak dituzte, izan ere, **plazer jakinak bakarrik neur**

daitezke sortzen duten minarekin batera. Honela, barreak ere bere azpitik mina gordetzen du (Plato, 369-347 K.a./1892, atal.The mixed feelings with which spectators regard tragedy and comedy), halako fenomeno bat, beste baten itsusiaren edo ezbeharraren aurrean norberaren goraltzearen ondorioz datorrena. Filosofo grekoarentzat, U.a **barrearen artikulazioa sortarazten duen fenomeno da,** makurdura moralaren seinale, eta makurdura den aldetik, eta irrien biktima denaren desgrazia bilatzen duelako, bizitza publikoan saihestu beharrekoa gaiztakeria. Hala baieztatzen du bere “Errepublikan” obran (bibliografian, THE REPUBLIC):

Nor should our citizens be given to excess of laughter—'Such violent delights' are followed by a violent re-action. The description in the Iliad of the gods shaking their sides at the clumsiness of Hephaestus will not be admitted by us. 'Certainly not.'

Plato, 370 K.a., lib.3, par.1

Platonek barrea saihesteko postura hartuko bazuen, beste horrenbeste Erromatar Inperioa jauzi eta kontsumatu zen gizarte kristau berrian, non Elizak gizartearen gidak hartuko zituen.

Garaiko gizartean, barrea mugiarazten duen orori mugak jarriko zaizkio. Konstantinoplako aitalehen izandako San Joan Krisostomoren ustez, Jesukristok inoiz ez omen zuen barrerik egin (Casas, 2000, or.279), eta horregatik kondenatu zuen ariotarren mugimendua, azken hauek euren laguntza erlijiosoan alabantza, kantua eta barrea onesten zituztelako (Cándano, 2010, or.6). Krisostomo jarraituz, Zesareako apezpiku Basiliok bere izkribuetako batean barrea debekatuko du (*Patrologiæ Græca*, 31, 1.103 zutabea¹⁰):

Orain barre egiten dutenak Jaunak kondenatzen dituelako, argi dago ez duela barre egiteko garairik izango. Are gehiago Legea urratuz bidegabekeria egin dutenek herio bekatuagatik laster entregatuak izango direlako, euren alde negar egitea komeni da.

Baina juzku eta debeku hauek ez dira aginduetan soilik geratuko: fraide-erregeletara joz, Benedikto Deunaren Erregela topatu ahal da; VI. mendetik aurrera, Nurtsiako Benediktok bere Erregelaren 6. kapituluan, isiltasunaren bertuteari eskaintzen diona (*taciturnitas*)¹¹:

En cuanto a las bromas, las palabras ociosas y todo lo que haga reír, lo condenamos a una eterna clausura en todo lugar, y no permitimos que el discípulo abra su boca para tales expresiones.

10 Erreferentzia, Migne autorearen bildumatik atera izan zen (Migne, 1885). Jatorrizko izkribua latinez dago jasoa, hemen euskaratu delarik. Jatorrizkoa, hauxe:

Cum Dominus eos qui nunc rident, condemnet, perspicuum est nullum tempus fideli ad ridendum unquam dari: maxime, cum tot sint, qui Deum ignominia afficiant per legis violationem, et in peccatis mortu tradantur, pro quibus moerere convenit ingemiscere.

11 San Benito de Luján monasterioko webgunetik hartu da testua (<http://www.sbenito.org/regla/rb.htm> [2016/02/08]).

U.-ekintzen sintomak izan zaitezkeen adierazpenak mugatuz, U.-ekintza bera ere mugatu daiteke. U.a, distrakzio gisa hartua da orduko Elizarengatik, eta ondorioz, muga oso hertsien barruan bakarrik ametitu daiteke, garaiko arau soziologikoetako bat bilakatur.

Barreari bizitza publikoan mugak jartzeko tendentzia bera Thommas Hobbesen estatu ideialean topa daiteke, LEVIATHANEAN hain zuzen (Hobbes, 1651/1995). Hobbesek bere LEVIATHAN delakoa idazteko, non bere aburuz estatu-forma bikaina izango zena diseinatu zuen, gizakia bere horretan nolakoa den eta sozialki nola portatzen den ezagutzeko analisia egiten du LEVIATHANAREN hasieretan (“Gizakiaz”). Gizakiaren nolakotasunen arabera diseinatuko du gero estatu-forma.

Barrera jorratzen du, “bat-bateko entusiasmoa” deituaz, eta dio,

Bat-bateko entusiasmoa, barrea, deritzen keinu horiek egitera garamatzen grina da, eta/edo egiten dutenei atsegina zaien ekintza batek sortua, edo **beste pertsona batengan deformazioaren bat hautematetik etorria izaten da**¹², honek, konparazioz, hautemaileek bat-batean **beren burua goraltzea** dakarrelarik. Grina hau daukatena, beren ahalmen-urritasunaz kargutzen direnak eta beste gizakume batzuen akatsak erreparatuz euren buruestimuari eusteko premia dutenak izan ohi dira sarriagotan. Besteen akatsei barre egitea, beraz, **uzkurkeriaren seinale** da.

Hobbes, 1651/1995, or. 69-70

Hobbesentzat, U.a **uzkurkeriatik gertu** dago. Barrea sor daiteke, batetik, atsegina den zerbait hautemanez, edo bigarren baten akatsak aztertuz; horrek “bat-bateko entusiasmoa” deritzona bultzatzen du, eta horrek, berriz, barrea. Bi aukerek dute komunean ezer: irri egiten duenaren goraltzea, norberaren gutxiespen sentipenaren seinale, buruestimuari eusteko – Platonen posiziotik gertu –.

Hobbesek ez du bakarrik barre ekintza gutxiesten: U.a lantzeko eta hizkuntzari loturik dauden forma erretorikoak ere 'kondenatzen' ditu (txistegintzan mahiz erabiliak, ironia kasu), diskurtsoan egia deformatzen dutelakoan.

Absurduaren kausak [...] 6)¹³ Hitz egokiak erabili beharrean, metaforak, tropeak eta beste figura erretorikoak erabiltzea. Zeren, hizkera arruntean legezko den arren, [...] arazoietan eta egia bilatzean, horrelako hizkera molderik ezin da onartu.

Hobbes, 1651/1995, or.60

12 Letra beltza nik jarritakoa da.

13 Atal honek zerrenda bat proposatzen du, absurdoa (hots, zentzurik gabekoa) sortarazten duten kausak zazpi puntutan jasoz. Interesekoa zaiguna seigarrena da, beraz.

Modu honetan, bai Platonek, bai Hobbesek, uste dute bizitza publikoan, U.a, mugatu beharreko barne disposizio ankerraren ondorioa dela, Elizak ere modu berean ulertu zuena. Azken honentzat, halaber, barrea lasaigarria da, eta distrakziora eramaten du. Oso ilustratiboa da Umberto Ecoren EL NOMBRE DE LA ROSA eleberrian Burgosko Juan apaizak ematen duen azalpena, non garbi adierazten duen U.a egitea urraketa dela, araua gutxietsi egiten du, eta ondorioz, menpekotasunaren kontzientzia baretu:

La risa es la debilidad, la corrupción, la insipidez de nuestra carne. Es la distracción del campesino, la licencia del borracho [...]. **La risa distrae, por algunos instantes, al aldeano del miedo. Pero la ley se impone a través del miedo, cuyo verdadero nombre es temor de Dios**¹⁴ [...]. El aldeano que ríe, mientras ríe, no le importa morir, pero después, concluida su licencia, la liturgia vuelve a imponerle, según el designio divino, el miedo a la muerte [...]. Si la risa es la distracción de la plebe, la licencia de la plebe debe ser refrenada y humillada y atemorizada mediante la severidad.

Eco, 1996, or.573-575

Arauaren urraketaren bidetik segitzen du Laurent Joubert medikuak, zeinean bere barrearen inguruko tratatua barrea aktibatzen zuten mekanismo fisikoetaz aztertu zuen (Joubert, 1579/2002). Ez du ordea aukera galtzen ñabardura konkretua seinalatzeko:

Lo que excita en nosotros la risa es ver algo feo, deforme, deshonesto, indecente, indecoroso e inconveniente, siempre que ello no nos mueva la compasión. Por ejemplo: ver cómo por casualidad se descubren las partes vergonzosas, que de natural o por pública honestidad solemos ocultar porque es indecoroso, y sin embargo indigno de piedad, provoca la risa en los presentes.

Joubert, 1579/2002, or.39

Joubert itzuli egiten da berriz Aristotelesen printzipioetara, non barrea sortarazten duena **itsusiaren aurkezpena** den. Une oro barreaz ari da, baina barrearen azpitik aktibatzen diren mekanismo sozialak dira berarentzat intereseko: dezentziarik gabekoak, itsusiak, komeni ez denak, **hilaritatea sortzen du berorren desgraziak errukia bultzatzen ez badu**. Honela, Platoren planteamendua ekarriko luke lerro-artera, non barrea bigarren baten zorigaitzarengatik etortzen den, eta are gehiago: mendeak geroago Bergsonek “Le rire” (bibliografian THE LAUGHTER) tratatua printzipio nagusia ekarriko zuen, alegia, barrea, mekanismo sozial zuzentzaile bezala (Bergson, 1899/1914). Bergsonen oso eredu interesgarriaren bidez ilustratzen du bere teoria, alegia, barrea **zigortzailea** dela:

A man, running along the street, stumbles and falls; the passers-by burst out laughing. They would not laugh at him, I imagine, could they suppose that the whim and had suddenly seized him to sit down on the ground. They laugh because his sitting down is

14 Letra beltza nik jarritakoa da.

involuntary. Consequently, it is not his sudden change of attitude that raises a laugh, but rather the involuntary element in this change — his clumsiness, in fact. Perhaps there was a stone on the road. He should have altered his pace or avoided the obstacle. Instead of that, through lack of elasticity through absentmindedness and a kind of physical obstinacy, as a result, in fact, of rigidity or of momentum, the muscles continued to perform the same movement **when the circumstances of the case called for something else**. That is the reason of the man's fall, and also of the people's laughter.

Bergson, 1915, or.8-9

Bergsonen premisa, U.a gizarteren **biolentzia** dela da. Gizartea, bere patroi eta arau sortaren presondegian gizakia duela, ez du inolaz ere onartzen bere barneko izakiak bere kontra jotzea: hots, irrigarri izanen da logikaren arau horiek betetzen ez dituen izaki, egoera edo fenomeno. Gizartearen arauen kontra joate horri “distrakzio” deritza idazleak (ikus bedi Ecoren pertsonaiak ere baliatzen duela berba hori). Gizaki batek egozten zaion portaera suntsitzen bada, distraitzen bada, barrearaziko du, subjektu ezberdindu hori lotsatu eta bere tokira bueltatzera bultzatuz.

Bergsonen ikuspegian beraz parekatuko lirateke U.-ekintzak eta gizartearen arauak, lehenek bigarrenak mantentzeko mekanismo gisa bailiran. Baina ikuspuntu honek talka egiten du aurretik Elizak ezarritako ikuspegiari, non U.a distrakzioa izango litzatekeen, eta bide horretatik doa hain justu Peter L. Berger soziologoa, zeinak Eliza aipatu ez eta U.a, gizarteak gizakiaren baitan sortzen dituen arauen presioaz askatzeko, U.a arauon **berrirakurketa** gisa definitzen duen:

Humorismoak eskain diezazkiguke adibide ederrak sabotaje sozialean ikasteko. Humore¹⁵ mota batek “estrategema” haxe erabiltzen du: egoera bat, espero ez den ez bezala birdefinitzeko teknika, eta hori halako moduan eginez non egoeran partaide diren besteak ustekabeen harrapatzen diren, eta kontra-erasorik egin ezin duten.

Berger, 1998, or.114

Bergerren postulatuaren arabera, gizartea gizakiarentzako presondegi modura joka dezake, non arau eta rol oso konkretuen bidez, banakoa gidatua izaten den. Ez du ukatzen U.-ekintzek arau-multzo horien barruan ere gidatua ez denik, ezein bere hitzetan,

adimenak, umoreak¹⁶, esku-trebetasunak, debozio-erlijiosoak eta baita potentzia-sexualak ere [...] erantzuten diete besteen¹⁷ usteei.

Berger, 1998, or.91

15 Hemen zitatzen den obraren bertsio originalean, ingelesez (INVITATION TO SOCIOLOGY, 1963), *humor* berba erabiltzen da. Lerro hauetara ekartzen den euskal itzulpenean ordea errakuntza dagoela argi dago, ezein *umore* eta *umorismo* sinonimo gisa baliatzeaz beste, h jarriz erdarakada egin eta medikuntzako humoreetara jotzen den.

16 Aurreko zitan ez bezala, ondokoan ongi itzultzen da terminoa euskarara.

17 Uler bedi “besteak” gizarte-kideak bezala, norbanakoaren ikuspegitik.

Hala ere, Bergerrek onartzen dio U.ari gizarteak finkatutako arau eta betebeharrak birdefinitzeko kemena, arauok banakoari sor diezaioketen presioak lasaituz eta arauon kontra Bergerrek “sabotaje” deiturikoa eginez, gizakia arauon eraldaketaren partaide eginez. Balio bitzate ikerlariak jartzen dituen adibide argigarri batzuk:

Konparaziotara, jo dezagun eri batek, lehenagotik lagun batzuekin ados jarrita, bere medikuaren kontsulategia lan bulego bihurtzen duela, etengabe telefono deiak bertan hartuz; edo imagina dezagun turista bat atzerrian, herri horrek dituen monumentu artistikoei buruz nori eta bertako jendeari sekulako hitzaldiak ematen; edo sinesmen erlijiosotik batere ez duen gonbidatu bat, egunoro meza entzuten duten batzuen etxean dagoelarik bisitari, nola edo hala konpontzen dena haiekin mezara ez joateko, esanez ez dakit nolako erlijioak ez diola hain zuzen uzten halakorik egiten: guzti horiek, sabotaje mikrosoziologiko adibideak dira.

Bergson, 1998, or.114

Ondorio gisa, ikusmolde soziologikoan, U.ak gizartearen berezko diren arauengandik zenbaterainoko distantzia jartzen duen aztertzen da, eta zein uneraino jarrera umoretsuak arau horiek erlatibizatzen dituen euren gainetik pasatzeko edo bere eragina neutralizatzeko. Eta U.aren funtzio neutralizatzaile horretaz egingo du hain zuzen Jean Paul Richter filosofo alemaniarrek, barreaz ez beste U.az bere horretan berba egiten duena, datorren epigrafeko U.aren analisi estetikoetik.

1.1.3. Umorearen analisisa. Bide estetikoa

Estetika, edo kultura jakin batean edertasuna transmititu eta atzemateko kemena, artearen ikuspegitik aztertua, ekintza umoristikoekin ere badu zerikusirik. Bloke honetan aztertzen dira Jean Paul Richter eta Umberto Eco.

Richter umoreaz (U.) trataturik mamitsuena idatzi duen autorea kontsideratzen da (Bleiberg eta Mariás, 1964), erreferentea beraz, non U.a, komikotasuna eta satira desberdinu egiten diren, gerora Umberto Ekok berreskuratuko dituen desberdintasunak autore erromantikoak ezarritako oinarrietan berrikuntza kategorikoak proposatuz. Jarraian jorratzen dira bi autoreen ekarpenak.

Richter, erromantizismo alemaniarren figura inportanteenetakoa, XVIII. mendeko Alemaniako idazlerik handienetakoa ere bada. Erromantizismoa, gizakiaren ariman eta sentipenen adierazpenean sakontzen duen aldetik, ezin zuen U.a aztertu barik utzi.

Richterrek teoria estetikoetan (Richter, 1812), U.a **giza ideien arteko kontraste gisa** definitzen da; gizakiaren ideia orok, berez mundu amaikorra besterik ezagutzen ez dutenak, infinituarekin kontrastean sartzen dira, eta mundu amaikorra amaigabetzat jotzean, eta aldrebes, amaigabea amaikortzat jota, U.-efektua lortzen omen da artean. Urrun joan beharrik ez dago Don Kixote famatuak buruan duen justiziaren kontzepzio

unibertsala ezagutzeko, zeinaren aplikazio heroikoak etengabe eramaten duen zaldun eroa desastrera. Hala izanik, U.ak badauka aldekotasunik berez komikoa denarekin – gogoratu hasierako erreferente teorikoek komediatik edaten zutela, Aristotelesen eta Platonen kasuan batez ere–, eta **komikoa irria sortzen duen absurdoa bada**, U.-ekintzan absurdoa ez da partikularra, denon ondarea baizik. Pertsonaia komikoaz barre egin daiteke; umoristikoan, hartzaileak berarekin egin dezake barre.

Para el humor no existe la tontería individual, ni los tontos, sino sólo la tontería y un mundo tonto. Diferente de las ideas de lo cómico vulgar, no pone en evidencia una locura individual. Rebaja la grandeza y eleva la pequeñez, pero, diferente también de la parodia y de la ironía, lo hace colocando el grande al lado del pequeño al mismo tiempo que el pequeño al lado del grande, y reduciendo así a la nada el uno y el otro, **porque ante lo infinito todo es igual y todo es nada**¹⁸.

Richter, 1812, or.138-139

Zentzu honetan, komikoa izate partikular baten “erotasuna” (Bergsonen anormaltasuna, arautik kanpo dagoena) litzateke, arautik aldendu egiten dena eta gupidarik edo penarik sortu ezean, barregura ematen duena.

Ñabardura aipagarria Richteren etengabeko bereizketa komikotasunaren, satiraren eta U.aren artean. Filosofoarentzat, **satira beste zerbait irrigarri uztean datza**, alegia, errealitate baten ahuleziak identifikatuz, norbera bere burua goratuz biktima zapaltzea. U.a, aldiz, errealitate horrekin identifikatzeko jokia litzateke, bere alde ahulak topatu eta ironiaz adieraztea, baina ez berau zapaltzeko, baizik eta ahultasun horiek sortzen duten ezinegona neutralizatzeko. Horregatik deitzen dio Richterre satirikoari “trauskil”:

El satírico ordinario puede en sus obras o en sus críticas apoderarse de algunos errores o verdades faltas de gusto, y atarlas sobre su picota [...], pero el humorista prefiere proteger la tontería individual, y dirigirse por el contrario contra el verdugo y todos los espectadores, porque no es la tontería de tal o cual ciudad, sino la simpleza humana, es decir, la universal, la que él persigue.

Richter, 1812, or.139

Satiraren kontra jartzen du Richterre U.a: satirikoak barrearaz dezake, baina beti mundua irrigarri utziz, bere pertsona berorren gainetik jartzen duelako (satirikoak bere burua “hipozentaurotzat” dauka “onozentauroen” artean). Bere portaera berekoa litzateke, umoristaren aurrean, zeinak nahiago duen guztiaz barre egitea, hipozentauroa bera baztertu barik (Richter, 1812, or.145).

18 Letra beltza nik jarritakoa da.

Subjektibotasuna ere aipatzen du Jean Paulek. Alemaniarra pauso bat harago doa: ekintza umoristikoan, nia **orokortu egiten da**: subjektiboa objektiboarekin nahasten da. Umoristak bere obra landuta, bere pertzepzioa, mundua nola dakusan erakusten du, egia absolutu eta objektiboa bailitzan.

U.aren pertzepzioa izango litzateke Richterren azken erronka: filosofoak argi adierazten du ekintza umoristikoak zentzuen bidez bakarrik hauteman daitezkeela. U.a antzemateko, arimaren aurre-disposizioa behar da, sentikortasuna hau bera hauteman eta dagokion erreakzioa burutzeko.

Richterrek jada printzipio sendo ugari ezarri zituen U.aren nolakotasunetan, eta Umberto Eco hauek berreskuratuz, bere disertazio propioa egingo du: *Lo cómico y la regla* (Eco, 1980). Izenburuak okerrera eramanez badezake, bere hasierako premisa baino ez da: zertan desberdintzen diren tragikoa eta komikoa, eta dedukzioaren ondoren U.a definitzera doa. **Aristotelesek ezarritako kokapenetik hasten da**, ezein tragediak gizakiak berez diren baino hobeagoak aurkeztu, eta lazkerian jauzten direnean dolumina sortarazten duten; komedian ordea aldrebes litzateke: gizakiak estandar akordatu horretatik baino beherago leudeke, eta euren hanka sartze eta gora-beherek, errukia ez beste, barregura sortaraziko lukete. Eco bere buruari galtzen dio ordea non dagoen akordio hori, edo pertsonaiok 'hobeak' zein 'okerragoak' direla neurtzeko erabiltzen den neurgailua. Ecoren ustez, tragedian lege edo premisa jakin bat zehazten da kontakizun osoan zehar (bere hitzetan, “erregela”), eta behin eta berriz erregela haustea zeinen arriskutsua den. Romeo eta Julietaren kontakizunean, kasu, amoranteen arteko maitasuna **ez dago legez onartua**, eta honen urraketak azkenean bi protagonisten bizitzak moztuko ditu. Ordea egintza komikoetan? Ecoren hipotesitik habiatuz, komediak ez luke erregularik azalduko: txistearen moduan, erregelaren ezagutza **hartaileari egozten dio**, eta bere aurre-jakintzarekin kontaktzen du kontakizuna gorpuzteko. Oso adibide argigarriarekin erakusten du Eco komedia eta tragediaren arteko diglosia:

Puede ser trágica la situación de un miembro de una comunidad antropófaga que se niega al rito caníbal: pero será trágica en la medida en que el relato nos convenza de la majestad y del peso del deber de antropofagia. Una historia que nos relate las vicisitudes de un antropófago dispéptico y vegetariano a quien no le gusta la carne humana, sin que nos explique de manera extensa y convincente lo noble y justa que es la antropofagia, será tan sólo una historia cómica.

Eco, 1980, par.13

Premisa hipotetiko honek berresten du Bergsonen tesia, non kaletik zihon gizonaren jauzteak komikoa zitekeen, ezein konbentzioak jauzitako ibiltariari estropezurik aurreikusten ez dion heinean, baldarraren baldarrez estropezuz lurrera erori

eta komuneko akordioa hausten duen –estropozua eragin diona gainditu beharrean, jauzi egin da–. Bergsonentzat barrea zigor modukoa litzateke, hausturaren aurka. Ordea, gizona erori eta bertan hil izan balitz, errukiaren errukiz ez litzatekeen komedia baten protagonista izango, tragedia batena baizik.

Zer esanik ez Eco jartzen duen adibideaz, non aurpegira botatzen den pastela –adibide unibertsala, idazlearen iritziz– grazia egingo duen, ezein konbentziotzat hartzen den tarta jatekoa dela, eta ez jaurtitzeko arma. Pertsonaia komikoa beraz halako animala petralaren itsura hartzen du, arau komunak hausten dituena, eta ikusleari minik egin ezin diezaiokeena. Inportantea da azken ñabardura, ezein ume txiki baten tontakeriek grazia sortarazten ohi duten, ezjakintasunak sortzen dizkion triskantzengatik, eta barre egiten diote helduek; ordea, jokabide bera burutik sano ez dagoen pertsona heldu batean, **errukia sortarazten du**, eta bere patologiak arriskutsu bihurtuko balu, beldurra.

Gauzak honela, U.a komikoa denaz pauso bat harago doa, ezein

en este movimiento no me siento superior y distanciado respecto al personaje animalesco que actúa contra las buenas reglas, sino que empiezo a identificarme con él, padezco su drama y mi carcajada se transforma en sonrisa.

Eco, 1980, par.28

U.-ekintzan, hausten den araua ez da, tragedian bezala, etengabe azaltzen, baina pertsonaiek urratzen edo gainezkutzen dituzten konbentzioak zelanbait intsinuatzen dira, eta horien gaineko kritika ere egiten da. Don Kixoteri bueltan, halako identifikazioa sortzen da pertsonaiaren eta irakurlearen artean: Kixote etengabe ari da arau konbentzionalak zapuzten eta bere eromenaren desgrazian jauziten, baina bere topaketa guztiak justizia gabekoen aurkako ekintzak dira. Badirudi Cervantes berak tentuzko distantzia hartzen duela bere pertsonaiarekiko, eta bere buruari galdetu ez ote den eromena justiziaren alde egitea, bakarrik zoroek egin dezaketen ariketa gisara. Barre egin daiteke Don Kixoteren egintzaz, baina bere begirada kritiko eta analitikoaren errealitate jakin baten harira ere ikustarazten du.

1.1.4. Umorearen analisisa. Bide diskurtsiboa

Umorea (U.) erretorikarako lanabes interesgarri bezala ere definitua izan da. Erretorika, Pujanteren esanetan, esatearen kemena garatzea eta zaintzea ahalbidetzen duen diziplina da (Pujante, 2003, or.73–74). Epigrafe honetan hartzen diren erreferenteek, U.a diskurtso oralaren alorretik ulertzen dute, publikoan gozamina estimulatzen dutenak –barrearazi ere bai– eta ondorioz xede-taldearen onespenera eta hizlariaren onartzeari ateak irekitzen dizkietenak. Bloke honetan dauden autore erreferenteak klasikoak dira hirurak, zeintzuk ere Aristoteles, Zizeron eta Kintiliano.

Aristotelesen obrara itzuliz, pentsalari grekoak “Erretorika” (RETHORICS) liburuki bilduma idatzi zuen (Arisotle, 360 K.a.).

Bigarren liburuan barreaz mintzo da gauza atsegin modura, bai eta barregura sortzen duten gizaki, hitz zein egoerak ere atseginak direla baieztatu (Arisotle, 360 K.a., atal.4). U.a, kasu honetan, hizlariak balia dezakeen **joko erretorikoen bilduma** litzateke, bere publikoarengan lasaitasuna eta konbentzimendua bultzatzeko. Halaber, jarrera mota alai hau gaztetasunari egozten dio bereziki: “*They [young men] are fond of fun and therefore witty, wit being well-bred insolence*” (Arisotle, 360. K.a., atal.12). Modu honetan, barrea bultzatzen duen hizlaria bere argitasuna edo joko intelektualak azkar egiteko kemena erakutsiko du, eta bere diskurtsoa askoz ere entretenigarriagoa egiteaz gain, konbentzimenduaren atak bere publikoan errazago irekiko ditu.

Aristotelez gain, atenzioa merezi dute ere Zizeronek eta Kintilianok. Biek dituzte lerro hauetara ekartzea merezi duten obrak: “Hizlaria” (ORATOR) batak –Cicero, 46 K.a.– eta “Hizketarako instituzioak” (INSTITUTES OF ORATORY) besteak (Quintilian, 95 K.o./2011). Lehenengoa tratatua da, Erromako pentsalari Marko Tulio Zizeronek bere lagun Brutori zuzendua. Gaia, elokuentzia da. Bertan agertzen dizkio lagunari hizlari egokia izateko teknikak, bai eta ametitu, modu oso xumean bada ere, ironiaren onurak:

The orator [...] will make frequent use of the following figures: he will treat the same subject in many ways, sticking to the same idea and lingering over the same thought: he will often speak slightly of something or ridicule it [...]; he will say something, but desire to have it understood in the opposite sense [...]; he will divert the attention of the audience from the point at issue; **he will frequently provoke merriment and laughter**¹⁹.

Cicero, 46 K.a., or.410-413

Hala bada, Zizeronek Brutori transmititzen dio baliagarria dela publikoa barrearazteko efektua, honen plazera probokatzuz. Nola lortu? Zitan adierazi bezala, aipatzen den errealitate jakin baten aspektu irriarri edo kontraesankorrak tarteka aipatuz eta ironia baliatuz, alegia, joko erretorikoak planteatuz non publikoak esaten denaren kontrako zentzua harrapatu behar dituen, joko sortuz (“*he will say something, but desire to have it understood in the opposite sense*”).

Marko Fabio Kintilianori dagokionez, legegizon eta erretorika irakasle, barrearen bertuteak ditu ezagutzen, eta “Instituzioak” osatzen dituzten 12 liburuetatik, seigarrenaren hirugarren kapitulu osoa barrearen erabilerari eskaintzen dio.

Erretorikoaren iritziz, barrea sortarazten dituzten gauzen artean, iseka eta txantxa, zakar eta gusturik gabekoak dira, baina badaude zenbait modu barrea sortarazteko, hala hitza nola keinuaren edo aurkezpenaren bitartez, **diskurtsoaren ulergarritasunari mesede** egiten diotenak.

19 Letra beltza nik jarritakoa da.

Very different from this is the talent which, by exciting laughter in the judge, dispels melancholy affections, diverting his mind from too intense application to the subject before it, recruiting at times its powers and reviving it after disgust and fatigue.

Quintilian, 95 K.o./2011, atal.1

Barrea berez zer den ez du, obra honetan behintzat, azaltzen. Ez du esplikatzen ere txistea, iseka edo grazia zer diren. Hala ere, barrea nola mugitu daitekeen adierazten du (adibidez, arerioaren akatsak modu burutsuan aurkeztuz), bai eta noiz ez den barrea sortarazi behar (adibidez, pertsona jakinen aurrean edo txiste batek norberaren autoritatea galari dezakeenean publiko oso baten aurrean). Inferitu daiteke beraz U.aren betekizuna –Kintilianok besterik ez badu esaten– publikoaren barrea probokatzean datzala, betiere diskurtsoa eramangarri eta dibertigarri egiteko, iseka edo txantxa bide, eta beti inor gutxiesteko ez bada.

Autore hauek guztiek, Berpizkundean euren obrak berreskuratzen direnean aterako dute burua beste behin, eta lehendik azaldu den Eliza 'debekatzaile' horren jarrera adierazpide umoristikoekiko jarrera alda dezan bezalako antidoto izango dira. Kristautasunaren doktore aipagarri den San Agustinek, esaterako, onartzen du sermoiaren arintasunak fededunaren pertsuasioari mesede egiten diola (Casas, 2000, or.279), eta barrearen onurarik ere bai.

1.2. Umorea zer den

Ikusitako guztiaren ondoren, eta umorearen (U.) kontzeptuaren inguruan zehaztu berri diren ardatz nagusien arabera, U.aren definizio propioa proposatzen da lerrootan.

Batez ere Richterri so, U.a **disposizio jakina da errealitatearen aurrean**, errealitatearen ikuspegi pertsonala modu positibo eta erlatibizatzailean adieraztean datzana. Horren ondorioz, umoristak **diskurtsoa garatzen du**, zeinean hau bera entzuten edo jasotzen dutenen kompetentzian oinarritua, jokoak planteatzen duen (Eco 1980, para.14). Alde batetik, mezua dago, bere kode linguistikoan bildua –linguistiko esaten bada ere, uler bedi hizkuntza bere adiera zabalean, non artearen adierazpide guztiak ere sartzan diren–, eta bestetik, adieraziak. Hartzaileari mezua transmititzen zaio, forma jakin batean jaso, eta joko interpretatzailearen bidez subjektu horrek demonstratu behar du kapaz dela adierazle-adieraziak lotzen, benetako mezua ulertzeko. Jokoan sartuta, eta esaten denaren esanahia behin antzematea lortuz, hartzaileak plazera lortzen du. Adierazle-adierazien arteko loturak aldagarriak izan daitezke, eta testuinguru kulturalaren eta unean-uneko aldarte-egoerarekin zerikusia izango dute, bai eta U.-ekintzek daukaten funtzioekin ere (Azpilicueta, 2000, or.329–330).

U.aren beharra, norberaren ezinegonaren sublimazioa izan daiteke, bai eta jokia egiteko gogo pertsonal soila, jolas moduan, dibertitzeko. Edonola ere, U.aren posibilitate espresiboak anitzak dira, eta kultura desberdinen arabera ere aldatzen dira. Barrea, sintomatikoa, U.-ekintzen ondorio zuzentzat hartua bada ere, sintoma besterik ez da, eta aurreko definizioaren arabera logikoa da pentsatzea definizioan ez duela parte hartzerik. U.a zergatik, non, noiz, nola, eta zein publikoren aurrean, horiek dira tentuz hartu beharreko aldagaiak, beti gizarte arautu baten barruan, berorren arauak erlatibizatzen eta gainditzeko portaera izan baitaiteke (Berger, 1998, or.113–114).

1.2.1. Umorearen artikulazioa. Gainezkatzea eta isotopiak

Une egokia da Rancièren postulatu berreskuratzeko, sentikorraren banaketari buruzkoa, hots, arteak, gainezkatze modu bat proposatzen duela gizarteetan esan daitekeenaren eta esan ezin daitekeenaren artean. Aipagarria zen Rancièr bide estetikoaren atalean, baina hona ekarria izan da umorearen (U.) definizioan hobe txerta daitezkeelako bere hitzak, esaten baituen bezala,

la política se refiere a lo que se ve y a lo que se puede decir, a quién tiene competencia para ver y calidad para decir, a las propiedades de los espacios y los posibles del tiempo.

Rancièr, 1940, or.3

Premisa honetatik, Rancièrek “praktika estetikoek” buruz hitz egingo du, alegia, artearen praktiken ikusgarritasun formei buruz. Arteok, adierazkortasunaren bidez, eta garaiaren eta euren esku dauden espazioetan –antzerkian, antzeztokia, kasu– ekintza estetikoak adierazten dituzte, halako paradigmaman non adierazten dutena sentibera den horren gainean –komuneko dena eta denon esku dagoena– gainezkatzen duten. Ikus bedi U.aren kasuan hala ere gertatzen dela, ezein U.an hain erabilia den ironiak **adierazten denaren mezu desberdina ailegarazten duen**, eta irakurketa propio bat proposatu gizartearen norma politikoak urratu gabe. U.aren bidez, diskurtso serioetan esan ezin daitekeena adieraztea onartzen da –hori da hain zuzen bufoiaren lizentzia, erregearen kontura barre egin dezakeena bufoia delako, eta gorteko beste inori onartuko ez litzaiokeena–, eta ondorioz, erretorikaren ikuspegitik, lar baliagarria da U.a mezuaren elokuentziari dagokionez.

Bufoiaren eredu umoristikoa bikaina da Quevedoren kalanbur ezaguna, erregina herrena zen Elisabet Borboikoaren aurrean hitz-jokoa planteatu zuena: “*Entre el clavel rojo y la rosa roja, su majestad es-coja*”. Soinu-jokoa dela eta, testu idatzian nekez harrapa daiteke efektu umoristikoa, baina ahots ozenez, zalantzarik gabe daki entzule kompetenteak –gaztelaraz dakiena eta erreginaren gaixotasunaren jabe dena– “*escoja*” (hauta beza) eta “*es-coja*” (herrena da) antzeko forma fonikoa daukatela, eta gainezkatzea proposatzen dutela adierazteko forman, ezein erreginak baduen kemena bere herrentasunaren harira iseka egiten duena zigortzeko, baina Quevedok soinuekin

jolas argia eginez, saihesten du benetan esaten duena aldrebesteko, eta bakarrik bere inguruan zeudenak (erregina barne) konturatu ahal izan ziren formaz inozentea zen adierazpena, benetako iseka zela. Historiak jaso duen esaldi umoristiko bikaina, non esaten dena arauak jauzten dituen eta onartezina dena onargarri bihurtzen duena.

Quevedoren publikoa kapaz izan zen, beraz, *escoja* aditzetik *es coja* afirmaziora pasatzeko. Bi adierazle desberdinetatik, euren adieraziekin bederen, txandakatu zituzten, horra kalanburraren jokoa. Fenomeno horri, lerro hauen hasieran aipatu denari, non hartzaileak adierazle-adieraziak lotu behar dituen mezua ulertzeko, desplazamendu deritzo, *Revista de Occidente* delakoak bere U.aren definizioan ere aipatzen duena, eta bertotik eratorria:

Este juego excéntrico, en el que aparece el pasmo cuando esperamos un bostezo, o un movimiento dilatorio, en lugar de un gesto de impaciencia, y en el que nada humano desaparece, **sino que solamente resulta desplazado con arreglo a un determinado ritmo de imprevisión**²⁰, constituye la fuente sustancial de todas las clases de humorismo.

Bleiberg eta Marías, 1964

Ikus bedi desplazamenduaren fenomeno argiago oraindik Mafalda pertsonaiaren zinta komiko (Z.K.) batekin:



Irudia 1: Mafaldaren pasadizo bat.

Iturria: © Quino, 1979, or.20

Quino marrazkilaria hiru pertsonaia aurkezten dira: Susana, Felipe eta Mafalda, seriearen protagonista. Egia esan, Quinoren pertsonaia bakoitzak irudi estereotipatu bana irudikatzen du ia Z.K. orotan, eta egoeraren arabera bat edo beste hautatzen du:

- Felipe, ume baldarra eta borondate urrikoa izan ohi da, nahiz eta Z.K. honetan bihurri edo barregarri suertatu.
- Susana, bere aldetik, hutsal eta inozoa da,
- eta Mafalda, gogoetatsu eta heldua.

²⁰ Letra beltza nik jarritakoa da.

Zentra bedi irakurlea Feliperen txistean bakarrik, azalpena erraztearren hurrengo lerroetan transkribatuko dena:

Resulta que hay un tipo escuchando un disco, y viene otro y le dice: “*¡Pero hombre! ¿Cómo escucha ese disco, no oye que está rayado?*”. Entonces, el tipo contesta: “*¿Y a usted qué le importa...ted qué le importa...ted qué le importa...ted qué le importa...*”.

Txiste linguistiko honen U.aren artikulazioa azaltzeko, bi parte desberdinu beharra dago aurretik, Greimasek adierazten duen moduan, txisteetan oso ohikoak: aurkezpen-kontakizuna eta elkarrizketa (Greimas, 1973, or.107):

Aurkezpen kontakizuna	Resulta que hay un tipo escuchando un disco.
Elkarrizketa	viene otro y le dice: “ <i>¡Pero hombre! ¿Cómo escucha ese disco, no oye que está rayado?</i> ”. Entonces, el tipo contesta: “ <i>¿Y a usted qué le importa...ted qué le importa...ted qué le importa...ted qué le importa...</i> ”.

Aurkezpena kontakizun laburra da, eta datorren istorioa prestatzen du. Isotopia bat osatzen du, alegia, **testuari esangura homogeneoa ematen dioten eremu semantikoen elkarketa** (Romera, d. g., atal.Isotopía). Aurkezpenean topatutako egitura semantiko guztiek egitura konkretu bat ematen diote txistearen hasierari, isotopia bat osatuz.

Dialogoa, istorioa dramatizatzen duena, bigarren isotopia da, lehenengoari elkartzen zaiona Greimasek “termino konektatzaile” deitzen dionaren bidez: kasu honetan, diskoa entzuten ari denaren hitz-jokoa (“*...ted qué le importa...ted qué le importa...ted qué le importa...*”). Txistearen grazia, entzuleak –kontakizuneko Mafaldak kasu honetan, ezein Susanak ez duen deus harrapatu– isotopien arteko harremana harrapatzean datza, biak desberdinak, homogeneotzat hartzen den kontakizun baten barruan (Greimas, 1973, or.108). Deskubrimendu hori da plazera sortarazten duena, eta ondorioz txisteak sortzen duen grazia. Quevedoren jokoan, plazera sortzen duena bi forma semantikoen desberdintasuna enuntziatu berean deskubritzea da, adierazle eta adierazi linguistikoak nahastu eta hartzaileak konektatu behar dituenean. Feliperen kasuan, egoera irigarriaren aurrean (tipo bat akastuna den disko bat ari dela entzuten), logika berri bat eraikitzen da: tipo horrek plazera topatzen du disko akastuna entzuten **bere hitz egiteko modua ere akastuna delako**; disko akastunak soinu-tarteak errepikatzen dituen moduan, hala moduz tipo honek beste horrenbeste egiten du bere esaldien amaierarekin (“*¿Y a usted qué le importa...ted qué le importa...*”). Bi isotopien loturaren ondorioz, kontakizunaren logika ateratzen du irakurleak: txistearen protagonistak disko akastun baten moduan egiten duela berba. Nabaritu bedi txiste kontalaria bere entzuleriaren ulermenarekin kontaktzen duela, disko akastunaren funtzionamendua ez azalduz; alta, disko akastun baten soinu kakofonikoa inoiz entzun ez duen batek ezin du txistea ulertu.

Stephen Potter, *SENSE OF HUMOR* (1954) liburuaren idazleak, bikainki adierazten du fenomeno hau bere liburuaren bigarren atalaren hasieran, non lehen atalean U britainiarrari buruz idatzi ondoren, bere definizioak ilustratu ditzaketen materialak dakartzan (pieza literarioak, marrazkiak, eta abar.). Honela adierazten du material horiek hautatzearen zergatia:

The selections which follow are intended for enjoyment and have been chosen because they still, or have newly, given me pleasure. If I had chosen from the works which seemed funniest in my whole life, half would not seem funny now.

Potter, 1954, or.47

Baina Potter ez zen arrisku horretaz guztiz libratu, ezein *SENSE OF HUMOR* 50. hamarkada hasieran argitaratu baitzuen, eta bere material horiek ikuskatuz, baliteke orain ekarri zituenen erdiak grazia galdu izana. Errealitatearen objektu oro legez, umorismoaren fenomenoak ere badira denboraren biktima.

1.2.3. Euskal umorearen nolakotasunak

Kulturaren gorabeherak umorean (U.) nola eragiten duen ikusi egin da, komunikazio kodeak zein garrantzitsuak diren ere kontuan hartuz.

Kultura jakin batek ezaugarri propioak dituen moduan, U.a sortu eta lantzeko modu propioak ere garatu ditzake. Celestino Fernández de la Vega idazleak literato ingelesei egotzen badie U.aren 'aurkikuntza', argiro teorizatzen du U.aren kontzepzioa bera ingeles nortasunaz zipriztinduta dagoela (nahiz eta nortasun hori zertan datzan ez aipatu):

A palabra “humor” [...] también significa unha singularidade do carácter inglés, semellante ó “esprit” francés, á “morriña” galega ou ó “ángel” andaluz [...]. Aínda que **tal vez puidera ser que o humor tamén admite nacionalidades e que a cada talante nacional corresponde unha forma peculiar de humor**: Cervantes ou Valle-Inclán, Shakespeare ou Dickens, Voltaire ou Analote France, Richter ou Heine, serían todos humoristas, pero todos diferentes segundo os diferentes talentos individuais e nacionais.

Fernández de la Vega, 2002, or.39

Hala bada, atal honetan zehaztu beharra dago euskal U.az hitz egin daitekeen edo ez, edo beste hitz batzuetan, Euskal Herrian (E.H.) ba ote dagoen berezko U.ari buruz hitz egiterik, eta hala bada, zeintzuk diren berezkotasun ezaugarri nagusiak. Jarraian datozen lerroetara ekarri dira Pío Baroja literatoa, Juan San Martín eta Joxerra Garzia euskaltzaileak eta azkenik, Kike Amonarriz soziologoa. Euskal U.az zer edo zer postulatu dutenak dira ikerketa honetan topatutakoaren arabera: Barojak eta Garziak ez dute uste euskal U.az hitz egin daitekeenik; San Martinek eta Amonarrizek ordea bai, baina azken honek onartzen du, modu zabalean, ez dagoela bere hitzetan “euskal umore nazionalik”.

E.H.ko U.az zer edo zer esan duen literato klasikoa Pío Baroja da, bere lagun Juan de Icaea batxilerraren ahotik, CHERRIBUZZANGO ERRECA zientzia eta literatura akademia txapel-handiduneko²¹ idazkari nagusi eta 1918ko abenduaren 5ean akademiako kideei ondoko hitzak zuzendu zizkiena:

En San Sebastián como en Bilbao, en Vitoria como en Pamplona se celebran las frases churriguerescas de Maura, los malos chistes de Romanones y los gorgoritos de Don Melquíades [...]. Y en esto no veo que nos diferenciamos en nada de Sevilla, Cuenca o Guadalajara. Las gracias que se repiten en toda España, salen de los teatros de Madrid.

Baroja, 1919, or.60-61

Zertzelada handietan, De Iceak tesi bat garatzen du: E.H.ak ez duela nolakotasun kultural nahikorik –uler bitez hitzok bere diskurtsoaren barnean– bere nortasun propio eta desberdindu bat aldarrikatzeko –desberdindu, Espainia osoarekiko–, kontuan hartuta garaian lehen nazionalismo periferikoak martxan zeudela, eta *chapelaundiense* delakoak euren aurkakoak zirela, ideologia liberal eta konstituzionalistaren bidetik. Zitaturiko paragrafoan De Iceak defendatzen duenez, Euskadin/Nafarroan Madriletik irteten ziren komediak ziren gustuko, eta garaiko politikarien komeriak probintzia orotan ei zuten eragin irriarri berbera. De Icaea fenomeno aipagarria ari da agerian uzten: globalizazioak U.-forma lokalak suntsitzen dituela masa-kultura homogeen eta berdintsua bultzatzen duen heinean. Hizlariaren eskalan, euskal kulturaren 'madrilizazioaz' ariko litzateke, ez ordea lokala defendatzeko, baizik eta erliebean uzteko euskal kultura ahulegia omen dela asimilatua ez izateko:

Creer que con la cultura catalana, retórica, de juegos florales; y con la exigua, casi nula, cultura vasca van a poder defenderse de la asimilación de la cultura francesa es una ilusión. Si Cataluña se separa de España, antes de cincuenta años será espiritualmente francesa. A Vasconia le pasará lo mismo si es que los ingleses no pretenden tener aquí una gran influencia.

Baroja, 1919, or.55

Juan de Icaea sintonia ideologikoan dago Barojarekin, *Momentum Catastrophichum* hitzaldia paperera eraman zuena eta U.aren inguruan dibulgazio testua ere argitaratu zuena, LA CAVERNA DEL HUMORISMO hain zuzen (Baroja, 1986). Aipatzea zilegi bada ere, ezinezkoa da lerro hauetara bere teoria edo postulatu sendorik ekartzea, ezen Fernández de la Vegak berak dioen moduan,

Don Pío resulta ameno, pero pouco concluínte. En derradeira instancia o gran novelista vasco chámalle humor a todo o que lle gusta e négalle humor a todo o que non lle acomoda.

21 Bai Baroja, bai CHERRIBUZZANGO ERRECAKO kideek, *chapelaundi* deitzen diete euren ideia liberalekin ados daudenei, bai eta pentsamolde honetatik at, historian zehar ekintza adoretu eta iraultzaileak bultzatu dituztenei ere. Horregatik euren akademia 'Txapel-handiduna' da (*chapelaundiense*), edo buruargia. Ezin uka izen metaforiko horrek bere grazia duela, bai eta adierazle interesgarria ere (txapela handi = buru handi = ideia argi).

Zentzu horretan, ikerlan honetarako balio duen postura bakarra Barojari dagokionez zera litzateke: argi uzten duela, bere ideologiak hala eskatuta, E.H.ak bere kultura propioa izanda ere, hau bera ahulegia dela, desagertzearekin bere hizkuntzarekin batera (Baroja, 1919, or.43–44), eta ez dio merezi agerian uztea E.H.an U.-forma propioak dauden jakitea, De Iceak berak modu borobilean ukatu arte.

Barojari Joxerra Garzia EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (E.H.U.) irakasle ohiak segituko lioke, 1987an artikulu laburra idatzi zuena *Plazara* irundar aldizkarian: *Zentsura versus umorea*. Ez da euskal U.aren inguruko tratatu zientifiko sakona, bere postulatu baten azalpena baizik, alegia: E.H.an zentsura dagoela, bai kanpotik etorria, bai euskal herritarrek euren buruari ezartzen diotena.

Uler bedi lehenengo Garziaren hitzetan U.a zer den, labur-labur eta zehatz-zehatz definitua:

Bizimoduan aurre egiteko jarrera jakin bat da. Bereizi beharra dago, ordea, umorea eta txistea. Are gehiago, esango nuke, umorerik ezak sortutako hutsunea estaltzeko adabakia besterik ez dela, jeneralean, txistea.

Garzia, 1987, par.13

Zerk mugatzen du bizimoduan aurre egiteko jarrera jakin hori, ikerketa honetan jada definitu egin dena? Bada, botereak, zeintzuk euren arau propioak ezartzen dituzten gizarte jakinetan eta horien kontrako txantxarik onartzen ez dutenak:

Agintariak beren menpekoen zintzotasuna zaintzeko ardura serio hartzen dutenean, zentsurara jotzen dute. Gauzak serio hartzen duenak ez du umorerik. Beraz, gizarte baten zentsura maila bertako agintarien umore ezaren arauerakoa da.

Garzia, 1987, par.7

Garziak, halako ikustaldi bat egiten du euskal gizartearen espazio komunikatibo hauetatik: tokiko alderdi politikoak, euskal literatura, komunikabideak eta irakaskuntza. Hauteskunde kanpainen **dogmatismoa salatzen du**, eta euskal politikariei leporatu eurentzako sakratu diren baloreak kolpez ezartzea, kanpainatan U.a inoiz ez erabiliz, U.ak bere horretan joera erlatibizatzailea duela (l.62-64). Euskal literaturan onartzen ditu txiste-liburuak, edo “liburu txistosoak”, baina ez liburu umoristikorik (l.66-67). Hedabideei dagokienez, medioek darabilten euskara batuaren “aldebakartasuna” nabarmentzen du, non anbiguitaterik onartzen ez den (l.71-73).

Hizkera neutro, zentzu bakarrekoa ari gara zabaltzen. Eta zentzu-bikoiztasunik gabe, anbiguitaterik gabe, ez dago umorerik. Baina alde ala kontra egotea esijitzen den lekuan ez dago anbiguitaterik. Ez dago, beraz, umorerik.

Garzia, 1987, l.70–71

Amaitzeko, irakaskuntza kritikatzan du Garziak, non instituzioak zaintzeaz beste, irakasleaz ahaztu izana salatzen duen, eta bere buruari galdetu ez ote dagoen irakasle umoretsurik baino, ikasle aurrean negargarri gera daitekeenik (1.77-78). Oro har, artikulua Garziaren iritzia gorpuzten duen artikuluxka da, baina bere postulaturia oso konkretu eta zehatza:

Umorerik ez dago hemen. Eta ez dago, zentsura dagoelako. Kanpotik ezarritakoa askotan, eta nork bere buruari ezartzen diona ez gutxitan. Azken finean, hori baita zentsore ororen helburua: berak kolperik jo gabe, jendeak berak lan egin diezaiola.

Garzia, 1987, par.28

Juan San Martin, bere aldetik, baikorrago agertzen da euskal U.aren inguruan. Bi obra aipagarri ditu, non euskal jendearen U propioaz hitz egiten duen –eta jarraian ikusiko da zertan datzan *propio* izate hori–: *Umorea euskal literaturan* (San Martin, 1962) eta *Euskal Umorea* (San Martin, 1987), Euskaltzaindian egindako hitzaldia bata, saiakera bestea.

Ez batean eta ez bestean ez du U.a zer den zientifikoki definitzen; baieztatzen du ordea U.a egoera latzei aurre egiteko modua dela, filosofia hutsa:

Ez aipa krisirik, ez izan tristurarik, ez eta kolorerik. Zeren, *koloreak kolore, umorea ez da dolore*. Umorearen filosofia edo filosofiaren umorea, berdintsu da [...] Ez pentsa Einsteinek bakarrik erakutsiko digula naturalezako gauzen erlatibitate legea.

San Martin, 1987, or.46

San Martinek ibilbidea egiten du euskaraz idatzitako literaturatik –bereziki antzerkia du hizpide– ahozko tradiziara, eta euskal hizkuntzaren nolakotasun umoristikoak aztertzen ditu. Figura erretoriko nagusia identifikatzen du, **ateraldia**, alegia, **entzuleak espero ez duen eta sorpresa eragiten dion erantzuna** (San Martin, 1987, or.41), non hizlariak entzulea tesitura jakin batera eramane eta gutxien espero duenean, aldarazten zaion:

Plaentzia-ko zaar bati, esan zion gazteago batek: Zuk erretzen dezun beste erreta, zelan hartu dituzu orrenbeste urte? — Erretzeak etxaukat zer ikusirik. Nere anaiak ez jua erretzen baña gazterik il zuan. — Ze edadekin? — Lau urtekin.

San Martin, 1962, or.306

Euskal Umorea testuan ere heltzen dio ateraldiaren formulari, baina satira eta zirika ere aipatuz, bertsolaritzari lotuak betiere. Azpimarratu beharra dago ahozko tradizio honetan, bertsolaritzak bat-batekotasuna duela oinarri; ondorioz, ateraldiak argitasunez sortu behar izatea ez da arraroa, are gutxiago jendaurrean egindako espektakulu modura.

Gehiago esan daiteke bertsolaritzaren efektu umoristikoari buruz, kontuan hartuta koblakariak elkarren artean sortzen duten lehia, ia nork bertso onena egin; hala bada,

elkarren arteko zirika eta ika-mika eguneroko ogia da ekintza artistiko honetan. Beraz, U.a euskal ahozko literaturan —eleberrian ez bada ere—, “mutil landua” da (San Martín, 1987, or.41). Garziak berak ere onartzen dio bertsolaritzari euskal txistegintzaren erreferentziarik, bertsolariei “umorarik ezaren zuloa” betetzen dituzten artista gisa definituz:

Jenero jator honetan ez dugu, egia esan larritzeko moduko eskaxiarik. Pernando Amezketarra, Lazkao Txiki, Imanol Lazkano... umorerik ezaren zuloa betetzen ariko dira agian, baina bai txukun eta artez bete ere. Pernandorenak txistea baino areago direla esango nuke, gainera.

Garzia, 1987, para.18

Bertsolaritzaz aparte, San Martinek euskal antzerkian U.a ere antzematen du. Hain zuzen XVIII. mendean —umorismo kontzeptuak literaturara jauzi egin zuenean— bi antzezlan jaioko dira Gipuzkoan: Barrutiaren GABONETAKO IKUSKIZUNA eta Peñafloida Kondearen EL BORRACHO BURLADO. Azken honek izenburua eta aurre-hitzak gaztelaniaz ditu, eta euskara-gaztelania tartekatzen ditu obran zehar. Eta hemen agertzen da euskaraz sortutako umorismoaren garaiko beste berezitasun bat: **erromantzera tarteka pasatzeko tendentzia**, alegia, U elebiduna; euskal hizkuntza modernitatetik urruntzen joan ahala, bere erdal bizilagunen beharra izango zuen zenbait gaurkotasunezko zenbait adierazpen lantzeko. Kanta herrikoietan, adibidez, euskara-gaztelania arteko tartekak antzematen dira:

Ikusi nuenian, nik zure kokotza, iruditu zitzaidan, monona, gaztainan morkotsa.

Ikusi nuenian, nik zure ahoa, iruditu zitzaidan, monona, karobi zuloa.

Sí, morenita, sí, si es para divertir; tu llevarás la manta, morena, yo llevaré el candil.

Hainbat adibide jartzen ditu San Martinek literaturan agertutako obra euskaldun umoretsuen inguruan, batez ere Mogelen PERU ABARKA, Latxaren TODOS EIBARTECOS eta Elizanbururen PIARRES ADAM, denak XIX. mende amaierakoak. Ondoren, isilune latza dago, 1925ean Gregorio Mujikak PERNANDO AMEZKETARRA kontakizun liburua argitaratu arte, Fernando Bengoetxea xelebrea hil eta 100 urte pasatxo geroago (San Martín, 1987, or.47). Aski soberan ezaguna da amezketarra, bizitzan egindako bere asmakizunak eta portaerak ahozko tradizioak eta literaturak gorde dituela.

Interesgarria ere bada aipatzea nola San Martinek Soraluze-Eibar zonaldeko umorismoa bereizten duen gainontzeko euskal herriekiko. Argi uzten du E.H ezberdina dela oso herri batzuetatik bestetara, toki batean egiten diren forma umoristikoak ez baitira beste batzuetan ulertzen.

Umorea umorez agertzen ohartu nintzen donostiar hiritarren buru moteltasunaz. Izan ere, horien ondoan, nabarmen ageri zen Bizkai aldekoak irriz hasten zirenean zein aurpegi leloak jartzen zituzten donostiarrek, esaten nuenaren erdirik ulertzen ez zutelako.

San Martin, 1987, or.41

Hortaz, San Martinentzat badira euskal U.aren berezkoak diren **lau gako nagusi**, ikerlan honetako gida ere izango direnak:

- Ateraldia, entzulearen harridurari lotua eta beti bat-batean.
- Hizkuntza nahasketa (euskara eta gaztelera/frantsesa), hizkuntzetatik eratortzen diren teknika komikoetaz baliatuz.
- Argitasuna, alegia, erantzun umoristikoa bat-batean burutzeko abilezia edo joera, laster batean, bertsolaritzan bezala asmakuntza azkar egiteko tendentzia.
- Lerro hauetan 'lokalismo' bezala izendatuko dena, alegia: herri oso zehatzen ohitura eta bizimoduei men egiten dieten erreferentziak, heuretatik kanpo nekez ulertu daitezkeenak (Soraluze-Eibar²² eredu, San Martinen hitzetan).

Bestalde, E.H.U.ko EMAN ikerketa taldeak *Donostia 2016* proiektuan abian antolatutako *Tirabirak* erakusketan, euskal gatazka aztertzen zen egunkarietako umorista grafikoen lanaren ikuspegitik, 1977tik 2016ra. Erakusketa transmedia izanik, honi buruzko liburua argitaratu zen urte bat geroago, non Kike Amonarriz soziologoak hona ekarri beharreko artikulua aipagarria idatzi zuen: *Hau dun/k umorea, utzi alde batera euskaldun jendea* –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.217-222–. Amonarriz U.a zer den definitzen hasten da,

aldarte [...], bizitzarekiko ikuspegi alai eta baikorra. Baita tresna ere: arazoak erlatibizatzeke eta harremanak errazteke erabil daiteke edo eraso zorrotz eta ankerretarako.

EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.218

Eta geroago helduko dio euskal U.aren zehaztasunak identifikatzeari, alegia, emandako definizio xumetik abiatuz, ikuspegi alai eta baikor hori nola garatzen den E.H.an, eta San Martinen premisari heltzen dio, autore hau aipatu barik: bereiziki **ahozko tradizioan** topatu ahal direla euskal U.aren berezitasunak, eta euskara egoera gutxituan egondako hizkuntza izanik, esparru oso lokaletan garatu egin dela U hori – EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.210–. Alta, ez du zehazten berezkotasun horiek zeintzuk, diren. Bai ordea beren mugak, ezein

22 Adibide deigarria ere bada 1.2.2 epigrafean ikusitako *Supermendikute* serieko pertsonaien hizkera, Eibarreko DIARIO VASCOREN tokiko edizioan agertzen den José Antonio Azpilicuetaen pertsonaia: “Aintxiñako txistia bai”, “Bartzelonakua”, “Oratu bolantiari”, eta tarteka, gaztelarako aipua (Azpilicueta, 2000, or.333). San Martinek jarritako adibide argigarria litzateke.

azken hamarkada hauetan, umore modernoa lantzen hastean, egoera minoritarioaren ondorioz euskarak dituen **hutsune eta oztopo ugarirekin**²³ egin du topo: erregistroen falta (argotak, bikoizketa sinesgarriak egiteko hizkerak...), erreferentzia komunak, etab. Eta euskarazko umore nazionala sortzekotan, oztopo hauek gainditu beharko ditugu; batez ere, hizkera eta erreferentzia komunei dagozkienak.

EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.222

Hortaz, Amonarrizen tesiaren arabera ez legoke euskal U bateratu bat, baizik eta tokian-toki adierazten diren manifestazio umoristiko lokalak, baina ez U nazionalik. San Martinek bezala, ahozko tradizioaren bidetik topatu daitezke manifestaziook, Amonarrizek zehazten ez dituenak, eta globalizazioaren ondorioz galtzeko arriskuan daudenak. Adierazten du ordea euskal gatazka medio, boterearen kontrako adierazpen politiko umoristikoak indartu egin direla pasa den mendetik hona (U grafikoaren presentzia nabarmentzen du –EMAN [ikerketa taldea] 2017, or.212–), baina “gutxi” jorratzen den tendentzia bezala.

Aztertutako guztiaren ondoren, euskal U.ari buruz esan daitekeena batez ere ahozko tradizioari lotuta dago. Halaber, ez dago, Amonarrizek –edo Garziak, edo Baroja/De Iceak– ere baieztatu bezala, euskal “umore nazionalik”: txisteak sortzeko formak daude, gehienetan tokiko erreferentzietan oinarrituta, eta tokian-toki alda daitezkeenak. San Martinek egiten duen literatura-klasifikazioa **intentzio komikoa duten obrena da**, ez besterik.

Bat-bateko ateraldi fina aipatzen du halaber San Martinek, burutapenez dialogo laburretan ateratzen omen dena, errealitatearen alde irrigarria antzeman eta argiro botatzeko trebezia, bertsolaritzan horren mahiz gertatzen dena.

Bertsolari onari ez dago umorea zer den erakutsi beharrik, Pernando Amezetarragandik Txirritagana arte ba zen besterik tarte [...]. Hein batean oinordeko ziren Uztapide, Mattin, Xalbador; eta gure egunotan, besteak beste, Lazkao-txiki, Mañukorta,... (punto baino puntadak hobe; bada-ezpada).

San Martin, 1987, or.43

Hala ere, bi aspektu desberdin dira bertso bat umoretsu izatea eta E.H.ak berezko U.a izatea. Halaber, U.a argia izan daiteke, erantzun bat azkar eta arin sortzeko trebezia sortua, baina ez du beti inplikatzeko komikoa izatea, eta are gutxiago umoristikoa, nahiz eta normalean halakoa ez izan.

23 Letra beltza autoreak jarritakoa da.

Agian, euskal U.aren berezitasunik aipagarriena euskara bera da, hizkuntza moduan ematen dituen posibilitate erretorikoen harira. Hizkuntza gutxitua izateak, barnetik zein kanpotik mugak estutu zaizkionak, errez azaltzen du euskal U.aren lokalismoa, bai eta etengabe erdaretara jo behar izatea, ezein euskararen arazo ei den, Amonarrizen esanetan, erregistro faltak eta erreferentzia komunak –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.222–, gaztelerak zein frantsesak bete ohi dizkioten zuloak.

Honela, eta gai honen inguruko literaturatik edanda, baieztatu daiteke euskal U.az hitz egin daitekeela **euskaraz egindako U bezala**, baina ez euskal herritarrak duen munduaren edo errealitatearen aurreko espresio umoristiko unitario eta egituratuaz. Euskarak ere bere ulergarritasun-hutsuneak ditu euskalkien aniztasuna dela eta, eta hantemenka kontatu daitezkeen pasadizoak agian ez dira ulergarriak beste batean erregistro faltagatik. Hori da hain zuzen Amonarrizen premisa.

1.3. Umore grafikoa zer den

U.a zer den ikertuta, U grafikoa (hemendik aurrera U.G.) zer den askoz errazago ulertu daiteke.

'Grafiko' esaten denean, polisemian jauzteko arriskua dago. R.A.E.ra berriz joaz, “*perteneciente o relativo a la escritura y a la imprenta*” definizioa ematen du hiztegiak, ñabardura deigarri batekin: *chiste gráfico* izenera joateko aukera ematen du. Ikusi eta definitu da txistea zer den, eta ikerketa honetan zehazten den moduan, U.G.ari *txiste grafiko* ere deitu ohi zaio, alegia, “*dibujo de intención humorística*”.

Marraskia edo ilustrazioaren gakoa ematen du R.A.E.k, eta bide horretatik, U.G.aren teoriko Iban Tubau katalanak zalantzarik ez du Antzinetatik hona existitu dela U.G.a, intentzio umoristikorik duten marrazki edo errepresentazio piktoriko modura ulertzen bada:

Es evidente que ciertas vasijas halladas en Ampurias, Campania y Sicilia, así como las pinturas de Cranach, Breughel, El Bosco o Teniers, dan testimonio de una visión caricaturesca y —por qué no— humorística de la realidad. Más claramente aún, pintores como el inglés Hogarth o el español Goya se muestran como verdaderos humoristas gráficos.

Tubau, 1973, or.21

Tubauk berak zitaturiko obran onartuko duen bezala, ekarritako definizioa zabalegia da. Idazlea Anpuriaseko ontzietaz, Cranachen mihiseetaz edo Goyaren matrize litografikoak seinatzen ditu euskarri modura, bai eta bertan pintatu ziren marrazkiei intentzio umoristikorik aitortu. Alta, ikerketa honen objektua prentsa-papera du euskarri, eta ondorioz, kazetaritzan definizio egokiagorik topatu dezake.

Kazetaritzan, intentzio umoristikoez bustitako ilustrazioak U.G bezala ulertzen dira, eta **iritzi genero** bezala kokatzen dira, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ikerlari Armañanzasek eta Diaz Nocik zehaztu bezala:

En una publicación, la opinión no sólo puede aportarse a través de textos, sino que también puede darse a conocer a través de ilustraciones [...] . En las páginas de Opinión de un diario las ilustraciones son bien de carácter iconográfico –retratos, caricaturas– o viñetas de humor, con o sin texto. Si un simple dibujo en apariencia inocente puede estar cargado de intención, ésta se torna opinión crítica irónica, ácida, cuando viene acompañada del humor. Son esas viñetas que generalmente reposan a los pies de los editoriales o haciendo compañía a otros artículos de opinión en unas páginas fundamentales para conocer el posicionamiento de un periódico sobre los más variados acontecimientos.

Armañanzas eta Diaz Noci, 1996, or.111

Definizioa aski osatua dagoen arren, ezin daiteke esan prentsako U.G.aren helburua beti iritzi bat azaltzea denik. Batzuetan, U hori joko sotila besterik ez da, denborapasa. Askia soberan ezaguna da Bizkaian eta Araban tirada gehien duen EL CORREO egunkariko *Don Celes*, bere autore Jose Luis Olmok definitzen duen bezala, pertsonaia “onkote” hutsa, inoren iritzirik transmititzen ez duena:

Nik nahi dut egunero [...] Don Celes onkotea ager dadila irribarre bat eskaintzera, horixe besterik ez. Konplikaziorik gabe, errebantzarik gabe, kritikarik gabe, behazunik eta ozpinik gabe. Horixe bakarrik: irribarre xume, atsegin eta gizakoi bat, hori baita ikamika, kontsumismo, inflazio eta hauteskundeen mundu batean, umoregile batek egin dezakeen oparirik atsegingarriena.

Unsain eta Borra, 2005, or.110

Halaber, Armañanzasek eta Diaz Nocik biñetak aipatzen dituzte. Komeni da agerian uztea biñeta (edo biñeta serieak) direla U.G.aren formatu ohikoenak prentsan; ez da beraz harritzekoa artearen egoeran zitatuko diren erreferenteek sarri askotan biñeta hitza, edo zinta komikoa, edo tira komikoa, U.G.aren sinonimo modura hartzea. Une egokia da beraz biñeta²⁴ zer den definitzeko, alegia, une jakin bat kaptatzen eta erakusten duen laukiratze narratiboa:

Cada viñeta delimita una porción de espacio en el que se representa bidimensionalmente, mediante el dibujo, un espacio ficticio, en cuyo interior acontece una acción de duración variable. Como sea que la imagen es fija y la acción representada implica a veces un cierto paso de tiempo, el instante escenificado es, en realidad, un *instante durativo*.

Gasca eta Gubern, 1991, or.12

24 Definizioa, 3. eranskinera ekarritako glosarioan ere agertzen da (eranskinetan, or.4).

Komikia, Gasca eta Gubernen esanetan, medio jakin bat da, biñeten bidez istorioak kontatzen ditu²⁵. U.G.a ez da komikiarekin nahastu behar, baina biñetak baliatzen dituen heinean, komikiaren lengoaiatik ere hainbat kode grafiko ekartzen ditu. Komikia, Gasca eta Gubernen hitzetan, zera da:

Medio escripto-icónico basado en la narración mediante secuencias de imágenes fijas consecutivas que pueden integrar en su seno textos literarios.

Gasca eta Gubern, 1991, or.10

Honela, zinta komikoa²⁶ (Z.K.) U.G.a medio inpresoetan agertzeko modua da, alegia, ilaran jarritako biñeten kontakizun laburra. Hori da hain zuzen Antton Olariagaren formatu ohikoa EGIN egunkarian.



Irudia 3: Olariagak EGINen argitaraturiko lehen zinta komikoa.

Iturria: © Olariaga (5. eranskina, or.1)

EGIN egunkariko lehen zuzendari Mariano Ferrerek “*tira de humor*” hitza erabiltzen du U.G.ari buruz hitz egiteko –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.205-210–. Ferrerentzat, Z.K.a (edo U.G.a) bere horretan ez da kazetaritza generoa, baina bai kazetaritza-produktua, informatzeaz beste, irakurleak aurretik badakizkien berrien inguruko interpretazio umoristikoa eskaintzen dutenak:

Que la tira de humor [...] tiene relación directa con la noticia es una evidencia. Su función sin embargo no es fabricar un relato a modo periodístico. Puede responder a hechos ocurridos (o no, tira gráfica del Roto), profundizar en sus implicaciones objetivas (o imaginar otras). El viñetista trabaja sobre la noticia ya hecha, parte del relato que ya circula en los medios. [...] Es un producto que se dirige a un lector ya informado, y viene a ser una reflexión sobre los relatos informativos que circulan en la sociedad.

EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.206

Ferrerek ez du espresuki iritzia aipatzen, bai ordea errealitatearen gaineko irakurketa alternatibo bat. Azken definizio hau askoz gertuago egon daiteke U.G.aren izatearen inguruan, non Olmoren *Don Celes* era sar daitekeen, garai tira-biratxu batean eta zentsurari aurre egiteko munduaren ikuspegi apal eta inozo bat besterik eskaini nahi ez duena.

25 Definizioa, 3. eranskinera ekarritako glosarioan ere agertzen da.

26 Definizioa, 3. eranskinera ekarritako glosarioan ere agertzen da ('tira komikoa' edo 'zinta komikoa').

Hala bada, eta lar ez luzatzearren, U.G.a zer den modu honetan definituko da, ikerketa honen objektua kokatzen den kazetaritzaren ikuspegitik: **kazetan aurkezten diren ilustrazio komikoak dira, testuarekin edo testurik gabe, irakurlea entretenitzeaz beste, egunerokotasunaren inguruko aferen irakurketa eta interpretazio umoristikoa eskaini ohi dutenak.**

Bestalde, kazetaritzan, mahiz erabiltzen da 'komunikazio grafiko' (K.G.) kontzeptua egunkari batek duen aurkezpen grafikoa izendatzeko, bai eta bere edukiak aurkezteko itxuraren kudeaketa estetikoari ere.

Ez dira nahastu behar U.G eta K.G.a: bata zein bestea dira grafiko (izatez, testua eta tipografiak ere grafikoak dira), baina azkenak egunkariaren antolakuntza estetikoari men egiten dio; lehenak, esan da, kazetaritza genero bati.

BERRIA egunkari euskalduneko estilo liburuak oso modu zehatz eta laburrean azaltzen du K.G.a zer den:

Kazeta orrietako informazioaren zati handi bat idatzien bidez ematen da [...], baina, zenbaitetan, bata bestearen lagungarri dira. Esaterako, erreportaje luzeetan zatidurak edo testu osagarriak egin ohi dira. Irudien eta diseinuaren bitartez, testuko informazioa osatzen du irakurleak; hau da, argazkiek eta infografiak ilustratuta, eta tipografia elementuek (letra mota eta neurria, lerro tartea, letraren kolorea...) eta maketazioak lagunduta. Gainera, orrialdean berria non dagoen eta zein sailetan, horrekin ere errealitatea interpretatzeko irizpideen berri ematen zaio irakurleari.

BERRIA, d. g., atal. Idatzia eta irudia orrialdean

“Irudia(k)”, “diseinua”, “argazkia(k)”, “infografia”, “tipografia elementuak”, eta “maketazioa” aipatzen dira. Elementu grafiko horien guztien arteko konbinaketa estetikoak, irakurgarritasunaren eta ulergarritasunaren mesedean; horixe bera izango litzateke K.G.a. Ezin da ahaztu elementu hauek guztiak ere parte hartzen dutela Interneteko kazetaritzan, ingurune zibernetikoak baldintzatuta.

Komunikazioaren ikuspegitik, esan beharrik ez dago itxurak xede-talde jakin bati zuzentzea bide duela, komunikazioak beteko dituen helburuen arabera. Baina xehetasun horiek marketinari dagozkio.

2. Artearen egoera

Kazetaritzaren esparruan kokatu ezker, umore grafikoak (U.G.) gaurkotasun gaiak jorratu ohi ditu. Olariagaren kasua da, estatuko tirada gehien duen EL PAÍS egunkariak berak ere berrestua:

Olariaga siempre ha buscado el humor en la actualidad, como forma de provocar una sonrisa al espectador y de garantizar su carrera.

Marín, 1999, par.2

U.G.ak marrazkilariaren iritzia eta egunkariaren beraren kokapena erakusten du gaurkotasunezko gai jakinei dagokionez (Armañanzas eta Diaz Noci, 1996, or.111) ikuspegi umoristiko batetik. Gai politikoak sarritan jorratzen ditu, elite politikoak kolokan jarritz. Eta hain justu, tendentzia hori izan da iskanbila handien sorburua. Espainian bertan adibide adierazkorrik badago: 2007an Entzutegi Nazionalak *El Jueves* aldizkari satirikoa saltokietatik kentzea agindu zuen, bere azalean, garaian printze zen Felipe Borboikoa eta bere emazte Letiziaren karikatura agertzen baitzen, biak biluzik, koito-ekintzan. Halaber, eta lerro hauek idazten ari zirela, Parisen atentatua gertatu zen 2015eko urtarrilaren 7an, *Charlie Hebdo* astekari satiriko frantziarraren egoitzan, non yihadismoari lotutako bi gaztek atentatua burutu zuten, hamabi pertsona akabatuz. Arrazoia, aldizkariak argitaratu zituen zenbait zinta komiko (Z.K.) eta karikatura, erlijio islamdarra parodiatuz. Gertakariak mobilizazioak bultzatu zituen mundu mailan, iritzi askatasuna zela eta ez zela. Puntu aipagarri bezala, hilabete eta urte bereko 28. egunean, Frantziako gertakariak eraginda, *H28 aldizkari saretirikoa*²⁷ plazaratzen hasi zela, Asisko Urmeleta, Marko Armspach eta Patxi Huarte marrazkilari euskaldunek bultzatua.

U.G.aren interesa, beraz, nabarmena da genero komunikatibo bezala: zer adierazten duen, nola, eta zer-nolako gizarte-eragina duen. Halaber, eta produktu artistikoa den heinean, interesgarria da aztertzea U.G.ak nola islatzen edo interpretatzen duen berau sortu duen gizartea, Sáezek baieztatzen duen moduan:

El cómic, como la mayor parte de las obras de arte, es un reflejo de la sociedad en la que se desarrolla. Sin embargo, su publicación en prensa, acentúa aún más su carácter social e histórico²⁸.

Sáez, 2014, or.22

27 <http://issuu.com/h28aldizkaria> (2016/03/13).

28 Saez De Adanak "carácter social e histórico" esaten duenean nahitaez doa gaurkotasunera, umore grafikoaren ezaugarri nagusia eta jada aipatu egin dena.

2.1. Umore grafikoaren erreferente teorikoak Euskal Herrian

Euskal Herrian (E.H.) produzitutako umore grafikoa (U.G.) aztertu nahi bada, bai eta berorren produkzioa euskaraz, beharrezkoa da lehenik José María Unsainen ikerlanetara jotzea.

Unsainek historialari moduan jokatzeko du: bere lana ez da zinta komikoen (Z.K.) eta komikien esangura diskurtsiboan sakontzea, jasotzen dituen materialen analisi historiografikoa egitea baizik. Beraz, hainbat oinarriko informazio eskaintzen ditu U.G.ak diziplina modura E.H.an egin duen ibilbidea ikusteko.

Lehenik eta behin, nahiz eta U.G. 'puruan' ez zentratu, ANTECEDENTES DEL CÓMIC EN EUSKADI liburua aipatu behar da (Unsain, 1990), non ikerlariak 1894 eta 1939 arteko komiki produkzioa aztertzen duen Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. U.G.a, **komikitik edaten duen diziplina modura identifikatzen du**, eta aipatutako daten artean topatutako materialen autoreak, argitalpenak eta narratologia deskribatzen ditu. Oro har, adierazpen grafikoaren eboluzioa azaltzen da, eta argi utzi nola komiki euskalduna entretenitzeko helburuekin jaio bazen –batez ere umeak xede-talde edukita–, gerora nola doktrinamendu edo ideia euskaltzale zein nazionalisten difusiorako lantresna bihurtuko zen, betiere euskal hizkuntza zabaltzeko helburu kulturalarekin.

Azaldutakoaz gainera, *El humor gráfico en la prensa de Bilbao y San Sebastián* artikuluan (Unsain, 2004), 1865 eta 1936 urte arteko U.G.an zentratzen da Unsain, garaiko aldizkari eta egunkari nabarmenen produkzio umoristikoa aztertuz. Berriz bueltatzen da premisa berdinerara, eta nola U.G.a egunkarion ideia politikoen propaganda genero bihurtuko zen. Ikerlariaren arabera, marrazkiok irudia eta testua uztartzen eta elkartzen dituzten heinean, baliagarriak dira mezuak modu zuzen eta eraginkorrago batean irensteko, eta apenas leitzen zekien masa-populazioan elementu propagandistiko bikainagoa izango zen biñeta sotil bat testu luze eta landua baino.

Espainiako Bigarren Errepublika garaiko U.G.aren gaitegia, aipaturiko Unsainen azken ikerlanetik oso hurbil, José María Tápizen *El humor político en la prensa vasca durante la II República* artikuluan aztertu egiten da (Tápi, 2002). Bigarren Errepublikako Euskadin argitaratzen ziren egunkari garrantzitsuenak hartu eta bertan agerturiko U.G.a ikertzen ditu, bereziki umore horren gaitegi politikoa aztertuz eduki-analisiaren bidez. Gaitegien bidez argi dakusa Tápizek aztertzen dituen egunkarien U.G.ak bat egiten duela periodikoen lerro editorialarekin, propaganda politikoa bide.

Ikerketa historiko hauetatik oso hurbil, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (E.H.U.) irakasle ohi izandako Javier Diaz Noci aipatu beharra dago. Bi artikulua nabarmen ditu, 1990an idatziak, eta ikerketa-objektu bera dutenak: Abdón Alaiza, euskaraz argitaraturiko lehen komikiaren bultzatzailearen lana ezagutzera ematea, bai eta *Txistu* deitu zen lehen komiki horren sorkuntza prozesua ezagutaraztea. Lehen artikulua, gazteleraz, *Kultura* aldizkarian plazaratu zen (Diaz Noci, 1990a). Bigarrena, euskaraz,

Jakinen (Diaz Noci, 1990b). U.G.az baino, komikiaz ari da Diaz Noci, *Zeruko Argia* astekariarekin eta umeen artean euskara sustatzeko jaio zena. Hala ere, ezin da ukatu gerora tokiko egunkarietan agertuko den iritzi ikonografikoa lantzeko hasierak hauek direla, eta ondorioz, aipatu beharrekoak.

Bada halaber E.H.U.ko tesia, orain arte unibertsitate publikoan U.G.ari buruz egin den bakarra, José Antonio Azpilicuetarena: *LA TIRA CÓMICA HUMORÍSTICA EN PRENSA. ANÁLISIS DE LA EVOLUCIÓN DE UNA SERIE DE 250 TIRAS DE PUBLICACIÓN SEMANAL* (Azpilicuet, 2000). Ikerketa analitikoa da: 1989-1993 urte artean, *EL DIARIO VASCO*ren Eibarko edizioan tesiaren autoreak²⁹ berak argitaraturiko 250 Z.K. aztertzen ditu, euskaldun zein erdaldunak, bere marrazkiek estiloan eta forman adierazten den eboluzioa deskribatuz. Azpilicuetaren ikerketa-objektua (bere produkzioa) atalka aztertzen du, komikiaren lengoaiaren berezko diren elementuetan bere marrazkiak deskonposatuz (gorputzak, eskuak, adierazpenak, marrazketarako teknikak, argazki-ereduak, karikaturak, hizkuntza...). Gaitegiak ere aztertzen ditu. Egiten duen ekarpena, batez ere komikiaren lengoaiaren analisi zatikatua da, mintzaira honen forma narratiboak eta baliabide espresibo eta grafikoak atalka desglosatuz.

Baina E.H.U.n egin den lanik erreferenteena ikerketa honi begira, Eneko Lorentek 2014an Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean ospaturiko *El humor y la ironía como armas de combate* kongresuan aurkeztu zuen *Mirar al sesgo. El humor gráfico de Olariaga y Eguillor en la primera época del diario EGIN* ponentzia da. Hemen ikertuko diren EGIN egunkariaren lehen garaiko zenbait Z.K.etatik habiatuz, **garaiko euskal gizarteari egindako erreferentziak** ikertzen ditu Lorentek, **ironia prozesu bezala hartuz**. Ironia ez du ordea errekurtso erretoriko soil bezala hartzen: baliabide ironikoak aintzat hartzen du irakurlearen ezagupen jakin bat, aurretikoa, eta adierazten diona ez da baizik eta agerikoaren diskurtso alternatibo bat, posibilitate anitzekoa segun zein den irakurleak adierazitako horrekiko distantzia.

Lorentek bere ponentzia plazaratu eta urte bat aurretik, 2015eko maiatzean, *Bakearen aldeko eta biolentziaren aurkako biñetak (1977-2002)* erakusketa aurkeztu zen Gasteizen, FERNANDO BUESA FUNDAZIOAREN eskutik. Erakusketa, Arabar hiriburuko *Hegoalde* Gizarte Etxean egin zena, estatu mailako eta tokian-tokiko tira handieneko egunkarien³⁰ marrazkilarien 200 Z.K. erakusten zituen, euskal gatazka hizpide zituzten zintak bilduz. Fundazioak hala onartuta, euskal gatazkaren harira sortu den bortizkeria kondenatzea izan zen, U.G.a objektu, erakundearen webgunean adierazten den bezala:

Indarkeria terroristaren mehatxupearan bizi izan ziren hamarnaka milaka herritarrek zenbait urtez bizi zuten egoera irrazional eta gaitzesgarria deigarri bihurtzea du helburu erakusketak. Hori lortzeko bide bakarra dago: indarkeria terrorista eremu guztietan deslegitimatzea, eta horixe nabarmendu nahi du erakusketak. Horretarako, atzera

²⁹ Arte Ederretako irakasle, Azpilicuet marrazkilari ere bada.

³⁰ Erakusketaren erreferentzien arabera, ABC, DEIA, DIARIO DE NAVARRA, DIARIO VASCO, EL CORREO, EL MUNDO eta EL PAÍS izan ziren egunkariak.

begiratzeko du kanal oso grafiko eta zuzenaren bidez: egunkarietako marrazkilari bikain horien biñetak erabiliz.

Fernando Buesa (fundazioa) 2015, par.5

Z.K.aren baliabidea zergatik hautatu zuten ez da espresuki aipatzen. Bai egingo dute ordea E.H.U.ko EMAN ikerketa taldeko kideek, 2016an *Tirabirak* erakusketa ibiltari eta transmedia antolatu zutenak:

Bineten bidez, gatazkaren oinarriak eta ondorio gordinenak azaleratzen dira eta, aldi berean, ironiak, satirak eta parodiak gertakarietara hurbiltzeko beste ate batzuk ireki. Bakea, errespetua eta elkarbizitza eraikitzeko gogoeta, begirada enpatikoa eta integratzailea lantzeko tresna egokiak izan daitezkeelako tira grafikoak.

EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.7

Ikus bedi nola bi erakusketak, denboran oso gertuko, denbora-tarte antzekoetako produkzioak dituzten interes objektu. 1977a, Trantsizio garaia, medio berrien jaiotzea eta zentsura ofizialaren jautzea suposatzen du, eta orduan jaio ziren EGIN eta DEIA egunkari abertzaleak, erreferentzialak *Tirabirak* erakusketarako –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.309–. Biek dute urte hau abiapuntu. FERNANDO BUESA FUNDAZIOARENA ordea 2002an mugatzen du bere lagina, antolakundeari izena ematen dion politikaria erail eta bi urte geroago. EMANEN kasuan, 2011 izango zen akotazio mugarrira, EUSKADI TA ASKATASUNAK (E.T.A.) betirako su-etena iragarri zuen garaia hain zuzen, azkenean 2016a izango bazen ere, Donostia Europako Kultura Hiriburu saritu zutelako, bakea eta bizikidetzaren oinarri.

Azken erakusketaren lagina nola sortu zen zehatz-mehatz azaltzen du Tania Arriaga EMANKIDEAK erakusketaren ondotik argitaratutako liburuxkan –EMAN (ikerketa taldea) 2017–, non aipaturiko urte-tartean 570 gertakari identifikatu ziren, euskal gatazkarekin zerikusia zutenak, eta Leioako Biblioteka Zentraleko hemerrotekatik bost egunkaritan argitaratutako Z.K.ak bildu: DEIA, EGIN, EL CORREO, ABC eta EL PAÍS. 1988tik aurrera, Espainiako Auzitegi Nazionalak EGIN itxi zuenez, DIARIO DE NAVARRA gehitzen zaio egunkarien laginari, urte bat geroago EL MUNDO eta 1990tik aurrera, orduan jaio berria zen EUSKALDUNON EGUNKARIA³¹. Orotara 15.000 egunkari ikuskatu ziren, eta horietatik 30.000 Z.K baino gehiago hartu. Horietatik 3.500 zeukaten euskal gatazkarekin zerikusia, eta horiek dira hain zuzen erakusketara eramane zirenak –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.310–. Olariagarenak 26 dira orotara, erakusketaren artxiboan topa daitezkeenak (www.tirabirak.eus/eu/artxiboa/).

31 Arriagak zehaztu bezala, kasu batzuetan LA RAZÓN, DIARIO DE NOTICIAS DE NAVARRA, DIARIO 16, YA eta LA VANGUARDIAKO zintak gehitu zaizkio, bai eta Iparraldeko SUD OUESTEN Pays Basque edizioak aleak edo jada desagerturiko LE JOURNAL DU PAYS BASQUEARENak. Kurioski, egunkaria ez den *Enbata* aldizkaria ere sartu da laginean –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.310 –. Argitalpen hauek zein kasutan hartu diren ez da ordea zehazten.

2.2. Umore grafikoa Trantsizioan aztertzen duten ikerketak

Trantsizioa oso garai ikertua da Espainian. Umore grafikoari (U.G.) dagokionez, ikerketa historikoak daude eskura, non garaiko periodiko irakurrienen U.G.ak orduko gertakariak nola islatzen zituten ikertzen den. Orain arte ikusitakoaren arabera, U.G.a **sintomatikoki** ikertzen da, unean-uneko egunkarien egunerokotasunaren pean iritzi jakinak islatzen dituen.

Malagako ikerlari Natalia Meléndez Malavé aipatu behar da lehenengo. Bere lanik interesgarriena bere doktore tesia da, *EL HUMOR GRÁFICO EN EL DIARIO “EL PAÍS” DURANTE LA TRANSICIÓN POLÍTICA ESPAÑOLA (1976-1978)* –Meléndez, 2005–. Ikerketa historikoa da berez, baina edukien analisia ere egiten du hautaturiko zinta komikoen (Z.K.) analisirako. Azterturiko marrazkilariei sakontasun elkarrizketak ere egiten dizkie.

Modu berean, Francisco Segado ikerlari madrildarrak Espainiako aldaketa sozialak egunkari irakurrienen U.G.an nola islatzen diren ikuskatzen du, Trantsizio garaian zehar. Horren ostean, metodo kuantitatibo estatistikoa erabili ohi du gaien kopurua sailkatu eta kontabilizatzeko. Aipagarria da bere doktore tesia, *LA TRANSICIÓN ESPAÑOLA EN EL HUMOR GRÁFICO DE LA PRENSA DIARIA (1974-1977)* –Segado, 2008– eta horren ondorioz eratorri diren bestelako ikerketak, betiere garai berdina ikertuz, adibidez *UN PAÍS DE CHISTE. HUMOR GRÁFICO DURANTE LA TRANSICIÓN* (Segado, 2011).

2.3. Zentsura ikertzen duten ikerketa erreferenteak

Aurretik aipatu diren tesiek ere iritzi askatasunaren eta zentsuraren erronka tratatzen dute. Gaur egun, testuinguru europarrean U.G.a dela eta jazotako zenbait gertakari odoltsuen ondorioz –*Charlie Ebdó* aldizkariaren kontrako erasoak, edo urteak lehenago ere *JYLLANDS-POSTEN* egunkariaren kontrakoak, Mahomaren karikaturak direla eta–, iritzi askatasunaren inguruko hainbat argitalpen plazaratu dira, batez ere aipatutako azken gertakari hura aztertuz³². Baina ikerketa honen kasuan, gertakari zehatz hura aztertzen duten artikulu eta ikerlanetaz ez beste, begirada, herri jakinen gainean botere politikoek praktikatu duten zentsura hertsatzailea aztertuko duten lanetan jarri beharra dago.

32 Ildo honetatik, aipagarria da 2006an Kaliforniako *Holy Names Universityko International Society of Humor Studies* taldeak Kopenhagen antolatu zuen kongresua, *The Muhammad cartoons and humor research* izenpean (Lewis, et al. 2008), non egunkari daniarrean argitaratu ziren Mahomaren karikaturen inguruan eztabaidatu zen, berez umoristikoak ote ziren eta umore grafikoaren inguruko bide berri bat zabaltzen ote zuten. Zazpi autorek euren aurkezpenak egin zituzten, ondoren sinposio batean jaso zirenak, *Transnational Ridicule and Response* izenduna.

Saiakera hauek guztiak *Humor* aldizkarian jasoak izan dira, 1988an jaiotakoa, eta umorismoaren inguruko 400 artikulu baino gehiago plazaratu dituen (<http://www.humorstudies.org/JournalCenter.htm> [2016/02/21]).

Euskal umorearen (U.) nolakotasunen inguruko atalean aipatua zen Joxerra Garzia EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO irakasle ohia eta bere *Zentsura versus umorea* artikuluxka (Garzia, 1987), non U.a eta zentsura bi kontzeptu antonimo gisa hartzen dituen. U.a zer den, bi hitzetan definitzen du: “bizimoduan aurre egiteko jarrera jakin bat da”. Zentsura, zer eta agintariak bortxaz ezartzen dituzten mugak esan daitekeenaren eta ezin daitekeenaren artean, alegia,

Arma asko ditu aginteak [...], baina guztiak ere honako bi multzotan sailka litezke:

1. ZIGORRA. Zintzotasun-araua hausten denerako.
2. ZENTSURA. Zintzotasun-araua hauts ez dadin.

Garzia, 1987, par.5

Honela, Garziarentzat, badaude mugarri ezarriak, zentsura moduan, eta bide beretik, norberak bere buruari ezartzen dizkionak (Garzia, 1987, par.29). U.a muga horiek urratzeko lantresna izan zitekeen, agintariak gustuko ez dutena euren boterearen eraginkortasuna kolokan jarriko dutelakoan. Amaierako konklusioa, Euskal Herrian U.rik ez dagoela, zentsura onartzen eta irensten duelako (Garzia, 1987, par.29).

Garziak landutako ildo beretik (zentsura boterearen garantia bezala), oso interesgarria da 2012an *Social Research* aldizkarian Nikahang Kowsar marrazkilari irandarrak argitaraturiko *Contemporary editorial cartooning in Iran* artikulua (Kowsar, 2012). Artikuluak aski merezi du tesi honi begira, ezein Kowsarrek bere esperientzia pertsonala planteatzen duen, 2000. urtean AZAD egunkarian argitaratu zuen Z.K baten harira, Mesbah Yazdi aiatolah krokodilo batekin konparatzen zuela. Garziak U.az egiten du berba bere osotasunean; Kowsarrek U.G.ari buruz egingo du, ezein U.G.ak, hasieran esan den legez, U mota partikulari desafiatzailea izan daitekeen.

Iranen U.G.aren tradizioaren historia deskribatzen du Kowsarrek aipaturiko artikuluan, gertaturiko kontrasteak nabarmenduz mandatariak gora-behera. Bere herriaren iritzi-askatasun urriaren salaketa da batetik, esperientzia pertsonala bestetik, biak batera U.G.ak sortu ditzakeen gizarte arazoak deskribatzeko (autoreak herioz mehatxuak jaso zituen, bai eta bere gizarteko hainbat talderen errefusa eta erbestea barne). Argi zegoen gizartea gidatzen zuten aiatolah delakoen kontra ezin zela U.rik egin, ezein Garziak beste behin berorren artikuluan baieztatzen duen moduan, *serio, serioegi hartu ohi dute agintariak zintzotasuna zaintze hori. Hain serio ere, horretaz txantxarrik ez bait dute ametitzen* (Garzia, 1987, par.5).

Tesi honetan aztertzen den garaian zentsurak presentzia handia izango du, ezein diktadura baten jauzte-garaian egon harren, oraindik badira hainbat inertzia eta lege mugak, marrazkilarien lana arriskatua egingo dutenak.



Irudia 4: Mesbah Yazdi aiatolah krokodiloa.

Iturria: ©Kowsar, 2012, or.118

2.4. Umore grafikoak Euskal Herrian. Autoreak

Hurrengo lerroetan, umore grafikoak (U.G.) Euskal Herrian (E.H.) egindako ibilbidea jorratuko da, zenbait zertzelada argigarriekin, ikerketa-objektua hobe ezagutzeko eta bere nolakotasunak historian zehar nola eboluzionatu duten ulertzeko.

Zehaztu beharra dago alde zuzenetik hemen hartzen diren eredu gehienetan egunkarien U.G.az ez beste, istoriotxoak ere aipatzen direla. Ez da ezer arraroa, baldin eta kontuan hartzen bada medio inpresoen U.G.aren teknika komikiaren lengoaiatik edan ohi duela, sarri askotan zinta komikoaren (Z.K.) forma bisuala hartuz. Honela, ongi desberdindu behar dira *komikia* –lengoaia grafikoak, non kontakizunak bineten eta berezkoak zaizkion sinbolo grafikoaren bidez kontaktzen diren–, istoriotxoak –kontakizun laburra, komikiaren lengoaiatz egina (Entrialgo, 2011, or.278)– eta U.G.a, nahiz eta une jakinetan eta unean-uneko medioaren arabera nahastu daitezkeen.

Hortaz, materian sartuz, euskal U.G.aren sorteri bezala Donostia kontsideratu daiteke. XIX. mende hasieran gertaturiko indartze teknologikoaren ondorioz, hedabide inpresoen euren maiztasuna eta teknika hobetu ahal izan zituzten. Halaber, egunkari zein aldizkarietan, non oraindik argazkiak apenas baliatzen ziren, marrazkiek funtzio adierazkor handia izan zuten, eta U.G.ak halako didaktikoa –eta noizbehinka ere, propagandistikoa–.

José María Unsain ikerlariak lehen istoriotxo eta txiste grafikoak 1894 aldera topatu ahal izan ditu, *La Semana Euskara* eta *El Thun Thun* astekari donostiarretan, non U.G.a euskaraz zein gazteleraz argitaratzen zen. *La Semana* delakoan aipatzekoa da Federico Guevara marrazkilaria, non zenbait Z.K.tan testua pertsonaietatik gertu jartzen duen. Ordura arte, testuak biñetaren oinean jartzen ziren, aleluia orrien egitura imitatuz –Ameriketako Estatu Batuetan ordea bokadiloak eta hitz-globoak erabiltzen hasiak ziren jada–. Guevararen *Ir a por lana y...*³³ komikia deigarria da:

33 Komiki orriak, Germán Gamazo Ogasun Ministro izandakoa karikatuztatzen du, bai eta 1893an Iruñean jazotako *Gamazada*



Irudia 5: 'Ir a por lana y...' komikia.

Iturria: Federico Guevara (Unsain, 1990, or.9).

*El Thun Thun*en Victoriano Iraola aldizkariko zuzendaria aritu zen nabarmen, atal grafiko guztia berak eginez, gerora *Baserritarra* aldizkaria sortuko zuena (1908), hainbat Z.K Gipuzkoako tokiko euskararen argitaratuz (ekimen inportanteak hauek euskararen hedapenari dagokionean). *El Thun Thun* aldizkaritik aipagarria da ere Tiburcio Osácar marrazkilaria, gerora Iruñean *Irunsheme* eta *El Aurreku* aldizkari satirikoak sortuko zituen.

Formari so, Guevara zein Iraolaren Z.K hauek konposizio klasikoa dute, non testua oraindik biñeta-oinean kokatzen den. Espresioa beraz estatiko xamarra da, eta irudiek eta testuek elkarren arteko menpekotasuna erakusten dute, Guevararen *Ir a por lanan* ikusi bezala.

* * *

1914an hasten da munduak ezagutu duen lehen gatazkarik odoltsuena: Lehen Mundu Gerra.

Erresuma Batuak (E.B.) propaganda kabinetea sortu zuen herrialde neutralak bere alde jartzeko. Paraleloki, Louis Raemaekers marrazkilaria holandarrak DE TELEGRAAF periodikoan argitaratzen du bere marrazki-bilduma, Belgikako inbasioan gertaturiko sarraskiari buruzkoa. Marrazki gehienak umore (U.) ironiko eta garratza daukate, Holanda lurralde neutrala izaki, marrazkiliariaren aliatuen aldeko postura agertzen dutenak.

delakoaren manifestaldiaren satira.

E.B.ko diplomazia erakusketak planifikatzen hasi zen, neutral agertu ziren herrialdeetan, lurralde hauek bere alde jartzeko. Katalogoak eta erakusketarako marrazkiak itzuli zituzten, estatuetao hizkuntzatan. Ordea, Euskal Herrian?

Raemaekerseren marrazkien liburuxka hizkuntza handietara itzuli ondoren, *Wellington House*ko arduradunek eta *Foreign Office*ko diplomatikoez hizkuntza gutxitu batzuetara itzultzeko egokitasuna aztertu zuten. Espainiako enbaxadatik zetozen iritziei kasu eginda, Raemaekerseren liburuxkak Espainiako estatuan hitz egiten ziren beste bi hizkuntzetara itzultzeak ekar zezakeen aldeko iritzia kontuan hartu zuten katalanera eta euskarara itzultzeko.

Manterola, 2012, or.146

Espainian, Berrezartze sistema jauzten ari zela, bere burua Alemaniaren aldekoago zuen E.B.tik baino. Honela, eta periferiatan jaiotzen ari ziren alderdi nazionalista berrien ondorioz (Katalunaiko LLIGA REGIONALISTA kasu, edo EUSKO ALDERDI JELTZALEA Bizkaian) botere-gune berriak azaleratzen hasi zitzaizkion. Nazioarte mailan, ez omen ziren gutxi Espainiaren etorkizuna periferiatan zegoela uste zutenak (Manterola, 2012, or.147).


Gauzak honela, garaiko jeltzaleak Aliatuekin identifikatu ziren, konkistaturiko nazio txiki baten egoerarekin mimesi ariketa eginez (kasu honetan, Belgikarekin). Honela, EUZKADI egunkarian kazetari lanak egin zituen Aita Elizondo, Lekarozko fraide kaputxinoa, hautatua izan zen Raemaekerseren lana euskaratzeko prozesuan, ingelesten kontaktu sareari esker. Kaputxinoa Londresen ibilia zen, E.B.ren kausaren aldeko izan zelarik Gerra hasi zenetik. Honek Lekarozko komentuko Eusebio Elzaurdia Zubieta (Aita Etxalar) aukeratu zuen itzulpen lana egin zezan, azken hau hizkuntza zale amorratua zelarik. Aita Etxalarrek, sekretupean, bere herriko euskarara³⁴ itzuli zituen holandarraren marrazki umoristikoak, lan arriskatua berarentzat, ezein euskaraz idazten ahal zutenak, apaizak gehienak, karlistak baitziren (ondorioz, germanofilo).

Arazoak arazo, azkenean 1916ko irailaren 10ean egin zen erakusketa Donostian, bertoko CÍRCULO REPUBLICANO delakoak lagundurik, eta ekimen pribatuz mozorrotuta.

34 Katalanarekin arazo handirik egon ez bazen ere, euskararekin bi estropezu egingo zuten ingelesek: euskara batuaren falta batetik; eta euskara maila literarioan landu zezaketenak, elizgizonak batez ere, monarkikoak zirela gehienbat, eta ondorioz, germanofilo. Erakusketaren ondoren, prentsa karlistak egindako kritiken artean euskara bera dago, Manterolak bere ikerlanera dakarren EL CORREO ESPAÑOLEN gutunean bezala (1915ko uztailaren 12koa):

Nos escriben de San Sebastián que en aquella ciudad hacen repartir una colección de los tristemente célebres dibujos de Raemaekers, con texto en vascuence, por cierto, medianamente escrito. [...] Y ya que los ingleses profanan con sus calumnias la venerable lengua de Aitor para excitar contra Alemania el odio de los sencillos aldeanos vascos, aconsejamos a nuestros amigos traducir al vascuence aquel testimonio de ferocidad inglesa [...] que tiene sobre aquellas otras mentiras la inmensa ventaja de reflejar la pura verdad histórica.

Manterola, 2012, or.160



Irudia 6: 'Zer den'.

Iturria: Raemaekers, 1916

Halaber, erakusketa egin baino lehen katalogo euskaratua zabaldu zen, bereziki errepublikano eta jeltzaleen argitalpenen bidez, Aliatuen kausaren alde. Hala irakurri daiteke EUZKADI egunkariaren gutun batean:

Poz aundiegas artu det Olandiar antzekinan errebistea, eta ezkerak emoteotzudes nigas gomutatu zeralako Englandar errija, beti izanda biotz onekua, eta poz aundiegas ikustendeu orain bere beren biotza zabalik dagoena erri txiki gaxuak gaitik!

Manterola, 2012, or.158

1916ko uztailaren 7an, *Pertika'tar Jon* gisa sinatzen duen irakurleak igorri zion gutun hau periodikoari, erakusketa-katalogoa jasotzearen pozez. Ingelesek Euskal Herriaz eta euskaraz gogoratzeak emozioak piztu omen zizkion Pertikari, bai eta, ziurrenik, EUZKADI egunkariko hainbat irakurleri ere. Modu berean, Frantziako Errepublikak beharrezkotzat jo zuen Raemekersen obraren liburukiak euskal esparruan banatzea, bertan germanofilia saihesteko asmotan. Frantziako *Bureau de la Presse* ere euskarazko 600 ale eskatu zizkion E.B.ko *Wellington Houser*i (Manterola, 2012, or.57).

Euskadira bueltan, Gerra amaitu eta handik bi urtera, aipatzekoa da *Euzko Deya* hamaboskari jeltzale bilbotarrak 1918an *Teles eta Niko* umeentzako istoriotxo-seriea argitaratzen hasi zela, marrazkilari anonimo baten eskutik. Printzipioz, honek ez du U.G.arekin zerikusi handirik, baina inportantea da teknikari begira: komikiaren berezko diren globo edo bokadiloak txertatzen zituen, bai eta hainbat onomatopeia eta

mugimendua adierazten duten baliabide grafikoak ere. Gainera, pertsonaia finkoak izan ziren Teles eta Niko anaia-arreba, ordura arte hain ohikoa ez zena, eta istoriotxoak, euskaldunak. Euskara hurrei zuzendurik agertzen hasten da, euskalduntzea modu didaktikoan bultzatzearren.





TELES ETA MIKO

Jakin gura bazabete
 nortzuk diezag onetik
 'EUZKO-DEYA' erosi
 ikusleko emen.



I Anzueñatik ebilen Teles laiapaskin batzuben jabe izateko ametsetan, eta azkenian lotin eban bere guratija. Berak eta Niko'k atropa eban afain andija silduta alara eban txindijaz, Bilbao'n egozan laiapaskin edereñak erosi ebazan. Atsegingarija zan Teles laiapasten ikustia. Zein ederto ekijai! Tiritz... tiritz...



II Egun batean bitxibalian laiapastean ebifela Niko idoro eban uste-barik. «Ene Teles; Jaungu'k baldi an ona. Arac txari an perira eruan biñ ynat eta apatselan min egin yakot, lez, etxok zirkitiñ egin gura. Lagin-eistak, Teles! Bano, zutek, emakumetxubok, zetarako gura dozube buruba»—iman Teles'ek.



III «Erdi ona, Niko; txarijak euzun eztaiskun. Hctu ze laiapaskin ederak; ba, onekaz erungo yonagu». —«Bana orek bi bano eztozak; eta txarijak lau anka yaukozak». —«Ixi kintzelu, ix! Anka gora ipiñiko yonagu». —«Ela laiapaskiñak, bizkarian?». —«Iai; orekatik etxakana ez urdi ez gilarik alperikalduko».



IV Eta esan eta egin laiapaskiñak sendo-sendo lotu bizkarian, txarija itzuli, an da; aspikoz gancera ipiñi, sokatik ten, eta beratu esaten irauten dan aidija bano askotaz arifago perira eldu ziran.

(Dotoreñ zenhakijan Teles eta Niko'rea ipuintxu polifago bat argi-lalduko dogu, Jaungua lagun.)

Irudia 7: Teles eta Nikoren lehen istoriotxoa 'Euzko Deyan'.

Iturria: Diaz Noci, 1990, or.114

Bitartean, Donostian bere genero barruan hain berezia izandako *Novedades* aldizkari apolitikoa argitaratzen ari zen (1909-1919), non argazkiak gehitzen ziren, ohikoa ez zena. Halaber, U.G.arentzako tartea ere bazegoen, Alonso Martí, Joaquín Larregla, *Amua*, Victoriano Iraola, Félix Arteta, Ángel Cabanas Oteiza, Félix Agüero eta Antonio Guezala bezalako marrazkilariekin.

Txiste grafikoak indarra hartzen du garai honetako prentsan. Bilboko EL PUEBLO VASCO egunkaria izango da genero hau gehien indartuko duena 1912. urte inguruan, eta euskal txistegintzan hain ezaguna izango den José Arrueren biñetak argitaratuko ditu, bai eta Gustavo de Maezturenak ere. Modu berdintsuan, Donostiako EL PUEBLO

VASCOren edizioak ere izan zuen U.G.an interes goiztiarra, Ramón López Montenegro (*Cyrano*) marrazkilari eta literato aragoitarraren kolaborazioarekin.

Bestalde, prentsa nazionalistak U.G.a bere ideologiaren sostengu gisa erabiliko du. 1913an EUZKADI egunkaria argitaratzen hasi eta *Mirri* marrazkilaria, aurretik *Bizkaitarra* aldizkarian aritu zena, txiste grafiko satirikoak bertan argitaratzen hasten da. Marrazkiaren kalitatea adierazgarria da, bai eta tratatzen dituen gaiak ere. Bere U.a, guztiz garratza: EL NERVIÓN egunkari liberala berehala kexatu zen marrazkilariairene obra iraintzat hartzen zuelako. 1913ko maiatzaren 19an, *Un Vasco* izenpeko batek *Las caricaturas de "Euzkadi"* gutuna argitaratzen du, *Mirri*ren zenbait biñeten edukia kritikatzeko. Biñetak ez dira eskuratu ahal izan, baina bai herritar ezkutuaren testua:

Publicó el diario nacionalista Euzkadi una caricatura en la que, ofendiendo gravemente los sentimientos religiosos de los socios de un centro católico de Bermeo, se les presentaba pactando con Lucifer [...]. Ayer mismo ha publicado dicho periódico otra caricatura en la que hace una nueva demostración de las especiales aptitudes que emplea para ofender gráficamente. [...] Por ese camino solamente se puede hacer propaganda y conquistar aplausos entre cierta clase de gentes que ni son de este país ni entienden otro lenguaje que el que [...] les enseñó Perezagua.

Mirrik, gerora, *Kili-Kili* ezizena hartuko du, 1919an EUZKADIN segituko du lanean *Euzko Deya* eta *Abeñi* argitalpen abertzaleetan ere parte hartu ondoren.



En las garras del monstruo-centralista

EUZKADI A SU HIJO. ¡Ené, hijochu! ¿Pero tú no tienes madre?

Irudia 8: 'En las garras del monstruo centralista' biñeta.


Iturria: *Kili-Kili* (Unsain, 2004, or.606)

Egunkarietara itzuliz, LA VOZ DE GUIPÚZCOA egunkari errepublikanoa aipatu behar da. Bere orrietan U.G.a gehien landu zuena izan zen, Donostiako EL PUEBLO VASCOREN gainetik. Bertan marrazten dute, gaitegi politikodun zinta umoristikoekin, Eusebio Martín Igartiburu eta Pedro Antequera Azpirik. Baina gehien nabarmentzen dena Edurado Lagarde da, 1924/30 artean hainbat txiste eta karikatura argitaratuko dituen, betiere Donostialdeko alde sinpatikoena islatuz marrazketa-estilo sendo eta azkar batekin. Gaitegiaren artean, garaian indartzen ari diren ardurak agertu ohi dira: emakumearen protagonismo berria gizartean edo kirol espektakulu masiboak (Unsain, 2004, or.609). Bestalde, Gipuzkoako Ateneoak 1926an Nazioarteko Aste Umoristikoa antolatu zuen, Antequera Azpiriren gidaritzapean eta garaiko udalak lagunduta. Modu honetan, umorista grafikoen lana apur bat gehixeago prestigioz bete zen. Euskal marrazkilarien artean, Ismael Cuesta, Antonio Guezala, Juan Izagirre, San Roman, *Cri-To*, Jon Zabalo *Txiki*, José Arrue eta Antequera Azpiri bera egon ziren.

Araban, *Celedón*, *Vitoria* edo *Álava* bezalako tokiko agerkarietan zenbait txiste eta istoriotxo agertzen hasten dira, non Zeledon Gasteizko pertsonaia herrikoa nagusi den. Marrazkilarien artean, Obdulio López de Uralde eta Francisco Toribio Escasena aipatu daitezke, estilo oso profesionalekoak, komikigintzarako berrikuntza handirik gabekoak ordea, testua biñeta-oinean jarriz, eta mugimendu efektu ez oso ausartak baliatuz.

Las historietas de Celedón tienen a veces, como valor añadido, el reflejo de la realidad social o política de la época. El clima de agitación e inquietud de los años de la República se aprecia, por ejemplo, en la historieta *Nuevo Estilo* realizada por Escasena en 1933.

Unsain, 1990, or.3



Irudia 9: 'Nuevo Estilo' istoriotxoaren xehetasuna.

Iturria: Francisco T. Escasena (Unsain, 1990, or.56).

Espainiara Bigarren Errepublika ailegatuta, aipaturiko argitalpenek gai politikoak ere tratatzen dituzte, gizartearen ezinegona erakutsiz.

Bigarren Errepublikan Z.K.ek izaera propagandistikoa izango dute prentsan, bai eta, batzuetan, kartel txikien tankera hartu arte.

El recurso a la viñeta humorística en la prensa tiene, en muchas ocasiones, un fin didáctico. En el caso vasco de la II República este fenómeno se ve de forma clara.

En un momento en el que en los diarios era todavía poco habitual la inclusión de fotografías, los dibujos suplían esta carencia. Es por ello que los chistes políticos fueron frecuentes entre los periódicos vascos.

Tápiz, 2002, or.55

Tápizen ikerketaren esanez, Espainiako marrazkilarien teknikak zahartu xamar segitzen du, testua oraindik biñeten oinean jarriz eta biñeten sekuentziak agertu beharrean, biñeta bakanak agertuz. Hala ere, U.G.aren produkzioa oparoa da Estatuan lortu ziren adierazpen askatasunei esker. Ondorioz, periodikoak marrazki propagandistikoak argitaratzen hasi ziren, norbera bere ideologiaren alde. Nabarmenenak izango ziren: EUZKADI, EUSKO ALDERDI JELTZALEAREN aldeko; LA LUCHA DE CLASES, alderdi sozialistaren mesedean, eta EUZKADI ROJA, komunisten alde.

LA GACETA, Bilbon argitaratutako periodikoen artean bizitza luzeena duena (1901-1984), marrazkilaria interesgarria du, *Frag* (Gerardo Fernández Reguera). Txiste politikoak argitaratu zituen egunkarian, bai eta Madrilgo *Gracia y Justicia* aldizkari satirikoan ere.

Prensa abertzalean, lehendik aipatutako *Kili-Kili* ari da kili-kilian, EUZKADI egunkari jeltzalean *Kili-Kili Semanal* sekzioa landuz. 1932. urteko zenbait gorabehera politiko komentatu zituen, betiere biñetak sortzeko eskema klasikoa segituz: irudia biñetaren barruan eta testua oinpean. Eredu hau ez da aldatzen garaiko zenbait komikitan izan ezik.

Bestalde, bi autore aipagarri dira José Arrue eta Jon Zabalo *Txiki*, ibilbide eta eskarmentu handidunak, euskal U.G.aren arloan. Biak nabarmendu ziren Bigarren Errepublikaren garaian aurretik, bai eta bitartean ere.

Arrueri buruzko obra grafikoaren analisi deskriptiboa José María Unsainek egin du, bere *José Arrue, humorista político* artikuluan (Unsain, 1987). Arrue –Bilbo, 1885-Laudio, 1977–, U.G. an ere nabarmendu zen pintore eta artista, bere lehen zertzeladak emango ditu *El Coitao* aldizkari satirikoan. Gustavo de Maeztu eta Unamuno bezalako intelektualekin egin zuen lan, eta ondorioz, ideologia liberaleko aldizkari eta argitalpenak bere marrazkiekin apaindu zituen. Argitalpen hauetan jeltzale eta karlistak karikatuzatuak izanen dira.

EL LIBERAL egunkaria izango da Arrueren obraren adierazle. Ez da ordea oso ohikoa bere parte-hartzea, baina bai bere txisteen berezkotasuna: *El Coitao* marrazki solte eta zirrimarratsua landuko bazuen, oraingoan estilo landuagoz egingo du. Bere U.a, ironiko eta txingotea:

Los chistes que Arrue publica en *El Liberal* [...] revisten de gran interés por cuanto que abordan temas sociales y políticos como pueden ser, la carestía de la vida, la

especulación, la represión del sindicalismo, los manejos antidemocráticos del sufragio o el desahucio. [...] Junto a la sátira y la ironía política Arrue practicó en *El Liberal* un chiste costumbrista, donde se ven ya perfilados [...] sus tipos y escenas de aldea.

Unsain, 1987, or.123

Euskal estereotipo baserritarra ere erabiliko zuen Arruek, euskaldun buru-gogorra, jan eta edan zalea eta gazteleraz trakets mintzo dena:

Al igual que la mayor parte de su pintura, el mundo rural vasco es visto desde un prisma jocoso, alejado de las idealizadas fórmulas de representación que caracterizan a la plástica etnicista dominante de la época.

Unsain, 1987, or.123

Arruek, gaiztotasunik gabe, hain mitifikatua izaten hasia den euskal tipo herrikoa karikaturizatzen du. Euskal tipoa edarizalea da berarentzat, arlotea, baina noblea ere bai. Gazteleraz ahal duen moduan aritzen da, eta bere herriko tradizioei eta Elizari estuki loturik bizi da. Arruek bere pertsonaiak gazteleraz kili-kolo mintzatzen jartzen dituenean, baserriko ingurune batean, Unsainek 'baserriko txiste' gisa izendatzen ditu, ingurune hiritar eta erdaldunean irrigarri direnak.

Arrueren euskaldunen estereotipo hau ez da berak asmatua, ezein gazteleraz trakets mintzo den euskaldunaren pertsonaia Cervantesen Azpeitiko Santxotik Joaquín Guerricagoitiaren *Arlotera*, Torres Naharoren *Peruchotik* pasata, XVI. mendeko antzerkigintzatik jorratua izan zen, eta bere punturik altuena lortu zuen XIX. mende amaierako eta XX.aren hasierako Bilbo industrialean, Jorge Echagüeren esanetan (Echagüe, 2012, atal.Arlotadas y susedidos, par.2). XVI. mendeko antzerkian, Cervantes, Quevedo, Gaspar Gómez edo Torres Naharro bezalako idazleek euskaldunaren estereotipoa baliatzen hasi ziren, Echagüek “*jerigonza avascuenzada*” deritzon gaztelera euskaldundua mintzatzear gain, pertsonaia zakarra eta hitz gutxikoa zena, eta izen tipikoa, zein eta *Perucho* (Echagüe, 2012, atal.La jerigonza avascuenzada).

XX. mende hasieran ordea, literaturan agertzen den euskal estereotipoa ez dute Euskaditik kanpoko autoreek erabiliko, Euskal Herriko (E.H.) erdal munduak egingo du, euskaldun herritarraren eta hiritarren artean bereizketa eginez: hiriko euskal hiritarrak, erdaldunak eta liberalak, herrikoen kontura egingo dute barre, tradizionalak eta euskaldunak direnak, Echagüek “*arlotada*” deritzon eredu komikoa lortuz, batez ere Bilbon eta Iruñean.

La arlotada encontró su principal medio de expresión en las columnas humorísticas de la prensa y en el teatro. Insignes cultivadores de la misma fueron Joaquín Guerricagoitia y Alberto San Cristóbal, que hacían las delicias de la burguesía bilbaína con anécdotas protagonizadas por Peru Arlotegoitia, alias *Arlote*, un casero

de Lejona. Como este pueblo está en las afueras de Bilbao, las frecuentes incursiones del personaje en la villa dan materia para las anécdotas humorísticas, que llegan ya al cenit cuando Arlote se enriquece y se compra una villa en la elitista Guecho.

Echagüe, 2012, atal.Arlotadas y susedidos, par.6

Hala bada, Arruek erabiltzen duen euskal estereotipoa aurretik sortua zen tradizio komiko baten adierazpen grafikoa besterik ez da, umoretsua eta garaiko euskal irakurleria erdaldunarentzat aski ezaguna.



II
— Ahora, al monte. Yo soy el pastor y vosotros las ovejas...
— Bueno pues, andando. Pero en el monte, comer también hay que
hacer pa vivir...
— ¿Comer? Ya está solucionao eso...

Irudia 10: 'El pastor guerrillero' istoriotxoaren biñeta.

Iturria: Jose Arrue (Unsain, 1990, or.63).

1924. urtean Arruek *EL LIBERAL* utzi eta *Vida Vasca* urtekarian hasten da laguntzaile, txiste, istoriotxo eta ilustrazioak eginez. Esan beharra dago Arrue inoiz ez zela komikiaren teknika berriekin saiatu: testua beti jartzen du biñetaren oinpean, aitzinako ereduari segika. 1924. urte berean ere Bartzelonako Umoristen Saloian bigarren saria irabazi eta *EL SOL* egunkari madrildarrean hasten da marrazten, non Luis Bagaría edo Castelaoren tankerako marrazkilari handiekin egingo duen lan. *Acción Vasca* eta *Tierra Vasca* aldizkari ezkertiarretan kolaboratzaile segituko du, Errepublika, autonomia estatutua eta estatuaren laikotasuna defendatuz. Espainiako Gerra Zibila amaituta, kartzelatik irtenda, hutsetik hasi beharko du bere lana.

Bestalde, Jon Zabalo *Txiki* (Manchester, 1892 - Londres, 1948), oso artista aktiboa da: Bigarren Errepublika garaian kartelismoa anitz landu zuen, bai eta lehenengo ikastoletarako liburu ilustratuak ere (horien artetik, *Xabiétxo* da ezagunena).

Donostiar familiakoa, bere gurasoen lan joan-etorriak zirela eta Manchesterren jaioa, arkitektura eta arte ikasketak zituen, eta bere arreba Inaziarekin batera (*Nor Nai* ezizenduna) ilustrazio lanak egin zituen. Bien marrazkien forma, kasik geometrikoa, marra sendo eta zuzendunak, oso ezagunak egin dira E.H.ko kartelismoan.

*Txiki*ren lehen pausoak Donostiako EL PUEBLO VASCON aurki daitezke, U.G. arekiko apustu nabarmena egin zuen periodikoa. Primo de Riveraren garaian politika kontuetan bigun xamar badabil, Bigarren Errepublikan EUSKO ALDERDI JELTZALEATEN bozeramaile ausart bihurtuko da, txiste elebidunak eginez.

Txiki 1936ra arte EL DÍA egunkarian arituko da, jeltzaleen ideologiatik gertukoa, aurreko etapan ez bezalako U.G gogor eta kritikoa eginez, kasik *Mirri/Kili-Kilirena* bezain ozpina.



Irudia 11: Txikiaren txiste politiko bat.

Iturria: Jon Zabalo 'Txiki' (txikizabalo.com [2015/11/20]).

Gerra Zibila amaituta, *Txiki* bere jaioterrira itzuli behar izaten du, faxismoaren atzaparretatik kanpo. Bertan biziraungo du margolari, 1948an zendu arte. Bere bizitza eta obrari buruzko webgune oparoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestaturiko atari honetan dago: txikizabalo.com (2015/11/20).

36ko Gerra Zibila hasita, interesgarria da ikustea nola erabiltzen dituzten bi bandoek egunkarietako U.G.a. Errepublikan propaganda egiteko genero modua izango bazen, gerra garaian norberaren bandoaren sostengurako tresna bihurtuko da. Unsainen esanetan (1990, or.5), errepublikanoek ez omen zuten asmatu komiki, istoriotxo zein U.G.aren potentziala erabiltzen, Arruek *Erri* astekari komunistan egindako zenbait istoriotxoetaz aparte (Unsain, 1990, or.5). Nazionalek, ordea, Mola jeneralarekin Donostia hartu ondoren, bertan kokatu zuten euren argitalpen-gune nagusia.

Para que San Sebastián pasara a convertirse de la noche a la mañana en destacado centro editor del cómic concurrieron dos circunstancias significativas. Al hecho de que la ciudad se hubiera constituido en núcleo de concentración de escritores, periodistas y dibujantes [...], vino a unirse la existencia de unos talleres gráficos de considerable solvencia técnica, entre los que sobresalían los grandes talleres Offset Nerecan.

Unsain, 1990, or.6

Bereziki Madril eta Bartzelonatik etorritako idazle eta artista iheslariak izan ziren, Irungo muga pasata bertaratuak. Honela, *Flechas*, *Pelayos*³⁵ eta *Chicos* umeentzako aldizkari ilustratuak argitaratzen hasi ziren Donostian, hainbat eta hainbat istoriotxo eta komikiekin, betiere haurrei Erregimen berriaren prezeptuak irakasteko.

Autore interesgarrienetakoen artean, Santiago Dueñas (*Santi*) aipa daiteke. Marrazkilari trebea, testuak bokadiloetan integratzen dakizki, komikiaren teknika moderno eta adierazkorrena erabiliz. *Flechas* y *Pelayos*en eta *Maravillas*en marrazten du, eta egunkariei dagokienez, UNIDADEN eta LA VOZ DE ESPAÑAN; hala ere, 50. hamarkadan Mexikora joan eta bertoko euskal erbesteratuek argitaratzen duten *Euzko Deya* aldizkari jeltzalean argitaratuko du, bere sorterriko zentsuraren atzaparretatik at.

Guatemalan amaituko ditu bere egunak, marrazkilari-publizista. *Santi*rekin batera, María Claret eta *Marculeta* donostiar irudigileak nabarmenduko ziren komikigile bezala.



Irudia 12: 'Profesor Pelito' pertsonaia.

Iturria: Santiago Dueñas 'Santi' (<http://goo.gl/S9ODwG> [2015/03/03]).

Jada 1960. urtean, *Argia* astekari euskaldunean sortzen da *Pan-Pin* gehigarria, bata zein bestea Donostian argitaratzen ari zirelarik. Bultzatzailea Joseph Camino apaiz³⁶ arnegitarra izan zen, istoriotxo eta narratiba grafikoan interes handia omen zuena (Unsain eta Borra, 2005, or.111). Proiektua Caminoren, Piarres Xarritonen —idazle eta abadea— eta Bonifacio Beizamariren —Hondarribiko kaputxino eta *Argiaren* zuzendari— artean aurrera atera zuten, aldizkariko gehigarri bezala, eta komiki orrialdeen bilduma euskalduna sortu, umeentzat, euskara instituzio publikoetatik eta hizkuntzatik baztertuta dagoen une batean.

35 F.E.-J.O.N.S eta COMUNIÓN TRADICIONALISTA alderdiak F.E.T.-J.O.N.S delakoan elkartu ondoren, *Flechas* y *Pelayos*.

36 Camino, ESKUALTZALEEN BILTZARRAKO idazkari eta L'ENFANCE DU PAYS BASQUEKO kapilaua ere izan zen.

Istoriotxo hauek ez dira berez U.G.a ikerketa honetan definitu den moduan, baina bai teknika eta irekiera euskaraz U.G.a egiteko. 60. hamarkadan halako irekiera oso apala gertatzen hasten da Espainian, eta *Pan-Pinen* moduko ekimenak jaiotzen hasten dira, lehen ikastolekin eta euskararen aldeko mugimenduekin batera.

Pan-Pinen euskara gipuzkera da, aleak Hondarribian argitaratzen hasi baitziren, bai eta aparteko edizio bat nafar-lapurteraz egin ere. Gerora bizkaierazko beste orrialde bat erantsiko zaio. Marrazkilari amateurrek aukera ikusiko dute bertan marrazten hasteko, eta hala gehitu ziren Julen Zubizarreta (*Yulen*) edo Latemendia (*Leta*) bezalako marrazkilariak, *Antxon eta Sabin* edo *Jose Zakar* gisako istoriotxoekin. Halaber, Bruguera editorial bartzelonarrak argitaratzen zituen komikiak euskaraz publikatu ziren *Pan-Pinen*, hala nola “Patxi ta Peru” (*Zipi y Zape* ezagunak), “Txorizo eta Txistorra” (*Mortadelo y Filemón*) edo “Jaun Petrikillo” (*El Doctorcito*) izenekin.



Irudia 13: 'Txorizo ta Txistorra', 'Mortadelo y Filemón' euskaratua.

Iturria: *Tebeosfera* gordailua (<https://goo.gl/b56Jes> [2017/02/27]).

Eguneroko prentsari dagokionez, ezinezkoa da etenaldi bat ez egitea *Don Celes* pertsonaia ezagunarentzat. Oraindik EL CORREO ESPAÑOL eta EL DIARIO VASCO egunkarietan bizirik segitzen duen pertsonaia da, Luis del Olmo kazetariak 1945etik hona marrazten aritu dena, LA GACETA DEL NORTE lehenengo, eta EL CORREON (1969), EL DIARIO VASCON eta DIARIO DE BURGOS (1970) geroago. LA GACETA, U.G. arengatik apustu inportantea egin zuena, pertsonaia politikoki aseztiko eta irrigarria behar zuen, garaiko zentsura eta isiltasun garaientzako aproposa. Celestino Carovius *Don Celes* pertsonaia guztiz simplea da, mutua, lau-bat biñetatan txiste bat protagonizatzen duena, beti irrigarri geratuz. Errealitate sozialetik eta gizarte-kritikatik at dabil, halako hiri idiliko batean, non etengabeko gorabeherekin topo egiten duen, bere trakeskeriaren ondorioz min gehiegi ere jaso gabe.

70. hamarkadan sortuko da EGIN egunkaria (1977), U.G.ari orrialde oso bat eskaini ziona eta ondorioz genero honen aldeko apustu sendoa egin zuena. Gerora sakonduko bada egunkari honen nolakotasunean, nabarmendu beharra dago periodiko honen jaiotza-datan *Euskadi Sioux* aldizkari satirikoa sortuko zela, non Antton Olariagaz beste, EGINEko Juan Carlos Eguillor eta Jon Zabaletak ere istoriotxoak plazaratuko zituzten. Azken honek salto ere egiten du Baionara, eta 76an bertoko *Hitz* aldizkarian *Aberri Egunaren Ipuia* istoriotxo-koaderno argitaratzen du, Beñat Bidegorrirenaren batera eta *Akullu* ezizenaz. Unsainek eta Carlos C. Borrak bere grafismoa “atsegin eta bakun” gisa kalifikatzen dute (Unsain eta Borra, 2005, or.121), eta gai nagusia, garaian berpizten ari den euskal abertzaletasunaren mitifikazioa da, aberri egunaren sortzea, Urko Apaolazak bikainki deskribatzen duen moduan:

Bertan azaltzen da nola antzina bazen herri bat pozik bizi zena. Behin batean barbaroek eraso egin zuten eta herritarrak zapalduta bizi ziren hortik aurrera. Halabaina, gauetan akelarreak ospatzen hasi ziren isilpean, gero armak hartu zituzten, eta azken borrokaldiaren ondoren barbaroek amnistia eskatu behar izan zuten eta ihes egin. Geroztik ospatzen omen dira aberri egunak.

Apaolaza, 2012


Eta hain justu abertzaletasun honen bidetik, eta Baionan bertan aldizkari euskaldunak sortzen hasten dira, komiki eta istoriotxoekin. Nabarmenezkoa da *Mende Berri* aldizkariko 7. zenbakian 1974an plazaratu zen *Les 7 armes de l'education national* komikia, *Ibon* marrazkigilearen eskutik, frantsesez bai, baina kutsu nazionalista eta euskaltzale sutsuarekin. Istoriotxo honek, *Akulluren Aberri Egunaren Ipuiarekin* batera, garaiko sentimendu nazional berpiztu baten isla dira, eta bereziki *Les 7 armes* delakoak Espainiako II. Errepublikara garaiko U.G.aren ideia politikoen difusioa du bide, agerian utziz komikiaren lengoia zeinen baliotsua izan den, genero moduan, postulatu ideologikoen transmisiorako.



Irudia 14: 'Aberri Egunaren Ipuia' azala.

Iturria: Jon Zabaleta, (Unsain eta Borra, 2005, or.122).

OUVERTE, MAIS LE PLUS SOUVENT SOURNOISE, C'EST LA TROISIÈME ARME DE L'ÉDUCATION NATIONALE. AUSSI BIEN EN CLASSE QUE PENDANT LA RÉCREATION OU LES RARES HEURES DE SPORT, ELLE EST TOUJOURS PRÉSENTE



Irudia 15: 'Les 7 armes de l'education national' istoriotxoaren orrialde bat.

Iturria: Ibon (Unsain eta Borra, 2005, or.121).

3. Ikerketa-objektua

Umorea eta umore grafikoa zer diren zehatz jakinda, ikerketa objektuan sakontzera joko da hurrengo lerroetan. Objektua, Antton Olariaga marrazkilariak 1977aren hasieran EGIN egunkarian argitaratutako Zakilixut pertsonaiaren zinta komikoak dira. Irakurketa bizkortzearen, paragrafo honetatik aurrera laburdurok erabiliko dira, alegia: **A.O.** (Antton Olariaga), **U.G.** (umore grafikoa), **Z.** (Zakilixut), eta **Z.K.** (zinta komiko).

Lehenik eta behin, inportantea da Z pertsonaia aurkezteko, bai eta berorren Z.K.en interesaz hobe jabetzeko, bere testuinguru historikoan aztertzea. 1977. urtea, EGIN egunkaria jaiotzen denean, Espainian historikoki Trantsizio gisa izendatu zen tarte historikoan kokatzen da, alegia, **1973tik 1985ra doana**. Autore jakinek 1975an kokatzen dute Trantsizioaren hasiera, hots, Franco diktadorearen heriotzarekin (postulatu horren harira, Espainiako Gobernuak Menéndez Pelayo eta Rey Juan Carlos unibertsitateekin batera laguntzen duen TRANSICIÓN POLÍTICA ESPAÑOLA fundazioak, kasu, garai historiko hura 1975-1982 artean kokatzen du –TRANSICIÓN POLÍTICA ESPAÑOLA (fundazioa) 2008–. Ordea, Tuñón de Larak edo Mainer eta Juliá historialariek propioago ikusten dute 73an kokatzea, ordura arte indarrean zegoen Erregimena ahularazi zuten eraldaketa sozialak zirela medio. Tuñónen hitzetan, 1973an Franco zaharkituta zegoen (hurrengo urtean tronboflebitisak joko zuen), eta bere inguruko elite politikoan baziren teknokraziatik eta Erregimenaren modernizazioaren aldeko posturak:

Un Franco muy disminuido por la edad no podía arreglar nada; de toda evidencia, se trataba de conservar las estructuras arcaicas en contraposición a la mentalidad que se abría paso en los más diversos medios políticos y sociales. Y estos cambios se experimentaban no sólo en la parte más activa y concienciada del conjunto salarial y de los medios intelectuales y universitarios, sino en capas muy extensas de la población.

Tuñón de Lara, 1991, or.17

Halaber, batez ere populazio gaztean, modernizazioaren eta demokraziaren aldeko sentimenduak pizten hasten dira, honi gehitu behar zaiolarik atzerriko lurralde demokratizatuetan bizi izandako hainbat espainiar euren sorterrira bueltatzen hasiak zirela, herrialdeko lan egoera hobekuntza medio. Populazioa, ingurune unibertsitario eta intelektualetik beste, zalantzan jartzen hasi zen Erregimenak biziraungo ote zuen, Francok berorren legitimitatea gordetzen saiatzen bazen ere.

Cada vez eran menos los que creían que la legitimidad de la “Ley Orgánica” podría sobrevivir al carisma del vencedor de la guerra civil, el Caudillo, cuando éste llegase a desaparecer.

Tuñón de Lara, 1991, or.17

Juliák “Trantsizio **politiko/instituzionala**” deitzen dio Francoren heriotzatik Konstituzioaren onarpenera doan tarteari (Juliá, 1991, or.29), alegia, Espainiako instituzio nagusiek egindako bide legala diktaduratik demokraziara. Ez du ahazten ordea trantsizio soziala 73an hasi eta 82an amaitzen dela, alegia, PARTIDO SOCIALISTA OBRERO ESPAÑOL delakoak (P.S.O.E.), Felipe González buru duela, hauteskunde orokorrak gehiago absolutuz irabazten dituen urtean (lehen aldia zen, 40 urte inguruan, ezkerrek hauteskundeak irabazten zituela). Gonzálezen agindupean indartuko da 78ko Konstituziotik eratorritako estatu demokratiko berria (Tuñón de Lara, 1991, or.22).


Euskadin Trantsizioa bereziki gogorra izango zen. 1958tik aktibo zegoen E.T.A.k 73ko abenduan Luis Carrero Blanco almirantea erailtzen du, bere ordezkari Carlos Arias Navarrok gobernuaren goiburutzat hartzen duelarik. Banda armatuaren ekintzei gehitu behar zaie Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian jazotzen ari ziren langileria-istiluak, Coca eta Martínezek adierazi bezala:

Los años setenta fueron particularmente tensos. En el convulsionado País Vasco más que en ninguna otra parte, donde, a las actuaciones de ETA, había que añadir el soterrado y fuerte movimiento antifranquista y las frecuentes movilizaciones populares, siempre prohibidas y por tanto reprimidas por la Policía.

Coca eta Martínez, 1993, or.18

Francoren diktaduraren azken urtetan ohikoak izan ziren langile protestak. Langileria- manifestazioak, Erregimenak separatismoaren kontra zeukan beldurrak nahasita, gune bereziki tentxoak sortu zuten Euskadin, **etengabeko setio-egoerak** deklaratu. Amnistiaren aldeko mugimenduak ere gertatuko dira estatu osoan, frankismoaren kontra joateagatik espetxeratutakoak kaleratzearen alde. Langile mugimenduen kontrako errepresioaren ikur bihurtu egin da aipatu gabe utzi ezin daitekeen 1976ko martxoaren 3a, Gasteizen; indar polizialek bost langile tiroka akabatu zituzten Arabako hiriburuan, eta beste ehun bat zauritu, bi hilabetez greba egin eta egun berean eliza batean bilduta zeuden hainbat langileren kontra eginez.

Egoera latz honen erdian, Erregimenak gobernuburu izendatutako Adolfo Suárezek hauteskundeak deitzen ditu 76ko ekainaren 15ean. Espainia demokratizatzeko plana du eskuetan, eta erreferendum bidez Erreforma Politikorako Legea onetsi nahi du. Bozkatzaileek erreformari emandako sostengu zabalaren ondorioz, hurrengo urteko urtarrilaren 16an **hauteskunde orokorrak** deitzen dira, non hainbat elkarte politiko aurkezten diren, 40 urteko monopolio partitokratikoaren ondoren (izan ere, FALANGE ESPAÑOLA TRADICIONALISTA Y DE LAS JUNTAS OFENSIVAS NACIONAL SINDICALISTAS delakoa zen Erregimenaren alderdi politiko ofizial bakarra). Suárez izango da, UNIÓN DE CENTRO DEMOCRÁTICO (U.C.D.) alderdi zentrista berriaren buru, Espainiar Trantsizioko lehen presidente demokratikoa.



Irudia 16: 1977ko ekainaren 15eko hauteskunde orokorren emaitzak alderdika.

Iturria: TRANSICIÓN POLÍTICA ESPAÑOLA (fundazioa) 2008, or.11

Laster hasiko dira Euskadin jeltzale eta sozialistak sortu berri den Espainiako gobernuarekin harremanetan, autonomia estatutua lortzarren. Bertoko alderdi sozialista (P.S.E.³⁷/P.S.O.E.) eta EUSKO ALDERDI JELTZALEA (E.A.J.), Euskadin emaitzarik nabarmenenak lortutako alderdiek³⁸, gobernuan dagoen U.C.D.rekin jarri beharko dute ados. Hala bada, EUSKAL PARLAMENTARIEN BATZARRA deiturikoa osatzen da, zeinak Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia **batean elkartzea bide duen estatutua lortu nahi den**.

Batzarraren eraketarekin ordea hasten da 'Nafar auzia'. Nafarroako U.C.D.ko parlamentariak ez dute Euskal Parlamentarien Batzarrean integratu nahi³⁹: foru-erregimenari eutsiz, Nafarroarentzako autonomia propioa nahi dute⁴⁰, euren 77ko azaroko programa politikoak eskatu bezala:

Para la UCD de Navarra el derecho del Antiguo Reino a mantener su identidad en la España de las autonomías regionales se corresponde con la obligación de los poderes del Estado de respetar el “status” de Navarra como región autónoma, sin que en consecuencia puedan imponérsele unilateralmente integraciones en otras comunidades regionales.

Del Burgo, 1980, or.220

Ezker abertzaleari dagokionez, EUSKADIKO EZKERRA (E.E.) koalizioa sortzen zuten alderdiak eta espektro politiko honetakoak izanda espainiar Gorteetan errepresentaziorik lortu ez zutenak, **elkarren kontrako posturak** izango dituzte:

37 Nabarmentzekoa da 1982a arte bai Euskadiko zein Nafarroako federazio sozialistak P.S.E. (PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI) siglekin identifikatzen zuela bere burua, talde unitario berean. 82tik aurrera federazio propioa sortu zen Nafarroarentzat, egungo P.S.N./P.S.O.E.

38 E.A.J.k 8 diputatu lortu zituen Euskadin, eta P.S.E.k berriz 7. Horiei gehitu behar zaie U.C.D.ren 4rak eta E.E.k eta ALIANZA POPULAR delakoak lortutako bana (infoelectoral.mir.es [2016/02/23]).

39 Garaiko datuen arabera, U.C.D.ko hiru diputatu bidali zituen Nafarroak Espainiako Kongresura, eta P.S.E.ko beste bi.

40 Ildo honetatik, Nafarroan garaiko U.C.D.ko buru izandako Jaime Ignacio Del Burgo 2006ko prentsa artikulua batean gogoratzen du:

Frente al *Nafarra Euzkadi da* [...], seis de los nueve diputados y senadores elegidos en las primeras elecciones democráticas, celebradas el 15 de junio de 1977, elevamos nuestra voz para replicar con contundencia: "Navarra no es Euzkadi", "Navarra es Navarra" y "Navarra es España". Contábamos con el pleno apoyo del presidente Adolfo Suárez.

Del Burgo, 2006, atal. Navarra en el túnel del tiempo, par.1

- a) Batzuentzat, estatutua ez da baizik eta Espainiako Gobernuak onartzen duen baimena, eskasa ordezkutzen duten euskal herritargoaren independentzia nahimenak asetzeko.
- b) Beste batzuentzat, onartu beharreko aukera da estatutua, betiere **independentziarantz jotzeko lehen pausotzat hartuaz.**

Gauzak honela, euskal autogobernuaren inguruko erronka agenda mediatikoan dago, bai eta 1977ko irailaren 29an jaioko den EGIN egunkarian ere bai. Urte honetan kokatzen da ikerketa.

3.1. Euskal prentsaren afera

Trantsizioaren aurretik, estatuko egunkari-irakurle kopuru altuenetarikoa Euskadik zeukan⁴¹. Arrazoia, ziur aski, euskal gatazkaz ez beste, Bilbok eta Donostiak Gerra amaitu zenetik argitalpen arloan edukitako **baliabide teknikoak dira**, horien artean *Offset Nerecan* inprenta-tailer ezagunak (Unsain, 1990, or.6). Gudaren ostean, Donostia, idazle, kazetari eta marrazkilarien bilgune bihurtu zen, Gerra amaituta erbestetik itzuli zirenak.

Faktore hauek guztiek esparru baliagarria sortu zuten periodikoen argitalpenerako, eta 70ko hamarkadan, Bilbon bertan, **Estatuan tirada gehien zuten zazpi egunkarietatik bi argitaratzen ziren**: EL CORREO ESPAÑOL (89.000 aleko difusioarekin) eta LA GACETA DEL NORTE (77.500) —O.J.D, 1977—. Egunkarien aniztasun honek talka egiten du diktaduran zehar egondako **zentsurarekin**. Estatuko hedabide guztiak Gobernuaren kontrolpean egon ziren, kontrol oso zorrotzaren pean. 66. urtean, irekieraren bidetik, herrizaintza-ministro izandako Manuel Fraga Iribarnek bultzatutako Prentsa Legeak ('Fraga legea'), edozein argitalpen egin aurretik pasa behar izaten zuen aurreko-zentsura deuseztatu zuen.

Artículo 3. De la censura. La Administración no podrá dictar la censura previa ni exigir la consulta obligatoria, salvo en los estados de excepción y de guerra expresamente previstos en las leyes.

Hala ere, legeak ez zituen adierazpen askatasun guztiak bermatzen. Aitzitik, informazio ofiziala *Prensa del Movimiento* delakoaren bidez zabaltzen zen, hots, Erregimenaren aldeko ziren medioak kontrolatzen zituen Estatu-organoa. Halaber, informazio agentzia bakarra zegoen: *Cifra*. Tokiko ikuspegitik, kazeta-zentsuraren adibide adierazgarria da 1975ean Ander Landaburu kazetariak *Cambio 16* astekarian amnistiari buruz argitaratu zuen artikulua, martxoan egunkari-alearen bahiketa suposatu zuena (González, 1996, or.205). Coca eta Martínezen ikerlanera berriro itzuliz, zehatz deskribatzen dituzte kazetaritza-jardunaren gorabeherak, kazetariak argitaratutakoak sarri askotan gobernu zibilek manipulatuak zirenak:

⁴¹ Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko egunkarien penetrazio-indizea 43'60koa da, estatu mailakoa 29'80koa delarik. Nafarroak dauka, 49'5ko indizearekin, penetrazio-mailarik altuena (A.G.M., 2014).

Los años setenta fueron particularmente tensos [...]. Los periodistas sufrían más de cerca la impotencia de ver circular en los medios de comunicación las versiones controladas y amañadas en los Gobiernos Civiles⁴².

Coca eta Martínez, 1993, or.18

Zentsura eta Gobernuaren kontrola saihesteko, kazetari-elkarte probintziales 'asteleheneko orriak' kaleratzen zituzten. Astekari hauek prentsa ofizialaren deskantsu egunetan agertzen ziren, astelehenetan hain zuzen, eta Erregimenak eskaintzen zien askatasun mugetatik haragoko tokian-tokiko informazioak zabaltzen zituzten. Euskadin HOJA DEL LUNES DE BILBAO eta HOJA DEL LUNES DE SAN SEBASTIÁN argitaratzen ziren, 77an 93.000 eta 72.000 aleko difusioa zutenak, hurrenez-hurren (Coca eta Martínez, 1993, or.15). Nafarroan ere bazegoen HOJA EL LUNES DE PAMPLONA delakoa, 19.500 bat aleko difusioarekin (O.J.D., 1976). Bestalde, eta pentsa daitekeen moduan, **ez zegoen eguneroko prentsa euskaldunik**. Aldizkarien artean badaude *Argia* bezalakorik, bai eta *Herria* edo *Enbata* (azken hauek Baionan), baina ez egunerokorik.

Aspaldiko erronka izan zen euskara prentsan erabiltzea. Diaz Nocik argitaratutako hiru ikerketatan, historian zehar egindako argitalpenak jasotzen ditu, aldizkari, almanaka eta erroldetan zentratuz (ikus Díaz Noci, 1994; 1995; 2012). Edonola ere, egunkari oso bat euskaraz egiteko lehen saiakera EGUNA⁴³ izan zen, E.A.J alderdiari lotua eta apenas sei hilabete iraun zituena. Iparraldeko *Eskualduna* eta *Réveil*, euren aldetik, **astekariak** ziren, gaur egun ulertzen diren moduko egunkariak baino, biak elebidunak.

Diktaduraren azken urteetan, euskararen inguruko erabilera sustatzen hasi zen (ikus da jada komiki arloan nola jaio zen *Pan-Pin* gehigarria). Ikastolek euren lehen ibilbidea egiten dute, modu klandestinoan bada ere. Irene Lópezen artikuluan irakur daitekeen moduan (López, 2008), **Nafarroako zenbait eskolak euskara ikasteko aukera ematen hasi ziren**, betiere eskola orduetatik kanpo. Euskararen erabilera medioetan eskasa da, eta oraindik ez dago guztiz finkaturiko euskara baturik, 1965tik Koldo Mitxelena euskara batuaren oinarriak finkatu bazituen ere.

Trantsizioan euskaraz edukiak argitaratzen hasten diren medioak ez dira beti ados jarriko zein euskalki erabili⁴⁴, eta hizkuntzaren ofizialtasunaren eztabaida hasiko da. Euskara batua, bestalde, ez da beti sinpatia berdinez hartuko E.H. osoan: honen kontrako mesfidantza sintomatiko gisa lerro hauetara ekartzen da 1980ko Donostiako Bertsolari Txapelketa Nagusian nola Xabier Amurriza izan zen euskara batua erabili zuen bakarra, hizkuntza “ez artifiziala” zela erakusteko zoriz (Aulestia, 1995, or.185). Txapelketa irabazita ere, argi dago publiko euskaldun gehigo bat oraindik mesfidati

42 Letra beltza nik jarritakoa da.

43 Lerro hauek idazten ari zirela, 2017ko otsailaren 1ean egunkari honen 80. urteurrena ospatu zen, Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan. Egun, *Armiarma* literatura gordailuak sarean jarri ditu eskuragai egunkari honen ale guztiak, esteka honetan ikusgai: <http://goo.gl/8fGk01> (2015/09/12).

44 Gogoratu *Pan-Pin*en erabiltzen zen euskara gipuzkera zela, adibidez, bai eta nafar-lapurtera eta bizkaiera gero, batasun linguistikorik gabe.

antzematen zuela euskara batua hizkuntza normatibo eta estandarizatu moduan, hizkuntzaren beraren aberastasun dialektala medio, bai eta gizarte euskaldunaren alfabetatze eskasa bitarteko euren berezko hizkuntza horretan (Lorente, 2015, or.540). 1977an euskaraz irakur zezakeen populazioaren eskasia bide, EGIN egunkariak bere jaiotza aditzera emateko 1977ko abuztuaren 8an argitaratzen duen ale batean datu inportantea nabarmentzen du:

Hoy hablan euskera 700.000 personas contra 470.000 hace un siglo. Sin embargo, también es cierto que la cifra de ahora sólo representa el 23 por 100 de la población vasca, mientras que por la del censo de 1868 correspondía al 54 por 100.

Oso optimista dirudi 700.000ko zifra, ezein horren barne ikertu beharko litzake hitz egiten zutenen artean, zeintzuk ziren kapaz hau bera idatzi edo irakurtzeko, euskara batua oraindik instituzionalizatu gabe dagoelarik. 1985an Martin Irazgoitik egindako ikerketa batean argiago agertzen da euskaldunen balantzea, 79an onartzen den Gernikako Estatutuak euskara legezatu ondoren. Zifra, EGINEK 77an egindakotik ez oso urrun:

Hegoaldeko Euskal Herrian 3 milioitara gerturatzen da populazioa. Aldiz euskaraz, jakin, **700.000 ere ez daki**⁴⁵. Erabili, inkesta berrietan ikusi ahal izan denez, anitzez gutxiago erabiltzen da.

Irazgoiti, 1985, or.64

Honela, instituzioek berehala hartuko zuten batua gizartea euskaraz alfabetatzeko produktu berri eta moderno bezala, Mainerrek eta Juliák baieztatu bezala:

En el País Vasco, el gran avance histórico fue la rápida adopción y difusión del eusquera unificado o *batua* [...]. Este cuidadoso producto de laboratorio ha limado las diferencias entre los siete dialectos históricos y ha sido el idioma que por vía de las *ikastolas* [...] ha modificado la faz del país, por más que no supere el 15 por 100 de la población el que usa habitualmente el eusquera como medio de comunicación y no llegue al 30 por 100 el de quienes declaran entenderlo⁴⁶.

Mainer eta Juliá, 2000, or.172

45 Letra beltza, nik jarritakoa da. Aprobetxatzekoa da nota hau, Irazgoitik Iparraldeko euskarari buruzko datuak ekartzeko, Hegoaldeko 700.000 inguruko kopuruari gehitu dakizkiokeenak, txalotzekoak ez badira ere, garaian 260.000 lagun bizita, 90.000 baino gehiago ez baitziren euskaldun (Irazgoiti, 1985, or.67).

46 Mainer eta Juliáren balantzea 2000. urteko Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, noski. Egun, ia 800.000 lagunek egiten dute euskaraz Erkidegoan (EUSTAT, 2011), 85.000 inguru Nafarroan (NAFARROAKO ESTATISTIKA ERAKUNDEA, 2011) eta 50.000 pasatxo Iparraldean (EUSKO JAURLARITZA eta EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2011).

Azkenean, 1979an onartuko den Gernikako Estatutuak euskara legeztatuko du Euskal Autonomia Erkidegoan (E.A.E.), eta bere hezkuntza bermatu. Nafarroan, 1986a arte itxaron beharko da bertoko zonalde jakinetan euskara legeztatu dadin. Ordea, euskarak izandako bultzada nabarmena izango da, bai eta prentsan ere, non egunkari eta publikazio nazionalistaz ez beste, garai berriei egokitu nahirik *Prensa del Movimiento*ren barruan egondako LA VOZ DE ESPAÑAk berak ere zenbait eduki euskaraz ere plazaratuko dituen.



Irudia 17: 'La Voz de España' egunkariko albiste bat euskaraz.

Iturria: LA VOZ DE ESPAÑA (1980/01/09, azala).

3.2. EGIN egunkaria

Deskribaturiko testuinguru historiko eta mediatikoan, EGIN 1977ko irailaren 29an jaiotzen den informazio orokorreko egunkaria izan zen, lerro editorial abertzale eta ezkerrekoa, Hernaniko *Orain S.A.* argitaletxearen eskutik eta, lehenengo lehenengo urteetan, Mariano Ferrer kazetaria zuzendari izan zuena. 1998ko uztailean Justiziak itxiarazia izan zen, E.T.A.rekin kolaboratzea leporatuta.

Periodikoa, 77an ere jaiotako DEIArekin batera, interes berezia sustatuko zuen estatuko egunkarien irakurle-masa altuena zuen Euskadi hartan, Cocak eta Martínezek zehaztu bezala:

Los nuevos diarios [DEIA eta EGIN] introdujeron novedades fundamentales: la primera, la del marco geográfico como ámbito informativo, en el sentido de que respondía a una unidad política y de identidad cultural. La segunda, un nuevo planteamiento sobre la información, sobre todo política y cultural del País Vasco. [...] Eran periódicos de Euskadi y formaban parte del conjunto de acciones para “hacer” país.

Coca eta Martínez, 1993, or.25-26

Autoreek dioten legez, bai DEIA (77ko ekainaren 8an jaioa), bai EGIN, “herria egiteko” premiarekin jaiotzen dira Trantsizioan. Biak dira nazionalistak, garaiko Euskal Herrian (E.H.) berpizten ari ziren postulatu politiko euskaltzaleetatik etorriak. DEIA,

E.H.ri egindako apelazioan zentratzen bada, *gure lurraren deia* azpтитulu, EGIN *poiesis* delakoan zentratzen da, herria egiteko jardueran, eraikitzeke dagoen herri utopiko⁴⁷ eta sozialistaren bidetik. EGIN kaleratu aurretik *Orain S.A.*k argitaratzen duen ale informatibo batean, egunkari berriak nazioa egiteko ardura adierazten du, herriari falta omen zaizkion “oinarri praktikoak” jartzeko paradaz:

Euskaldunon nazional kontzientziak euskal prentsa behar du. Eguneroko baten behar larrian aurkitzen da aspaldidanik. Gure herriari oinarri praktiko gehienak falta zaizkiolako; gure herriaren etorkizuna gure gain dagoelako, gure herriaren geroaz hitzegitea euskaldunon lana delako jaio da *Egin*.

EGIN, 1977/08/08, or.1

Cocak eta Martínezek dioten bezala, hedapen geografikoaren xehetasuna nabarmentzekoa da bi egunkarietan, ezein batak zein besteak zuten Pirinioen bi aldetako eusko lurraldeetara hedatzeko premia. Nabaritu bedi diktaduran zehar ez zela egon informazio orokorreko periodiko abertzalerik, ez eta zehazturiko hedapenik hartzen zuenik. EGINEK, bere lehen alean egiten duen agurrean bertan⁴⁸, azalean, bere difusio-esparrua definitzen du, bai eta ikuspegi nazionala ere:

A los que piensan que Euskal Herria, nuestro País Vasco –Álava, Baja Navarra, Guipúzcoa, Laburdi, Navarra, Vizcaya y Zuberoa– no solamente tienen una historia común en tantos elementos esenciales, sino también un presente que aclarar y un futuro que hacer conjuntamente, para bien de todos.

Egunkariak egoitza bana irekiko zuen beraz Araban, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan, **edizio partikularrak** eginez. Baionan ere izango zuen bat, nahiz eta saiatuta ere, mugaz-gaindiko edizio espezifikorik ez lortu. DEIAK, bere aldetik, EGINEK definitutako lurralde osora hedatzeko premia izan bazuen ere, testuak frantsesez ere argitaratuz, denborarekin Bizkaira egokituko zen gaurdaino, gerora *Noticias Taldearen* pean DEIA–NOTICIAS DE BIZKAIA izena hartuz. Gainontzeko probintzian utzitako tokia *Noticias taldeko* NOTICIAS DE NAVARRAK (1993), DIARIO DE NOTICIAS DE GIPUZKOAK eta DIARIO DE NOTICIAS DE ÁLAVAK (2005) tokia hartu diote, hurrenez hurren.

DEIA eta EGIN elkarren arteko lehiakide izango ziren ordea: nahiz eta biak nazionalistak izan, lehenengoa EUSKO ALDERDI JELTZALEAREN (E.A.J.) espektro ideologikotik gertu zegoen. EGIN, bestalde, 70. hamarkadan oraindik alderdi bakar batean elkartuta ez zegoen ezker abertzale anitzarenean.

Cercano al ideario de las bases moderadas del Partido Nacionalista Vasco, el periódico [DEIA] ofrece información de la actualidad política, social y cultural vasca [...]. Con una línea editorial diferente, *Egin* [...] nace como un proyecto de comunicación en euskera, gracias a las contribuciones de cuentapartícipes individuales y colectivos que conforman [...] un conjunto heterogéneo de siglas

47 Uler bedi utopia bere zentzu politikoa.

48 Agur osoa irakurtzeko, ikusi 1. eranskina.

políticas, organizaciones, asociaciones, plataformas y sensibilidades sociales y culturales diferentes.

Lorente, 2015, or.539

EGINEN aitzindariak 76an jaiotako *Punto y Hora de Euskal Herria*⁴⁹ eta *Berriak* aldizkarietan daude, tirada oso eskasa izanda ere, euskal gizartean eragin handia zeukatenak (Coca eta Martínez, 1993, or.18). EGINEK, **langile-ikuspegi ezkertiarretik**, agur egiten dio lehen alean euskal langileriari, bai euskaldunak direnei zein estatuko beste probintzia batzuetatik etorritakoei, ordura arteko ikuspegi abertzale klasikoarekin distantzia bat ezarriz:

Nuestro saludo, también [...] a cuantos trabajadores han levantado casa y familia para vivir y trabajar entre nosotros, y a cuantos sin estar vinculados directamente a esta tierra, han enviado aportaciones económicas –de Castilla, Cataluña, Galicia, Aragón, Andalucía, Extremadura–, apoyo moral y otras colaboraciones. EGIN debe ser tan suyo como de todo el pueblo trabajador vasco.

1. eranskina

EGINEN ereduaren kontra, ordura arteko nazionalismoa bereziki **arrazan** oinarritu zituen bere postulatu klasikoak, hiriaren eredu liberala eta etorkinez jositakoa errefusatu. Euskara, aldi berean, “benetako” euskaldunen mintzoa da, EGINEN proiektuarekin –eta ezker abertzalekoarekin– kontrajarriz:

Para nosotros sería la ruina el que los maketos residentes en nuestro territorio hablasen euskera [...], porque la pureza de la raza es como la lengua, uno de los fundamentos del lema vizkaino, y mientras la lengua [...] puede restaurarse aunque nadie la hable, la raza, en cambio, no puede.

Sabino Arana, Non Haranburu, 1978, or.188

Nahiz eta ordurako aranismoa alderdi nazionalistetan gutxituta zegoen korrante izan, ezker abertzalearen egitura plural eta poliedrikoak zuzenean hau baztertu eta langileriaren alde jartzen, bai eta eusko lurretan integratu, herri independente eta sozialistaren proiektuan.

Hala bada, EGIN proiektu berriztatzailerik baten alde jartzen da, E.H aberri bezala hartuz etorkizunerako bidaian, eta herri langilea erdigunean jarriz, euskotarra edo kanpotarra. Ez da kasuala bere lehen aleko agurrean Gaztela, Katalunia, Galizia, Aragoi, Andaluzia eta Extremadura aipatzea “gurekin bizitzera” etorri direnen eta EGINi ekarpen ekonomikoak egin omen zizkieten artean, ezein lurralde horietako biztanleak izan baitziren, bereziki, Bilbo handiko (eta Euskadi osoko) ingurune urbano industrializatuetara etorritakoak.

49 30.300 aleko difusioa —O.J.D., 1977—.

El número total de españoles que cambiaron de residencia entre 1960 y 1975 superó los 4,5 millones, de los que 2,6 abandonaron la provincia donde residían [...]. Esta gigantesca redistribución de la población reforzó el peso demográfico del triángulo Madrid-Barcelona-**Bilbao**⁵⁰, el crecimiento de las zonas marítimas y el simultáneo **despoblamiento de las mesetas centrales** [...]. Extremadura, las Castillas y algunas provincias andaluzas sufrían un descenso continuo.

Mainer eta Juliá, 2000, or.22

Gauzak honela, EGIN ezkerraren eta langile mugimenduen alde agertzen da, euren bozeramaile izateko premia, eta halaber, espazio komunikatiboak eskaintzera konprometitzen da garaian baztertuak zeuden kolektiboei:

El nuevo diario guipuzcoano intenta captar especialmente a un público joven, situado próximo a la órbita de la izquierda abertzale, y deja bien claro que dedicará grandes espacios a informar sobre asuntos tradicionalmente abandonados por otros medios: mujer, ecología, marginalidad, etc.

Coca eta Martínez, 1993, or.69

Ikuspegi berriztatzaile eta moderno horren ildotik, kolektibo 'zapalduei' toki egingo die, “gizarte berri bat” sortzeko asmoz, lehengo agurrean agertu den bezala. Honela, irakurleria nazionalistaren artean toki egingo zuten DEIAk zein EGINEk, eta elkarren artean audientzia disputatu euren linea editorialaren desberdintasunez gaindi:

Deia consiguió sobrepasar la tirada de 70.000 ejemplares en sus primeros tres meses de vida, mientras *El Correo Español* acusaba un descenso de 20.000 ejemplares, y *La Gaceta del Norte* una cifra parecida. Sin embargo, la salida de *Egin* [...] produjo un impacto inmediato en la tirada de *Deia*, que perdió 20.000.

Coca eta Martínez, 1993, or.27

Eskura dauden baliabide teknikoekin ezinezkoa izan da EGINen 1977ko difusioaren datu zehatzak lortzea, baina bai 1980koak. Ordurako 41.400 bat ale argitaratzen zituen hilero (O.J.D., 1981). Medio inpreso baten irakurle kopurua jakiteko konbentzioz difusio zifra bider 3 egin ohi bada, **EGINen irakurle kopurua 124.200 ingurukoa zela esan daiteke**. Bere hedapena beti ibili zen 50.000 aleren inguruan (Mainer eta Juliá, 2000, or.214).

50 Letra beltza nik jarritakoa da.

3.2.1. EGIN eta hizkuntzaren erronka

EGINEK lehen unetik egiten du euskararen aldeko apustua: “*Egin nace para ser leído. Y nace con una clara y decidida vocación de servicio en pro del euskera*” (EGIN, 1977/08/08, or.1). Ildo horretatik, euskara batua erabiliko du, Aitorren hizkuntza zein sekziotan erabili irizpide zehatzik gabe. Batua, “kazeta-euskara” eta “eguneratua” deitzen dio, lokalismoak baztertuz eta irakurleria euskaldun ahalik eta zabalenera ailegatzeko asmoz:

Egin opta [...] por un euskera funcional, específicamente periodístico y actual. [...] Asume plenamente la necesidad del Euskera Batúa, signo y expresión de la articulación geopolítica del País Vasco.

EGIN, 1977/08/08, or.1

Ordea, EGIN ez zen, eta ez zen inoiz izan euskaraz guztiz argitaraturiko periodikoa. Hala ere, edukiak euskaraz mahiz argitaratuko ditu, euskara hizkuntza nazional bezala hartuz. 1996. urtean, bere itxiera baino bi urte lehenago, EGINgo azken zuzendari izandako Jabier Salutregiri egindako elkarrizketa batean hala mintzo zen egunkariko hizkuntzaren inguruan (Usabiaga, 1996, par.35–43):

“Egin” egunkari nazionala al da?

Nazionala izateko jaio zen, baina helburu hori ez du oraindik bete, bere orrietan erdara nagusi delako. **“Egin” osorik euskaraz kaleratu arte ez da nazionala izango**⁵¹. Dena dela, Euskal Herriaren errealitate tristearen adibide besterik ez gara.

Hala ere, euskaraz idatzitako testuen kopurua benetan txikia da...

Oso-oso pobrea da. Inguruko errealitatea kontuan hartzeaz gain, ezin dugu ahaztu egunkari honen dinamika; tentsio handia dago eta erredaktoreak presaka ibiltzen dira, eta, orokorrean, erdaraz hobeto idazten dute euskaraz baino [...]. Beste aldetik, ezin diogu kopuruari bakarrik erreparatu: kalitatea ere aintzat hartu behar dugu. **Nik ez dakit euskaraz zenbat orri atera beharko genukeen**, baina, argi dago argitaratzen denak euskara maila ona behar duela izan [...].

Honela, euskal irakurleria eskasa zelako 70. hamarkadan zehar, eta EGINEK bere ibilbide osoan zehar asmatu ez zuenez hizkuntza-politika jakin bat zehaztera, bere hizkuntza nagusia beti izango zen gaztelera, nahiz eta euskara eta E.H.ren aldeko apustu nazionalista hasieratik egin.

51 Letra beltza nik jarritakoa da.

3.2.2. EGIN zuzendaritzak eta estrategia komunikatiboak

Esan bezala, EGIN egunkari abertzale eta ezkertiarra da. Bi aspektu ideologiko horien presentzia, ezkerrekoa eta abertzalea, ez dira modu berean presente egongo beti: hasieran, *Cadena de Ondas Populares Españolas*etik etorritako Mariano Ferrer kazetaria EGINEN zuzendari denean, esan daiteke EGIN ezkertiarra dela abertzalea baino. 1977an proiektua bultzatzen duten kazetari gehienek unibertsitateko formazioa besterik ez dute, eta euren independentzia politikoa asko azpimarratzen dute, bai eurek, bai hasierako inbertitzaileek ere, 17 orotara, parte-hartze kontuen bidez 100.000 pezeta eta 30.000 akzionista lortu zutenak proiektua abian jartzeko. Egunkaria denboran aurrera joan ahala, gerora etorriko diren inbertsio pribatuak izango dira **egunkariaren polarizazio ideologikoaren probokatuko dutenak.**

1977aren amaieran bertan polarizazioa sortzen da EGINEN argitalpen kontseiluan.

El primer giro del [...] periódico se produjo un año después de su salida, cuando dejó de responder al amplio espectro de la izquierda nacionalista y se reflejó en él la definitiva ruptura entre los dos grandes sectores de la izquierda abertzale: EIA-EE por un lado y HB por otro. También el cambio repercutió en la plantilla. Casi la mitad de los redactores que habían participado en su lanzamiento, los más independientes, más próximos a E.E. o simplemente críticos con HB, tuvieron que abandonar el periódico.

Coca eta Martínez, 1993, or.31

Cocaren eta Martínezen arabera, Mariano Ferreren gidaritzapean egunkariak bi tendentzia gorde zituen bere erredakzio-kontseiluan:

- a) Batetik, ideologikoki EUSKADIKO EZKERRA (E.E.) alderdi-koaliziotik gertuago dauden erredaktoreak, hots, Ferrer eta bere ingurukoak.
- b) Ezker abertzalearen alde erradikalagoaren gertuagokoak, 1978an sortuko den HERRI BATASUNAREKIN (H.B.) identifikatuak.

Batzuek eta besteek euren ezberdintasunak izango dituzte ikuspegi nazionalaren inguruan, baina elkarren arteko bizikidetasun profesionala erdibituko duen gertakaria 1977ko azaroaren 28an gertatzen da. E.T.A.k, Nafarroako Polizia Armatuko koronela zen Joaquín Imaz erail zuen, eta hurrengo egunean EGIN aleko 5. orrialdean jarraian datorren editoriala argitaratuko zen; gutunaren edukiak Ferrer behartu zuen bere kargua uztera, bi sektoreen arteko desadostasunak medio:

Como lo sentimos, lo expresamos

La muerte violenta del comandante Imaz en Pamplona nos sitúa, una vez más, **ante el hecho consumado de quienes han optado por la lucha armada como medio hacia unos objetivos políticos**⁵². Frente a esta opción, se sitúa la de quienes, sin olvidar que la violencia no surgió porque sí y que en su origen está la negativa de un pueblo a vivir sin identidad ni libertades, **entienden que esos objetivos pueden y deben lograrse por otros medios**.

Ante esta disyuntiva, cuyos términos pudieron parecer menos claros en otro tiempo, es preciso afirmar que las posibilidades de actuación que ha abierto la evolución política **exigen la renuncia al empleo de la lucha armada**.

EGIN nació como un esfuerzo colectivo para articular una respuesta al sentimiento común de un pueblo que quería recuperar su personalidad y desarrollarla mediante la consolidación de su capacidad de autogobierno y de sus instituciones. En este sentido, tenemos que expresar nuestra convicción de que el pueblo vasco, mayoritariamente, desea lograr esos objetivos sin recurrir a la violencia. Y como lo sentimos, lo expresamos.

Para que este deseo común no sea baldío, dos cosas son necesarias. Que quienes mantienen la opción de la lucha armada se pregunten seriamente a quién sirven, y si pueden mantener hoy su opción en nombre del pueblo vasco. Y que el Gobierno entienda que es hora de hacer frente a la situación de Euskadi, no desde una perspectiva de quien capea un temporal, sino de quien tiene la voluntad de reconocer los derechos de un pueblo. Ambas cosas son necesarias para vivir en paz en el País Vasco.

Gutunean, zuzendaritzak EGINen printzipio fundatzaileak ere birreskuratzen ditu; printzipio hauek ordea ez dira hain onartuak izango zuzendaritza batzordeko zenbait kideetan, eta 1978ko maiatzean Juan Ramón Martínez izendatuko dute jarduneko zuzendari. Beraz, maiatzaren 2ko alearen 10. orrialdean nota hau argitaratzen da egunkarian:

Juan Ramón Martínez, director en funciones de EGIN. Desde ayer, 1 de mayo, Juan Ramón Martínez, Subdirector, ha asumido interinamente las funciones de Director de EGIN, tras la dimisión de Mariano Ferrer, aduciendo razones personales. La dimisión fue aceptada por el consejo de Administración de ORAIN S.A., el pasado sábado día 29.

Martínez euskal kazetaria zen, Madrilen lanean aritutakoa, EGIN hasi orduko erredakzio batzordean egon zena. Egunkariak halako jarraipen ideologikoa daukala esan daiteke, urte bat geroago zuzendari berria auto-istripuz hil arte. Erreleboa Luis Lacasak hartuko dio, urte bereko abenduaren 16an Mirentxu Purroyk⁵³ gida hartu arte.

52 Letra beltza nik jarritakoa da.

53 Purroy izan zen lehendik aipatu den *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkariaren fundatzaile eta zuzendarietako bat.

1978ko abenduaren 6an, Purroyk zuzendaritza hartu baino bi aste lehenago Konstituzioa erreferendumean bozkatzeko da, Euskadin abstentzioa gailentzen delarik – Araban eta Nafarroan emaitza hobekoak lortzen ditu Bizkaian eta Gipuzkoan baino (España [Congreso] 2003)–. Une tentxoak izan dira euskal gizartean, bai eta EGINgo erredakzioan ere: Konstituzioaren alde edo kontrako eztabaidan aseptiko agertu omen zen egunkaria, irakurleriak boza eman zezan orientazio teknikoei espazio informatiboak eskainiz, euskaraz zein gazteleraz. Baina aldi berean, **ez zion publizitate-espaziorik saldu Konstituzioaren aldeko boza eskatzen zuten alderdiei.**

Es esta mínima parte [de los trabajadores de EGIN] la que se negó a publicar la nota de los Consejos, explicativa de la no venta de espacios publicitarios para quienes propugnaban el SÍ a la Constitución.

2. eranskina

Gauzak honela, Mirentxu Purroyren izendapenaren kontra hainbat langilek **bost eguneko greba egingo dute**, egunkaria kalera aterako ez delarik. Azaroaren 21ean, EGIN berriz kalera irteten da, egunkariko Administrazio eta Fundatzaileen Kontseiluen nota luzea azalean argitaratuz.

Reunidos los Consejos de Administración y de Fundadores, hoy día 20 de diciembre, comunicaron a las 8,30 de la tarde a la Asamblea de Trabajadores los siguientes acuerdos adoptados por dichos Consejos:

- 1.- Ratificar la decisión mayoritaria de la Asamblea de Fundadores [...] de nombrar a Mirentxu Purroy director de EGIN.
- 2.- Ratificar la decisión de esta misma Asamblea de Fundadores en el sentido de que la elección de los cargos directivos corresponde exclusivamente a la misma.
- 3.- Sancionar con el despido a 13 trabajadores de la empresa.

2. eranskina

Zuzendari berriarekin desados daudenek, beraz, alde egingo dute.

Gauzak honela, ikerketa honetako urte klabea 1977a da, zuzendaritzan lehen aldaketa (eta haustura) dagoenean, EGIN proiektu anitz eta guztiz berri bezala euskal gizartean aurkezten den unean.

3.2.3. Egunkariari egindako kritika(k)

Ezin da EGINi buruzko atal hau itxi sektoreko profesionalek eta oro har publikoak egunkari honen inguruan izandako ikuspegi kritikoa aipatu barik. Bere tendentzia ideologiko polarizatuak, Purroyren estrategia komunikatiboak hasia, 1998an Espainiako Auzitegi Nazionalak berau ixtera eraman zuten, bai eta *Egin Irratia* ere, ustez E.T.A.ri lotuta zegoen medio gisa hartuta. Periodikoak H.B.rekin zituen lotura politikoei E.T.A.ren bozeramaile gisa hartzera eraman zituen Espainiako Auzitegiak, E.T.A zein

KOORDINADORA ABERTZALE SOZIALISTA delakoaren delituen sarearen parte izatea leporatu zitzaizolarik (Yoldi, 1998). 2009an ordea Baltasar Garzón epaileak akusaziorako nahikoa proba ez zeudela argitu zuen, baina EGIN ez zen berpiztu, eta bere ordean EUSKADI INFORMACIÓN eta egungo GARA etorriko ziren, hurrenez hurren.

EGIN euskal hedabideen artetik pluraltasun ideologiko gutxien erakutsi zuenatarikoa izan ei zen, Armañanzasen eta Diaz Nociren esanetan:

Se trata de un periódico combativo, [...] en el que información y opinión se entremezclan, ya que, aunque se presenten claramente separados en secciones diferentes, es difícil encontrar periódico alguno en el que las noticias y los reportajes aparezcan tan teñidos de elementos ideológicos. Ello sin contar con los largos comunicados que, firmados por ETA, el diario publica en exclusiva y en su integridad.

Armañanzas eta Diaz Noci, 1996, or.163

Euskal prentsa ikertu duten autore gehienek Armañanzas eta Diaz Nociren iritzia konpartitzen dute egunkariaren pluraltasunari buruz.

La trayectoria de *Egin* ha sido ha sido probablemente la más lineal de la prensa vasca. Su vinculación con la izquierda abertzale [...] es inequívoca. Su radicalización también ha ido en aumento, alcanzando su punto máximo en los momentos de mayor crispación social.

Coca eta Martínez, 1993, or.70

Ez dira faltako, modu berean, EGIN euskal abertzaletasun independentistaren erreferentzia izan zela baieztatzen dutenik (Camino, 1993, or.193), bai eta hari esker, bestelako medioek isilarazi zezaketen informazioak plazaratu zirela defendatzen duenik:

La existencia de *Egin* no sólo ha supuesto el conocimiento público de ciertas realidades ocultas, sino que además ha marcado y condicionado indirecta pro profundamente el trabajo de los restantes medios de comunicación. De no ser por *Egin*, los demás periódicos [...] habrían podido silenciar o atenuar las informaciones que disgustan a los poderes dominantes de la sociedad.

Núñez, 1995, or.192

Laburbilduz, ondoriozta daiteke EGIN proiektu berriztatzaile eta zabal baten isla izan zela bere lehen urteetan, garaiko kolektibo minorizatuen eta demokraziaren aldekoen bozeramaile izateko premia zuena, nahiz eta lasterrera bere ildo editoriala estutzen joan. Izan zuen inpaktua eta botere judizialek bere aurka hartutako erabakien inguruko eztabaidan oraindik bizirik darrai, bere azken zuzendari izandako Salutregi 2015ean kartzelatik atera delarik.

3.3. Umore grafikoa 1977an

Prentsa Legearen ondorioz, umore grafikoa (U.G.) zorrotz, kritiko eta politikoago gertatu zen Espainian. Ordura arte ere, zentsura saihesteko umorea (U.) erabili ohi zen aldizkari eta egunkarietan. Errebisten artean, aitzindaria da *La Codorniz*, bai eta *Triunfo*, *Hermano Lobo* eta *Por Favor* delakoak (González, 1996, or.205).

Ramon Reigek zenbait pasadizo xeble gogorarazten ditu, Erregimenak U.G.aren kontra hartutako neurrien inguruan, honekin kritiko agertzeagatik:

Cuando ejercía de ministro del Interior Manuel Fraga Iribarne y de alcalde de Barcelona Joaquín Viola [...], los Reyes de España, don Juan Carlos y doña Sofía, visitaron la llamada ciudad condal. Una publicación humorística tituló más o menos de esta forma: “Fraga recibe al Rey y Viola a la Reina”. Sufrió un secuestro. Algún tiempo antes, el semanario “La Codorniz”, estando de ministro [...] Laureano López Rodó, publicó una tira humorística en portada. Un campesino, supuestamente llamado López, subía por una montaña o colina cargando con un cerdo [...]. De pronto, sus fuerzas flaquean, el cerdo cae de sus hombros y se va montaña abajo. La tira titula al final de su última viñeta de esta manera. “Y el cerdo de López rodó”. Más problemas con la censura.

Reig, 2008, atal.Introducción


U.G.aren kontrako zentsura gogorra izango zen, eta Reigek aipaturiko aldizkarien bide berdintsua segituko zuten estatu mailako hainbat argitalpenenek –*Triunfo* aldizkari satirikoa lau hilabetez itxiarazi zuten–. Aipatu beharrekoa da ere Bartzelonako *El Paps* aldizkari satirikoaren erredakzioak –egungo *El Jueves*en aurrekari–, 1977ko irailaren 20an jasandako atentatua, TRIPLE A⁵⁴ talde faxistaren eskutik. Urte horretako atentaturik gogorrena da Espainian U.G.aren kontra. Handik bederatzi egunetara jaioko da EGIN, 77an U.aren alde apusturik sendoena egingo duen euskal egunkaria, orrialde oso bat U.G.ari eskainiz, *Solasjaipausa* izenekoa: “Oroitzapen gozoa dakarren istoriotxoan orrialde bat eskaini zuen [...] Egin egunkariak, Zabaleta, Eguillor eta Olariagaren lanak aurkeztuz” (Unsain eta Borra, 2005, or.121). Zalantzarik gabe EGIN da urte horretako Euskadin U.G.aren aldeko apustu sendoena egiten duen egunkaria, testuinguru tentxo batean.

1977/78 urte artean, *Solasjaipausa* orrialde horretan marratuko dute gerora *Ipurbeltz taldea*⁵⁵ izenpean agertuko diren hiru marrazkilarik: Jon Zabaletak, Juan Carlos Eguillorrek eta Antton Olariagak (A.O.). Halaber, marrazkilarion ilustrazioak ere topatu ahal izango dira egunkariko orrialdetan zehar, eta ez bakarrik *Solasjaipausan*,

54 ALIANZA APOSTÓLICA ANTICOMUNISTA delakoa 1977an aktibo ibilitako talde frankista izan zen, hainbat atentatu gauzatu zituen Pirinioen bi aldetako eusko lurretan, besteak beste.

55 Garai honetan, taldea osatzen duten marrazkilariak, 'Zabaleta-Olariaga-Eguillor' hirukotea gehi Jesus Lucas, Tomas Hernandez Mendizabal, Mikel Plazaola, Aleman Almendarain eta Hilario Urkia izango dira. Denek batera izango dute, 1977ko urriaren hasieratik, euren sekzio propioa, non umeentzako komiki eta istorio didaktikoak marraztuko dituzten, betiere publiko hau euskalduntzeko. 1997an *Ipurbeltz* aldizkari bihurtuko da, Erein argitaletxearen eskutik, Elebitasun Dekretuarekin sorturiko argitaletxea.

iritzi artikuluak ilustratzen, adibidez. Orrialdea amaieran zegoen, normalean 31. orrialdean, eta grazioski, Trantsizio urte horietan ohikoa zen irakurleak periodikoa atzetik aurrera leitzea, U.G.a zegoen tokitik hasita (Lorente, 2015, or.532). *Solasjaipausa* ez da beraz orrialde aseptiko edo entretenigarri hutsa, irakurlearengan inpaktu gogorra izan dezakeen orria baizik, azken honekin U.ak sortzen eta bultzatzen duen elkarriazketa subertsibo eta sibilinoaz kargatuta.



Irudia 18: EGINen lehen 'Solasjaipausa' orrialdea (1977/09/29, or.31).

5. eranskina, or.1


Solasjaipausa orrialdearen estructuresa luzaz mantenduko da, 1977/78 artean egonkorra izanik. Gerora, periodikoa aldatzen joan ahala sekzioa bera ere aldatzen joango da.

Zabaleta, marrazkilaria gipuzkoarra, orrialdearen goiko alde osoa hartzen duen bere zinta seriea marrazten du, *Barraskiloa eta Elefantea* (B.E.E.) izenburuduna. Oso estilo xume eta inozente baten bidez barraskilo eta elefanteen mundu idilikoak sortzen du. Umeentzako jolasak bailiran aurkezten ditu pertsonaien ekintzak.

Hizkuntzari dagokionez, Zabaletak sartzen duen testu urria euskaraz egiten du. Hala ere, testu azalgarriak gatzeleraz jarri ohi ditu, obra elebiduna eginez.

Zabaleta interpretatzeko, beharrezkoa da bere mundu idiliko horretan sartzea, bere kode eta lengoia sinbolikoarekin lotzea. Egunerokotasunari dagokionean, Zabaleta ez


da honen menpeko: garaiko *affairei* buruz hitz egiten du, baina ez eguneko gertakari konkretuei joz, nahiz eta noizbehinka hala egin. Zentzu horretan, bere gaitegia aske xamarra da. Esan beharra dago ez dagoela bere seriean jarraikotasun narratiborik EGIN ale baten eta bestearen artean, noizbehinkako kasuren batean izan ezik, adibidez, 77ko urriaren 8tik 9rako aletetan, TRIPLE A muturreko eskuineko talde terroristak *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkariaren egoitzan jarritako lehegailuari men egiten diolarik.



Irudia 19: Jon Zabaletak urriaren 8an eta 9an egindako zintak, hurrenez hurren.

5. eranskina, or.8-9

Jasotako adibideak balio du aurreko baieztapena irudikatzeko –Zabaletak noiz edo noiz eguneroko gertakari keinuak egiten zizkiola bere Z.K.etan– eta noizbehinka ere ale periodikoaren ale baten eta bestearen artean jarraipen narratiboa dagoela adierazteko, salbuespen kasuak badira ere.



Irudia 20: Zabaletaren zinten kokapena 'Solasaipausa' orrialdean.

5. eranskina, or. 1

Aurrekoaren segidan, Zabaletak erabiltzen duen espazio horizontal osoa hartzen duten A.O eta Eguillorren lanak datoz: Juana Bixenta Olabe (J.B.) pertsonaiaren testua eta *Beltza Superbeltza* (B.S.B.) serie erdalduna, bata bestearen alboan. J.B.ren testu zatia Anjel Lertxundirekin batera egiten du A.O.k, eta B.S.B. Eguillorrek guztiz marraztutakoa da.


J.B.ren zatia ez da, proiektu honetan definitu den moduan, U.G.a: testu pieza da, laburra eta euskaraz idatzia. Garaian sortu den EUSKAL PARLAMENTARIEN BATZARRAREN neskameak, J.B.k, eusko parlamentariei uzten dizkien noten itxura dauka testuak, non egunerokotasunari hertsiki lotuta dauden gaiak tratatzen diren. Hasierako aletik, J.B.k argi diotso zein den bere betebeharra, Gabriel Arestiren olerki ezagun bati keinua eginez:

Nere parlamentarien etxea defendituko dut, erabat egia izango ez bada, zuen gorabeherak astintzen ahaleginduko natzaizue. Koraje xamurrenean, borondate underground ezti batean.

Hortaz, autonomia estatutua prestatu behar duten parlamentarien taldeari koloreak ateratzen dizkien halako 'iratxo kritiko' baten tankera hartzen du J.B.k, editorialen moduko testuak egiten dituen⁵⁶.

Zabaleta baino askoz errazagoa izan daiteke J.B ulertzea: bere U.a, ironikoa eta oso zorrotza, harremana izan ohi du Z.enarekin, J.B eta Eguillorrek okupatzen duten orrialde-espazioaren ondoren datorrena.

⁵⁶ Komeni da gogoratzea Juana Bixenta Olabe 1874an Bilintxek sortutako abesti baten izenburua dela, neskame baten izena, ezkontza galdu duen mutil baten inguruan abesten duena. Azkenean, ironiaz, dena gezur ingurune batean kokatzen du neskameak. Mimesi-ariketa eginez, ikusten da nola parlamentari hauek egin behar duten lana, demokratizatzen hasia den Espainia batean, Bilinxen istorioa bezala amaitu daitekeen.



Irudia 21: Juana Bixenta eta Zakilixut pertsonaien kokapena 'Solásjaipausa' orrialdean.

Eranskina 5, or.1

Eguillorren lanak bestalde J.B.ren testuaren altuera eta orrialdeko eskuineko margena arteko zabalera hartzen du. Biñetak ez daude, Zabaletaren eta Olariagaren Z.K.ak bezala, lerrotakuta orrialdearen zabalera, baizik eta koadro moduko egitura batean biñetak elkarren artean muntatzen dira, istoriotxo-orrialde txiki baten modura. Bere serieak, *Beltza Superbeltza* (B.S.B.) garaiko Bilbo hiriko pertsonaia estereotipatuak islatzen ditu (Lorente, 2015, or.548). Serieak, Zabaletarenak ez beste, badute jarraikortasun tematiko eta narratiborik ale batetik bestera, eta ale jakin bateko Z.K.a ulertzeko, gomendagarria da bere aurrekoa(k) leitzea.



Irudia 22: Eguillorren zinten kokapena 'Solasaipausa' orrialdean.

Eranskina 5, or. 1

J.B.ren eta B.S.B.ren pieza grafikoen ondoren dator A.O.ren *Zakilixut* (Z.) eta orrialde amaieran zenbait denbora-pasa agertu ohi dira, euskaraz gehienbat, orrialdea osatzeko. A.O.k berak diseinatuko ditu jokook.

Z.i dagokionez, Z.K.ak ez daukate lotura narratiborik EGINEN ale artean: salbuespenak-salbuespen, ale bateko zinta ulertzeko ez da beharrezkoa bere aurrekoak irakurtzea, Eguillorrek zehaztu bezala. Egia da ordea aztertzen den urtean, 1977, Z unibertso teluriko batean dabilela, halako mendi lau eta xehe batean, etengabe berdintsua dena. Horrek jarraikortasun eta koherentzia diskurtsiboa ematen badio ere, Z.K. bakoitza independente uler daiteke aurrekotatik aparte.

Zakilixut no aprende ni evoluciona a través de la experiencia, ni sus acciones tienen continuidad de un día a otro. El bucle espacio-temporal en el que el personaje se halla encerrado consiste en un incesante retorno a sus obsesivas posiciones respecto al sexo, la naturaleza o las relaciones sentimentales.

Lorente, 2015, or.544

3.4. Antton Olariaga, Zakilixuten sortzaile

Antton Olariaga (A.O.) da ikerketa-objektuaren autore klabea, Zakilixut (Z.) pertsonaiaren aita. Eguneroko prentsa euskaldunaren ohiko irakurlearentzat, A.O.ri buruz berba egitea Z.i buruz egitea ere bada (Olariaga, 1978, 1.5–7), marrazkilariaren pertsonaiarik zaharrena izaki: 1977an lehen pausoak egin zituen EGINEN, 1999an EUSKALDUNON EGUNKARIARA jauziko eta 2003tik aurrera BERRIARA, gaur egun bere etxea dena.

A.O. ilustratzaile izan da berez. Haurrentzat prestatutako euskarazko literatura lanak marrazkiz apaindu ditu. Umore grafikoan (U.G.) eta komikigintzan ere trebea izan da, eta **bere produkzio ia osoa euskaraz egin du**. Horregatik eman zioten 2008an *Dabilen Elea* saria, bere ibilbide luzeko lanaren omenez, kritikak “marrazkilari kazetaria” edo “marrazkilari idazle” deitu diolarik.

Olariagak euskara eta euskal prentsa prestigiatzeaz gainera, kazetarien testuak duindu zituen irakurlearen begia erakarriz lehenik, eta bere interpretazioa eskainiz hurrena. Hauxe du, izan ere, beste marrazkilariengandik bereizten duen ezaugarrietariko bat: irakurle zorrotza dela, eta bere irudiak, berezko kalitatea ukatu gabe, beti direla ondoan daukan testuari buruzko hausnarketa interesgarri bat, ikuspuntu pertsonal bat. Berak esana du, “Nere txistegintza komentariogintza da gehiago”.

Gipuzkoa [Foru Aldundia] 1998, sec.Marrazkilari kazetaria

A.O.k beti izan du kazetaritzarekin lotura. Valentzian ikasle zela, LAS PROVINCIAS egunkarian umorista grafiko aritu zen, hiri hartan hasi baitzituen Arte Ederren ikasketak, gerora Bilbon ireki zen Fakultate berrian amaituko zituenak. 1974tik aurrera, Bilbon jada, hasiko da ilustratzaile gisa kolaboratzen, sortu berri ziren **ikastolentzako material didaktikoak ilustratuz**. Garaian sortzen du *Zeruko Argia* aldizkari kulturalarentzako *Mozorrozko*, *prekontseilari maskaratua* pertsonaia.



Irudia 23: Olariagaren 'Mozorrozko' pertsonaia.

Iturria: ©Olariaga (<https://goo.gl/sS8G9d>).

A.O.ren U.a ulertzea zaila izan daiteke. **Euskararen gaineko konpetentzia sakona** behar da, Z.ek egiten dituen hitz-jokoak eta darabilzkieen terminoak ulertu ahal izateko. Autorea euskara batua erabiltzen saiatzen den harren, euskal U.az zehaztu den **lokalismoetara jotzen du mahiz**, aldiro ingurune euskaldun oso zehatzetan ulertzen diren terminoetara joz eta beste hainbat asmatuz:

Euskal intelligentziak hitza debekatu digu, desterratu egin gaituzte hiztegietatik. [...] Baina herriarena, ahotik belarrirainoko bidaia labur eta frankotan bakarrean: *tortoloxa*, *txortero*, *motxangera*, *kurrukuxa*, *marmoxa*, *kanikatu*, Nafarroako osabarekin ibili, eta Zakilixuten hitzetan *demasa*, krebilin beltzen basoa, purua.

Izagirre, 1979, or.5–6

Koldo Izagirre euskal idazlearen zita honek balio du, batetik, lehendik aipatu den euskara batuaren mesfidantza sintomatikoa adierazteko (“Euskal intelligentziak hitza debekatu digu”), eta bestetik, Z.en mintzairaren oso berezkoak diren hitzak seinatzeko. Izagirrek 1979an Z.en zinta komikoen bigarren konpilazioan egindako aurre-hitzetatik ateratako zita da aipaturikoa, eta garaian Z.ek hainbat erabiltzen du “demasa” berba, zitan jaso, “gehiegi” esateko, euskara batuan existitzen ez dena. Halaber, beste hainbat hitz euskarara ekartzen ditu, ingurune urbano eta erdaldunearn presente daudenak baina ez euskara jazoan, urritua eta oraindik erregistro batu sendorik gabe. Hala, Z.en berezko espresioak dira adibidez “demasa” delakoaz gain “demasié” (garaiko erdal jergan erabilia eta euskarara ekarria), edo “tu-matxa”, ingelesezko *too much*en euskal egokitzapena.



Irudia 24: Zakilixuten berezko zenbait hitzak agertzen dituen zinta komikoa.

Iturria: ©Olariaga (EGIN, 1979/01/19)

Urteak joan ahala, Z.ek ez du aldatu bere hizkera partikularra. *Argiako* Sustrai Colina kazetariak Z.en autoreari egindako elkarrizketa batean, A.O.k berak onartzen duenez,

Hitz polisemiko bati intentzio osoz esanahi berria eranstea gustatzen zaidak, ez hitzak edozein zentzutan ematea. Tristeia iruditzen zaidak hitzen balio oinarritzkoena galtzea.

Colina, 1998, 1.19–20

Marrazkilariak nabari uzten du hitzekin jolasteko duen zaletasuna: Z.ek esaten ditueni “esanahi berriak” eransten dizkie. Polisemiaren jokoak ahalbidetzen du hitz-jokoa eta txistea. Bai eta sarri askotan berau ulertzeko zailtasunak ere: nabarmendu beharrekoa zitatutako entrebistan Colinak Z.i “piperrik” ez zaiola ulertzen baieztatzen duela (Colina, 1998, 1.13), eta A.O.k erantzun: “Niretzako hori desafio bat duk, ez duk etsigarria”. Buelatu behar Kike Amonarrizek euskal U.az nabarmentzen duen arazoaz, non erregistro faltak ulergarritasuna murrizten duen –EMAN (ikerketa taldea) 2017, or.222–, Z.en lokalismoei so. Bestalde, ordea, lokalismo horiek eta errimak erabiltzeko joerak bertsolarien tokikotasunera eramaten dute pertsonaia: bere U.a, Izagirreraren ustez, bertsolarien ironiatik oso gertu omen dago, eta baliatzen dituen hitz-joko eta figura erretorikoek koblakarion U.aren oso antzekoa omen da:

Garaiak salbu, Fernando Bengoetxea Pernando eta José Manuel Lujanbio *Txirritaren* tradizio berberatik heldu zaigun euskal ziadania osatzen duten alerik jatorrenetako bat.

Izagirre, 1979, or.5

Pertsonaiaren izaerari buruz, 1991ean A.O.ri egindako elkarrizketa batean, autorea ez zen gai bere pertsonaia deskribatzeko, hori bera “mugatzeko” beldurrez. Nahiago izan zuen esatea Z. “norberak ikusten duen modukoa” dela (Olariaga 1991), bere produktua **irakurlearen interpretazioan** fokatuz. Hala ere, Z deskribatu behar izatekotan, bere izena da aspektu deigarrienetakoa, irakurle euskaldunarentzako joko sotil eta berehalakoan antzeman ahal dena: *zakila* eta *xutik*. Kitzikapen sexualari egiten zaion keinua kontrastean sartzen da garaira arteko sexuaren ikuspegi murriztuarekin, batez ere Elizak eta postura politiko kontserbadoreenak luzaz ezarria. Gizarte

espainiarrean sexu-harremanen ikuspegi irekiago bat zabaltzen hasi zen 70. hamarkadan, batez ere telebistaren hedapenak lagunduta, ordura arteko zentsurarekin leian:

El más significativo cambio del país, en ese sentido, se produjo en las costumbres: la mayor libertad de relaciones, el más lento reconocimiento de la sexualidad femenina por parte de los varones, la aceptación de comportamientos homoeróticos... han sido escaramuzas o batallas que, a la larga, han alumbrado unas promociones de españoles bastante más sanas de lo que solían.

Mainer eta Juliá, 2000, or.141

Francoren erregimena jauzi ahala, berorri lotutako moralitate bizipenen erregela batzuk ere aldatu egiten dira. Katolizismoaren eragina indartsua da oraindik, baina bizimoduak askeagoak, nahi bada, gizarte aldakor batean. Lerro hauetara ekarri beharra daude Suárezen agintaldiaetan aldian zehar bultzatu ziren erreformak, ezkontza-bizitzari eta praktika sexualei betean eragiten zietenak (Mainer eta Juliá, 2000, or.258–263):

- 1978ko urtarrilaren 19an, adulterioa despenalizatzen da.
- 1978ko urriaren 8an, kontrazepzio-pilulak legeztatzen dira.
- 1979ko urtarrilaren 27an Kode Zibila eraldatua izaten da, dibortzio lotesleari atek irekiz.
- 1981ean Dibortzioaren Legea onartzen da.

Neurri hauei gertu behar zaie halaber moralitate erlijiosoaren indarra gutxiagotzen joaten dela, eta ordura arte katolizismoa izan bazen Estatuaren erlijio ofizial bakarra, Konstituzioaren ondoren Espainia konfesio gabekoa ezarriko da⁵⁷, eta 79ko uztailaren uztailaren 5ean Askatasun Erlijiosoaren Legea onartuko. Modu honetan, maila espiritualean ere irekiera badago, lehendik arau moralak ezartzen zituen Eliza katolikoaz gaindi, sexuaren orientabideak ere ezartzen zituen.

Z., zentzu sexualean, probokatzailerak da 70. hamarkada horretan. Erreferentzia falikoak, bai eta metafora sexualak oinarri dituzten txiste sexuak “obseso” gisa kalifikatzera eramanez, Eneko Lorente akademikoak zehaztu bezala (Lorente, 2015, or.542). Halaber, kritika feministak “matxista” gisa ere ikusi du, jaio zen urtetik bertatik:

HUMOR MACHISTA [...] ¡Pobre Zakilixut, que no ve nada más ni después de muerto Franco! Ya es hora de que desaparezca y de que ELLA salga. Pero no [...] una imagen retorcida de lo que creen que somos, de lo que quieren que seamos,

57 16. artikulua:

1. Pertsonen eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijioso eta kultura askatasuna garantizatzen da, berarienean agerpenetan muga bakar bat izanik, hots, legeak babesten duen ordenu publikoaren jatorriko behar dena bakarrik.
2. Ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sineskizunei buruz aitortzena.
3. Inolako sineskerak ez du estatu zeinurik izango. Botere publikoek kontutan hartuko dituzte Espainiako gizartearen sineskizun erlijiosoak eta Eliza katoliko eta beste sineskerekin lankidetzaren harremanak izango dituzte.

sino una imagen de lo que realmente somos. En una naturaleza donde, si se quiere, hay sitio, símbolos y erotismo para todos. Y no el humor de siempre para los Zakilixut de siempre.

Euskal Emakume Borrokan (4. eranskina)

Definitu daiteke beraz Z pertsonaia hauslea dela: ordura arte espresuki zentsuratuta zeuden sexu adierazpenak bere txisteetara ekartzen ditu, bere diskurtsoan konstante bat bihurtu arte. Halaber, sexua ez da baizik eta sarri askotan une jakinetako gai politikoeekin metaforak egiteko estalkia: Izagirrek Z.ez egiten duen deskribapenera itzuliz, pertsonaiari “adarjole kondizione berdekoa” deitzeaz gain (pertsonaiaren 'berdetasun' sexuala baieztatuz), “ikusle eszeptiko eta aldi berean politizatua” deitzen dio (Izagirre, 1979, or.5). Z.en U.ak beraz politikari zuzentzen zaio sarritan, gizarte kritikaren berezko den *underground* komikiaren berezko kausa (González, 1981, or.6). Jada EGINEN lehen alean, A.O.k Anjel Lertxundirekin batera idazten duen Juana Bixentaren testuan keinua egiten zaio *undergroundari*:

Nere parlamentarien etxea defendituko dut, erabat egia izango ez bada, zuen gorabeherak astintzen ahaleginduko natzaizue. Koraje xamurrenean, borondate *underground* ezti batean.


5. eranskina, or.1

Underground hitzak, ingelesez “lur azpiko” esan nahi duena, gizarte kritikan oinarritzen diren manifestazio artistiko umoristikoak ulertzen ditu, eta komikian bereziki feismoa –edertasun kanonik eza eta karikatura groteskoa– erakusten ditu, bai eta kostunbrismoa gaietan (González, 1981, or.6). A.O.ren pertsonaia betean sartzen da estilo honen barruan, ezein kritika politizatuaz beste, autorearen marrazketa estiloan itsura groteskoak diren nagusi, Z. pertsonaia bera bezala:

Zakilixut es un personaje representado por la figura ridícula de un monigote cuyo esquema facial exhibe ostentosamente los motivos gráficos que le dan nombre.


Lorente, 2015, or.543

70. sartu ziren Espainian *undergroundaren* eta *Pop Artaren* eraginak komikian, Miguel Calatayuden *Peter Petrakekin* kasu (Porcel, 2011, or.157). Olariagari, bere 'Solasjaipausakide' Juan Carlos Eguillorri berez, nabaritzen zaizkio *poparen* influentziak (Unsain, 2011, or.11): 77ko Z.en, hainbat motibo grafiko errepikatzen dira, eta batzuetan grafismoa oso kargatua da, bai eta oso kontorno-marra kurbaz beterikoa ere, *poparen* adierazpen grafikoan berezko den bezala. Ikusi adibidez hurrengo Z.K.en zuhaitzak, non hostoaren patroia etengabe errepikatzen den, beste askotan A.O.k egindako zuhaitz “hutsekin” konparatuz, bai eta bigarren Z.K.ren hirugarren biñeta, haizearen onomatopeia forma kurbatu eta tramaz beteriko batez ilustratzen dena:



Irudia 25: Zakilixuten zinta, ia xehetasunik gabeko zuhaitzekin.

©Olariaga (5. eranskina, or.14).



Irudia 26: Zakilixuten zinta, 'pop' estiloa nabarmen.

©Olariaga (5. eranskina, or.42).

Hala ere, Z karakterizatzen duten patroï errepikakor horien artean batez ere bere marradun janzkera nabarmendu behar da. 1991ean EUSKALDUNON EGUNKARIA periodikoan agertutako biñetan, jarraian datorrena, Z.ek fikziozko elkarrizketan hainbat erantzun ematen ditu bere nortasunaren inguruan. Biñetaren amaieran, bere janzkerari buruz badu zeresanik: “presoak betidanik izan ditun zebra-gizon”.



Irudia 27: Biñeta-arteko elkarriketa Zakilixuti.

Iturria: ©Olariaga (EGUNKARIA, 1991/12/6, or.61).

Presoaren estetika hori bat dator 77an aipatu den Trantsizio garaiko presoen egoerarekin: 1977ko urriaren 17an onartutako Amnistia Legari esker hainbat preso politiko kalera irten ahal izan zuten, Erregimenaren kontra ekimenak bultzatu zituztenak. Z.ek alkartasuna erakusten du bere marradun janzkerarekin presoekiko, eta orduan Euskadin gertatzen ari den mugimendu antifrankistaren aurka, jaiotza ematen dion EGIN egunkariak egiten duen moduan.

3.5. Ikerketaren unibertsoa

Jarraian, ikertuko den unibertsoa zehaztuko da: 1977ko Zakilixuten (Z.) zinta komikoak (Z.K.), EGINEN *Solasjaipausan* plazaratuak.

EGIN 1977ko irailaren 29an jaiota, urte amaiera arteko Z.K.ak hartzen dira, 1977ko abenduaren 24koan muga jarritz. Egun horretan, *Solasjaipausako* marrazkilariek Gabonetako postal baten moduko zinta argitaratzen dute Z.en ohiko espazioan, non ordura arteko Eguillorren zein Zabaletaren pertsonaiek, Z.ekin batera, Belen moduko bat antzezten duten irakurlea zorionduz.




Irudia 28: 1977ko Gabonetako Zakilixuten zinta komikoa.

©Olariaga (5. eranskina, or.72).

Z.K.an ikusgarri dira Z bera (Jesus haurra dela) eta Eguillorren Txangurro Marx eta Miss Martiartu pertsonaiak (Maria eta Joseren rola betez). Zintaren ezkerreko koadrantean Sor Ederto moja agertzen da dantzari, eta Eguillorrek urteko beste zinta batean marraztutako pertsona-taldea, *Hator, hator* abestia kantatzen. Zabaletaren serieko *Barraskiloa eta Elefantea* Belengo portalean ere daude, 'jaiotza' sostengatzen.

Z.K honek halako etendura suposatzen du aurreko zinten ildo narratiboarekin: Z jada ez dago bere ingurune telurikoan, baizik eta bat-batean kristautasunaren pertsona nagusia denaren papera betetzen agertzen da, Belenaren barruan, Eguillorren eta Zabaletaren pertsonaiek lagunduta. Aurretik, noiz edo noiz ikusi ahal izan dira serie bateko pertsonaiak beste baten Z.K.an, marrazkilarien arteko laguntasuna edo elkarren arteko kolaborazioaren seinale.




Irudia 29: Zabaletaren barraskiloa, Juana Bixenta eta Zakilixut Eguillorren zinta komiko batean.

5. eranskina, or.25

Ordea, orain, forma aldetik eta narratiba aldetik pertsonaiak antzezlan baten moduan ekintza tipiko eta kostunbrista batean daude sartuta, aurretik egindako ibilbide narratiboa etenez. Etendura honengatik erabaki zen abenduaren 24ko zinta honetan unibertsoa mugatzea.

Baina etendura hori ez da bakarrik A.O.ren zintan gertatzen: Zabaletaren kasuan, nahiz eta esan bezala bere Z.K.ak independente diren ale batetik bestera, egun horretakoa postal modura ere planteatzen du, Belena beharrean Olentzerori toki egin eta tradizioak perfilatutako pertsonaia baten presentziari leku eginez.



Irudia 30: 1977ko Gabonetako Zabaletaren zinta komikoa.

5. eranskina, or.72

Eguillor bere aldetik aurreko aleko kontakizuna segitzen du. Gabonak ez dira zergatia bere lanean eraldaketa tematikorik egiteko, eta Juana Bixentaren testu 'editorializantean' Gabonak haitzaki dira euskal parlamentarien azken berrien inguruan eguneko txistea sortzeko, Nafarroako parlamentari zentrista Jaime Ignacio del Burgo

delarik, beste behin, bere kritikaren jopuntu, U.C.D alderdiko nafar taldea aitzineko erresuma eta Euskadi batean elkartzen zituen autonomia-estatutua eragozteko ahaleginetan ari baitzen: “Del Burgo joan zaigu, Madrilgo lanera, *intenziyoarekin* gu izorratzera”.

Gauzak honela, eta ikerketa honetan Z.en zintak direnez ikergai, aipaturiko etendura tematikoa kontuan hartuta orotara 72 *Solasjaipausa* orrialde bildu ziren, ikerlan honen 5. eranskinean biltzen direnak, eta horietatik Z.en zintak aztertu. Orrialde osoak bildu dira, ezein Z.K.ok euren testuinguruan ikusi nahi ziren, A.O.k gainontzeko marrazkilariekin izan ahal zituen elkarreraginak antzeman ahal izateko.

4. Atal metodologikoa

Ikerketa-objektua definituta dagoela, ikerlan honen hipotesiak adieraziko dira jarraian. Euretatik habiatuz, martxan jarriko da marko metodologikoa eta berorren justifikazioa. Hipotesiok zerrenda modura planteatzen dira, ikerketaren amaierako konklusioetan bakoitzari erreferentzia egingo zaiolarik.

- H.1. Zakilixutek (Z.) 1977an Euskal Herriko (E.H.) transformazio sozialekin bat egiten du bere gaitegian.
- H.2. Z.en imajinarioa eta sinbologia, garaiko aldaketa sozio-kulturalen adierazpidea osatzen dute, ondoko aspektuei men egiten dietenak: hiriaren desnaturalizazioa, garaian onartuagoa den erotismoa, abertzaletasun eredu ezkertiar berria, laizismorantz doan gizartea eta kontsumo-ohitura berriak.
- H.3. Z pertsonaia 1977an kolektibo sozio-linguistiko oso konkretu baten isla izan zen, hiritarra, gaztea, abertzalea, ezkertiarra eta euskaltzalea, kontrapuntuan ordura arteko eusko tradizioak definitutako euskaldun herrikoi eta kontserbadorearekin, nazionalismo jeltzaleak bere unean markatutako ibilbidetik urrunduz.
- H.4. Z.en umorea (U.) kontrapuntua da ordura arteko euskal tradizio batez ere mintzatuan zehaztutako tokiko U.arekin, euskalkietan oinarritua, eta Olariagak euskara batua erabiltzeko joeraz hartuko du hizkuntzaren modernizazio ariketan.

Hipotesiei so, aurreko epigrafean zehaztu direnak, hautatuko den metodoa **diskurtsoaren analisisa** izango da. Metodoa, batez ere soziolinguistek baliatua, **hizkuntzaren erabileran** zentratzen da, eta baliozkoa da ikerketarako hautaturiko Z.K.ek daukaten **gaitegia** zehazteko, bai eta A.O.ren U.a artikulatzen duten elementu adierazleak **identifikatzeko**. Honela, ikerketa honetan hautatu diren Z.K.ek **esaten dutena adieraztea ahalbidetzen duten mekanismo komunikatiboen sistema gisa ulertuko da diskurtsoa**, ezein zintetan ez dagoen testua bakarrik (hizkuntza idatzia), baizik eta interakzioa irudiarekin.

Bestalde, beharrezkoa ere ikusi zen diskurtsoaren analisisian sartu aurretik, Z.en marrazkilariari **elkarrizketa** planteatzea, bere lanaren produkzioaren inguruko erreferentziak edukitzeko, bai eta gerora aplikatuko zen diskurtsoaren analititik eratorri ahal ziren konklusioak aberasteko.

Hortaz, planteatzen den metodologiak elkarrizketa eta diskurtsoaren analisisia konbinatzen ditu, elkarren arteko elkarreragiketan.

4.1. Elkarrizketaren analisisa

Elkarrizketa diseinatu aurretik, Antton Olariagari (A.O.) zer galdetu nahi zitzaien zehaztu beharra zegoen. Objektuari buruzko aurre-ezagupen minimoa edukita – Zakilixut (Z.) nor/zer den, noiz jaio zen, zer mediotan eta zer-nolako testuinguru historiko eta sozialean– galderok lau bloketan sailkatzea planteatu zen: B1, **Z nola jaio zenari buruzko blokea**. A.O.k bere pertsonaiaren sorkuntza-prozesua kontatu zezan bilatzen zen, eta prozesu horren harira, hurrengo blokea osatzen duen **imajinarioei** buruzkoa dator (B2), alegia, autoreak erabiltzen duen mintzaira grafikoan zer-nolako irudi eta sinboloak sortzen dituen, garaiko testuinguru sozialean ulergarriak. B3 blokea, Z mugitzen den **naturari buruzko galderek** osatzen duten, ezein ikerketa honetako 3.2.1 epigrafean zehaztu modura, Z unibertso teluriko batean topatu ahal izango da 1977. urteko EGINEN. Irudikatutako natura horretako elementuek autorearentzat esangurarik ba ote duten jakin nahi da. Amaitzeko, B4 blokean, autorearen **erreferente artistikoak** bilatzen dira, garaian inspiratu ahal izan zutenak.

Galdetegia irekia izango zen, A.O.k aske adieraztea bilatzen baitzen, ahalik eta informazio gehien atera ahal izateko. Galderekin batera, irudi inpresioak ere erakutsi zitzaizkion, elkarrizketa bideratzeko lagungarri eta jarraian datorren galderen sortan zehazten direnak. Galdetegia tonu informalean egin zen, elkarrizketatzaileak marrazkilariak dioena kanalizatzeko batzuetan interbentzioren bat egiten duela, ez beste ezer, ezein Taylorrek azpimarratzen duen bezala,

Most discourse analysts will aim for an interview which something like a friendly conversation, that is, courteous, informal and two-way, with the interviewer acknowledging what is said, contributing responses and perhaps some thoughts and experiences of her own.

Taylor, 2013, or.62

Ondoren, blokeak seinlatu eta galderak aurkezten dira, bai eta galderak hemen agertzen diren moduan planteatzeko arrazoiak, irudiekin batera.

B1. Z.en jaiotza

1. Nola jaio zen Z.?
2. Z.en itxurari dagokionez, badago artikulua bat, duela gutxi atera dena, hala

dioena: “Zakilixut es un personaje representado por la figura ridícula de un monigote cuyo esquema facial exhibe ostentosamente los motivos gráficos que le dan nombre.” (Lorente, 2015, or.543). Z.en aurpegiak halako zakil baten itsura ote dauka, edo inpresio soila ote?

Galdera honetan, Lorenteren artikulutik eratorritako baieztapenetik hipotesia sortzen da: Z.en aurpegia, kokotx lodi eta borobildu baten gainean deskantsatzen duen sudur luze bezain haragitsu batekin, genital maskulinoaren formaren alegoria dela. Pertsonaiaren sorkuntza prozesuan aspektu honek eraginik ba ote zuen galdetzen zitzaien, sortze-prozesuan eragina izan zezaketen inspirazioen bila.

3. Ezagutzen al duzu pertsonaia hau?



Irudia 31: *Profesor Cojonciano*, ©Óscar Nebreda marrazkilariaren pertsonaia. 3. eranskina.

Profesor Cojonciano 1977an El Jueveserako jaiotzen den pertsonaia da. Antzekotasunik gordetzen du Zakilixutekin, ezein biak diren testuinguru politiko beraren seme, eta bien erreferentzia umoristikoa sexu-aferak diren. Irudia inpreso eraman zitzaien, A.O.k bere garaiko erreferenteetaz hitz egin zezan.

4. Z. sortzeko, garaian zegoen marrazkigintzaren arloan, eredu jakinik hartu al zenuen?
5. Halako korronte estilistiko konkretu baten barruan sartuko al zenuke garaian egiten zenuen Z.en zinta?

Aipatua da ikerlan honetako 3.2.1 epigrafean A.O.ren estiloa underground eta PopArtaren barruan kokatzen dela. Galdera honekin, baieztapena konstatatzea bilatzen da, bai eta jakitea ia bestelako korronte artistikorik ote dagoen A.O.rengan eragin berezia izan ote zuenik.

6. Karreran zehar, izan al zenuen komikigintzarekin bestelako esperientziarik?

Gogoratu bedi A.O.k Arte Ederren karrera egin zuela Valentzian lehenengo eta Bilbon geroago (3.2.1 epigrafea).

B2. Imajinarioak

7. Z.ek daukan *hizkuntza*, edo gauzak esplikatzeko moduan, sarri askotan erabiltzen du 'erotiko' hitza. Eta 'sexu' edo 'sexual' ere bai. Berak zerbaiti 'erotiko' deitzen dionean, edo zerbait 'sexuala' dela dionean, zer esan nahi du?

Z.ek espresiook baliatzen dituen bi Z.K. Erakusten zaizkio, 5. eranskineko 56 eta 67. orrialdeetan daudenak, hurrenez-hurren.



© Olariaga (5. eranskina, or.56).



© Olariaga (5. eranskina, or.67).

72 Z.K.en artean, nabarmendu behar da horietako 18tan aipatzen duela Z.ek *sexus* edo *érōs* errodon hitz eta hitz-jokoak, esplizituki nabaritutuz terminoak erabilera ohikokoak direla pertsonaiarentzako:

<i>Hitza / Hitz-jokoa</i>	<i>Z.K.ak</i>
<u><i>Erotismo(a)</i></u>	3
<i>Erotiko</i>	3
<u><i>Sexu</i></u>	5
<i>Sexual</i>	3
<i>Sexubide</i> ⁵⁸	2
<i>Sexupare</i> ⁵⁹	2

58 5. eranskinean jasotzen den bezala, 35 eta 66. orrialdeetan, Zakilixutek 'eskubide' hitzarekin hitz-jokoa egiten du.

59 5. eranskinean jasotzen den bezala, 57 eta 58. orrialdeetan, Zakilixutek LINGUAE VASCONUM liburuaren autore Beñat Dechepareren izenarekin hitz-jokoa (*Dechepare – Sexupare*).

8. Z dabilen ingurune teluriko edo natural horretatik, badirudi emakume baten gorputza ateratzen ari dela: titiak, mendien kurbak... Eta baten EGINEN feminista batek idatzitako iritzi-testu bat, Z.i kritika eginez, umore (U.) matxista zela, pertsonaia desagertu behar zela andrea agertzeko, Marizikin⁶⁰ gora eta behera... Zergatik espresuki emakume baten figura?

Z.ek, hautatutako Z.K.ak begiratu ondoren, baieza daiteke etengabe ari dela metaforak sortzen topatzen dituen elementu naturalen eta emakumearen gorputz-atalen artean. Lorenteren zitetako batera itzuliz,

El bucle espacio-temporal en el que el personaje se halla encerrado consiste en un incesante retorno a sus obsesivas posiciones respecto al sexo, la naturaleza o las relaciones sentimentales.

Lorente, 2015, or.544

Honela, eta horregatik, 3.2.1 epigrafean lerrootara ekarri den Euskal Emakume Borrokan delakoaren iritzi-testua jaso zuen EGINEK (1977/11/16, or. 15), zeinean esaten denez,

hace tiempo que Zakilixut no vuelve de su viaje por la tierra. ¡Y qué tierra! Si no hay colinas, hay cavernas; si no hay orificios, hay prominencias... ¡Pobre Zakilixut, que no ve nada más ni después de muerto Franco! Ya es hora de que desaparezca y de que ELLA salga. Pero no una Marizikin ambigua y perezosa.

4. eranskina

9. Badira une jakinak arbolak, batzuetan, oso ondo ñabarturiko hostoak dituztela, xehetasun handiekin; baina beste batzuetan hostoak biltzen dira masa uniforme batean.


Jarraian datozen Z.K inpresok erakutsi zitzaizkion, 5. eranskinean 15 eta 39 orrialdeetan daudenak, hurrenez-hurren.



© Olariaga (5. eranskina, or.15).

Ingurune telurikoaren “goragune” horiek emakumearen gorputzaren kurbak intsinuatzen omen dituzte. Alegoria hau konstatatu nahi zen.

⁶⁰ Marizikin, EGINEN agertzen den pertsonaia da, emakume feminista, Antton Olariagak sortutakoa. Iritzi atalean agertu ohi da, biñeta soil batean komentarioa eginez, bertan agertzen diren iritzi-testuak lagunduz.



© Olariaga (5. eranskina, or.39).

Ñabardura horien atzetik zeinu edo adierazpide konkreturik ba al dago?

10. Jaso al zuen Z.ek kritikaren bat?

Aurreko kritikaz gain, jakin nahi da ia bestelakorik ere jaso ote zuen, jakinaren gainean 70. hamarkadan umore grafikoaren kontrako zentsurak eta erasoak, ikerlan honen 3.2 epigrafean zehaztutakoak.

B3. Naturaren irudikapena

11. Badirudi Z., hirira jauzi egin aurretik⁶¹, naturan barrena dabilela, ingurune lau eta nahiko geldo baten gainetik. Pentsa liteke, agian, ingurune hori Euskadi bera dela, baina eusko lurak berez menditsu eta kontraste handikoa da. Ingurune horiek zeri egiten diote bada erreferentzia?
12. Oso portaera komuna da Z.engan, menditik ibili eta bat-batean gora begira jartzea. Badirudi zerutik halako grazia datorkiola txiste bat burutzeko edo. Zer dago, bada, zeruan?

B4. Erreferenteak

13. Zinemagintzatik zer edo zer edan zenuen garai hartan?
14. Musika ere edan al zenuen?
15. Eta literaturatik? Zeren eta badirudi Z.en txisteez bertsozalaritza gogorarazten dutela. Nola helburu jakin batera ailegatzeko, gainontzekoa eraiki eta amaieran halako ateraldia egin.

Esana dago zenbait autorek antzeman diotela A.O.ren U.ari halako parekidetasun estilistikoak bertsozalaritzarekin, Koldo Izagirre horien artean (Izagirre, 1979, or.5). Beste behin, konstataziorako galdera da egindako hau, gida modukoa diskurtsoaren analisirako.

61 Abenduaren 17tik aurrera Zakilixutek ibilbidea hirira egingo du. Hortik aurrera, berorren espazioak aldatuko dira, eta Zakilixut urbanizatuko da.

Galderok planteatuta, marrazkilariarekin lehen kontaktua bideratu zen, e-mailez⁶². EGINEN argitaraturiko Z.K.en inguruko tesia egiten ari zelaz informatu zitzaion, xehetasun gehiago ez emanez, ezer prestatua eraman beharrean, **bat-batean etortzen zitzaiona esan zezala bilatuz**. Prest agertu zen, eta **2015eko ekainaren 14an** egin zitzaion elkarrizketa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO *Carlos Santamaría* zentroan⁶³, Donostian, egun marrazkilaria Hernanin bizi baita.

Zentroak geletako bat eskaini zuen lana egin zedin. Grabagailu bidez, A.O.k esandakoak jaso ziren, gerora transkribatzeko.

4.2. Diskurtsoaren analisisa

Definitu da diskurtsoaren analisisa **hizkuntzaren erabileran** zentratzen den ikerketa metodo gisa, eta nahiz eta ikerlan honen kasurako diskurtsoa, hautatu diren zinta komioek (Z.K.) **esaten dutena adieraztea ahalbidetzen duten mekanismo komunikatiboen sistema** bezala ulertu den. Hurrengo lerroetan ordea metodologia honen nolakotasunean sakonduko da, bai eta ikerketa honetan baliatuko diren teknikak azaldu ere.

Lehenik eta behin, diskurtsoaren analisisa honen erreferenteek nola definitu duten aztertu nahi da. Brownek eta Yulek zehazten duten moduan, diskurtsoaren analisisa

... is, necessarily, the analysis of language in use. As such, it cannot be restricted to the description of linguistic forms independent of the purposes of functions which those forms are designed to serve in human affairs.

Brown eta Yule, 1983, or.1

Oso antzeko definizio bat Stephanie Taylorrek emango du 2001ean Margaret Wetherell eta Simenon J. Yatesekin batera argitaratutako DISCOURSE THEORY AND PRACTICE liburuan (2001):

The simplest answer is to say that the study of discourse is the study of language in use [...]. Another relatively straightforward response is to say that the discourse is the study of human meaning-making [...]. Meaning-making is much broader definition of discourse, however.

Wetherell, et al. (ed.) 2001, or.3

Aipaturiko definizioan diskurtsoa zer den errepikatzen da, baina zertzelada handietan. Edonola ere, lehen hurrenkera bezala balio du diskurtsoaren analisisa zer den ulertzeko. Taylorrek 2013an liburu erabilgarria idatzi du halaber, WHAT IS DISCOURSE ANALYSIS? izenburupean, non sumario moduan, metodoaren ardatz nagusiak zehazten dituen. Diskurtsoaren analisiaren definizioa gehiago zorrozten du oraindik:

62 Bere kontaktua ikertzaile honen irakasle ohi izandako Joxerra Garziak erreztu zuen, Olariagaren lagun dena. Lerro hauek aprobetxatzen dira Garziari eskerrik beroenak emateko.

63 Eraikina EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (E.H.U.) Gipuzkoako Campuseko Elhuyar plazan dago. Unibertsitateak baimendu zuen eraikineko gela bat hartzea, Olariagak elkarrizketatzeko. Esker onak ere E.H.U.ri lanak errazteagatik.

The close study of language and language use as evidence of aspects of society and social life. It can involve the analysis of language data as communication, practice or selective constructions derived from accrued social meanings.

Taylor, 2013, or.97

Hala bada, diskurtsoaren analisia **hizkuntzaren erabileraren analisia izango litzateke, gizarte jakin baten berezko diren aspektuen agerpen sintomatiko modura, eta gizarte horren barruan esangura dutenak** (“*social meanings*”). Beharrezkoa da horrela diskurtsoa zer den teknikoki definitzea, eta dio Taylorrek,

[The discourse] can refer to communication, specific language practices and a complex set or system of meanings which is a resource for language use.

Taylor, 2013, or.96–97

Ikerlariak onartzen du definizioaren zailtasuna eta zabalera, ezein diskurtsoaren analistek euren definizio propioagoak garatu ditzaketan euren ikerketa objektuen arabera (Taylor, 2013, or.17). Hala ere, azpimarratzen du diskurtsoaren analisiak ez duela zertan bakarrik, Brownek eta Yulek baieztatu bezala –biak linguistak– hizkuntza mintzatuan zentratu, esanahi kulturalak eta hizkuntzaren praktikak ere uler ditzake, eta horrela, bestelako diziplina sozialen lanabesetaz lagundu:

Discourse analysis [...] may be associated with critical language study, critical linguistics, sociolinguistics, communication studies, pragmatics, semiotic analysis, discursive psychology and [...] studies of governmentality.

Taylor, 2013, or.17

Analisi diskurtsiboen espezializatutako hainbat ikerlari bat datoz edozein testutan –uler bedi 'testua' corpusaren sinonimo legez, zientzia-aztergaia hain zuzen– bi plano desberdindu daitezkeela: **adierazpenarena** eta **edukiarena**. Bien arteko elkarreraginak diskurtsoaren zentzua azaleratzea ametzten du.

Diskurtsoaren analisia

Edukiaren planoa

Adierazpenaren planoa

Definitu beharrekoa da beraz zer den edukia eta zer adierazpena. Lehenengoa, Hjelmsleven eta Saussureren ikuspuntutik, testuaren **esangurari** men egingo lioke (Greimas eta Courtés, 1982, or.85). Adierazpena, edukiari lotua eta termino greimasiarretan, edukiaren planoaren “orrialde baten atzeko alde” litzateke. Bide honetatik, adierazpen planoaren testuak **erakusten dituen eta irakurleak zentzumenen bidez hautemangarri dituen formen planoa** litzateke. Istoriotxo baten testua (hitz idatziak) eta irudiak bere horretan, adierazpen planoan leudeke. Ikerketa honetan aztertzen den unibertsoari helduz, lehenengo Z.K.a hartzen bada (iraila 29koa) adierazpen-planoaren barruan identifikagarriak dira biñetak, testu-bokadiloak, “Zakilixut” berba, sentikortasunaren esperientziaz irakurleak identifikatzen duen

pertsonaia jakin bat –ez jakinda ere Z dela–, mugitzen den espazio naturala, zorua, zerua eta lehen biñetan agertzen den zuhaixka barne, eta noski, bi harriak, bi masa beltzek osatutakoak, eta laugarren biñetan egituratzen den txistearen sorburu.



© Olariaga (5. eranskina, or.1)

Bi planoak zer diren ulertzen bada, deduzitu daiteke **plano biek materiak, formak eta sustantziak dituztela**. Testuaren zentzua ulertu ahal izango da edukiaren eta adierazpenaren sustantziak elkartzen direnean. Hurrengo lerroetan azalduko dira hiru kontzeptuak, Greimasen eta Courtésen hiztegiari segika (Greimas eta Courtés, 1982).

Diskurtsoaren analisia	Edukiaren planoak	Edukiaren materia
		Edukiaren forma
		Edukiaren sustantzia
	Adierazpenaren planoak	Adierazpenaren sustantzia
		Adierazpenaren forma
		Adierazpenaren materia

Materia, edozein esangura azaltzen duen lehen materiala izango litzateke. Adierazpenaren planoan begi-bistakoa da materiaz aritzekotan, eta esku-artean dagoen objektuari so, **materia grafiko eta testualaz** aritu beharko litzatekeela, bai eta komikiaren berezko diren ikurretaz. Edukiaren aldetik ordea, materiak antzematea ariketa abstraktuagoa izan daiteke. Ikerketa honen kasu konkreturako, edukiaren materialian agertuko lirateke umorea, testuinguru soziala, zintak argitaratzen diren egunkaria eta oro har, **testuaren artikulazio adierazkorra konfiguratuko duten lehenengo materialak**.

Formara joaz, definitutako materien **antolakuntza estrukturalaz** hitz egiten da. Adierazpen planoan, aipatu diren materia grafikoak hautemangarri diren Z.K.etan antolatzen dira, errepresentazio-sistema logiko bat segitzen dutenak. Edukiaren formari dagokionez, materiak nola antolatzen diren antzemateko beharrezkoa litzateke aztertzea, lehenengo, Z.en pertsonaiak **zer ibilbide egiten duen hautatutako denboran zehar**, zer unibertsoan mugitzen den (balore politiko eta sozialen arloak) eta bai eta zer irakurketa estrategiak definitzen dituen.

Amaitzeko, formetatik sustantziak eratorriko dira, Hjelmsevek “zentzu” bezala aipatzen dituenak. Edukiaren eta adierazpen planoetatik egindako ibilbidetik eratorritako forma adierazkorrek elkar lotzen direnean, orduan lortzen dira sustantzia unitarioa, zentzua, eta ibilbide generatiboari esker, diskurtso osoaren egituraketa lortzea.

Aurretik egindako eskematik, eta jada ikerketa-objektutik jakindakoarekin, ondoko eskema edo egitura segitzea planteatzen da, laugarren zutabearen agertzen diren terminoak jarraian zehaztuko direlarik.

Diskurtsoaren analisi	Edukiaren planoa	Edukiaren materia	<ul style="list-style-type: none"> • Umorea. • Fenomeno soziologiko eta politikoak. • Testuinguru periodistikoa.
		Edukiaren forma	<ul style="list-style-type: none"> • Zakilixuten ibilbidea denboran zehar. • Zakilixuten unibertsoak. • Dramaturgiak*.
		Edukiaren sustantzia	
	Adierazpenaren planoa	Adierazpenaren sustantzia	
		Adierazpenaren forma	<ul style="list-style-type: none"> • Testua (euskaraz). • Zinta komikoa. • Egunerokotasuna.
		Adierazpenaren materia	<ul style="list-style-type: none"> • Materia grafiko/testualak. • Komikiaren ikur grafikoak*.

Taula 1: Diskurtsoaren analisisian edukiaren eta adierazpenaren planoak abordatzeko eskema.

Iturria: Greimas eta Courtés, 1982

Edukiaren formaren dramaturgiak* aipatzen direnean, antzerkigintzan 'eszenaratzea' deitzen zaionaren antzeko elementuen disposizioari erreferentzia egiten zaio, aztergai diren Z.K.etan, alegia: pertsonaiak eta hauek aurrera eramaten dituzten ekintzak. Bestalde, adierazpen materietako ikur grafikoetaz* aritzeko, irakurlea eranskinetako glosariora bideratzen da (3. eranskina), non komikiaren lengoaiaren hainbat termino jorratzen diren. Analisisian zehar agertzen diren terminoak analisisian bertan azalduko dira.

Ikusi bezala, eskemak proposatzen du edukiaren materietatik adierazpenen materietara jotzea. Edukiaren materiek men egiten diote jada aurretik lortutako datu multzoari, EGINEN umore grafikoari eta Trantsizio garaiko fenomenologia sozialei dagokienean. Analisisian ez dira jada esandako datu guztiak berriz errepikatuko, baizik eta aztertzen diren **Z.K.en araberako informazio pertinenteak baizik**, aurretik garatuko den analisi tematikoak lagunduta.

4.3. Glosarioa. Nozio diskurtsiboak

Diskurtoaren analisiak gauzatzeko badira nozio jakin batzuk, narrazioan egoeren transformazio eta ekintzak aurrera nola eramaten diren azaltzen laguntzen dutenak. Nozio hauek guztiak ENTREVERNES taldeko ANÁLISIS SEMIÓTICO DE LOS TEXTOS obran – ENTREVERNES (taldea) 1982– agertzen dira zehazki azalduta, ezein analisi semiotikoa “analisi diskurtsiboa ere baden”⁶⁴ –ENTREVERNES (taldea) 1979/1982, or.2–. Taldearen bibliografiatik eta Greimasen hiztegitik (Greimas eta Courtés, 1982) edan da definiziook osatzeko. Lerro hauetatik aurrera, glosario honetako noziook kasuan-kasu dagozkien siglekin idatziko dira (ENTREVERNES taldeak adierazten dituen moduan), eta asterisko batek segituta, irakurlea glosario honetara etor dadin behar duen beste.

Egoera (E)

Kontakizunaren elementu baten *egon* edo *izateari* dagokion operazio narratiboan multzoa da. E batetik bestera pasatzea ahalbidetzen duen operazio orori **aldaketa** deitzen zaio, eta E-aldaketak bultzatzen dituzten mutazio egituratu guztien sorkuntza-prozesuari, narrazio.



© Olariaga (5. eranskina, or.1)

Irailak 29ko zinta komikoan (Z.K.) hiru aldaketa antzematen dira, non Zakilixut (Z.) paseoan lasai egotetik elementu baten topaketara doan (3. biñeta), eta bertatik konklusio bat bota (4.b.). Hiru aldaketok, hiru E-tatik pasatzea ahalbidetzen dute, elkarren segidan lau biñetatan egituratu ohi diren kontakizun laburrak sortuz, Olariagaren Z.K.etan gertatu ohi den bezalaxe.


Ekintzailea

Narrazioan, ekintza jakin bat aurrera daraman elementu narratiboari ekintzaile deritzo. Ikerketa honen unibertsoaren lehen Z.K.ari berriro helduz –irailak 29–, ekintza nagusia, harri parearekin topatu eta kontakizuna ixten duen komentarioa egiten duena, Z bera da.

⁶⁴ Noziook modu berean ere proposatuak eta erabiliak izaten dira Jorge Lozano, Cristina Peña-Marín eta Gonzalo Abriek hemen baliatzen den metodoaren izenburu bera daraman euren liburua, ANÁLISIS DEL DISCURSO, bibliografian Lozano et. al. 1982 bezala zitatua.

Oso argi eduki behar da ekintzailea kontakizuneko rol edo paper jakina dela, eta ez pertsonaia halabeharrez. Hala bada, kontakizun batean E*ak anitzak izan daitezke, eta horiek aldatzeko ekintzak burutzen dituzten dituzten ekintzaileak beste horrenbeste.

Urriaren 6ko Z.K.a adibide adierazgarritzat jo daiteke, non bi ekintzaile dauden: alde batetik, barraskiloa bera, kaktusarekin ziztatzearen ondorioz, Z.en komentarioa bultzatzen duena (4. biñeta). Bestalde, Z bera dago, zeinaren komentariarik gabe txisterik ez legokeen, eta ondorioz, errealitate jakin baten edo jazo den gertakari baten komentarioaren ekintza gauzatzen duena da, beste bigarren ekintzaile bat. Segun zein den kontakizunean aztertzen den ekintza, ekintzailea bat, beste edo anitz izango dira.



© Olariaga (5. eranskina, or.7).

Paper ekintzailea (PE)

Ibilbide narratiboan, ekintzaile* batek **definitzen dituen egoeren multzoari** PE deritze, Greimasen eta Courtésen esanetan (1982, or.23), *egin nahiaren, nola egin jakitearen* eta *egin ahal izatearen* arabera definituak.




© Olariaga (5. eranskina, or.1).

Aurreko Z.K.ari berriro heltzen bazaio, eta esatekotan Z dela ekintzailea*, argi dago bera dela, pertsonaia bezala, hiru egoera aldatzen dituena: lehenengo bi biñetatan zelaibide ibiltzen agertzen da, hirugarrenean atentzioa deitu eta geldiarazten duen elementu batekin topatzen denean: harri pareta. Bi egoera gertatzen dira orduan: lehenenean, ibiltzen doa, eta bigarrenean elementua ikuskatzeko gelditzen da. Paseo egoeratik, analisisira pasatzen da, eta analisitik, konklusio bat aterako, biraketa metaforiko baten bidez –gerora berriro helduko zaio kontzeptu honi– komentario bat egiten duela. Hiru egoera ezberdin, ekintzaile jakin batek gauzatua.

Figura (F)

Narratiban, PE*ei eta euren funtzioei gorputza ematen dieten edukien-unitateei F deritze. Argi ikusten da azaroaren 13ko Z.K.an agertzen den pertsonaia femeninoa, pertsonaia izateaz beste, Z.en serieko feminitatearen F-a betetzen duena:



© Olariaga (5. eranskina, or.38).

2. biñetan enkoadrean oina sartu eta 3.ean guztiz agertzen den neskak ekintza jakin bat gauzatu du: Z.en aurretik pasatzea, hau lotsatuz. Ekintzak PE* bat ulertzen du bere baitan: ibiltariarena, Z.en aurretik pasatzen dena, eta lotsarazlearena, Z.engan eragina duena. Lehen unea da Egin hasten denetik Z.ek emakume 'humano' bat ikusten duela, eta lotsatu egiten da. Modu berean, andrea eszenan sartzeko pausoa orduko gizartearen errebindikazioekin bat dator, non emakumeak 'eszena publikoan' sartzeko ahaleginetan dabilzan.

Emakumea, Z.en Z.K.etan F bat da, aurreko zintan definitua modu adierazgarrian: 'berria' da bere agerpenari dagokionez –aurretik esplizituki ez ikusia–, erakargarria da, Z.ek lotsatzen duen aldetik (errespetua merezi dio), eta Z.en ibilbidean tarteka sartzen da, batzuetan naturaren elementu “erotikoen” bidez –non naturaren edo Lurraren elementuok andrearen gorputzaren atalekin metaforizatuak izaten diren–, eta beste batzuetan, gorputz oso baten bidez, pertsonaia batean forma hartzen duena, adibideko Z.K.an kasu. F hau medioetan presente dihardu 1977an, ikerketa honen 4. eranskinean jaso diren testuetan bezalaxe, ikuspegi feministaren pean andrearen ikusgarritasuna eta gizarte-protagonismoa azpimarratzen dituztenak.

Isotopia

Ikerlan honetako 1.2.1 epigrafean, modu honetan definitu zen isotopia, Romeraren erretorika-hiztegira joaz (Romera, d. g.): testuari esangura homogenea ematen dioten eremu semantikoek elkarrekin. Isotopia, bere erro linguistikoari helduz (grekotik ἴσος, *isos* 'berdina'; τόπος, *tópos* 'tokia', 'toki berean') pista ematen du kontakizun narratiboan zein elementuri men egiten dion: kontakizuneko komuneko plano da, testu baten koherentzia posible egiten duena **ezaugarri minimo batzuen erredundantziari** esker –ENTREVERNES (taldea) 1982, or.148–. Honela, diskurtso batean, osotasunari zentzu homogenea ematen dizkieten adierazpenak eta F*ak egon daitezke, ulergarritasuna eta koherentzia ematen diotenak.

Z.en Z.K.etan, ingurune telurikoa isotopia deigarria da, ezein pertsonaia mugitzen den espazioari batasuna eta koherentzia espaziala ematen dion. Horretaz gain, badira etengabe errepikatzen diren elementuak, zuhaitzak kasu, Z.en ironien biktima ohiko, edo harriak, edo txoria.

Subjektua eta Objektua (S-O)

Kontakizunean, subjektu (S) batek desiratutako rol narratiboari O deritzo, eta S batek desiratutakoari, O. Bi nozio narratibo dira, eta bata bestearikiko baino ezin daiteke ulertu. Egoeren* aldaketak, S-ak O-arekin elkartzeko bideratzen dituen ekintzek sortuko dute.



© Olariaga (5. eranskina, or.4).

Urriaren 2ko Z.K honetan, Z.ek ekintza bat darama aurrera: sastraka artean sartzean da, kuluxka egiteko asmoz (“hire gainean etzango naun!”, 2. biñeta). Bere desira, sastrakok osatzen duten “Lur” horren gainean (1.b.) etzatea da, eta gerora “emakume kontzientziatua” (4.b.) deituko dion hori bere egitea. Z.ek Lurra desiratzen duen heinean –edo berorrek in zerbait (etzatea) egiteko behar duen heinean–, pertsonaia S izango da, eta Lurra, pertsonaia ez dena, Z.engatik desiratua den heinean, O.

Programa narratiboa (PN)

PN deitzen zaio kontakizun batean egoeren eta **aldaketen multzoari**, S*–O* arteko harremanaren eta transformazioaren ondorioz sortzen direnak. Aldaketok egitura logiko baten kateamenduari ematen diote erantzuna. Hortik 'programa' izendapena.

5. Metodoaren aplikazioa eta emaitzak

Aurreko epigrafean ikusi bezala, metodoak bi atal dituela baieztatu daiteke: bata, Antton Olariagaren (A.O.) esanetan zentratzen dena, eta bestea aztertzen den bere obraren adierazpen/adierazpideetan zentratzen dena. Elkarrizketari helduz, A.O.k esandakoek ez dute zalantzan jartzen diskurtsoaren analitiko ondorioztatzen direnak: aurretik esan bezala, **osatzen dute** diskurtsoaren analisiaren emaitza, eta erreferentzia sortu analisia hasteko. Beraz, elkarrizketaren emaitzak ekartzeko, beharrezkoa da bloke (B) bakoitzean A.O.k esandako aspekturik nabarmenenak aztertzea, irakurleari gogoraraziz elkarrizketa osoan sakontzeko eranskinetara jo ahal duela (3. eranskina).

Ondoren, diskurtsoaren analisitik eratorritakoak ekarriko dira, 4.2.2 epigrafean definitutako eskema aplikatuz, zinten edukiaren eta adierazpen planoaren azterketaren bide analitiko osoa erakutsiz, glosarioan (4.2.3.) agertzen dien nozioen aplikazioarekin.

5.1. Elkarrizketaren emaitzak

Hurrengo lerroetara ekartzen diren Antton Olariagaren (A.O.) aipuak, besterik zehazten ez bada, 3. eranskinetatik ateratakoak dira (or.9-32). Autorearen ziten azpian eranskinei dagokion orrialdea zehaztuko da, irakurlea bertara jo dezan hala behar badu.

A.O.k bere pertsonaiaren sorkuntza-prozesua kontatzen duela, aipagarri suertatzen da EGINEN proiektura ailegatu zenean nabarian uzten duen eskarmentu falta. Lan honetako 3.2.1 epigrafean azaldu zen Arte Ederrak ikasi zituela, Valentzian lehenengo, Bilbon gero, eta komikiaren lengoaiarekin sikiera esperientzia minimorik bazuela – Valentziako LAS PROVINCIASEN txiste grafikorik egin zuen, bai eta *Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan–. Hala ere, halako beldur puntua sartu zitzaion EGINEN hasi zenean, *Argiako* kide batek proposatuta bertara heldu zelarik:

Bilbon bukatu nuen Valentzian hasitako Arte Ederretako karrera. Eta bertan, *Argiako* batek esan zidan: “Hi, proiektu bat hasi gintuk, hemen daukagu materiala hasteko. Parte hartu nahi *dek*⁶⁵?”. Ni... Txorutzen nengoen! Ordura arte, nik Valentzian eguneroko batean lana egin nuen, kolaboratzaile bezala, kanpotik. Bidaltzen nituen LAS PROVINCIASERA, erdaraz, ilustrazioak, eguneroko kontuak, eta abar. Eta orduan eskaini zitzaidan hemen lan egitea. [...] Bigarren osagaia: aukera ematen zidatela euskaraz lan egiteko [...]. Oraindik definitu gabe zegoen nire lana. Baina jakin, banekien komikiekin lotuta egongo zela, zeren eta garai hartan jada txiste grafikoak egiten nituen *Zeruko Argian* [...]. Bai eta *Anaitasunan* Bilbon. Eta hirugarren osagaia, hori dena egunero [argitaratzea]. Ez astero, ez hilero. Ez: egunero! Eta orduan **pixka bat galduta sentitzen zara**. Esaten duzu: “*ez dakit zer aterako den hemen!*” eta azkenik, “*tira, ya que*⁶⁶ *hutsunea betea dagoen, segi...*”.

3. eranskina, or.10

EGINEN sartu zela, bere lana definitu gabe zegoen, eta antza denez, marrazketa lanak egunero egiteak **segurtasun eza puntu bat** ematen zion. Estrategiak oraindik ez zituen garatuta, eta bere profesionaltasun maila hasieretan zegoen:

Bakoitza bere terrenoan zebilen, eta orduan beldurra, bertigo txiki bat ere sentitzen duzu, '*hauek gustura geratuko al dira orriari emango diodan antolakuntzarekin?*'.

3. eranskina, or.11

65 Gipuzkeraren berezitasun linguistikoak italiko jarri dira.

66 Erdal adierazpenak ere testutik desberdindu dira, ez-ulertuak sortu ez ditzaitez.

Antzematekoa da ordea euskararekin aipatzen duen motibazioa: medioaren euskal hizkuntzarekiko apustuak erakartzen zuen, jada *Argian* eta *Anaitasunan* praktikatzen ari zen euskal umorea (U.). Gerora adieraziko duen modura ordea, hori ere puntu batean aldrebestuko zitzaion, ezein **A.O.k etxean ikasi baitzuen euskara**, eta batua oraindik definitzeko prozesuan zegoen. U.a hizkuntza ulergarri batean nola egin, hori erronka.

Euskararen problema [...], lokalismoena, eta euskaraz nola esan hemen eta han... Eta nire ustez beste sektore askotan gertatzen zen hori ere. Nik zerbait idazten baldin badut, ulertu behar da, Donibane-Garazin, eta Pasaian... *Claro*, arriskua dago nahiko neutro, aseptiko, gatzik gabekoa egitea. [...] **Euskararen indarra, guk etxean genuenetik ikusten nuen nik.**

3. eranskina, or.25

Hizkuntzari dagokionez, egunkariko euskara ekipoaren laguntza hartzen du, bai eta bere mintzaira propioa sortu ere. Interesgarria da sortzen duen euskal hiztegi partikularra, berezko espresioekin:

Eta erreferentziak, zer hitz erabiltzen zen, zer euskara mota erabiltzen zen, gaur egun espantua sortzen du, igual *incluso enkorsetatu* dalako oraindik ere⁶⁷. *Kriston* grazia egiten zidan aditzak, '**duk-dun**'... '**gidoi-ene**'⁶⁸. Eta sakondu nituen bokadiloetan. Eta gero, erabili genuen jada '**dunk**'⁶⁹. Kendu gidoia eta, 'duk' ordeaz, 'duk' edo 'dun'. Zer jarri? Bientzat? Beno, jeneralean lanean, neska-mutilentzat, 'dunk' jarri eta listo. Problema tekniko txiki bat. Baina nire ustez, *interlocutoreak* interpretazioa zeini egiten zaion, niretzat *triunfo bat* izan zen, aurkikuntza bat.

3. eranskina, or.16

Umora grafikoaren (U.G.) argitalpen prozesuari dagokionez, hasieratik A.O.ri proposatzen zaio *Solasjaipausa* orrialdea diseinatzea, jada erredakzioak prestatua eta Zabaleta, Eguillor eta berau integratuko zituen. Orrialdearen diseinu prozesua erronka ere bada marrazkilariarentzat, zeinak orrialdea nola banatu, bere lankideak bertan kokatu eta berak zer egin erabaki behar duena.

67 Nabarmendu bedi *enkorsetatu* hitzak euskara normalizatu edo batuaren mugarriak nabarmentzen dituela marrazkilariarentzat. Zuzenean eramaten du aipuak Joxerra Garziarena, 1.2.3 epigrafean ikusitakoa: "Hizkera neutro, zentzu bakarrekoa ari gara zabaltzen. Eta zentzu-bikoiztasunik gabe, anbiguitaterik gabe, ez dago umorerik" (Garzia, 1987, 1.72).

68 Garaiko euskararen erabilera ez sexista praktikatzeko hasia zen. EGINEK apustu sendoa egiten du ere kolektibo feministen alde.

Dirigido por Mariano Ferrer, el nuevo diario guipuzcoano intenta captar especialmente a un público joven, situado próximo a la órbita de la izquierda abertzale, y deja bien claro que dedicará grandes espacios a informar sobre asuntos tradicionalmente abandonados por otros medios: mujer, ecología, marginalidad, etc.

Coca eta Martínez, 1993, or.69

69 Forma honen erabileraren eredu barregarri bezain erabilgarria da Sustrai Colina kazetariak Zakilixuti berari egiten dion fikziozko elkarrizketa, *Umorea jarrera bat dunk* izenburupean (Colina, 1998).

Derrepentean ikusten nuen orrialde hori, analgesiko, aseptiko izan beharrean, **indar izugarritzko puntu bat zela** [...]. Burua gehiegi hautsi gabe, gauza estandar batekin hasi nintzen: bakoitzari [...] alde grafikoa, bloke batean; gero, hitzak eta denbora-pasak, beste batean [...]. Juan Carlos Eguillorren orrialdea ez ezik, dena euskaraz zihoan.

3. eranskina, or.11

Behin A.O.k orria diseinatuta, hasten da Zakilixut (Z.) sortzen. Kontziente zen jadanik orrialdearen botere bisualaz, aurreko epigrafeetan zehaztu denez, egunkaria atzetik aurrera irakurtzeko ohitura ere sortzeraino (Lorente, 2015, or.532). Z bi osagaiaren arabera sortuko du:

1. Bata, erabaki pertsonala, pertsonaia finko⁷⁰ batekin lortuko zukeen egonkortasun kreatiboarengatik, sorkuntza-ildo propioa garatuz oraindik nola landu ez dakien esparru batean (3. eranskina, or.12).
2. Bestea, bere U.an ohikoa izango zen gaitegi sexualarengatik, berak hautatua garaian “gai madarikatua” baitzen. Dio A.O.k:

Derrepentean esan nuen: '*Gure gizartean, bada gai bat madarikatua dena: sexua*'. Eta ez dakit zergatik! Azkenean haragi-puskak dira, zer arraio!

3. eranskina, or.12

Grafika aldetik, pertsonaiak forma oso xumea izan zezala bilatzen zuen, medioak hala baldintzatuta: paperaren eskasiarekin batera –kolorerik gabe argitaratuko zuen lana –irakurlearen aurrean iraungo zituen segundo urriak hartzen ditu kontuan, estiloz oso sinplea den diseinua egin arte (3. eranskina, or.13): pertsonaia horizonte-marra baten gainean, lurzorua balitz bezala, eta biñeten planteamendu oso antzekoa, bata bestearen alboan, tamaina karratukoak. Hau hala izango da 1977. urtean zehar, jada 78a ailegatuta biñetekin esperimendu gehiago egingo dituelarik. Azterketa honi dagokion garaiko produkzioa ordea “*paupérrimo*” erdal berbarekin kalifikatzen du A.O.k (3. eranskina, or.12). Berak sorten du, hortaz, bere ardatza hasierako segurtasun eza gainditzeko, forma zein eduki aldetik segituko duen ekoizpena.

Pertsonaiaren diseinu propioak baditu bere berezitasun nabarmenak ere. Hipotesi bezala, planteatzen zen elkarrizketan Z.en aurpegiak izan zitzakeen konnotazio genital maskulinoak (“*Zakilixut es un personaje representado por la figura ridícula de un monigote cuyo esquema facial exhibe ostentadamente los motivos gráficos que le dan nombre*” –Lorente, 2015, or.543–). A.O.k ez du bakarrik halakorik ez dela baieztatzen, ezein Z.en sudur zein kokotxaren formaren erabakiaren berri ere ematen duen:

Nire ustez, hasierakoak [Z.] sudur handiagoa zeukan, baina begiak txikiagoak zituen, eta bere historian eskuak adierazpen grafiko *potenteagoa* egitean estiloz aldaketak egin ditut, eta egin ditut marrazki eskematikoagoak. Zeren eta azkenean, ni neu ere dibertitu egin behar naiz alde grafikotik [...]. Eta hori eskematikoki ere egin *leike*: bi globo, eta

70 Ordurako *Kaleko* pertsonaia sortua zuen *Anaitasuna* errebistan. 3. eranskinaren 13. orrialdean agertzen da pertsonaia honen zinta komiko bat.

sudur *potente* bat eta gero kokotxa. Ondoren, bi globo horiekin, sudurraren kurba luzatuarekin eta kokotxaren kurba horrekin definiturik geratuko litzateke pertsonaiaren perfila. Eta hori, baten batek uste baldin badu barrabilak edo zakila direla, eskubide osoa du.

3. eranskina, or.18

A.O.k ordea bai onartzen du Z.i begi handi eta borobilak jarri izana, ez –bere hitzetan– “karikatura sexografiko” bat ekoizteko (3. eranskina, or.18), baizik eta espresio eta animazio efektua lortzeko, ezein Z.ek begiak mugitzen dituenean atentzioa gidatzen duen. Bere mugimenduak nahiko geldoak dira (“*South Park* paralitiko” deritzo autoreak) eta zerura hainbatetan begiratzeko ohitura badauka ere, bertan “ezer” ez dagoela dio marrazkilariak:

Askotan gora begiratzen jartzen da atentzioa eramateko beste nonbaitera. Alegia, igual, zerbait gogoratzen du, irakurri duena. Edo esaera zahar bat. Eta orduan, begiak, edo itxi, edo gora begiraka jartzen ditu. Goian ez dago ezer ez [...]. Keinu bat besterik ez da.

3. eranskina, or.30

Ondorioztatzen den bezala, influentziak-influentzia, A.O. esperimenduetan dabil, eta teknika propioak garatzen dituen bere hitzetan “terreno” berri horretara egokitzen joateko. Lehen prozesu hauetan, A.O.k ez du bere lana korrante estilistiko zehatz batean ere txertatzen: intuizioz jokatzen du, nahiz eta bere kanpoko influentziak onartu, batez ere *Pop* estiloarena, 3.2.1 epigrafean antzeman zen bezala:

Pop Art, amerikarra, **forma horiek, oso elaboratuak, linealak**; begetazioak tratamendu berezi bat dauka, garai hartako diseinatzaileen zerbait hartu... Jende askoren lanetan ikusten da '*Poperoa*' dela. Ez bakarrik musikan: mundu hori derrepentean sartzen zaigu. Kontraste *potente* hori, arte dramatikoena, bai eta jantzieta ere, nola jendea jantzen zen! *Pop*arena, musikatik hasi eta hor, naturaren forma begetal horiek, eta konposaketan, eta lineen tratamenduan, horixe dagoela.

3. eranskina, or.28

Azkeneko aipu honek zuzenean egiten dio erreferentzia 3.2.1 epigrafeari, non 70. hamarkadako *Pop* kultura aipatzen den. Inpreso erakutsi zitzaizkion Z.K.ek (3. eranskinetako 18 eta 43 orrialdetakoek) begetazioa eta arbolak erakusten zituzten, forma bihurtuarekin eta oso kargatutako begetazio-masarekin. Kargatzeko tendentzia horri *Pop* estiloarekin lotzen du A.O.k.



© Olariaga (5. eranskina, or.15).



© Olariaga (5. eranskina, or.39).

3. eranskinen 21. orrialdean adierazi bezala, onartuko ditu halaber erreferente modura **Roberto Fontanarrosa** eta **Joaquín Salvador Lavado Quino** marrazkilari argentinarrak, garaiko *underground* U.aren erakusle.




Irudia 32: Roberto Fontanarrosaren komiki-konpilazio baten azala.

Iturria: Fontanarrosa (<https://goo.gl/HZOpVs> [2017/03/14]).

Imajinarioetara joz, sexu aferak nola tratatzen dituen azaltzen du A.O.k. Arestian aipatu bezala, **auto-zentsura** puntu bat erakusten du esplizituki organo sexualak marrazterako orduan. 70. hamarkadan *El Jueves* aldizkari satiriko espainiarrean agertzen zen/den *Profesor Cojonciano* delakoaren irudi inpresoa ikusi eta ezagutu ondoren, egoera sexualak modu adierazkorrean erakusten dituzten eszenak “saihestu” dituela onartzen du A.O.k, joko metaforikoekin jolastea gehiago gustuko omen duelarik. *El Papis* edo *El Jueves* bezalako aldizkarien U.G.ari “U. mediterraneo” deitzen dio (3. eranskina, or.19), eta “desmadratu” adjektiboa erabili hau bera definitzeko (3.e., or.19).

Badirudi distantzia proposatzen duela, gutxienez, bere U.G.arekin, askoz diskretuagoa, nahi bada. Honek zeharo kontrajartzen du garaian bertan kritikak jarritako “obseso” kalifikatzailearekin, A.O.k berak gaitzesten duena, bai eta Z.en eboluzio propioarekin ere, ezain 78. urtean pertsonaia bera biluzik ikusi ahal izango den, lagun femenino batekin –izenik ez dio jartzen–, jardun sexualean. Egia bada pertsonaien biluzi osoa ikusi ezin bada ere, Cojoncianorenean bezala, pertsonaiak biluzteko tendentzia duela, gerora konstante bihurtuko dena.



Irudia 33: Zakilixut, guztiz biluzik.

Iturria: ©Olariaga (EGIN, 1978/10/27).

Z.i ezarri ei zaion obsesio sexualaren ildotik, aintzat hartzekoa da zein den A.O.k irudi femeninoari ematen dion interpretazioa, bai eta 'erotiko' eta 'sexual' hitzek zer esangura duten Z.en mintzairan⁷¹. A.O.k “gai madarikatua” deitzen dion sexu gaiak artikulatzeko erabiltzen dituen berbak dira *sexus* eta *érōs* errodunak, bere hitzetan “balizak” pertsonaiaren nortasuna (“terrenoa”) definitzeko:

Eman dezagun: garai hartan pentsaezina zen 'txorta' hitza harreman sexualen arloarekin lotzea. Edo hitzak asmatzea ere, eta nik **hiztegi erotiko bat egin dut barne-funtzionamendurako** [...]. Eta orduan, erotismotik ere, hizkuntza erotikoa, badaude hitz-jokoak egiteko, eta adierazpenerako tradizioak jokoak ematen du: 'Pasarte' bat, 'pasadizoa' esaten baldin bada, zergatik ezin dakiok esan 'txortadizoa' episodio sexual bati? [...]. **Terrenoa pintatzeko** da. Hortik dijoa dana. Absurdoa litzateke nik klaseak erotismoari buruz ematea. Baina joko-zelaia definitzeko zerbait da. Sexuari buruz? Beno, bada *ya está*: errekurtso bat da, behin eta berriz hasieran eta amaieran agertzen dena asko eta asko, esateko: '*Aizu!* –abisu bat izango balitz bezala– *hau, sexuarekin*'.

3. eranskina, or.24

71 4.1 epigrafean zehaztu moduan, 18 aldiz aipatze ditu Zakilixutek espresuki *sexus* edo *érōs* errodun berbak eta hitz-jolasak ikerlan honetako zinta komikoen multzoan (*erotismo* [3]: *erotiko* [3]; *Sexu* [5]: *sexual* [3], *sexubide* [2] eta *Sexupare* [2]).

Hitzok eta hitz-jokook pertsonaia konfiguratzen modua dira: sexuari buruz ari da etengabe, eta marrazkilariak hau bera garatzen joan ahala, bere hiztegi propioa sortzen doa. Interesgarria da halaber Z hasieran mugitzen den ingurune telurikoari erreparatzea, non elementu natural ororekin jokoak egiten dituen pertsonaiak, sarri askotan emakumearen gorputzaren berezko diren organoen erreferentziakin metaforak sortuz, non jokoan sartzen diren ez bakarrik materia idatzia, baizik eta espresio grafiko-ikonikoa:

Gogoratzen Z.ek lehendabiziko tiratan ikusten dituela bi harri. Orduan, konturatzen zara: 'erotismoa... Ah, bi harri! Zer dira?'. Beno, zalantzak, irakurleak izango ditu, *a ver* bi harri horiek zer diren. Bada, bi forma sexual. Naturarekin lotu, eta *ya está*. 'Ah, *vale-vale-vale*... Orduan, natura, erotismoz beterik dago'. Konklusioa.

3. eranskina, or.24-25



© Olariaga (5. eranskina, or.1)

Inguru telurikoarekin lotzen diren figura sexual horiek emetasunari egiten diote erreferentzia –edo nahi bada, emakumearen gorputz generikoaren berezko diren atalei–; adibidez, harriak andrearen bularrak dira (5. eranskina, or.1), hodeiak ipurdia (5.e., or.2), haitzuloa bagina (5.e., or.23)... –. Denbora aurrera joan ahala, eta ikerlan honetan aztertzen ari den Z.K multzoa kronologikoki aztertzen bada, A.O.k aipatzen duen “planteamendu *emergentea*” azaleratzen da. Bere hitzetan,

Nire ustez, **planteamendua *emergente* izango litzake**. Esplizituki, grafikoa ari naiz izaten. Pixkanaka beste forma naturaletan, naturan aurkitzen ditugunak. Pixkanaka **emakumea lurretik** aterako balitz bezala. Eta gero, ohe-kide bihurtzen zaio [Z.i]. Eta azaltzen da biñetatan, esplizitatua.

3. eranskina, or.25

Aintzat hartzekoa da fenomeno hau, ezein bere garaiko sintoma gisa hartu daitekeen: **emakumea, lurpetik irten eta gizonarekin kide bihurtzearen kontzeptua, elkarren parekidetasunean**, ez da baizik eta 70. hamarkadako beste errebindikazio bat, feminismoaren bidean. EGINEN ez dira gutxi kolektibo feministei eskaintzen zaizkien espazioak. Ikerketa honetarako hartu diren Z.K.en multzoa osatzen duten aleetan, besteak, beste, 77ko abenduaren 8tik 11ra garaiko Leioako Unibertsitatean antolatutako lehen jardunaldi feministei EGINEK eskaintzen dien espazioa da aipagarri, egunero jardunaldietako artikulu bana plazaratuz. Abenduaren 10ean bi orrialdeetako

erreportajea eskaintzen dizkio Euskadiko mugimendu feministen historiari, *Los movimientos feministas salen de las catacumbas* izenburupean (EGIN, 1977/12/10, or. 16-17). Handik hiru egunetara orrialde bateko erreportajea egiten zaie jardunaldiei, *I Jornadas de la Mujer en Euskadi* izenpean (or.5). Bai eta 14an iritzi artikulua bitxia plazaratu ere, iritzi sekzioan (or.15), *Quien bien te quiere te hará llorar*, ikerketa honetako 4. eranskinean⁷² jaso, non aipaturiko emakume parte hartzaile batek batek (*Ana* izenduna) EGINI eskertzen dion jardunaldiari emandako kobertura. Zentzu honetan, A.O sentikor azaltzen da emakumeari protagonismo modu bat bere zintatan emateko, bai eta Marizikin proposatu egunkariaren iritzi ataleko pertsonaia nagusi bezala.

Ingurune feministatik etorritako kritika baten berri eman zitzaion (4. eranskina), Z.en jarrera *obsesiboak* probokatua. A.O.k onartzen du kritikarik jaso zuela pertsonaiak. Bere jarrera ordea irakurlearen ulertzeko gaitasuna seinalatzen du:

Bai, kartaren bat heldu zitzaidan. Gero igual zer edo zer publikatuko zuten, ez dakit. Pues igual: “Hau ezin da *holan* egin”... Egoera horretan, bada, ez duzu ezer ulertzen.

3. eranskina, or.26

Kritiken aurrean ordea A.O mesfidati agertzen da. Onartzen du sarri askotan bere irakurleek ez dutela bere txistegintza ulertzen. Zergatia, “krisi kulturala”:

Nik hiztegi erotiko bat egin dut barne-funtzionamendurako. '*Jo, es que ez da ulertzen! – Bada, pentsatu pixka bat zer irakurtzen ari zaren. – Ah, bai, konturatzen naiz hori esan nahi duzula*'. **Krisi kulturala!** Eta askotan nik egiten ditut hitz-jokoak abizenekin, toponimoekin, eta abar, baina **jendea ez da konturatzen zer irakurtzen duen** [...]. Nik errespetatzen dut, baina esaten duzu: '**Jendeak zer esaten duen ere ez da kontziente**'.
3. eranskina, or.24

Oso esanguratsua egiten da bere baieztapena. Egin dakioken kritika, irakurlearen ezagupen eskasiari egozten omen dio gehiago bere hitz-jokoen zailtasunari baino, bere **hiztegi propioetatik** eratorritakoa. Zentzu horretan, esan daiteke hasieretan halako segurtasun ezak estilo berezko batekin gainditu dituela, baina bere irakurleari nekez heltzen diola batzuetan. Argi dagoena da A.O.k ez zuela, bere garaiko beste marrazkilari batzuek bezala, eraso bortitzik jaso – ez behintzat aipatu duenik –.

Emakume *emergentearen* lurretara itzuliz, galdetu zitzaion natura horretako elementuek izan ditzaketen konnotazio sexualez beste, esangura sinbolikorik ba ote duten berarentzat. Elementuak beste behin garaiko marrazkilari *amateuraren* esperimenduaren menpekoak dira, eta ez daukate, marrazkilariaren aldetik behintzat, intentzio sinboliko konkreturik.

72 5. eranskin osoan 1977ko EGINEN topatu ahal izan diren iritzi-testu feministak bildu egin dira.

Ez dira kontzienteki aukeratuak. Iguar linea bat egin, horizonteara, situazioa pixka bat kokatzeko, lur baten gainean pertsonaia egonkortzeko. *Paupérrimo* geratzen da! Baina elementuak behar baldin badira horizonte-horizonta horretan, zuhaitz bat, txori bat egin... Iguar azalduko da! Eta baldin eta txoria ekarri behar badut, ekarriko dut...

3. eranskina, or.27

Elementu horiek, alta, naturan daudenak, A.O.ren hitzetan kasualak badira ere, Z euren topatzeak gogoeta propioa bat ahalbidetzen dio, baina ez edonolako: esana da Z.ek sexuarekin harremanetan jartzen dituela elementuok, eta horiek emakumea inferitu. Ikusi ordea Z.en eskema zer-nolako den ariketa metaforiko hori gerta dadin:

Badirudi ezjakin baten *erreflexioa* dela naturaren aurrean, **hiri bateko eskemak aplikatuz**. Azken finean, hori da ezjakintasunak egiten duena: erakustea ditugun eskemak zein desegokiak diren. Eta horrek U.a du distorsio bat sortzen duelako.

3. eranskina, or.14-15

Biziki interesgarria da aipuan zehaztutakoa: ordura arte, euskaldunari buruz teatroan eta nobela umoretsuan ikusitako estereotipoa oso 'herrikoia' izandakoa da: mendietatik hirira jaisten den gizon lelo eta ahomotela, hiriaren modernitate eta eredu 'liberalera' egokitu ezin dena, ikerketa honen 2.4.3 epigrafean landu bezala. Oraingoan, eta euskaltzaletasunak jota, euskal nortasuna berpizten hasi eta topikoak alderantzten dira: kalekumea mendietara doa. Oso garrantzitsua da hau: Aro Modernoko literatoek 'josemaritarren' kontura egiten bazuten barre, orain baserritar horiek euren egingo dute barre kalekumea ilustratuetaz. Fenomeno honen isla bikaina da 1994an Jon Sagastizabalen *KUTXIDAZU BIDEA*, IXABEL eleberria, noiz eta 1978an oinarritua, kalekumeak euskara eta euskal kultura barneratu nahian etengabe hanka sartzen dabilen.

Honek guztiak harremana dauka 70. hamarkadako sektore euskaltzaleak naturarekiko sortu zuen interesarekin, non naturara bueltatzeko jarreran, eusko luraren tradizioak eta nortasuna gordeta zegoen tokira bueltatzeko jokaera ere bazegoen:

Este territorio ancestral guarda coherencia con el ideario de un sector de la población que veía en la recuperación de sus más antiguas tradiciones, el fundamento identitario y diferencial de los vasco. Pero este ideario, lejos de alumbrar las sombras del pliegue histórico del reciente pasado franquista, se retrotrae a un tiempo remoto, una tierra-madre primordial, libre de todo vestigio y contaminación civilizatoria.

Lorente, 2015, or.543

Z **gazte urbanoa** da, natura ingurura doana bere garaiko hainbatek bezala, eta bertan topatzen dituen elementuei interpretazio propioa ematen die, euskaraz, hirian apenas entzuten zen hizkuntza, txistek bideratzeko modua dena. Halaber, hainbatetan deitzen dio pertsonaiak "Lur" horri "ama" (Lorenteren "*tierra-madre*"), aipatu den tendentzia soziologiko gorpuztuz.



© Olariaga (5. eranskina, or.22).

Bukatzeko, A.O.ren erreferente artistikoei buruz informazioa lortu zen. Atseginak izan ditu, bere esanetan, komikia, eskola franko-belgaren eraginekin (3. eranskina, or.21), *Pop Art* delakoa (musikan zein irudigintzan) eta zinema. Bereziki interesgarria da euskal ahozko tradizioan jartzen duen atentzioa, ezein bere hipotesiaren arabera,

Ikusten nuen tradizioak, U.an, gure euskaran ezagutzen ez ditugun U.-formak daudela, txisteak, ateraldiak, **solasaldietan dagoen U eskatologikoa**, tradizioan sartuta, eta ez dugu ezagutzen hemendik dagoen materiala! Hartzen duzu, adibidez, *Peru ta Marixe*⁷³. Oso ipuin zaharra dela dirudi, baina hor azpian dagoen jokoak igual posible egiten du gaur egungo bikote baten historia kontatzea.

3. eranskina, or.14

Euskarari, lokalismoen bidetik, somatzen dizkio A.O.k txiste eta ateraldi umoristiko propioak. Honek sortzen du halako **tentsio puntua euskara batuarekin**, berak segitu nahi zuena esandakoak E.H osoan uler zitezen. Alta, miresten ditu A.O.k tokiko euskal hizkerak, eta batez ere bertsolaritza du maite, koblakariak amaieran erresoluzio ironiko batekin euren obra amaitzeko duten ohituragatik.

U.an, oso erabilia den teknika duk hori: eraikitzen joan, pista batzuk eman, eta gero, ezustekoa! Zuk espero ez duzuna, bat-batekoa. Orduan, sekuentzia logikoa sortzen duen zerbait, ezustekoan amaitzeko. **Bertsolaritza eta komikigintza umoristikoa modu paraleloan tratatu izan ditut**, alegia: alde batetik puntua edo gaia ematen dizute; aukeratzen duzu puntu bat. Gero, horri erantzuten diozu. *Vale!* Baina beti pentsatuz amaieran eman behar diozula horri. Batzuetan izaten da hitz-joko bat, beste batzuetan izango da erantzun ilogiko bat.

3. eranskina, or.31

Ordea, interesgarria da A.O.k aipatzen duen bere txistegintzaren egitura: non hasierako enigma batetik hasita, amaieran ezustekoa planteatzen duen. Oso egitura

⁷³ *Marixe'k Peru bialdu kanpora ta agure pilua etxera inguratuta dantzan ziarduan. Ango soñua, ango kaskañeta-otsa, ango ajui ta artakiak zer ziran...! Peru ar baiña antxiñako azeri zaña zan eta Marixe'k kanpuan zula uste ebanaren, antxe albuhan zaragian sartuta eguan.*

Marixe'k dantzan ziarduan eta auxe kantetan eban:

*Peru gurie Londres'en,
gu hemen dantzatzen,
baleki zelan gabiltzen...*

Urten zan Peru zaragitik eta egundo iñok astindu ba-euzan, astindu euzan. Laster uxatu euzan etxe-aldetik.

(Arizmendarrieta, 1982)

oinarrizkoa da bere iritziz (“ Da *planteamiento, nudo, desenlace*, planteamendu klasiko-klasiko-klasikoa” –or.31–), baina balio dio bere egitura narratiboak sortu eta euretan segurtasun bat bilatzeko.

5.2. Diskurtsoaren analisisia

Analisisa aplikatzeko, egokia izango da proposatutako eskema analitikoa eraikitzen joatea. Gogoratu behar da analisisa edukiaren planotik abiatzen dela adierazpen planorantz, edukien materietatik adierazpenekoetara –nahi bada, orokortasunetik zehaztasunera–. Gomendagarria da erabiliko diren rolen edo nozio diskurtsiboen terminoen glosariora jotzea, 4.2.1 epigrafera hain zuzen. Nozioon izenen alboan asteriskoa jarriko da (*), glosarioan dagoela gogorarazteko. Modu berean, erabiltzen den eskemaren inguruko xehetasunak 4.2. epigrafean zehaztuta daude, bertara itzultzeko behar den beste.

Diskurtsoaren analisisia	Edukiaren plano	Edukiaren materia	<ul style="list-style-type: none"> • Umorea. • Fenomeno soziologiko eta politikoak. • Testuinguru periodistikoa.
		Edukiaren forma	<ul style="list-style-type: none"> • Zakilixuten ibilbidea denboran zehar. • Zakilixuten unibertsoak. • Dramaturgiak.
		Edukiaren sustantzia	
	Adierazpenaren plano	Adierazpenaren sustantzia	
		Adierazpenaren forma	<ul style="list-style-type: none"> • Zinta komikoa. • Testua (euskaraz). • Egunerokotasuna.
		Adierazpenaren materia	<ul style="list-style-type: none"> • Materia grafiko/testualak. • Komikiaren ikur grafikoak*.

Taula 2: Diskurtsoaren analisisa abordatzeko eskema.

Iturria: Greimas eta Courtés, 1982

Eskemaren aplikazioa hasteko, beharrezkoa da ikerketa-objektuaren aurrean jarrita, berorren interpretaziorako eskatzen den testuinguruan kokatzea. Hartu bedi unibertso lehen zinta, alegia, irailaren 29koa.



© Olariaga (5. eranskina, or.1)

Zintok kokatzen diren *Solasjaipausa* orrialde guztiek ematen duten euren garaia berri: '1977', goiko aldean idatzia. Berton kokatzen dira Z.en zintak, EGIN egunkarian. EGIN esku artean izateko, irakurleak⁷⁴ badu ezagupen minimo bat, suposatzen zaiona: egunkari berria dela daki –1977ko irailean berria baitzen– eta berari buruz beste ezer irakurri ez badu ere, egunkariaren izena, EGIN, euskaraz, nozio minimo batzuk ematen dizkio: Aitorren hizkuntzan idatzitako egunkaria ez bada, gutxienez periodiko euskaltzale baten aurrean dagoela, kontuan hartuta garaiko Euskadiko periodikoen izenak erdaldunak direla (DEIA egunkari nazionalista izan ezik), eta 76tik jaio direla *Anaitasuna* bezalako aldizkari euskaldun/euskaltzaleak. Euskaltzaletasuna, orduan bizitzen ari den aldaketa sozialen bidetik, ziurrenik ere kokatzen du egunkaria ideia politiko oso konkretuan, baldin eta lehen irakurleak lehen aleko agurra leitu badu (1. eranskina, or.2). Esan bezala, EGINEN aurretik DEIA jaio da, EGIN baino lau hilabete gehiago, lehen hau E.A.J alderdiaren lerro editorialetik gertu dago. Suposa daiteke beraz EGIN, aurrekoaren diferentziatik, eta betiere arlo euskaltzalean kokatuta, lehenengoarekiko desberdintasuna irakurlerian oinarritu zitekeela, zer eta ezker abertzalean xede-talde poliedrikoan.

Solasjaipausa, irakurleak euskaraz badaki⁷⁵, automatikoki dakarkio burura dibertsioaren ideia. Beraz, bere denbora betetzeko entretenimendu-joko bilduma baten aurrean dagoela antzeman dezake, eta euskaraz. Pertinentea zaio hortaz hizkuntza jakitea, edo behintzat hizkuntzan alfabetatua izana, ikastolatik pasata, ezein bide normatibotik haragoko modurik ez baitzegoen orduan euskaraz irakurri eta idazten ikasteko, bai ordea hitz egiteko familia giroan, batez ere baserrietako inguruan, hizkuntza hirietan apenas presente zegoelarik. Honela, deskribatua izaten ari den irakurle tipo honek **euskaraz irakurtzen badaki**, eta lehen aldia bada orrialdea ikusten duela –egunkaria berria baita, eta lehen zintatik hasi beharra dago objektua aztertzeke– ez du inoiz halakorik ikusi garaiko egunkari batean –gogoratu EGIN izan zela 1977ko Euskadin *Solasjaipausa* bezalako orrialdea planteatu zuena, umore grafikoaren aldeko (U.G.) apustuan–.

74 Hemendik aurrera 'irakurle' esaten denean ikerlaria ez da haragizko irakurleari buruz ari, baizik eta testuak – aztertzen den objektuak – bere ulermenerako eskatzen duen interpretazio-eskumenen sortari buruz, alegia, testutik bertatik inferitzen den interpretazio-instantzia edo *irakurketa horizontea*, kontzeptu semiotiko gisa.


75 Irakurketa horizontea* inferituz, Zakilixuten zintek irakurlea euskaraz irakurtzen jakitea eskatzen dute, bai eta hizkuntza horretan alfabetatua izatea ere.

Orrialdea ezagututa ez, *Solasjaipausa* leitu du irakurleak, eta lehen zinta ikusita, Zabaletarena (5. eranskina, or.1) non barraskiloen eta elefanteen mundu (itxuraz) inozoa ikusi duen, erraz uste dezake benetan dibertimendu 'zuri' eta kritika gabeko baten aurrean dagoela. Juana Bixentaren (J.B.) editorial itxurako testuan jada alda dakiok e ikuspuntua: pertsonaiak kritikaz eta “*underground* eziaz” mintzo da, politika giroaren inguruko kritika bideratuko duen testua. Eguillorren zintara joaz, *Beltza Superbeltza*, Bilboko pertsonaia estereotipatuak ikusiko ditu irakurleak lehen biñetan, komikoak, eta orduan argi antzeman dezake irakurlea intentziorik badagoela egunerokotasuna –edo nahi bada, berau inguratzen duen gizartea– karikaturizatzeko. Pertinentea da, Eguillorren pertsonaietara analisisian zehar berriz itzuli beharko delako A.O.rekin daukan elkarrizketa intratextualarengatik, estereotipoa komikian zer den definitzea:

Se entiende por estereotipo una imagen o idea simplificada, estable y ritualizada, de amplia acepotación social [...]. Al igual que los restantes medios y géneros de la cultura de masas, los cómics han generado unas densas familias de estereotipos [...], a partir de rasgos peculiares que se convierten en sus señas de identidad.

Gasca eta Gubern, 1991, or.27

Gasca eta Gubernen definizioaren arabera, komikian hainbat dira existitzen diren estereotipoak –informazio zabalago batentzat, zitatutako obraren estereotipoei buruzko kapituluaren irakurketa gomendatzen da (Gasca eta Gubern, 1991, or.27–71)–, baina beti beharrezkoa da gizarte batek ulertu eta onartzea. Eguillorrek sortzen dituen pertsonaiak garaiko euskal gizartean arras ondo identifikatzeko modukoak dira, ikusten den bezala, karga politiko handikoak, euren deskribapenei so (“Marx”, “*del P.N.V de toda la vida*”, “*izquierda abertzale*”, “*ácrata*”...), denak anarkiaren kolore den *beltza* izenpean, garaiko euskal giro politiko nahasiaren isla.



Irudia 34: Eguillorren 'Beltza Superbeltza' seriearen pertsonaien aurkezpena.

5. eranskina, or.1

Eguillorren zintatik pasata –planteamendua goitik beherakoa da, ezein irakurle-tipiko honek ez baituen inoiz ikusi *Solasjaipausa*, eta ezagupen ariketan goitik behera leitzen du, mendebaldeko bide konbentzionaletik–, Z.en zintara ailegaten da, inoiz aurretik ez ikusia, A.O.k EGINERAKO sortu baitzuen propio.

“Eta zer egin behar duzu zuk, aparte diseinatu orrialde osoa, zuria izango den txoko horretan?”, hori galdetu zidaten gero [...]. Orduan, bi aukera nituen: txiste soltea egin, editorial moduan, eguneroko dinamikan eta albisteekin lotutakoak, edo *pelmada* eman eta pertsonaia sortu. Eta azken hori erakargarriago iruditu zitzaidan, zeren eta *Anaitasunan* jada Kaleko pertsonaia sortu nuen.

3. eranskina, or.12

Orduan jasotzen du lehen *inputa*: 'Zakilixut' izena, seriearen zinta komiko (Z.K.) ororen lehen biñetako goiko aldean, biñetaren kontornoan txertatuta agertzen dena. Lehen Z.K.an (3. eranskina, or.1) Z pertsonaia agertzen da biñetaren erdian, serieari izena ematen dion berba bere buru gainean duela. Suposa daiteke inferentziaz izena pertsonaiarena dela. Eta irakurlea euskalduna denez, berehala sumatzen du berorren konposaketa: 'zakila' (izena) era 'zutik' (adberbioa), x hizkia izenetan etxekotasuna adierazteko erabiltzen delarik (adibidez, Lontxo *Lorenzo* beharrean, edo Inaxi *Ignacia* beharrean). Gertutasun pauso bat gauzatzen du honela pertsonaiak irakurlearekiko, eta halaber, izenaren kutsu sexualaren ildotik, 'zakilixut' hitza deigarria egin dakiok: zakila zer den, organo genital maskulinoa, kulturalki tapatua eta publikoan erakutsia, dezentzia gabekoa, eta ondorioz ez morala, koitua praktikatzeko beharrezko tresna. Z.en zinta 1977an kokatzen da, eta 70. hamarkada horretan Espainiako gizarteak halako irekitzea onartzen die sexu gaiei, ordura arte Elizak markatu baitzuen moralitate sexualaren norabidea estatuan. Suposa liteke izen falikoa duen pertsonaia hori moralitate

sexualaren ezarritako ordenaren gaitetik pasa daitekeela. Halaber, euskaraz, 'aluk' bezala 'zakilek' babo esangura dauka, inozo edo tontoa, pertsonaiaren izaerari buruzko informazio gehiago eman dezakeena. Honi gehitu behar zaio 'zakil' erroari, zutik ('xutik') adberbioa eranstean zaiola: pertsonaiak bere buruari 'zakil zutik' edo 'zakil tente' deritza, **eszitazio sexualean bizi den pertsonaia maskulinoa** beraz. Inferitu daitezkeen aurre-postulatuak nabarmenak dira dagoeneko irakurlearentzat: Z.K. pornografiko baten aurrean egon daiteke, agian, garaiko beste aldizkari eta medio inpresioetan ikusi izan dituen karikatura sexografikoen⁷⁶ tankerako. Aurretik ere ezagut zezakeen A.O.ren lana, *Argian* edo *Anaitasuna* aldizkarian, non *Kaleko* pertsonaiak ere baduen antzekotasunik Z.ekin, berorren neskazaleatasun eta hitz-joko sexualen aldetik.



Irudia 35: Kalekoren lehen zinta.

Iturria: © Olariaga (*Anaitasuna*, 1976/01/15, or.26).

Edozein kasutan, irakurleak autorea bakarrik estiloaren arabera ezagut dezake: A.O.k onartzen duen estilo franko-belga, marra fin eta zehaztuarekin (3. eranskina, or.21). Baina EGINEN lehen *Solasjaipausa* orrialdean, azken biñetara arte ez da marrazkilariaren sinadura agertzen, ez beste inon aitortzen ere.

Z.K.ra berriro itzuliz, lehen biñetatik irakurleak Z ikusten du alkandora marradun batekin, euskarriaren inpresio-afereगतिक agian, zuri eta beltza dena. Marra beltzak, alkandora zuriaren gainean, presoaren estetikara daramate, eta orduan garaiko Euskadiko egoera sozio-politikoari egindako keinua nabaritu diezaioke: Amnistia Legea arte, hainbat dira Espainian espetxeratuta daudenak, frankismoaren kontrako ekimenengatik. Irakurleak hipotesi hauek guztiak konstatatzen ditu seriea segitu ahala, baina momentuz edukiaren materien geruzan legoke analista. Ikusten duena, beraz, preso estetikadun pertsonaia da –amnistiaaren aldeko–, izen pornografikoduna, eta ideologikoki ezkerrean kokatzen den egunkari euskaltzalean. Horrek loturak sortu dizkio, esan da, garaiko Euskadi politikoarekin –protesten ondorioz preso politikoak dituen–, euskal hizkuntzaren aldarrikapenarekin –izen euskalduna duen periodikoa, izen euskalduneko pertsonaia umoristikoa batekin, euskaraz mintzo(ko) dena– eta bere

⁷⁶ Olariagak asmatutako terminoa (3. eranskina, or.18).

umorea (U.) erreferentzia sexualetan oinarrituko duena, garaiko aldizkari komiko-satirikoei jarraiki, une batean non espainiar prentsa zentsuratik askatzen ari den eta sexu kontuan aipatu daitezkeen, onarpen ingurune irekiago batean.

Z lau biñeta guztiz karratuetan dago. Txikia da enkoadrea*, guztiz zentratuta dago konposizioan, eta bere gainetik espazio zuri eta zabal handia dago. Eskema hau, non narratiboki lau biñeta karratu besterik ez dagoen, ingurune teluriko definitu gabeko bat osatzen du, eta xehetasunez nahiko biluzik dagoen estetika, unibertso osoari hedatu dakiokena. Aurreratu behar da lau biñeten egitura bakarrik 5 alditan –orotara 72 Z.K ikertzen dira– gaitutako duela A.O.k, azaroaren 2an eta 9an –5. eranskineko 28 eta 34. orrialdeak– eta abenduko 15, 16 eta 24an –5. eranskineko 64, 65 eta 72. orrialdeak– hain zuzen, jada pertsonaiak bi hilabeteko ibilbidea duela eta marrazkilaria trebatu egin dela, bere hasierako moldeak hausten hasiz. Ordea, eta laster ikusiko den bezala, estrategia narratibo ia bera mantentzen dute zintok.

Beharrezkoa da ingurune telurikoari erreferentzia egitea, ezein 72 zintetatik, erdia baino gehiagotan Z ingurune natural batean dagoen. Z halako pasaia xume batetik dabil, erreferentzia zehatzik gabekoa, eta normalean marra horizontal batek definitutako zoru baten gainetik. Noizbehinka, naturaren berezkoak diren elementuekin egiten du topo, eta horiei esker bere komentarioa sortzen.

Igual linea bat egin, horizontearena, situazioa pixka bat kokatzeko, lur baten gainean pertsonaia egonkortzeko. *Paupérrimo* geratzen da! Baina elementuak behar baldin badira horizonte-horizonta horretan, zuhaitz bat, txori bat egin... Igual azalduko da!

3. eranskina, or.27


Ingurune hau, abenduak 13tik aurrera desagertzen hasiko da (5. eranskina, or.62), non Z marra horizontal batek marraztutako zoruan ibiltzen den, baina jada natura ez den, ezein ez hodeirik, eta zuhaitzik, ez bestelako elementu naturalik ez den antzematen.



© Olariaga (5. eranskina, or.62)

Abenduak 13tik 16ra arte *inoren lur* horietan ibiliko da pertsonaia, eta hain justu 16an (5. eranskina, or.67) **hiri batean agertuko da**, amaierara arte, nahiz eta abenduaren 24ko zintan estampa moduko Gabonetako Belen batean agertu. Honela, Z.en unibertsoa telurikoa da gehienbat, eta bere ibilbidea, irailtik abendura, **definitu gabeko natura batetik hirira arteko bidea da**.

Ibilbide honetan guztiak ez dago jakiterik zehazki nongoa den, paraje natural horietan bizi ote den, edo zer adin duen. Zentzu horretan, bere gorputz-proporzioei so, umea dela dirudi, nahiz eta bere sexu-obsesioek nerabezaro edo gaztaroan kokatu ahal. Halaber, denbora aurrera joan ahala Z porroa erretzen ikusi ahalko da, garaiko gazteen arteko droga-kontsumoan ohiko egiten zen produktua, Espainiako *Movida* delakoaren mugimendu kontrakulturalaren sinbolo. Abenduaren 2tik aurrera oso ohikoa izango da Z kalamua erretzen ikustea. Beraz, Z gaztea da, nerabea gehien jota, eta ez umea.



© Olariaga (5. eranskina, or.53)

Gazteak dira hain zuzen EGINEN xede-talde, batez ere gizarte mugimenduen eraldaketa bultzatzen ari direnak (Coca eta Martínez, 1993, or.69). Z beraz identifikazio bat proposatuko luke pertsona gazte eta euskaldun alfabetatuarekin (euskaraz irakurtzen dakiena), gehienbat ingurune natural batean dabilena. Ingurune naturala begiko izatea garaiko gazte euskaltzaleen interesa ere du erreferente, naturan ikusten zutenak euren eusko aberriaren sorterria, **Ama Lurraren** tokia.

Este territorio ancestral guarda coherencia con el ideario de un sector de la población que veía en la recuperación de sus más antiguas tradiciones, el fundamento identitario y diferencial de los vasco. Pero este ideario, lejos de alumbrar las sombras del pliegue histórico del reciente pasado franquista, se retrotrae a un tiempo remoto, una tierra-madre primordial, libre de todo vestigio y contaminación civilizatoria.

Lorente, 2015, or.543

Lorenteren baieztapena, “*tierra madre*” kontzeptu gakoa errazteaz beste, bat dator EGINEK mendizaletasunari ematen zion garrantziarekin, 77ko urriaren 20an *Goimenditan* orria atera zuela, kirol sekzioan, mendiko aktibitate eta berriei espazio oso bat uzteko. Zergatia, *Gure lurra maite dugulako*⁷⁷ izenburu duen testu mamitsu batean azaltzen da, alearen 28. orrialdean:

Cuando EGIN pensó que el montañismo vasco merecía una página semanal fija [...] teníamos especialmente claro que, junto a la actividad cotidiana del montañismo de las cuatro provincias⁷⁸, debíamos reservar un espacio para plantear regularmente


77 Beste hainbat artikuluk bezala, oso komuna da EGINEN izenburua euskaraz egonda, *corpusa* gazteleraz egotea, edo/eta sarrera euskaraz eta beste guztia gazteleraz. EGINEK ez zuen hizkuntza-politika oso zehazturik izan, batez ere jaio zenean, euskaraz irakurtzeko kapaz zirenen kopuruak baldintzatuta.

78 EGINEN difusio-esparrua “lau probintzietara” mugatzen da nahiz eta Baionan egoitza ere eduki. EGIN, batez ere Euskadi eta

temas relacionados con la **conservación de la naturaleza**⁷⁹: fundamentalmente porque amamos nuestra tierra, Euskalherria⁸⁰, y porque estamos convencidos de que no lograremos un desarrollo humano de calidad si olvidamos **la tierra y la naturaleza que nos hace vascos**.

Ikusten den moduan, mendia eta lurra ez dira bakarrik kirol tradizional bat praktikatzeko tokia, baizik eta kulturaren sustraietara itzultzeko modua. Irakurle tipikoak lehen Z.K.tik identifikatu dezake ingurune natural hori, bere euskaldun kondizioarengatik ezagutzen duena.

EGINEK, naturarekiko begikotasuna ekologismoaren bidetik ere eramaten du, garaian gertatzen ari diren manifestaldi sozialen bidetik, Lemoizen 1972tik eraikitzen ari zen zentral nuklearra medio, gerora Deba eta Ispasterrera hedatuko zen estatu-proiektua. Zentralaren kontrako herri mugimenduek hainbat pertsona mobilizatuko zituzten, zentrala 84an geldiarazi zen arte, E.T.A.ren ekintza terrorista tarte.



Irudia 36: Zabaletaren zinta, industriaren kutsadurari zuzenezko erreferentzia egiten.

5. eranskina, or.49

Honela, ekologismoa eta naturaren zaintzea bi zentzu banaezin ditu EGINEN: bata, sorterri edo aberriaren sorlekuaren zaintzea, eta bestea, sorleku horrekin berriz bat egitea, euskal nortasunaren Edena izandako eusko lurrarekin bat egiteko. Honela, aurretik zitatutako testuan erredakzioak paragrafo biribil batekin amaitzeraino:

Queremos poner nuestro grano de arena en la recuperación de una conciencia individual y colectiva de hijos de Euskalherria.

Honela, Z.en ingurunea ezaguna zaio bai euskotar urbanoari, bai herrikoari. Baina interesgarria zer paraje horietan Z.ek zer egiten duen: bakartia da pertsonaia, eta tarteka elementuak topatzen ditu. Bista arin batean, planteamendu narratiboak, A.O.k “*planteamiento, nudo, desenlace*” deritzon egitura aristotelikoa segitzen du: aurkezpen

Nafarroako egunkaria da.

79 Letra beltza nik jarritakoa da.

80 Gazteleraz normalean *Euskalerría* edo *Euscalerría* erabili da, gaztelerara itzulpen zuzenik ez duen berba baita 'Euskal Herria' (frantsesez, zuzenean *Pays Basque* edo *Eskual Herri* esan da). Kasu honetan, “Euskalherria” idazteko modua bitxia da.

bat, topaketa elementuarekin, eta interakzio horren ondorioz Z.ek sortzen duen komentarioa. Horrela, Z subjektu (S*) bat da, natura horren elementu bat(zu)ekin lotu beharra duena (objektu direnak, O*) bere gogoetak egiteko. Honela, ez dago oztoporik Z.ek osatzen dituen programa narratiboei (PN*) 'topaketa programak' deitzeko, non hiru egoera nagusi topa ohi daitezkeen:

Topaketa programa narratiboa

Egoera 1	Egoera 2	Egoera 3
Zakilixut bakarrik dabil ingurune batean gogoetatsu. Objektutik desligatuta dago.	Zakilixutek elementu batekin topo egiten du. Berarekin biñeta berean geratzen da.	Aurreko egoeraren ondorioz, pertsonaiak komentarioa esaten du, aurreko ibilbideari zentzua ematen diona eta kutsu umoristikoa duena.

$$(S_z \vee^{81} O) \rightarrow (S_z \wedge O)$$

Taula 3: Zakilixuten Programa Narratiboaren egoerak.

Planteamendu honen ondorioz, A.O.k diseinatzen duen lau biñetako eraikuntzak zentzua hartzen du, non lehenengo bietan pertsonaia bakarrik dagoen, hirugarrenean O* horrekin topo egiten duen eta laugarrenean, pertsonaiaren komentarioa gertatzen den. Ikus bedi planteamendua EGINGO lehen Z.K.an:



© Olariaga (5. eranskina, or.1)

Lau biñetako Z.K.a, biñetok kasik lauki erregularrak, eta Z konposizioaren erdian. Lehen biñetan, Z bakarrik dabil, inora begira, erdi-irribarretsu, ibilaldi lasaian. Bigarrenean, zerura begiratu du, begiak nabarmen irekita. Une horretan zerbaitek atentzioa deitu omen dio, halako inferentzia izan ei du burura etorri zaion zerbaitek eragindakoa.

Alegia, igual, zerbait gogoratzen du, irakurri duena. Edo esaera zahar bat. Eta orduan, begiak, edo itxi, edo gora begiraka jartzen ditu.

3. eranskina, or.30

Hirugarrenean, bi harrirekin topatu da, bere ibilaldia eten duena. Hasieran, Z. (S*) bakarrik zegoen, eta hirugarrenean harriekin (O*) topatu da. Elkarketa (\wedge) hau gertatu ez balitz, ez legoke azkeneko biñetan egindako konklusiorik aterako: “lurra emea denik, zalantzarik ez”. Honela, PN*a egoera batetik besterako aldaketan gertatu da: hasieran,

81 ENTREVERNES taldeak proposatu bezala, lotura (\wedge) eta ez lotura (\vee) adierazteko sinbolo matematikoak erabiltzen dira.

Z.ek ez dauka O*rik, eta bigarren egoeran bai. Harremana ez da posesioan oinarritzen, baizik eta O*a eta S*a elkartzean sortzen den konklusioan.

Z., S* den heinean, eta ekintza osoa garatzen duen heinean, agentea da (S_A – ENTREVERNES [taldea] 1982, or.27–. Halaber, O*a, kasu honetan harri pareta, S*ari ekintza jakin bat sortaritzen dio, zerbait egitera bultzatzen du. Alde horretatik, O*a mitentea da (O_M –ENTREVERNES [taldea] 1982, or.49–), alegia, S*arengan eragiten du zerbait egin dezan, kasu honetan, gogoeta. Eta aldi berean, gehitu behar da harriok O* kalifikatzailea direla (O_K –ENTREVERNES [taldea] 1982, or.46–), ezein Z.ek O*ok **behar dituen** bere gogoetak aurrera eramateko.

S*-O* arteko harreman hau, esan bezala eta 5 kasu konkretuetan izan ezik, PN* berdintsuak erreproduzitzen dituzte. Lotura bidezko PN*ak dira, eta zerrenda egitekotan, Z. hiritartzen den arte naturan presente dauden elementuak dira, animaliak barne. Elementuok O_M bihurtzen direnak dira, alegia, Z.i komentarioa eragiten diotenak:

Elementua	Zinta komikoa(k)	5. Eranskina (or.)	
Alanbrada ⁸²	Urriak	12	11
Amildegia	Urriak	18	16
		25	21
	Azaroak	04	30
Arrautza moduko harria	Urriak	22	19
	Abenduak	03	54
Barraskiloa	Urriak	05	06
		06	07
Eguzkia	Azaroak	19	43
Fruitu borobil pareta	Urriak	01	03
Harri pareta	Irailak	29	01
	Urriak	13	12
Hodeia(k)	Irailak	30	02
	Azaroak	17	41
		19	43
Hondartza	Azaroak	26	48
		27	49
Ilargia	Azaroak	16	40
Itsas labarra	Urriak	19	17

82 Hau ez da berez naturatik 'etorritako' elementua, baina bai Z. mugitzen den ingurune telurikoan agertzen dena, baserriko etxabarentzako instrumentua.

Itsasoa	Azaroak	24	46
		25	47
	Abenduak	01	52
		27	23
	Urriak	28	24
		29	25
		30	26
		01	27
	Kobazuloa	02	28
		03	29
04 ⁸³		30	
Azaroak		05	31
		06	32
		08	33
		09	34
		10	35
		11	36
Lapak		Urriak	04
Lanbroa	Azaroak	20	44
Lur zuloa	Azaroak	22	45
Potxingoa	Abenduak	16	65
Sastraka	Urriak	02	04
		16	15
Sator zuloa	Urriak	25	21
Txakurra(k)	Urriak	12	10
	Azaroak	15	39
Txoria	Urriak	09	09
	Azaroak	30	51
Ur jauzia	Urriak	21	18
Zuhaitza	Urriak	15	14
	Azaroak	15	39
	Azaroak	18	42

83 Kasu honetan, Zakilixutek amildegia deskubritzen du kobazulo barruan dagoela. Horregatik errepikatzen da azaroak 4ko erreferentzia.

Taula 4: Zakilixutek topatzen dituen elementu naturalen zerrenda.

Iturria: Propioa.

Z.ek hainbat natura elementu topatzen ditu, eta horiek dira behar dituen O_Kak laugarren biñetan gertatu ohi den komentarioak egiteko. Prozesua, beti izan ohi da berdintsua: elementuarekin **topatu, berrirakurketa egin, eta komentatu**. Harri xume batek ez dauka berezko graziaz baldin eta Z.ek bere interpretazioaren filtoetik pasatzen ez badu –aurreko adibidean, 'harriak = titiak'–, horregatik 3. eta 4. biñeten artean **biraketa metaforikoa** dagoela adierazi daiteke. Metafora, Romeraren erretorika hiztegiara joaz (Romera, d. g.), modu honetan definitu daiteke:

Mediante el algoritmo analógico conocido como metáfora se identifica verbalmente algo real [...] con algo imaginario o evocado [...]; se identifica, pero no se compara, pues en ese caso sería un símil, recurso diferente y mucho más simple y primitivo. Puede decirse, así, que una metáfora es una comparación incompleta: en vez de afirmar que “ella es tan bonita como una rosa”, se escribe más llanamente “ella es una rosa”, lo que ya constituye metáfora.

Z.ek ez du hitzekin esaten 'harriok bularrak dira': irakurlearen esku uzten du eraikuntza, U.an berezkoa den moduan, eta irakurleak plazera aurkituko du laster batean Z.K.ari koherentzia ematen dioten isotopiak lotuaz, alegia, lurra emea dela, bularren forma duten harriak dituelako. Biraketa, aurreko ibilbide guztia azken biñetako komentarioaren argira interpretatzean sortzen da.

Pertinentea da une batez 1.2.1 epigrafean aipaturiko Greimasen azalpena ekartzea, non txisteen ohiko egituraren berri ematen den bi isotopia desberdinduz: aurkezpen-kontakizuna eta elkarrizketa (Greimas, 1973, or.107). Ikusitako Z.K.etan, aurkezten-kontakizuna lehen biñetan dago, non Z toki jakin batean kokatzen den, ingurune telurikoan. Elkarrizketa, elementu natural batekin lotzean sortzen den prozesua da. Z ingurunean dabil, O* batekin lotzen da, eta komentario bat egiten du, elkarketa aurretik eta ondoren gertatutako egoerak (E*) lotzen dituena, eta homogeneousuna ematen diotenak.

Irailaren 29ko Z.K.ra berriz joaz, Z.ek metafora proposatzen du: bi harriok, lurra emea delako seinale dira. Irakurleak bakarrik bi harri ikusten ditu, baina harriok bi dira, eta gora begira daude. “Emea” irakurtzen duenean, automatikoki etorriko zaizkio burura emea eme egiten dituzten ezaugarriak, harriok emetasunarekin zer harreman izan dezaketen topatu nahian. Emetasuna, euskaraz giza emearen izena osatzen duen erroa (emakumea, edo 'eme kumea'), automatikoki lotzen du kontzeptua, eme, emakumearen ezaugarri batekin: berorren gorputzean agertzen diren bi protuberantzia, zer eta bularrak. Bi harri borobil, goraka begira, emakume bat etzanda goraka izan ditzakeen bularrak bilakatzen dira Z.en irudimen lizunean, eta konklusioa beraz borobila da: lurra emea dela. Orduan lortzen da kontakizunaren homogeneousuna osoa, eta ondorioz,


txistea⁸⁴.

Egitura narratibo hau, esan bezala, lau biñeta erregularretan garatzen da, kasu gutxi batzuetan izan ezik.



© Olariaga (5. eranskina, or.72).

Abenduaren 24ko zintan, Gabonetako zoriontze modura planteatuta, A.O.k espazio osoa planteatu du biñeta soil batentzako, azaroaren 2an egin bezala –azken hau, lehen aldia esperimentu hau EGINEN egiten duela–.



© Olariaga (5. eranskina, or.28).

Abenduaren 24an ez dago topaketa PN*rik, gainontzeko *solasjaipauskideekin* sortutako talde-lana baizik, non atentzioa Beleneko atarian zentratzen den. Jesukristo, nor eta Z., kristau salbatzailearen papera betetzen ari dena. Pertsonaiak atariaren inguruan kokatzen dira, baina ataria ez dago erdian, albo batean baizik, ezkerretik eskuinerako ibilbidea egin behar dela berau topatzeko. Edonola ere, analisisa hasi zeneko hipotesiak badu zentzurik zinta honetan: izenak eta esanak ematen dizkioten ezaugarrien bidez, **Z. Elizaren tradizio edo ohiturei kontrajartzen zaie**. Gorde beharrekoa da Z.K honetan Maria Birjinaren papera nor eta Miss Martiartuk betetzen duela, Eguillorren pertsonaia, EGINEN lehen alean “*del P.N.V de toda la vida*” bezala definitzen dena.

EGIN, DEIAREN kompetentzia bezala kokatzen da herri eraikuntzan, lehena ezkerretik, bestea E.A.J alderdiaren postulatu tradizionaletik. Miss Martiartuk Eguillorren biñetatan zehar Txangurro Marx delakoarekin maitasun harremana izan du, halako kontrajartze komiko batean, Txangurro euskal marxismoaren estereotipo

84 Erretorikan, osotasun bat bere parte bat(zu)engatik ordezkatzeko tropoari sinekdoke deritzo, kasu honetan, bularrek emakumea ordezkatzan dute.

groteskoa delarik. Euren elkarketatik zintako 'salbatzaile' berria etorriko da, Z.,
abenduaren 24ra arte irakurleak antzemango duena.


Edozein kasutan, eredu honek gerora emango du emankortasun gehiago, batez ere azaroaren 2ko Z.K ikertzen bada, non A.O.k abenduaren 24ko biñeta zabalaren eredu aplikatzen duen (5. eranskina, or.28). Z hemen koba bateko estalaktita eta estalagmitekin egin du topo (O*), eta hauek sortarazi diote komentarioa, O_M bilakatu.

Biñeta bakarra baino ez dago, baina suposatzekoa da Z noizbait sartu dela koban, eta bere ohiko paseoan ibili dela. Alta, urriaren 27an sartu da (5. eranskina, or.23), eta hamalau aste eramango dizkion bidaian jardun. Estalaktitok eta estalagmitok biraketa metaforikoan “ahoa” dira, goiko eta beheko hortzei men eginez. Baina zeren edo noren hortzak? **Ama Lurrarenak**, irailak 29tik *bularrak* zituen eme bezala definitua eta urriaren 27an bere “atzeko zuloari” men egin zaiona.



© Olariaga (5. eranskina, or.21).

Dagoeneko, aski ikusten da Z.ek natura “Lur” bezala zuzentzen den figura (F*) batean eraikitzen duela, eta bere elementuak gorputz baten atalak bailiran izendatzen, normalean eta mendebaldeko kulturaren estaliak daudenak. Orain arte, bularrak eta hortzak besterik ez dira intsinuatu, baina adibidez azaroak 9ko zintan baginari berriro egiten zaio men, bi biñeta besterik ez dituen egitura ikerketa honetako unibertsoan bakarrik behin gertatzen dena:



© Olariaga (5. eranskina, or.34).

Z.K hau aurrekoaren segidan dator (azaroak 8), non Z kobazuloko bidaian segitzen duen. Nabaritu bedi honetan pertsonaiak laugarren paretara⁸⁵ begiratzen duela, irakurleari begirako balio bezala. Baina aurreko zintan begirada berdina erabili du, “Lur” F*ari berbetan, lurra pertsonaia balitz bezala:

85 A veces los personajes de los cómics miran hacia el lector, le hablan o dirigen un guiño de complicidad. Esta actitud inusual hace que el personaje salga por un momento de la ficción o bien que el lector se integre visualmente en ella.



© Olariaga (5. eranskina, or.33).

Lurra ez dago pertsonaia batean gorpuztua, eta beraz, Z.ek laugarren paretara begiratzea baino ez du, irakurlea desafiatzeko moduan: bera izan daiteke Lurra, kasu honetan “Birjina eta dontzella” deitzen diona, batua izatetik urrun dagoen euskara batean. Laugarren paretara begira egiten dituen galdera hauek zita metatestualak dira, eta hainbat gauzatzen ditu irakurlea begiratzen duenean. Bestalde, begirada irakurleari zuzentzea oso teknika ohikoa da komikigintzan, ezein

A veces los personajes de los cómics miran hacia el lector, le hablan o le dirigen un guiño de complicidad. Esta actitud inusual hace que el personaje salga por un momento de la ficción o bien que el lector se integre visualmente en ella.

Gasca eta Gubern, 2011, or.521

Azaroaren 9koan, jokabide berdina planteatzen du: laugarren paretan dagoena ez da irakurlea bera, “Lur” delakoa baizik. Eta lurra “birjina eta dontzella” da, azaroaren 8ko zintan esan bezala, “moralismoaren aldeko”. Bi biñeta besterik ez dituen zintan elkarketa PN*a ere sortzen da, ezein Z. S*a leitzeko zulo mehar batetik pasatzen den. Lurrari galdetzen dio ia birjina den –inork 'profanatu' gabeko andrea–, eta behin O*arekin topatuz (aurrekoetan bezala, O_M dena) gogoeta bultzatu, oraingoan galdera formatuan: meatzari patroiek iritzi bera ote duten, meatzariak lur azpian baitzabiltza zuloak egiten –hots, urriaren 27an Z.ek metaforizatutako 'aluak'–. PN*a betetzen da bi biñetako zintan, eta azaleratzen hasi da Lur *emergente* eta femenino horri Z.ek ematen dizkion atributuak.

$$PN^* = (S_Z \vee O_M) \rightarrow (S_Z \wedge O_M)$$

PN* berdina ere gertatzen da azaroak 2ko Z.K.ekin, non Z. Lurraren 'hortzekin' topatu den, eta biraketa metaforikoa egin, biñeta bakar batean gertatzen den prozesu narratiboan:

$$PN^* = (S_Z \vee O_{\text{Hortzak}}) \rightarrow (S_Z \wedge O_{\text{Hortzak}})$$

Ikusten den bezala, PN*ak egonkor mantentzen dira, eta elementuekin topaketa gauzaten da ia denetan. Inferitzen hasi dena, Lurra bera da, F*, identitate femeninoa duena. Baina lurra, esan bezala natura mitifikatu baten parte euskal nazionalismo klasikoan, Z.ekin topatzen ari da, eta honek biluzten du, agerian uzten dizkio 'estalita' beharko luketen atalak.

Baina Lurra eme bezala irudikatzearen ideia ez da Z.en asmakuntza, ezein jada euskal mitologian lurrari **emakume generoa egozten zitzaion**, bai eta alegorikoki emankortasunaren sinbologia ere (Sorazu, 1979, or.183). Z beraz itzultzen da jada sortua zen ideia batera, eta zuzenean lotzen duena lerro hauetara ekarritako baieztapenarekin, non Ama Lur horrekiko itzulera herri kontzientziaren berreskurapen edo indartzearekin harremanetan jartzen den, garaiko irudimen kolektiboan. Z.ek egin duena, Ama Lur horren elementu 'lotsakor' bat erakustea izan da, U.aren ikuspegi joubertianoari segika, non barrea sortarazten duen hori dena erakustean oinarritzen dela baieztatzen den horretan, gogoratzearen:

Lo que excita en nosotros la risa es ver algo feo, deforme, deshonesto, indecente, indecoroso e inconveniente, siempre que ello no nos mueva la compasión. Por ejemplo: ver cómo por casualidad se descubren las partes vergonzosas, que de natural o por pública honestidad solemos ocultar porque es indecoroso, y sin embargo indigno de piedad, provoca la risa en los presentes.

Joubert, 1579/2002, or.39

Baina zer/nor da Z.entzat Lurra? Z.K guztietara joaz, Z.ek Lur horri pertsonaia balitz bezala zuzentzen zaion bakoitzean ondoko adjektiboak jartzen dizkio:

Adjektiboa	Zinta komikoa(k)	5. Eranskina (or.)	
Adoleszentea	Urriak	23	20
Alai (<i>kanpotik</i>)	Urriak	30	26
Ama	Urriak	26	22
Andere	Urriak	26	22
Birjina	Azaroak	08	33
		09	34
Borobil	Urriak	27	23
Dontzella	Azaroak	08	33
		09	34
Emagaldua	Urriak	13	12
		26	22
Emakumea	Urriak	02	04
		27	23

Emankor	Azaroak	16	40
	Irailak	29	01
Emea	Urriak	29	25
	Abenduak	26	65
Erotikoa	Urriak	27	23
	Azaroak	04	30
Fruitu sortzaile	Azaroak	16	40
Ilun (<i>barrutik</i>)	Urriak	30	26
Maitea	Urriak	02	04
		08	08
Masokista	Azaroak	19	43
Moralismoaren aldeko	Azaroak	08	33
Zaharra	Urriak	23	20
	Azaroak	06	32
Zoragarria	Urriak	26	22

Taula 5: Zakilixutek lurrari botatzen dizkion kalifikazioak.

Iturria: Propioa.

Adjektibook agerian uzten dute, linguistikoki, gorpuzten ari den Lur hori zer den Z.entzat. Une jakinetan irainak badira ere (“emagaldua”, “iluna”, “masokista”), beste askotan laudorioak dira (“alaia”, “dontzella”, “emankor”, “erotikoa”...). Aurreko taulan zerrendatu diren elementuok, azaleratzen den emakume (Ama Lur) horren osagaiak dira, Z.ek topatzen dituenak eta metaforen bidez elementu sexual bihurtzen dituenak.

5.2.1. Nazionalismo klasikoaren desegitea

Presta dakion atentziona kobazuloaren Z.K.en bildumari, non ia bi hilabete irauten dituen pertsonaiak lurpean. Eszena* horietako batean, non Z lurraren barrunbetara heltzen den, leitzean aitzineko margolanak ikusten ditu. Margolan horietan artean, arestian aipaturiko Miss Martiartu agertzen da, lurraren azpian, bihotzean (3. biñeta):



© Olariaga (5. eranskina, or.31).

Aipatu egin da Miss Martiartu nor den Eguillorren seriean, eta nola agertzen den abenduaren 24ko Z.en Z.K.an (5. eranskina, or.72). Miss Martiartu F* bat da, zer eta Z.en diskurtso guztia egituratzen duena: **Lurraren barrunbetako sinbolo zentrala da**, Z.ek leitzetik sartu eta amaierara arte bidaiatu behar duena berau ikusteko. Amaieran, zulotik irten eta hirira joko du.

Miss Martiartu E.A.J alderdiko emakumearen **estereotipo komikoa** da. Z.k metaforikoki deritzon 'Ama Lurraren' irudia, ezein euskal gizarte tradizionalan, E.A.J alderdiak dei egin zuen gizarte 'puru' horretan, emakumea izango baitzen gizartearen sostengu matriarkala⁸⁶, betiere Ama/Emakume sinboloa Ama Lurra/Naturara binomioan proiektatua (Mari Jankosa, euskal mitologian) –De Pablo (koord.) 2016, or.111–. Miss Martiarturen F*ak bere barruan gordetzen ditu, alde batetik, **Lurra eta berorren tradizio guztien bilgunea** –hasieran esan bezala, garaiko euskaltzale anitzen elkargunea den natura–. Bestetik, abertzaletasun goiztiar baten irudia da, E.A.J., berorren izenaren arabera jeltzale, 'Jaun Goikoa eta Lege Zaharra'. Ez dira gutxi Eguillorren zintatan pertsonaiari egiten zaizkion keinuak bere zahartzaroari dagokionez (5. eranskinean, or.12), edo sexuaren praktika askeari egiten dion errefusari (5. eranskinean, or.10) edo komunismoaren kontrako bere jarrerari (5. eranskina, or.9). Ez da kasuala Eguillorrek pertsonaia halako maitasun harremanean jartzea Txangurro Marxekin (marxista), biok elkartu arte ikusitako abenduaren 24ko Z.K.an, Z seme izanda. Oso argigarria da Z.en diskurtsoa, Eguillorrek halako elkarrizketa intertestuala bultzatuz: Z.en zinten esangura, **ez da baizik eta bere garaian E.A.J.k abian jarritako tesi nazionalista klasikoak kolokan jartzea**, ezker sozialista besarkatzen duen abertzaletasun urbano eta gazte baten bozeramaile bihurtzeko, tradizioei uko eginez eta gizarte berri bati eskua emanez.

Z., gazte ibiltari eta presoan aldeko obseso sexualak, tradizio zaharrak desitxuratzeko jarduna hartzen du bere naturatik hirirako ibilbidean, eta nazionalismo tradizionalak mitifikatutako Lur horretan ezkutatuta zeuden atal lotsakorrak, 70.

86 Ama Lurraren mitoarekin izandako harremanarengatik emakumeak sinbolismo pisua izan du euskal imajinarioan, baina gizartea ez da emakumeengandik gidatua izan: alta, Trantsizio garaian jautzen ari den *Emakume Abertzale Batzan* (E.A.B., E.A.J.ko sekzio femeninoa) ez zitzaion andreaki rol aktiborik esleitu alor politikoan, familia giroan euskal kultura eta euskara sustatzeaz beste, aberriarekiko maitasuna eta etorkizuneko euskal gizonen heziketa bermatzeko –De Pablo (koord.) 2016, or.110–. E.T.A.ren kasuan, Trantsiziotik aurrera, emakumeek beti izan dute “atzeraguardiako” funtzioa –De Pablo (koord.) 2016, or.112–. Honela, ez omen dago objektiboki demostratuta emakumeek agindutako euskal gizarterik existitu denik, eta horrela, mitoak gora-behera, matriarkalismoaz hitz egitea da zuzenago matriarkatuaz baino – De Pablo (koord.) 2016, or.112–.

hamarkadako *destape* delakoaren garaian, deskubritzen ditu, naturako elementuekin metafora sexualak eginez. Z.ek Miss Martiartu 'biluztu' egiten du, naturan eta tradizioetan zentratuta zegoen abertzaletasuna desmitifikatzen du, eta ezkererantz abiatu, non Sabino Aranak ezarri zituen arraza-tesiak atzean utzi eta langileriarri eutsiko zaion, **hiriaren eredu anitz eta liberalaren aldetik**, Aranak berak bere garaian errefusatu zuena:

El bizkaino que vive en las montañas, que es el verdadero bizkaino, es, por natural, de carácter religioso [...]; el español que vive lejos de las poblaciones, que es el verdadero español, o no sabe una palabra de religión, o es fanático, o es impío [...] de lo tercero, aquí en Bizcaya, en Sestao, donde todos los españoles, que no son pocos, son librepensadores.

Sabino Arana Goiri (Non Haranburu, 1978, or.57-58)

Aranak hiria errefusatu zuen, benetako bizkaitar kontsiderazioa mendi arteko euskaldunei egotziz. Bere tesi nazionalistek arrazaren purutasunean zuten oinarri, eta edozein motako interferentzia etniko baztertu. Bere garaian Bizkaira zetozen langile anitz Espainiako probintziatakoak ziren –Sestao hiri industrialaren kasuan, aipatzen dituen bertoko espainiarrak langile ziren gehienak–. Arrazaren erronkaz beste, euskaldunen berezko erlijiotasunaren kontra, espainiarren “pentsamendu askatasuna” kontrajartzen du Aranak, benetako euskaldun jeltzalea kristau behar zuelarik. Z.k ordea aipagarri ditu apaizekin dituen topaketak, non erlijiotasun goraiatu hori desegiten den:



© Olariaga (5. eranskina, or.30).

Azaroaren 30eko Z.K.an, Z.ek urriaren 9an (5. eranskina, or. 9) ikusitako txoria topatzen du zuhaitzean. Lotura bidezko PN*aren eskema segituz, oraingoan bi O*rekin lotzen da pertsonaia: txoria lehenengo, apaiza gero:

	Egoera 1	Egoera 2	Egoera 3	Egoera 4
PN* (lotura)	$S_Z \vee O_{Txoria}$	$S_Z \wedge O_{Txoria}$	$S_Z \vee O_{Txoria}$	$S_Z \wedge O_{Apaiza}$
	<i>Biñeta 1</i>	<i>Biñeta 2</i>	<i>Biñeta 3</i>	<i>Biñeta 4</i>

Txoriari galdera egiten dio: ia nahiago ote duen zerua lurra baino. Hirugarren biñetan agertzen den apaizak txoriak eman ez dion erantzuna errazten dio: Z begiradaren bidez lotzen zaio topatu berri duen F*ri, apaiza, Eliza katolikoaren ordezkari. Zerua, betirako gozamina ikuspegi kristautik, lurra baino nahiagokoa da, lehena 'mugagabea' baita, Jaun Goikoaren bizileku, eta bestea 'mugatua', betirako ez dena, bekatua eta usteltzearen lurra. Txoria, kasu honetan kolore ilun eta mokoaren formagatik belea dirudiena, apaizarekin lotura ezartzen du Z.en galderaren bidez: txoriari galdetu, apaizak 'erantzun': bai beleak, bai apaizak, nahiago dute zerua – atmosferikoa batak, espiritualak besteak– lurra baino. Lurra ez da hemen Miss Martiarturen F*aren bidez identifikatutakoa, zorua baizik, errealitate ikusgarri eta hautemangarria, zeru espiritualaren ikusezintasun eta ukiezintasunarekin kontrajarria. Diskurtsoa, are sakonagoa: Z.ek, erlijioa –kasu honetan, kristau-katolikoa–, 'oinak lurrean ez dituen' balore sorta moduan interpretatzen du, erlijioa izanik ordura arteko Erregimenaren sostengueta bat, tokian-tokiko eta unean-uneko ezadostasunak medio. Belea, Orwellen ANIMAL FARM (Orwell, 1945) eleberraren *Moises* belearenera zuzentzen du, Azukrearen Mendia ikusi ei duena eta etxeko abereak –'herria'– engainatzen duen profeta modukoa, bere izena kasuala ez bada. Apaiza, Eliza, bele engainatzailearen mailara murriztua izaten da, eta abenduak 23ko zintan, sexu txiste batekin ere desafiatua:



© Olariaga (5. eranskina, or.71).

Z.ek “herri amets” deitzen dio apaiz bati konnotazio sexualak dituen txiste bat egiteko posibilitateari. Apaiza, lehen biñetan agertu dena ume tankerako Z. bati galdetuz ia behia nora daraman, ume pikaroaren erantzuna eraman du, “hori” demostratiboak objektu desberdinei erreferentzia egiten baitie mutikoak edo apaizak buruan zeukatenari. Mezuak zuzenean sinalatzen du Elizak garaira arte hedatu zuen sexu-harremanen ikuspegia, Joxerra Garzia EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO irakasle ohiak bere liburuetaiko batean jasotzen duen testigantzaaren modukoa, bere haurtzaroan:

Gustura galdetuko genukeen zer ote zen hori, eta nola zertzen zen zelako zera [...]. Baina gehienok isilik eta bakarka irentsi behar izaten genituen galderok, nori galdeturik ez genuen eta. Etxean nekez, eskolan nekezago, eta abaderari [...] burutik pasatu ere ez.

Garzia, 2004, or.32

Bestelako topaketarik badu Z.ek arlo apaiztiarrekin. Esan bezala, nazionalismo arantarekin markatzen duen distantziak euskal idazle klasikoak irrigarri uztera ere badarama, apaizak izan baitziren, gehienbat, euskarazko literatura idatzia garatu zutenak. Euskaraz argitaraturiko lehen liburua Beñat Dechepare abadearen eskutik etorri bazen, Z.ek ez du zalantzarik izango apaiz behe-nafarrari “Sexupare” deitzeko, gorputzarekin adierazitako maitasunari egindako olerkiak irakurtzen dituenean.



© Olariaga (5. eranskina, or.71).

Konkretuki, abenduaren 7an *Emazten fabore* poemaren 14. estrofa irakurtzen du (6. eranskina, or.36-37), eta orduan jartzen dio abadeari ezizen lizuna, olerkiak emakumeari egiten dizkion laudorioak bide. Apaizari “Sexu” izengoitia jartzeak, agerian uzten du seinalatzen den instituzioaren jarrera sexu gaiak estaltzeko edo behintzat ez aipatzeko –Garziak adierazi moduan–, Decheparek LINGVAE VASCONUM liburua plazaratu zuen garaiko ikusmoldearekin kontrastean, XVI. mende hasierakoa, Trentoko Kontzilioaren ondoren onartezina, eta Oihenartek mende bete geroago LINGVAETI buruz egingo zuen kritikak dioen bezala:


eta besteak (bere kartzelatze auhenez aparte) amodiozko neurtitzak, aski errespetu gutxikoak eleiz gizon batentzat, eta batipat arimazain den apez bati ez dagozkionak.

Oihenart, 1665/1992, or.55

Halaber, Z.ek abadeari “Sexupare” deitzea irain gisa ere interpretatu daiteke giro elizkoian, non apaizari honelako etiketa jartzea, elizgizonari zor zaion errespetuaren moduetatik aldentzen den. Ironia hau –non adierazten den hitz-jokoarekin esaten dena ez den broma xumea, baizik eta esangura erreferentzial zuzena egiten zaion garaiko testuinguru erlijioso-soziologiko bati– indartua agertzen da abenduaren 8ko Z.K.an (5. eranskina, or.58), non Dechepareren euskara bide hartuz (70. hamarkadako euskara idatzi eta batuaz oso urrun⁸⁷) bere esanak “zail⁸⁸” gisa kalifikatzen dituen Z.ek, eta sexu gaiak jorratzeko apaizei egozten dien lengoaia aldrebesari erreferentzia egiten.

87 Kontuan hartzekoa da Dechepareren ahalegina euskaraz idazteko, ezein behe-nafarreraz egin zuen, bere euskalkia izanik, eta tarteka latinezko egokitzapenak txertatu behar izan zituen, Elizaren hizkuntzan hain zuzen. Gaur egungo euskara idatziarekin alboratuz, ulertzeko konplexua dateke.

88 Adjektibo honek Olariagaren apustua ere islatzen du euskara batuaren alde: Dechepareren euskara, dialektala, “zaila” bada, batua berriz ‘erreza’ edo/eta ‘ez zaila’ da.



© Olariaga (5. eranskina, or.57).

Elizarekiko urruntze edo distantzia hau, Z.ek diskurtsora eramana, ez zen bakarrik sozialismoan edo ezkerrean kokaturiko korronte edo mugimendu sozialetan gertatu, eta esku artean dagoen ideologia bide, E.A.J alderdia bera, konfesionala eta katolikoa tradizioz, 77ko Iruñeko Asanbladan “akonfesional” gisa definituko zuen bere burua, gaur egun “euskal alderdi demokratikoa, partehartzailea, anitza, akonfesionala eta gizatiarra” bezala definitzen delarik –EUSKO ALDERDI JELTZALEA (E.A.J.) d. g., atal.Zer definizio ematen diogu gure buruari–. Halaber, Elizak berak distantzia jartzen hasi zen garai demokratiko berrien aurrean estatuarekiko, jada aurreko Erregimenean unean-uneko desadostasun puntualak bide. 1977ko maiatzean, Erregimenaren ondorengo lehen hauteskunde demokratikoen aurretik, Espainiako Apezpiku-Konferentziak dokumentu informatiboak banatu zituen, demokraziaren aurrean jarrera baikorra agertuz:

Los cristianos, en su calidad de ciudadanos, son libres para optar por aquel partido o por aquel programa que según su recta conciencia es el que mejor garantiza el bien de la persona humana y de la sociedad en la totalidad de sus exigencias y de los derechos legítimos.

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA (Secretaría General) 1977, or.2

Halaber, inportantea da nabarmentzea dokumentu berean Eliza espainiarrak bi korronte ideologiko errefusatzen dituela nabarmen: liberalismoa eta marxismoa. Z. ez da, bere kleroaren ikuspegi mesfidatiaz gaindi, marxista gisa esplizituki agertu, EGIN bezala, baina bai ezkertiar gisa. Marxismoaren kondena Elizaren aldetik, bere “materialismo ateo” egotziz, nabarmen azpimarratzen da aurretik zitatutako dokumentuan, eta ondorioz, Z.en antikerikalismo puntu horrek marxismorantz hurbiltzen du, garaiko ezker abertzale taldeek, EUSKADIKO EZKERRA koalizioaren gertukoek, bereganatutako ideologia.

No [...] es lícito, por tanto, favorecer a la ideología marxista, a su materialismo ateo, a su dialéctica de la violencia y a la manera como ella entiende la libertad individual dentro de la colectividad, negando, al mismo tiempo, toda trascendencia al hombre y a su historia personal y colectiva.

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA (Secretaría General) 1977, or.6

Euskadiko Ezkerra-Izquierda para el Socialismo [...] elabora su estrategia sobre la base del marxismo para la consecución del socialismo y la liberación nacional de Euskadi.

EUSKADIKO EZKERRA (alderdia) 1982, or.205

Honela, Z kokatu egiten da ezker abertzalean, sozialismoa eusko lurraren askapenaren zerbitzura jartzen duena, eta E.A.J.ren nazionalismo tradizionalarekin haustura planteatuko duena, bai eta nazionalismo horrek segitutako tradizio katolikotik urrun, ezkerraren bidetik.

5.2.2. Aldarrikapen feminista

Orain arteko emaitzei segituz, emetasuna desmitifikatu beharreko Ama Lur horren ezaugarria izan da. Z.ek ez du Lurra profanatzeko aukera galtzen, bai eta bere burua, 'zakila xutik' izaki, berorren barruan sartu arte, 'bortxaketa' moduko ekintzan, "birjina" eta "dontzella" den lur *puruari* (5. eranskina, or.31) bere birjintasun garbia kentzeko paradaz:



© Olariaga (5. eranskina, or.45).

Modu berean, lur barnean dagoela, bere burua espermatozoide bezala identifikatuko du halaber, Lur femenino eta ukigabekoa berriz ernalduko duena, gizarte berriaren sortzaile gisara:



© Olariaga (5. eranskina, or.27).

Baina emetasuna, emakumea, ez da bakarrik Lur mitifikatu horren ezaugarria. Emetasuna, batez ere kobazulotik irteten den unean, ez da jada esploratu beharreko gorputz ezku bat, babestu eta goraipatu beharreko identitatea baizik. Gogoratu beharra

dago A.O.k aipatzen duen planteamendua, non emakumea naturatik irten eta azkenean pertsonaiaren “ohe-kide” bihurtzen den:

Planteamendua *emergente* izango litzake [...]. Pixkanaka emakumea lurretik aterako balitz bezala. Eta gero, ohe-kide bihurtzen zaio. Eta azaltzen da biñetatan, esplizitatua.

3. eranskina, or.25

Honela, Z.en Z.K.etan asko baliatuko den beste gai bat **emakumearen askapena** da, segituan ikusiko den bezala, eusko lurraen askapenarekin zerikusia duena.

Z emakumezko batekin topatzen den lehen unea azaroaren 13a da (5. eranskina, or.38), eta ohe-kide bihurtzen zaion edo ez, ez dago ikertzen den unibertsoan ikusteko. Ordea, emakumea ez da izango baizik eta kobazuloaren barrunbetatik irten ondoren, Z.ek topatuko duen lehen izaki humanoa. Eta orduan hasiko da bere komentario bitxienetarikoa bat errepikatzen, non Euskal Herriari (E.H.), lurralde-kontzeptu moduan, atributu femeninoak egotziko dizkion, abenduaren 15eko zintan bezala:



© Olariaga (5. eranskina, or.64).

Ikusi egin da Ama/Emakume eta Ama Lurra/Natura asoziazioak nola agertzen diren nazionalismo jeltzalean, nahiz eta 77an bere sekzio femeninoa desagertu eta andre jeltzaleek euren parekidetasuna eskatzen duten E.A.J alderdiaren barruan –De Pablo, (koord.) 2016, or.112–. Parekidetasun eskakizun hauek konstantea dira hainbat kolektibotan, eta ikerlan honetako 4. eranskinean jasotzen den bezala, EGIN izango da berdintasuna aldarrikatzen dutenen bozeramaile bat. Z ere bai, baina emetasuna eta Ama Lurra lotu beharrean, emea orain bere eskubideen alde ari den gizakia da, zer eta E.H bezala, **biek euren burua determinatzea eta errepresiotik askatzea eskatzen duten instantzia bezala**. Z.ek U.-forma jartzen dio ordea garaiko gizarte eskakizun bati, E.H.an jada eskuz-esku ari baitziren euskal autodeterminazioa eta erronka feminista proiektu parekide bezala hartzen zuten taldeak. Urrunago joan barik, 5.1 epigrafean zitatu zen *Euskadiko emakumeen lehenengo topaketak*⁸⁹ jardunaldian (Bilboko Unibertsitatea, 1977ko abenduan) sortutako txostenean, EUSKADIKO MUGIMENDU

89 Nabarmentzekoa da topaketa hauen akten liburuxkak izen hirueleduna izatea, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez, Euskadi (edo Euzkadi) izenpean Pirinioen alde bateko zein beste aldeko eusko lurak ulertuz, euskal ikuspegi nazional batetik planifikatutako jardunaldi feministak izaki, euskal abertzaletasunaren eta feminismoaren artean azaldu den harreman estua berresten da.

KOMUNISTA⁹⁰ko kide Rosa Olivaresen ponentziaren lehen hitzak oso esanguratsuak dira, herri eta genero borrokak elkarren pareko jartzen dituela, eta frankismoaren aurkako kontribuzio femeninoa azpimarratu:

A mi entender, estas primeras Jornadas de la Mujer de Euskadi, entrañablemente nuestras, exclusivamente nuestras, no podían finalizar sin detenerse un pequeño momento a reflexionar sobre la otra Euskadi. Sobre ese fascismo; sobre esa Euskadi que también ha derramado sangre propia y que ha sufrido torturas por motivos políticos. Esa Euskadi, la otra Euskadi, se llama mujer.

ASAMBLEA DE MUJERES DE BIZKAIA, 1977, or.76

E.H.ren eta emakumearen askapena berdintsuak dira Z.entzat, eta bost biñeta⁹¹ dituen abenduaren 15eko zintaren amaieran “Gora feministak” esatea, 'Gora E.H.' esateko modua ere bada. Z.en oihua ez da pasatako mugimendu sozial baten sintoma, kolektibo euskaltzale/abertzaleen arteko elkarreraginak gaurdaino iraun baitu: aipatzekoa da kasu 2017ko martxoan Lorea Agirre Dorronsoro euskal antropologoak Algortan emandako hitzaldia, *Euskara eta feminismoa bidaiide* izenburupean, non ikerlariak adierazten duenez,

Euskalgintza eta feminismoa urte luzeetako bidea egin duten mugimendu zibilak dira [...]. 1977an edo, erakundetze-prozesuarekin, bi elementuak erakundeetan sartu ziren. Euskara izan zen bide hori egin zuen lehenengoa [...]. Geroago, baina ez askoz beranduago, berdintasun-teknikariak ipini zituzten udaletan eta gainontzeko eskualdeetan.

Agirre, 2017, or.17

Modu berean, mugimendu feministak ez du bakarrik emakumearen eskubideberdintasuna eskatzen: askatasun sexuala ere eskatzen du, ordura arte bazterturik –eta sarritan zigorturik– zeuden orientazio sexualen eskubideak ere aldarrikatuz. *Euskadiko emakumeen lehenengo topaketak* jardunaldira bueltatuz, oso argigarria da garaiko euskal kolektibo feministaren kokapena homosexualitatearekiko:

Nosotras nos posicionamos a favor de la homosexualidad femenina, porque:

- reivindicamos nuestros cuerpos como cuerpos sexuados;
- reivindicamos cualquier forma de expresión sexual, por tanto la homosexualidad es una de ellas.

ASAMBLEA DE MUJERES DE BIZKAIA, 1977, or.11

90 E.M.K alderdia, 77ko hauteskundeetan EUSKADIKO EZKERRA koalizioaren parte izandakoa.

91 Hirugarren eta laugarren biñetan, biñeta-arteko zuri guneak ez dauka esperimazioaz bestelako funtzio semikorik: Olariagak pertsonaia bitan zaitu du, bi biñetok, 3.a eta 4.a, bat osoa izan zitezkeela narratiba aldatu gabe. Esperimantu honek ez dauka narratiboki zeresan handirik, bai ordea estetikoki, ezein urteak aurrera joan ahala, oso ohikoa izango den Zakilixuten aurpegia biñeta-artean zatituta ikustea, Olariagaren estilema modura, halako itxura kubista gogorarazten duena.

Z ez dago azken errebindikazioetatik at. Hiritartzen denean, elementu naturalen taulan hainbatetan agertzen den zuhaitzari (5. eranskina, or.14, 39 eta 42) lotuko zaio berriro, baina oraingoan zuhaitza ez da naturan kokatutako landarea, Gabonetako zuhaitz apaindua baizik:



© Olariaga (5. eranskina, or.68).

Zuhaitza “gay” ote den, galdera absurdoa dirudi etengabe elementuak interpretatzen dabilen Z.entzat. Ordura arte, naturako elementuekin metaforak egiten ikusia izan da, beti alor sexualera eramanez. Oraingoan, zuhaitza, besterik gabe mendian agertzen dena, hirian dago orain, kutxa batean sustraituta eta apaingarriz beteta. Gabonak helduko dira, festa kristaua jatorriz, eta laster sartuko da Z. Beleneko leitzean, Jesusen papera betetzera (5. eranskina, or.72). Hartara ailegatu aurretik, Kristoren jaiotza iragartzen duen arbola apaindua “gay” ote den galdetzen dio irakurleari, kristauki sexu-tendentzia onartezina, eta paraleloki feminismoak goratua.

Txistea, gay harrotasun mugimenduak erakutsitako *performance* bizi eta apainduaren bidetik doa, non arbola ez dagoen jada bere ingurune naturalean, baizik eta bertotik aterata apaindua eta argiz beteta, harrotasunaren karroza batean bezala. Hirian jada presente dagoen askatasun sexualaren aldeko mugimendua iragartzen da.

Tankeraz, badirudi Z inozoa dela, eta gustu txarreko txistea egiten du, garaiko Espainian ohikoak ziren homosexualen kontrako txisteetatik hurbil ei dagoena (Mainer eta Juliá, 2000, or.141). Baina ikusia da bera aurretik, feminismoaren aldeko jarreran, eta irakurlearentzat, Z.ek aldarrikapena besterik ez du egiten, begiak borobilduta harritzen dela badirudi ere, *gay performance* baten aurrean garaiko herritar anitzi sortarazi liezaiokeen harridura. Postura ironiko honek adierazten denetik urruntzen du pertsonaiaren diskurtsoa: harritu baino, harritzen denaren inozotasuna imitatzen du pertsonaiak. Ez da ahaztu behar halaber zuhaitzak zein sinbologia inportantea daukan euskal kulturean, eta are gehiago lehendik aipatu den ideologia jeltzalean. A.O.rentzat, zuhaitza ez da baizik eta estetikoki erakargarri zaion elementu bat:

Nik beti erabili izan ditut zuhaitzak elementu grafiko modura. Basoetan daukaten indarra, goraka, edo sustraiak, beheraka... Ikonikoki, oso *potenteak*. Batez ere biluzik daudenean, beren zainak agerian daudenean. Forma oso aberatsak dira.

3. eranskina, or.29

Ordea, eta Z.en gai nagusiari so, zuhaitzaren esangura diskurtsoan arbolaren sinbologiatik ezin daiteke aldendu: zuhaitza, nazionalismo tradiziozaleak errebindikaturako elementu zentraletako bat da, ezein

el árbol es uno de los símbolos esenciales de la tradición. Representa en el sentido más amplio la vida del cosmos, su densidad, crecimiento, proliferación, generación y regeneración. Es uno de los seres de la naturaleza al que el hombre a atribuido un concepto animista. Reminiscencia de esta mentalidad es la costumbre señalada por Resurrección María de Azkue de pedir perdón a un árbol en el momento de derribarlo: “Guk botako zaitugu eta barkatu iguzu”.

Sorazu, 1979, or.189

Ez dago esan beharrik zuhaitza euskal foruak sinbolizatzen dituela, konkretuki haritzak, eta lema jeltzalean karga kristau sakona dauka, “Goiko Jaun Ona” eta “gurutza deuna” medio:

*Gora ta Gora Euskadi,
aintza ta aintza bere goiko Jaun Onari.
Areiz bat Bizkaian da,
zar, sendo, zindo,
bera ta bere lagia lakua.
Areiz gainean dogu
gurutza deuna
beti geure goi buru.
Abestu gora Euskadi!
aintza ta aintza bere goiko Jaun Onari!*

Z.ek zuhaitza gay bihurtzea, modu honetan, sinbolo zahar eta kristautu bati irudikatzen dituen baloreek onartzen ez duten sexualitate batez janztea da, zuhaitza bere konnotazio erlijiosoetatik biluztuz.

Ondorioz, Z.ek segitzen du bere natura *biluzteko* jarreran, eta sexu eskubideak eta feminismoa euskal nazionalismoaren kausaren barruan txertatzen ditu.

5.2.3. Egunerokotasunari keinua: egunkaria

Z.ek irakurlearekin sortzen duen dialogo metatextuala argiago antzematen den uea egunkariarekin agertzen diren Z.K.etan gertatzen da: egunkaria eskuetan ikusi ahalko da, non egunerokotasunari lotutako gai bat hartu eta irakurlearekin komentatzen duen, halako konplizitatea bilatzen, leizeko bidaiaren kasuan antzeman den moduan.

Egunkari batekin agertzen den lehen unea urriaren 8a da, TRIPLE A talde terroristak *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkari abertzalearen egoitzari lehergailua jartzen dionean. “Hik ere maite duk gure lurra” laugarren paretari begira diotso (1. biñeta), bere aurpegia estaltzen duen koadro beltz batek jantzita, bere identitatea gordetzen ari balitz bezala, irakurleak aski soberan ezagutzen badu ere, eta pertsonaiaren izena seriearen titulua delarik. Ironia modua beraz.

Z.ek ironikoki ezkutatzen du bere aurpegia, bada-ez-badako jarreran, esan bezala irakurlearentzat ezaguna baita, eta 4. biñetan onomatopeia erabili: *Punto y Hora* aldizkariaren izenean 'n' hizkia 'm' letrarengatik ordezkatu eta leherketaren soinua imitatzen duen *Pummm* fonema bertan integratzen du, literalki gertakaria kontatuz. Hitz-jokoa gauzatuta, aldizkariaren izena aldatzen du, *Pummmto y Hora de Euskal Herria*.



© Olariaga (5. eranskina, or.8).

Z.ek gertakari baten gaineko gogoeta egiten du, eta irakurleari aldizkaria bera bailitzan apelatu (“Hik ere maite duk gure lurra”). Z.en irakurlea bat dator aldizkariarekin, eta berak bezala, “gure lurra” ere maite du. Modu honetan gauzatzen du pertsonaiak dialogoak: alde batetik bera, aldizkariaren erredakzioa eta irakurlea bat datoz E.H.arekiko “maitasunean”, eta bestalde gertakaria probokatu dutenen jarrera dago, halako bereizketa diskurtsiboan.

Aurreko gertakaritik bi hilabeteko distantzian, abenduaren 13an, Z.ek EGIN egunkaria hartu eta 2. biñetan begiratzen du berriz laugarren paretara. “Parte Zaharreko gertakizunak” aipatzen dituenean, aurreko egunean jazotako Donostiako istiluei zuzentzen zaie, non poliziak autonomia eta amnistiaren aldeko manifestazio bat modu bortitzean disolbatu zuen.



© Olariaga (5. eranskina, or.62)

Alde Zaharreen dagoen enparantza donostiarraren izena 'Konstituzio plaza' da, eta nahiz eta 78an onartuko den konstituzio espainiarrari men egiten ez dion, Z.ek aprobetxatzen du berorren inguruko lotura ezartzeko: indar polizialek frankismoa dela eta espetxeratutakoak kaleratzea eta autonomia estatutu bat lortzea eskatzen zuen kontzentrazioa disolbatu zuen, plaza “Konstituzioarena” delako. Ironikoki, Z.ek irakurleari irekitzen dion galdera da ia etortzeko dagoen Konstituzio berriak ez ote dituen Parte Zaharreko gertakaria ahalbidetu duten moduko errepresio formak onesten, kontsonantzian orduan Espainiako Gorteetan lantzen ari den Lege Gorena mesfidati zekusaten gizarte mugimendu ezkertiar eta abertzaleen⁹² optikarekin bat (EGINEK berak ezezkoaren alde egin zuen 78ko erreferendumean, Konstituzio hura onetsi ez zedin).

Abenduaren 13ko Z.K.aren bigarren biñetan, Z.ek “sexual” deitzen dio Parte Zaharreko gertakariari, lizun edo 'ezin ikusi' ahal ez den jazoera legez. Abenduaren 17ko 3. biñetan neologismoa sortzen du, “sexubidea”, 'eskubide' esan beharrean, non 'esku' erroa 'sexugatik' desplazatua izaten den (5. eranskineko 35. orrialdeko zintan ere erabiltzen du). Sexu eskubideak eta askatasun eskubideak pareko hartzen ditu Z.ek, batez ere errebindikazio feministari dagokionez (5.2.1.2 epigrafean zehaztu bezala). Kasu honetan, bai E.H.ari, bai emakumeari egozten dizkien eskubideei “sexubide” deritze, eta abenduaren 17 Z.K.an Madrilen etenda dagoen aurre-autonomia proiektuari men egin, E.H.ari dagozkion esku/sexubideak geldituta (“stop”) daudela adieraziz.



© Olariaga (5. eranskina, or.66).

⁹² Eskuinetik gertuagoko alderdiek ere ez zuten Konstituzioa begi onez ikusiko. ALIANZA POPULAR delako alderdiak kaso, Francoren ministro izandako Manuel Fraga buru, azken unera arte mantendu zuen Konstituzioaren aurkako jarrera, gerora aldatuko bazuen ere, barne zatiketarako gora-behera.

3. epigrafean zehaztu bezala, euskal autonomia lortzea lan neketsua izango da: lehen autonomia estatutua 1979an onetsiko bada ere, Espainiako presidente Suárezek Katalunia eta euskal lurraldeentzako autonomia-proiektuak itxi nahiko ditu Konstituzioa onartu aurretik, lurralde-aldarrikapenak baretzeko asmoz. Euskal kasuan ez da erreza izango, Nafarroako U.C.D.ko diputatuek (Suárezen alderdikoak) presioa egingo baitute Nafarroa euskal proiektu aurre-autonomikoan (“preautonomia”, Z.K.an eta erdal hitzaren bidetik, medioek zabalduetakoa) sar ez dadin, azkenean presidentearen mesedea lortuko dutelarik (Del Burgo, 2006, atal. Navarra en el túnel del tiempo, par.1). Z.ek aurpegi tristeaz⁹³ begiratzen du irakurlea 3. biñetan, eta egunkaria lurrean utziz, “sexubideen” negoziazio ilunak espresuki kritikatu: “auskalo noiz eta nola negoziatu ziren” (4. biñeta). Honela, pertsonaiak agerian uzten du bere pesimismoa autonomiaren lorpenaz, bai eta Nafarroa proiektuan integratzea lortzeari, ikuspegi euskaltzaleak eskatu bezala, eta abenduaren 12an ere salatu zuena: “Nafarroa Euskal Herritik separatu nahian”.



© Olariaga (5. eranskina, or.56).

5.2.4. Euskararen erabilera Zakilixuten mintzairan

Euskarazko umoreak (U.), esan bezala, lokalismoetara jo behar izatea eskatzen ohi du. A.O.k erronka hartzen du EGINEK darabilen euskara batua eta bere hitzetan “funtzionala” jolas intelektualaren bidetik eramateko. Z ez da, Zabaletaren pertsonaiak lez, izaki mutua: barra-barra egiten du berba, etxean euskaraz ikasitako autore gipuzkoar baten lumak bere esanak marrazten dizkiolarik. Gipuzkera da euskara batuaren oinarri, ardatz nagusiak ezarri zizkion Koldo Mitxelena bertokoa izanik. Egun, erabilera anitzeko R.A.E moduko hiztegiek zuzenean aitortzen diote batuari erro gipuzkoarra:

Euskera batúa. Vasco unificado, basado en el guipuzcoano con incorporaciones de otras variedades del vasco.

A.O.ren euskara gipuzkoarra izanik, autoreak ez omen luke zailtasun handirik estandarizatzen ari den euskarari egokitzeko, eta ia bere testu guztiak, berak aitortuta ere egunkariko euskara ekipoaren laguntza izan zuela (3. eranskina, or.15), arras ondo uler daitezke euskaraz alfabetatua izan den inorentzat. Baina salbuespen nabarmenak ditu.

93 Komikiaren lengoian, bekainak beheraka jartzea tristuraren adierazpen tipikoa da (Gasca eta Gubern, 2011, or.75).

Izagirreraren hitzetara itzuliz, honek onartzen zuen bere Z.enganako maitasuna, bere euskara ez batua zela eta:

Euskal intelligentziak hitza debekatu digu, desterratu egin gaituzte hiztegietatik. [...] Baina herriarena, ahotik belarrirainoko bidaia labur eta frankotan bakarrean: *tortoloxa*, *txortero*, *motxangera*, *kurrukuxa*, *marmoxa*, *kanikatu*, Nafarroako osabarekin ibili, eta Zakilixuten hitzetan *demasa*, krebilin beltzen basoa, purua.

Izagirre, 1979, or.5–6

Hala bada, semantikoki Z.ek aditz-sistema estandarizatua eta deklinabide batua erabiltzen ditu hizkeran. Termino batzuk ordea, A.O.k bere modura idazten ditu, erdarakadetara joz:

Hitza	5. Eranskina (or.)	Batuaz
<i>Dontzella</i>	33-34	Dontzeila
<i>Estrainoa</i>	65	Arraroa
<i>Frustrantea</i>	32	Frustragarria
<i>Guttienez</i>	15	Gutxienez
<i>Konplejo</i>	25	Konplexu
<i>Lengusin(ekin)</i>	37	Lehengusin(ekin)
<i>Marraskilo</i> ⁹⁴	06	Barraskilo
<i>Ritmiko</i>	22	Erritmiko

Taula 6: Zakilixutek tarteka esaten dituen hitzak euskara ez batuan.

Iturria: Propioa.

Terminook ez dute (“estrainoa” izan ezik) distantzia fonetiko eta ortografiko handirik EUSKALTZAINDIAK denbora joan ahala onartutakoekin, kontuan hartuta garaian badagoela zehaztu gabeko terminologia zabala euskaraz, adibidez zientzia arloan, non hainbat euskaltzaile terminoak finkatzen ibili ziren 70. hamarkadan.

Arlo zientifikotik, Joantxo Etxebarria eta guzti horiek, zientzia handiagotzen ibili direnak, hara joaten ziren eta beren gauzak esaten zituzten. Hizkuntza aldetik, bada Kintana, eta gero Jabier Mendiguren.


3. eranskina, or.12

Hala bada, termino tekniko-zientifikoak ere idazten ditu A.O.k, horietariko asko egungo batuan mantendu direnak: “espermatozoide” (5. eranskina, or.26), “espeleologikoa” (5.e., or.27), “falopio” (5.e., or.26) edo “menopausia” (5.e. or.27). Modu berean, termino batzuk oraindik ez daude zehaztuta, adibidez, 'burtsa': gaztelerazko *bolsatik*, A.O.k “boltsa” idazten du (5.e., or,31), eta oraindik ere batuaz

⁹⁴ Olariagak “marraskilo” idazten badu ere, Zabaletak bere seriearen hasieratik “barraskilo” idazten du, bere *Barraskiloa eta Elefantea* zinten bildumarako. Argi ikusten da Olariagak bere hitz egiteko moduak nahiago dituela tarteka, batuaren erregeletatik aldentuz.

'poltsa' beharko luke. Honela, hainbat termino oraindik batuaz ez daude argi, eta A.O.k berari ahozko euskaran ohiko egiten zaizkion modura idazten ditu –Izagirreraren moduko kritikoen laudorioa irabazarazi diona–.

Deigarria ere bada noizbehinka batuan ezartzen ari diren arau berriei nola egiten dien erreferentzia, adibidez, azaroaren 29ko zintan, non 'h' letra “ura” hitzari jarriz, protesi efektu bat lortzen duen ('ura', likidoa, eta 'hura', bera, neska, bidean bigarren aldiz agertzen dena).



© Olariaga (5. eranskina, or.50).

Hatxeak non jarri, euskara batuaren ortografia zehazteko erronka –eta noizbehinka, buruhaustea– izan zitekeen euskara idazleentzat, Joserra Garziak letra bera euskaltzaleen “lanabes” gisa ironikoki definitu arte:

Ez dakiguna [...] zera da: hathez edo hatxerik gabe idatzi behar ote dugun [...]. Kontuan izan, hatxea, zenbait euskaltzalek euskara batua jorrazteko erabiltzen duen lanabesa dela.

Garzia, 1987, 1.36–38

A.O.k, Garziak 87an idatzitakoaz beste, txistea egiteko aprobetxatzen du hatxearen erronka, eta joko xume batekin, uretatik irtendako plazera eta neska ikustean sortzen zaion lotsaren arteko kontrastea islatzen du.

1.2.3 epigrafean euskaraz egindako txistearen erdarara jotzeko tendentzia aipatu bazen, esan behar da Z.ek dena euskaraz egiten duela, baina baten batean gaztelera du oinarri, eta euskaldunak Cervantesen hizkuntza ezagutzen ez badu, **nekez identifika dezake Z.ek esandakoaren zentzua**. Kasu hauetan, gaztelera euskarazko berben itzalpean dago. Kasu oso konkretura joz, abenduaren 11ko Z.K.ra jo behar da, non Z. oraindik Dechepareren *Emazten fabore* (6. eranskina) irakurtzen ari den, 17. estrofan:



© Olariaga (5. eranskina, or.61).

Z.i bigarrenez agertzen zaio emakumea, bere txistea inspiratzen diona, bai eta irakurtzen ari den liburuaren izenburuak ere: LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE. Irakurleak **biraketa ironikoa** antzemango du laugarren biñetan, zer eta Zakilixuten esanak gazteleraz pentsatzen baditu, ezein *linguae* gaztelerazko *lenguaren* latinezko hitza den, hizkuntza zein gorpuz-organoaren esanahiak ulertzen dituen, euskarak ez bezala (*hizkuntza* eta *mihia*, laugarren biñetan Z.ek aprobetxatuko duen diglosi semikoa bere hitz-jokoa sortzeko). Modu berean, *Vasconum*, *vascoren* erro latino da, euskaldun⁹⁵ edo euskotarra, eta *primitiae*, *primiciarena*. Ordea, Z.ek paronomasia ariketa egin “lehengusina” hitza dakar, gaztelerazko *prima*, *primitiae* berbaren oso antzeko fonetikoki, ezein paronomasia zera den:

Acumulación de palabras de sonido parecido o análogo. Con mucha frecuencia va asociado a un juego de palabras.

Romera, d.g., atal.Paronomasia o annominatio

Txistea, ikusten den bezala, gazteleraz ere mintzo den euskaldun batek baino ezin dezake ulertu, kapaz dena LINGUAE (*lengua*), VASCONUM (*vasco*) eta PRIMITIAE (*primicia* ≈ *prima*) loturak egiteko, eta karga pornografiko nabarmena antzemateko.

Bestela ere, ez da unibertsoan ikusten A.O.k erdal hitzak biñetara ekartzen dituenik, eta euskara, esan bezala, batuari hurbiltzen zaio aski, salbuespenak-salbuespen. Euskaraz dena idazten du, eta batuaren aldeko apustua egin, gutxienez, ikerketa honen unibertsoari dagokionez. Tokiko formei so, nabarmentzekoa da ordea pertsonaiak duen **hika erabiltzeko joera**, forma aski erabilia Gipuzkoako barnealdean, eta galtzekoa euskaldun berrien bidetik. Inori zuzentzeko era honek informaltasun handia konputatzen du, eta E.H.ko toki jakinetan ez da onargarri edonori hitanoz egitea, eta onartua ere, egoeraren/pertsonaren araberakoa da.

Gure semeak hitanoaren plazera deskubritu zuenean, hika hasi zitzaidan behin. Ez nion ezer erantzun, baina berorika hasi nintzaion. Airean ulertu zuen esan ez niona.

Garzia, 2004, or.154

95 Gogoratu euskaraz, 'euskalduna' hizkuntza duena dela, ez hainbeste euskotar edo euskal herritarra.

Hala bada, Z.ek ez du aukera galtzen topatzen dituen elementu guztiei hitanoz egiteko, informaltasun gradu handiarekin. Lur mitifikatu hori estalgabetzeko jardunean, ez du aukera galtzen errespetu-gradua ere apaltzeko, eta Ama Lurrari hika dabilkio.

Noiz edo noiz, euskal literatura tradizionalaren kantak edo garaiko abestiak ekartzen ditu Z.ek biñetara, normalean bera kokatzeko hitzaurre bezala. Ez dira gutxi Z.ek Lurrari hitz egin aurretik “Oi Lur” hitzak esatea, zer eta 74an Benito Lertxundi abeslariak sortutako abestiari keinu eginez, eusko aberriaren omenez eta aski ezaguna giro euskaltzalean:

Oi, lur, oi, lur, oi, ene lur nerea...

oi, goiz eme, parre gozoz ernea [...].

Zure bazter, gurazko aberria,

doa zoro ta (bertan ni) bultzia...

Hasieran, abesti honek laudorioa suposatzen du Lurrari, eta gero amaieran txiste lizuna dator, hasierarekin kontrastean, efektu umoristikoa kontrastez sortzen duena, A.O.ren teknika ohikoa euskal kantak edo bertsoak ekartzen dituenean (5. eranskina, or.32).

Hona arte, batuaren aldeko apustua (edo gutxienez ahalegina) antzematen zaio pertsonaiari. Baina bere euskara, esan bezala, euskara mintzatutik ekarritako hitzez josita dago, eta noizbehinka, terminoak ere asmatzen ditu Z.ek, 1.2.3 epigrafean aipatutako “gehiegi”, “tumatxa” edo “demassaren” tankerakoak. Ikerlan honetan esku-artean dagoen unibertsoari so, zenbait neologismo umoristiko sortzen ditu pertsonaiak. Jada ikusi da bat, “Sexupare”, bi terminoren nahasketatik etorritakoa: 'Sexua' izena eta 'parean' adberbioa, Dechepareren izenena eraldatuz. Are gehiago: Dechepare, euskara batuan 'Etxepare' gisa itzulia, 'etxe' eta 'parean' hitzek osatzen dute. 'Sexuparen', abadea ekintza sexual baten 'parean' dagoela adierazten da, bakarrik ulertzen dena Z.ek irakurtzen duen olerkian idazleak ekintza sexuala nola deskribatzen duen irakurrita (5. eranskina, or.71).

Ikus halaber sortzen duen beste neologismo bat, 'emagailu', euskaraz existitzen ez den berba eta 'emagalduren' antzeko (5.e., or.15). Azken honek, 'emea egiteko gailu' edo makina bezala ulertuta, bereziki esanguratsua da urriak 15eko zintan, non Z., aurretik bi bular metaforizatu duten harrien artean bere burua kokatzen duen, eta bular-titiei “emagailu” deitzen, irailaren 29an errepikatutako txistea (5.e., or.1) berreginez. Lurrari, berriz, emearen ezaugarriak egozten zaizkio:



© Olariaga (5. eranskina, or. 12).

'Gailu' atzikiarekin ere beste hitzik asmatuko du, hala nola "izorragailu", urriak 15eko zintan.



© Olariaga (5. eranskina, or. 14).

Zuhaitza, esan 5.2.2 epigrafean azaldutako tradizio zaharren gordailu, Z.ek eraldatu nahi duen eusko lurraren beste elementu 'izorratzailea' da, eta bezaz, "lur izorragailu". Amaitzeko, oso deigarria da feminismoaren bidetik gizon eta andreen arteko berdintasunaren defentsan pertsonaiak sortzen duen 'gurtzaindegi' hitza, haurtzaindegiren joko protesikoa (soinu bat gehitzen zaio hitzaren hasierari, kasu honetan 'g' fonema 'h' soinu mutua ordezkatzeko), abenduaren 14ko zintan⁹⁶, gizonen euren haurrak zaintzea 'gaur' egungo gauza dela denuntziatuz.



© Olariaga (5. eranskina, or. 63)⁹⁷.

Nabarmentzekoa da halaber Z.en esanak, euskaraz, nola integratzen diren Z.K.an. Komikiaren bokadiloei* buruz ikerketa honen 3. eranskinean esan bezala, bokadilo, globo edo *balloon* delakoak mota askotarikoak izan daitezke, nagusiki bi desberdinduz:

96 Ikus zinta honetan Zakilixut jada ez dagoela ingurune teluriko batean, definitu gabeko espazio batean baizik, egunkaria eskuetan, gaurkotasunean txertatzen den berri bat komentatzen.

97 Ikus zinta honen lehen biñetan, Zakilixutek *Lejona* herriari "Lejoa" deitzen diola, oraindik zehaztu gabe baitago herriaren euskal izendapena, 79tik aurrera 'Lejioa' izango dena gaurdaino. Nabarmentzeko datua da hainbat herrik euren izena euskaraz edo elebidun jarriko dituztela, Euskaltzaindiak markaturiko bidea segituz, euskara batuaren bidetik.

- a) Pertsonaien esanak jasotzen dituztenak,
- b) eta pertsonaien pentsamendu edo ametsak jasotzen dituztenak (*dream balloons*).

Azkenekoa, lehenarengandik desberdindu ohi da bere hodei itxuragatik, eta bere delta edo buztana borobil txikien ilara batek osatzen duelako, pentsatzen/amesten duen pertsonaiari zuzentzen zaiona (Gasca eta Gubern, 1991, or.298). Z.ek esaten duen guztia *dream balloon* moduko bokadiloan sartzen du A.O.k, pertsonaiaren hitzak direla globoaren deltarengatik bakarrik ulertu daitekeela. Aditzera ematen dena, pertsonaiak pentsatzen duena esaten duela da.

5.2.5. Olariagaren komikigintza

Ikertzen den unibertso honetan, komiki-teknika berdintsua da beti: salbuespenak salbuespen, lau biñetek osaturiko Z.K.a, pertsonaiaren kokapena lehenean, O* batekin topaketa bigarren eta hirugarrenean eta konklusioa amaieran. Oso gutxietan aldatuko du marrazkilariak egitura, bereziki interesgarria izanik abenduaren 15eko zinta (5. eranskina, or.64), non biñeta-arteke zuri gunea pertsonaia erditik mozten duen, esperimentazio formal modura. Kontakizuna egituratzeko modu hau A.O.ren berezkoa bihurtuko da *Solasjaipausan*, bere kideek biñetekin gehiago jokatzeko eta eraldatzen dutelarik. A.O.ren kasuan, Eguillorrek ez bezala, ez dago zinten artean kateamendu kapitularrik: txiste solteak dira, laburrak, eta beren autorearen planteamendu *iraungigarriari* obeditzen diote, alegia, berehalako txiste bat egitekoa, bost segundo baino haragoko irakurketarik behar ez duena, eta horretarako autorearentzat aski soberan zaio zinta komikoaren formatu laburra:

Behar dut produktu *efimero* bat [...]. Jogurtak baino gutxiago iraungo du, eta [...] izugarritzko suertea izango duzu irakurlearen begi-aurrean sei segundo irauten baditu zure produktuak.

3. eranskina, or.13

Bestalde, Z.en ingurua, naturan zein hirian, berdintsua da: ahalik eta elementu gutxien agertzen dira, pertsonaia normalean erdigunean, espazio handi eta ez oso definituetan. Honek zuzenean apuntatzen du, lehenengo, A.O.k definitzen duen detaile gehiegirik gabeko estiloarekin, produktuaren iraunkortasuna bide, eta besterik, ingurune xume horrek *egin* behar den mundu batera eramaten du, pertsonaia mugitzen den egunkariaren izenburuarekin bat datorrena, ekintzaren *poiesisaren* bidetik –**herria egiteko** parada–. Eszenarioak ere mantendu egiten dira, eta A.O.ren marra, gertuago eta aurrerago dauden espazioak kontorno lodi edo finagoarekin marraztu beharrean, kasuan kasu, mantentzen dira: lumaz edo estiloz marraztutako linea beti da lodiera berdinekoa, eta ez dago aldaketarik berorrenan. Asko baliatzen du marrazkilariak masa-beltza, tonu grisik gabe, jarraian aurkezten den zintaz gaindi, esperimentazio jokoan:



© Olariaga (5. eranskina, or.40).

Ikus ere argi-efekturik apenas dagoela, Z eta bere paisaiak ia beti 'lauak' izanik. Ikuspuntua ere ez da aldatzen: finko mantentzen da, eta inoiz ez du irakurleak Z goitik, behetik edo diagonalean ikusten, ezein beti dagoen ikuspuntua eraldatzen ez den horizonte linearen gainean. Etapa honetan behintzat, A.O.k ez du esperimentu handirik egiten plano eta ikuspuntuekin, Z beti plano osoan agertzen delarik. Pertsonaiaren begiradak, etengabe irakurlera zuzentzen direnak halako **dialogoa sortuz**, ez dira inoiz lehen plano batek indartuak. Esan daiteke A.O.k segurtasuna ematen dion formatu batean ari dela, lau hilabetez gutxienez mantentzen duen 'arriskurik gabekoa'. Pertsonaia ere bakartia da, eta ez dago berarekin elkarrizketa berbala hasten duen beste pertsonaiarik. Ingurune hutsala, eta pertsonaren bakardadea, sortzeke dagoen mundu mitikora eramaten du irakurlea, beste behin eraikitzeke dagoen mundu berri horretara zuzenduz.

6. Ondorioak eta diskusioa

Ikerlanaren azken puntura ailegatuta, 4. epigrafean zehaztutako hipotesiak berrekartzen dira, eta 5.ean lortutako emaitzekin aurrez-aurre jarri, ikerlan honen ondorio izango direnak.

- H.1.** Zakilixutek (Z.) 1977an Euskal Herriko (E.H.) transformazio sozialekin bat egiten du bere gaitegian.
- H.2.** Z.en imajinarioa eta sinbologia, garaiko aldaketa sozio-kulturalen adierazpidea osatzen dute, ondoko aspektuei men egiten dietenak: hiriaren desnaturalizazioa, garaian onartuagoa den erotismoa, abertzaletasun eredu ezkertiar berria, laizismorantz doan gizartea eta kontsumo-ohitura berriak.
- H.3.** Z pertsonaia 1977an kolektibo sozio-linguistiko oso konkretu baten isla izan zen, hiritarra, gaztea, abertzalea, ezkertiarra eta euskaltzalea, kontrapuntuan ordura arteko eusko tradizioak definitutako euskaldun herrikoi eta kontserbadorearekin, nazionalismo jeltzaleak bere unean markatutako ibilbidetik urrunduz.
- H.4.** Z.en umorea (U.) kontrapuntua da ordura arteko euskal tradizio batez ere mintzatuan zehaztutako tokiko U.arekin, euskalkietan oinarritua, eta Olariagak euskara batua erabiltzeko joeraz hartuko du hizkuntzaren modernizazio ariketan.

H.1.i helduz, hau bete egiten dela baieztatzen da, E.H.ko transformazio sozialak Z.ek tratatzen dituen gai nagusietan erreferentzia egiten zaielako, alegia,

a) bere garaian EUSKO ALDERDI JELTZALEAK (E.A.J.) abian jarritako tesi nazionalista klasikoen eraldaketa,

b) eta feminismoaren eta eskubide sexualen aldarrikapena.

Z., E.H.ko espektro oso konkretu baten ikonoko sintomatikoa da: ezker abertzalearena, bere garaian gorpuzten ari dena aurreko erregimenaren aurkako gizarte-mugimenduekin batera: demokraziaren aldeko jarrera bor-bor dabilen garai batean jaiotzen da pertsonaia, baina demokrazia horrek zer forma hartuko duen erabakitzeke dagoela, bai eta euskal gizarte eredu ere, **nortasun nazional disputatua** dagoen toki batean. Abertzaletasun eredu horrek ez du jada arrazan eta erlijioan oinarritutako tesi nazionalistarik nahi: langileriaren defentsan, abertzaletasun berri baten atzetik doa, **proiektu nazional-sozialista** sortzeko bidean, non eskubide sozialak nagusi diren ordura arteko tradizioen eta kultura kristautik at, Z.ek Elizarekiko duen jarrera aztertuta dagoela, apaizaren figurarekin dituen topaketak bide.

Z langile-mugimendu marxistetatik gertuago dago bere antiklerikalismoa eta E.A.J.ri egozten dion mitologia naturazalearekin distantzia jarritz, Eguillorrek sortutako Miss Martiartu pertsonaiarekin halako **elkarrizketa intertestuala** sortuz, non azken

pertsonaia hori den, bai Eguillorrentzat, bai A.O.rentzat, gainditu beharreko eredu nazionalista kontserbadorearen sinbolo. Hala demostratzen da pertsonaiak egiten duen kobazulo barruko bidaian, non alderik sakonenera helduz, Miss Martiartu topatzen duen, ordura arte zelaietan barrena ibili delarik topatutako elementu guztiak sexu-organoekin konparatuz. Bere jarrera, hortaz, eredu euskaltzale tradizionala biluztean datza.



© Olariaga (5. eranskina, or.31).

Halaber, Z.en zintatan ikusi egin da kausa nazionala eta borroka feminista elkartzen direla, E.H eta emakumea euren eskubide eta askatasunaren bidetik doazen bi figura direlarik. Aipagarria da feminismoaren kausa E.H.an, 1977ko abenduan Leioako unibertsitate-campus berrian egindako jardunaldiak bide. Andreek euren parte-hartze aktiboa eskatzen dute bizitza publikoan⁹⁸, eta beraz, ez da kointzidentzia Z.ek feminismoari keinuak egitea.



© Olariaga (5. eranskina, or.64).

Halaber, eta begi-bistakoa izanda ere, Z.en izenari eta umore (U.) 'sexuzaleari' erreparatuz, argi geratzen da A.O.ren U.a Trantsizio garaiko gizarte Espainiar irekiago baten isla dela, sexu-harremanen gaineko ikuspegi askeago bat onartzen duena, ordura arteko ikuspegi mugatzaileago batekin konparatuta, Elizak ezarritako irizpideen arabera. Lotura ere sortzen da hemen Z.en jarrera antiklerikalarekin beste behin, ezein bere sexu obsesioak, non edonon ikusten dituen metafora sexualak sortzeko elementuak, kontrajartzen diren sexuaren tabuarekin. Z. gizartean errotutako tradizioen 'destapatzailea' da, orduko garaiarekin bide harmonikoa eginez.

98 Zakilixutek baztertu duen ingurune jeltzalean, Emakume Abertzale Batza 77an disolbatu eta bizitza politikoan parte-hartze berdintzailea eskatzea gizartean zabaltzen ari den feminismoaren beste sintoma bat da.



© Olariaga (5. eranskina, or.71).

Diskurtso hau guztia komikigintza *amateur* batean formalizatzen da, ia beti lau biñeta karratu eta edukiz xumeak direnak, baina halako *pop* estiloa nabarmentzen duenak, forma begetal kargatuak eta xehetasunez betetako formak tartekatzen dituenak, garaian modan dagoen estetikarekin bat.




© Olariaga (5. eranskina, or.42).

Jarraian, H.2 hipotesia alderatzen da (Z.en imaginarioa eta sinbologia, garaiko aldaketa sozio-kulturalen adierazpidea osatzen dute, ondoko aspektuei men egiten dietenak: hiriaren desnaturalizazioa, garaian onartuagoa den erotismoa, abertzaletasun eredu ezkertiar berria, laizismorantz doan gizartea eta kontsumo-ohitura berriak).

Abertzaletasunaren ereduari helduz, modelo ezkertiar berriaren adierazpen diskurtsiboa H.1 epigrafean ere aipatua izan da, non elementu artikulatzaile nagusia E.A.J alderdiaren oposizio teorikoa litzatekeen: abertzaletasuna, eusko nortasunari zaion atxikimendua bide, tesi berri batek sostengatua dago, esan bezala, klerikalismo eza, kristau kutsuaren baztertze edo purga batekin lagunduta, eta sexu-metaforen etengabeko agerpena, ordurako ideario katoliko-kristauan bizitza publikotik kanpo zegon tabu afera. Beste behin jo beharra dago abenduak 23ko Z.K.ra, non Z.ek txiste sexuala botatzen dion nori eta herriko apaizari, bere “herri ametsen” desiran, non herritar xume bat kapaz den ordura arteko tabua gaindituz, Elizaren ordezkari bati txiste lizuna botatzeko.

Bestalde, esana da Z.ek hirira egiten duela bidaia: garai jakin batean *destapatu* duen naturatik hirira egiten du salto, non **modernotasuna dagoen**: jada ez da nazionalismo klasikoaren naturaren mitifikazioan geratuko, baizik eta langile-masa, ideologia liberala eta masa-mugimendu iraultzaileak dauden tokira joko du, 60. hamarkadan gertaturiko deslokalizazio ibilbideari segika: menditik hirira. Z beraz

euskaltzale eta abertzalea da, modernoa, euskara batuaz mintzo dena, lurraren desmitifikazioa gauzatzen duena eta hirian biziko dena, abertzale berria. Gaztea da, eta orduko kontsumo-ohiturak ere baditu: mendian dagoela, kalamua erretzen ere ikusi zaio, eta bere janzkera ez da inolaz ere nekazariena, presoena baizik, orduko afera politikoekin sintonian.




© Olariaga (5. eranskina, or.55).

H.3.ri helduz (Z pertsonaia 1977an kolektibo sozio-linguistiko oso konkretu baten isla izan zen, hiritarra, gaztea, abertzalea, ezkertiarra eta euskaltzalea, kontrapuntuan ordura arteko eusko tradizioak definitutako euskaldun herrikoi eta kontserbadorearekin, nazionalismo jeltzaleak bere unean markatutako ibilbidetik urrunduz), berreskuratu behar da H.2.n azaldu direnak ere, ezein Z ez den baizik eta **natura mitifikatua suntsitzen saiatzen den pertsonaia**, natura hori izanik orduko euskaltzale askok berreskuratzen ari ziren ingurua, Ama Lurraren sinbolo, euren herriaren aitzin garaia eta sustraiak berrezagutzeko. Olariagak berak zehazten du Z “hiri bateko eskemak” aplikatzen dituen bidaiaria dela, inguru natural/teluriko batean (5. eranskina, or.14), alegia, hiriarekin dago lotua, eta hiria da hain zuzen ikertzen den ibilbidearen amaiera: naturatik hirira. Hiria, langileria masa mugitzen den ingurunea da, eta Z bertara doan euskalduna da, gaztea –bere sexu obsesioak eta porroak erretzeko joerak agerian uzten du–, eta E.H.ren askapena eta goratzea egiten duen aldetik, abertzalea. Bere estetika, marradun kamisetarekin, preso itxura eman eta amnistiaren aldeko ikono bihurtzen dute, bere existentzian zehar eta gaurdaino mantendu duena, kolektibo abertzale ezkertiarri lotuta. Honek halaber elikatzen du aurreko H1.i emandako erantzuna, non orduko ardura soziala den frankismoaren kontra egindako espetxeratuak kaleratzea.

H.4 hipotesira pasaz, baieztatzen zen Z.en umorea (U.) kontrapuntua dela ordura arteko euskal tradizio batez ere mintzatuak zehaztutako tokiko U.arekin, euskalkietan gorpuztua, eta Olariagak euskara batua erabiltzeko joeraz hartuko du hizkuntzaren modernizazio ariketan. Aztertu denaren arabera, Olariagak euskara batua erabiltzen du ikerturiko zinten corpusean, zenbait terminorekin salbuespenak eginez, euskara batua oraindik finkatuta ez dagoela, hainbat hitzetan lokalismoak erabiliz.

Efektu umoristikoak lortzeko gustuko ditu hitz-jokoak eta neologismoak, batez ere *sexus* erroarekin sortzen dituenak, bere estilo umoristikoari erreferentzia eginez (“sexubide”, kasu –5. eranskineko 66. orrialdean ere bai–):



© Olariaga (5. eranskina, or.35).

Nabaritzen da Olariagaren saiakera, EGINEN batuaren aldeko apustuarekin bat egiten duena, non euskara irakurgarri eta “praktikoa” sustatu nahi den. Garaian euskaraz irakurtzeko gai zirenei hizkuntza moldatu eta gramatikalki egituratua eskaini behar zitzaien, hizkuntza modernizatzeko eta estandarizatzeko saiakera batean, non Z.en esanak berdin uler zitezkeen E.H.ko edozein tokitan, euskalkiei erreparatu gabe eta hizkuntza nazional estandarizatu baten ahaleginari ekarpena eginez. Z.en euskara, beraz, EGINEN euskara-proiektuarekin bat dator.

Hala ere, Z.en baditu gipuzkoarraren adierazpen propioak, hala nola hitanoz egiteko jarrera konstantea eta gaztelarrik ekarritako berbak egokitzekoa –azken hau euskal U.aren propio–, bai eta noiz edo noiz gaztelaraz diseinatutako txistea euskarara pasatzeko jarrera ere, nabarmenena azaroak 12ko Z.K.a dela, non Dechepareren LINGUAE VASCORUM PRIMITIAE liburuko izenburuaren hitzekin, gerturatze paronomikoa egiten duen *lingua* (LINGUAE), *vasco* (VASCONUM) eta *prima* (*primicia*, PRIMITIAE) gaztelarazko berbei, espainieraz bakarrik dakien euskaldunak txistea uler dezakeela (“Euskaldunok mihiaz lengusinekin zer?” –4. biñeta–):



Honela, euskarazko U berri baten aurrean dago irakurlea, non irakurtzen ikasi duen euskara Z.K.etan ere irakurri ahal duen, eta ulertu, baina oraindik A.O. ez da gai batuaz guztiz idatzitako U.a egiteko, garaia eta hizkuntzaren egoera medio.

Planteatutako hipotesietatik eratorritakoaz gaindi, Z.en diskurtso umoristikoa aztertuz badira hainbat estilema aipatu beharrekoak, aurreko konklusio guztiak indartzen dituztela.

Metafora aipatua izan da hainbatetan, ezein Z.ek naturan topatzen dituen elementuak giza gorputzaren atal konprometituekin konparatzen dituen, irakurlearen aurre-jakintza eta pertzepzioarekin kontatuz U.-ekintza gauzatzeko. Hautaturiko unibertsoko lehen Z.K.tik antzematen da figura erretoriko hori, non zerura gora dauden bi harriak, bata bestearen alboan, emakumearen bular bi izango bailiran izendatzen dituen Z.ek, pertsonaiak “emea” deituaz, automatikoki irakurlearen buruan kontakizun isotopoa osatuz (“emea” hitza da termino konektatzailea):



© Olariaga (5. eranskina, or.1).

Programa narratibo ia guztiak dira elkarketa bidezkoak, eta horietan biraketa metaforikoa da nagusi, non topaturiko objektua ezaugarri sexual batekin konparatua den, txiste lizuna eginez. Baina bada beste figurarik: ironia.

Ironia, ohiko adierazpen-adierazi lotura birdefinitzen duen figura erretoriko bezala hartuta, anitz praktikatzen du Z.ek irakurlearekin halako elkarrizketa sortuz, laugarren paretara begiratzen duen bakoitzean. Aspektu honetan adibide nabarmena da abenduak 20ko zinta, non Z.ek irakurleari zuzenean begiratu eta galdera metatestuala egiten dion: zuhaitza “gay” ote den edo ez (4. biñeta).



© Olariaga (5. eranskina, or.68).

Portaera homoerotikoak kaleratzen hasi diren garaian, atentzioa deitzen dute gay-harrotasun manifestazio koloretsu eta biziak, hain zuzen A.O.k Gabonetako zuhaitzarekin lotzen dituenaren moduko kolore eta argiekin. Arbola, ordura arte Z ibili

den lur lautadetako elementu sinboliko tradizionala (foruak, lege zaharrak) hiritartu eta “gay” bihurtzen da. Ikuspegi erlijioso tradizionaletik, hirirako saltoan portaera sexual berria du zuhaitzak. Z.ek hau dena ez du honela enuntziatzen: aski du irakurleari begiratu eta galderaren bidez, bere buruan gogoeta bat aktibatzea. Ironiaren posibilitatea, Z.en harridura bera da: begiak borobil irekita, irakurleari begira, larritu/harrituko bailitzan galdetzen du ia zuhaitza homosexual bihurtu ote den. Ordea, irakurleak badaki Z zer-nolakoa den: bere izenetik, sexua esplizitatzen du, tabuetatik jauzi egiten du, eta ondorioz ezin dakiokel larritu zuhaitza, tradizioa, gay izatea: joko planteatzen du, eta harridura erakusten badu ere, osatzen duen diskurtsoa kontrako bidetik doa. Hirian, tradizioa gay izan daiteke: askatasuna dauka bere sexualitatea adierazteko, lehendik natura mitikoan ezin zezakeena, eta ondorioz “lur-izorragailua” dena. Ironia ez da beraz hitzen bidezko joko erretoriko moduan agertzen: posibilitate diskurtsibo oso bezala agertzen da, irakurlearen aurre-ezagupena emantzat hartzen du, eta jokaera umoristikoa aktibatu. Hortik eratortzen da orduan ironiak U.gintzan duen pisu determinantea, Z.ek barra-barra baliatua. Ikusi halaber urriak 25eko Z.K.a, non Z.ek jentilei men egiten dien (3. biñeta):



© Olariaga (5. eranskina, or.21).

Jentilak, euskal literatura mitikoan Aralarko leizeetara jo zuten izakiak Kristoren jaiotzaren ondoren (Barandiaran eta Irizar, 1985, or.137), Z.engatik aipatuak izaten dira, azaldu barik nortzuk ziren eta euskal irakurlearen kultura egintzat emanez txistea sortzeko. Jentilak, Z.en kontakizunean, “zulo erotikoa⁹⁹” sartu ziren (2. biñeta) Lurraren barruan “jo ta ke” ibiltzeko (4. biñeta). Kontakizun jatorrizkoa aldatua izaten da: Z.ek bere kontakizun propioa sortzen du, eta istorioa eraldatu, agerian utziz Kristo jaiotzearen zenean, jentilak bere eraginetik libratzearen sartu zirela leizeetan, sexu askea praktikatzeko Jainkoaren begiradatik kanpo. Azpi-diskurtsoa bakarrik ulertua izan daiteke jentilen kondaira aurretik jakinda, eta ironiarekin bat egin baldin eta jatorrizko kontakizuna aldarazia izan dela jakinda. Deduzitzen da modu berean Z.en postura Elizaren dogmekiko, non bere autorearen hitzetan, “dena zilegia” den, “sanoa delako” (3. eranskina, or.25).

99 Aurreko eguneko zintan, pertsonaiak kobazuloari “aurreko edo atzeko zuloa” deitu dio, metafora berriro eginez: lurra “emea” denez, leizea bere alua edo uzkia.

Ironia, figura erretorikoaz gaindiko posibilitate espresiboak eskaintzen ditu Z.en kasuan: irakurlearen konplizitatea eta elkarlana behar du, eta saihesten du ordura arteko zentsura saihestea. Ez da ahaztu behar ironiak kontrajartzea suposatzen duela mezuaren adierazien eta adierazpenen artean, eta ondorioz irakurle trebatu batek baino ezin dezake ulertu. Hori da hain zuzen U.an horrenbeste baliatzearen teknika, ikerketa honen hasiera-hasieratik hiztegiek euren definizioetarako aipatu zutena (1.1 epigrafean).

Halaber, ahozko literaturatik etorritako bertso eta kantak aldatzeko edo apurtzeko joerak agerian uzten du Z.ek tradizioa eraldatzeko postulatua (erreferentziak Benito Lertxundiri, “Oi Lur” bertsoa errepikatuz, adibidez). Bai eta idatzizkotik ere, Beñat Dechepareren bertsoen kasuan, non *Emazten fabore* olerkia (6. eranskina) irakurri ondoren, Donibaneko kaperauari “Sexupare” ere deitzera ausartzen den, beste behin Elizaren ordezkari bat ordura arte diskurtso publikotik at zegoen sexuaren arlora ekarritz.



© Olariaga (5. eranskina, or.71).

“Sexupare” izenaren bidetik jaso dira hainbat hitz-joko ere, pertsonaiak linguistikoki gauzatzen dituenak: “Sexupare” elkarketatik, “sexubide” ere sortzen du (5. eranskina, or.35 eta 66), eskubide adierazteko neologismo lizuna sortuz.



© Olariaga (5. eranskina, or.35).


Hitzen elkarketatik ez beste, atzizkiekin ere jolasten du Z.ek, bere neologismoen sorkuntzarako:

'-gailu' atzizkiarekin: “Emagailu”, emea edo emakumea egiteko gailua edo tresna (5. eranskina, or.12). Paronomasia ere antzematen zaio: “emagailu” zuzenean darama fonetikaren aldetik 'emagaldu' hitzera, Ama Lurrari prostituzio jarduna egotziz bere desmitifikazio ibilbidean.



© Olariaga (5. eranskina, or.12).

'Gailu' atzizkiarekin ere "izorragailu" sortzen du, euskal tradizioen sinbolo den zuhaitza 'lurra izorratzeko gailu edo trenu' dela egotziz.



© Olariaga (5. eranskina, or.14).

'-(d)egi' atzizkiarekin: "Gaurtzaindegi", orain protesi bidez sortutako jokoa -'haur' berbaren 'h hizkia 'g fonemak ordezkatzan du, hitzaren barruan 'gaur' sartuz, gizonak euren seme-alabak zaintzea 'gaurko' kontua dela adieraziz--.



© Olariaga (5. eranskina, or.63).

Amaitzeko, Z orduko garaikotasunaren diskurtso orokor oso konkretu batean txertatzen den -ezker abertzale poliedriko batena-, tarteka ere ikusiko da, aurreko Z.K.an bezala, egunkaria eskuetan, unean-uneko berriak komentatzen. Gaiak, orduko EGINi arduratzen zaizkion agendan: Konstituzio proiektua, euskal autonomia - Nafarroako auzia barne, eusko autonomia proiektuan sartzen dela eta ez dela-, presoan amnistia eta noski, emakumearen eskubideak/sexubideak ("gaurtzaindegiak" gora behera). Aspektu hauen adibide gisa abenduaren 13ko zinta, non Z.ek EGIN egunkaria eskutan egun bat lehenago Donostiako Alde Zaharreko gertakariari men egiten dion, non poliziak amnistia eta autonomiaren aldeko manifestazioa indarrez disolbatu zuen.

Komentario ironikoa, Alde Zaharrea Konstituzio Plaza deritzona dagoela, herria demokrazia eta libertatea ekarriko ei dion Espainiako lege gorena gauzatzen ari dela.



© Olariaga (5. eranskina, or.62).

Oro har, ondoriozta daiteke halaber Z bere garaiko gaztedi abertzalearen erreferente ere bihurtuko zela, ezein gaurdaino biziraun duen medio euskaldun desberdinetan pertsonaia komiko preferente gisa, EGUNKARIA eta BERRIATEN kontrazalean espazio nabarmena edukiz. Bere estetika, txiste sexualak eta euskararekin U.a garatzeko ahaleginak toki egin dute prentsa euskaldunaren umore grafiko kontsumoan, arlo euskaltzalean ezaguna eginez.

Esker onak

Ikerlan honen amaiera ezin daitezke eskerrik eman gabe bukatu.

Antton Olariaga euskal marrazkilariari, prestutasun handiz eskaini baitzen elkarrizketak egin niezazkion, bai eta atsegin handiz egin ere.

Joxerra Garzia nire irakasle ohiari, hark eman baitzidan Olariagaren kontaktua. Ikasle bezala zor diodana, berak jadanik badaki.

Nire zuzendari Eneko Lorenteri, lehen unetik proiektu hau zuzentzeko ardura bere gain hartu baitzuen, azken unera arte lagunduz.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEARI, eta partikularki Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate Sailari, urte hauetan zehar jarri dizkidan erraztasunen zein tratu adeitsuagatik.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzari eskertu nahi diot 2013an eman zidan P.R.E.D.O.C diru-laguntza. Beka hauei esker, ni bezala hainbat ikerlarik euren tesiak aurrera atera ahal izan dituzte, horrek berrikuntza eta garapen aldetik suposatzen duen aurrerakuntzarekin.

Guztiori, bihotzez, mila esker.

7. BIBLIOGRAFIA

7.1. Doktorego tesiak

AZPILICUETA, José Antonio, 2000. *La tira cómica humorística en prensa. Análisis de la evolución de una serie de 250 tiras de publicación semanal*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea

CAMINOS José María, 1993. *Transformación de la prensa en Guipúzcoa durante la transición política. La Voz de Euskadi: nacimiento y fracaso de un proyecto informativo*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea

MELÉNDEZ Natalia, 2005. *El humor gráfico en el diario "El País" durante la transición política española (1976-1978)*. Malaga: Universidad de Málaga <<http://goo.gl/w9Ys1R>> [2015/09/18]

SEGADO Francisco, 2008. *La Transición española en el humor gráfico de la prensa diaria (1974-1977)*. Madril: Universidad Complutense

7.2. Artikuluak aldizkarietan

APAOLAZA Urko, 2012. Aberri egunaren ipuina. *Argia*, apirilak 8 <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2318/aberri-egunaren-ipuina>> [2017/02/27]

CÁNDANO Graciela, 2010. Seriedad versus Risa. Dos facetas de la cultura medieval. *Revista destiempos*, (24) <<http://goo.gl/0EEJ5m>> [2013/09/03]

CASAS Juan, 2000. Bromas y veras en el Libro de Aleixandre. *Moenia*, (6), or. 277-304 <<https://goo.gl/eMmKb4>> [2013/09/03]

DEL BURGO Jaime Ignacio, 2006. Navarra: "Por todas partes me roen". Defensa de la Constitución española. *La Ilustración Liberal*, (29) <<http://goo.gl/jXBPIr>> [2016/05/05]

DIAZ NOCI Javier, 1990a. "Txistu", euskarazko lehen komiki-aldizkaria. *Jakin*, (60), or.55–64 <<http://goo.gl/zF259d>> [2015/08/17]

____ 1990b. Abdón Alaiza: un alavés artífice del primer cómic vasco. *Kultura*, (2), or.111–117

ECO Umberto, 2011. Lo cómico y la regla (obra originala 1980ean argitaratua). Biblioteca Ignoria <<https://goo.gl/eh3Xk>> [2017/02/21]

ECHAGÜE Jorge, 2012. De los vizcaínos a los arlotes. Sobre el empleo humorístico del español hablado por los vascos. *Cuadernos Cervantes* <<http://goo.gl/R4d63s>> [2015/12/31]

ENTRIALGO Mauro, 2011. Diario de un taller de humor gráfico e historieta costumbrista. *Arbor. Ciencia, Pensamiento y Cultura*, (170), or.275–283. DOI:

10.3989/arbor.2011.2extran2124

- FREUD Sigmund, 1927. El humor. Psikoanalisiari buruzko 10. Nazioarteko Kongresua <<http://psicopsi.com/El-humor>> [2017/02/18]
- GARZIA Joxerra, 1987. Zesarren andrearen gizona. Zentsura versus umorea. *Plazara* (9) <<http://andima.armiarma.eus/plaz/plaz0909.htm>> [2017/02/24]
- KOWSAR Nikahang, 2012. Being funny is not that funny: contemporary editorial cartooning in Iran. *Social Research. Politics and Comedy* (79), or.117–144 <<http://www.jstor.org/stable/23350301>> [2016/02/21]
- LÓPEZ Irene, 2008. La cuestión de la formación del profesorado de las ikastolas navarras de postguerra (1967-1983). *Ikastaria*, (16), or.351–367 <<http://goo.gl/SOAVIy>> [2015/09/21]
- LORENTE Eneko, 2015. Mirar al sesgo. El humor gráfico de Olariaga y Eguillor en la primera época del diario EGIN. Non FERNÁNDEZ Antonio (zuz.). *El humor y la ironía como armas de combate. Literatura y medios de comunicación en España (1960-2014)*. Sevilla: Renacimiento, or.530–552
- REIG Ramón, 2008. El poder del humor y el humor bajo el poder. *Revista Latina de Comunicación Social* <http://www.revistalatinacs.org/08/humor/Ramon_Reig.html> [2015/10/28]
- SÁEZ Francisco, 2014. Las tiras de prensa Norteamericanas de finales del siglo XIX y principios del siglo XX como reflejo de la sociedad. *Revista internacional de Historia de la Comunicación*, 3(1), or.20–47 <<http://goo.gl/1IBGZt>> [2015/09/28]
- SAN MARTIN Juan, 1962. Umorea euskal literaturan. *Euskera* (8), or.304-307 <<http://goo.gl/8MS2nz>> [2013/12/31]
- _____, 1987. Euskal Umorea. *Egan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarria* (1,2), or. 41-50 <<http://goo.gl/vHs3il>> [2013/12/31]
- TÁPIZ José María, 2002. El humor político en la prensa vasca durante la II República. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, (17), or.55–66 <<http://goo.gl/QEb5Pg>> [2012/01/03]
- UNSAIN José María, 1987. José Arrue, humorista político. *Arbola*, (13–14), or.123–125
- _____, 2004. El humor gráfico en la prensa de Bilbao y San Sebastián (1865- 1936). *Ondare*, (23), or.599–614 <<http://goo.gl/qS3Epe>> [2012/06/03]
- _____, eta BORRA, Carlos C., 2005. Komikiaren historia Euskadin. Hurbilpen bat (1936-2004). *Entziklopedia enblematikoa. Arte aplikatuak*. Lasarte-Oria: Etor Ostoa

7.3. Prentsa-artikuluak

- AGIRRE Lorea, 2017. Euskararen normalizazioa eta feminismoa eskutik doazen borroka bi dira. Elkarrizketa. *Hiruka*, martxoak 20, or.16–17
- COLINA Sustrai, 1998. Zakilixut: “Umorea jarrera bat dunk”. Elkarrizketa. *Argia*, uztailak 30. <<http://goo.gl/704gMZ>> [2012/03/07]
- MARÍN Maribel, 1999. Una antológica muestra la ironía de los dibujos de Antton Olariaga. Erreportajea. *El País*, martxoak 12 <<https://goo.gl/D5W7B2>> [2012/02/19]
- OLARIAGA Antton, 1978. Zakilixut Frustatu Bat Da. Elkarrizketa. *Argia*, uztailak 30 <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/795/zakilixut-frustatu-bat-da>> [2017/03/06]
- _____, 1991. Olariaga: “EGUNKARIA izan daiteke Zakilixuten berezko tokia”. Elkarrizketa. *Euskaldunon Egunkaria*. Abenduak 6, or.60
- USABIAGA Ander, 1996. Jabier Salutregi: “Egin' osorik euskaraz kaleratu arte ez da egunkari nazionala izango”. Elkarrizketa. *Argia*, azaroak 10 <<http://goo.gl/6pYWNp>> [2016/02/27]
- YOLDI José, 1998. Garzón cierra “Egin” por ser un “instrumento del entramado delictivo de ETA-KAS”. *El País*, uztailak 16 <<https://goo.gl/goWvMI>> [2017/03/06]

7.4. Monografiak

- ARISTOTLE, 2008. *The Poetics*. The Project Gutenberg <<http://goo.gl/7HORd5>> [2016/02/02]
- _____, 36 K.a. *Rhetoric* (II) <<http://gOoo.gl/wmnxxN>> [2016/02/02]
- ARMAÑANZAS Emy eta DIAZ NOCI Javier, 1996. *Periodismo y argumentación. Géneros de opinión*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- ASAMBLEA DE MUJERES DE BIZKAIA, 1977. *Euskadiko emakumeen lehenengo topaketak = Jornadas de la mujer de Euskadi = Rencontre des femmes d'Euskadi*. Bilera-aktak. Leioa: Bilboko Unibertsitatea
- AULESTIA Gorka, 1995. *Improvisational Poetry from the Basque Country*. Reno (Nevada): University of Nevada Press <<http://goo.gl/vj4Otc>> [2015/04/17]
- BARANDIARAN José Miguel eta IRIZAR'TAR Luis, 1985. Euskal Herriko alegia, ipuin eta kondairen bilduma. Donostia: Txertoa
- BAROJA Pío, 1919. *Momentum Catastrophicum*. Madril: Caro Raggio <<https://goo.gl/Gj0x4y>> [2015/09/24]
- _____, 1986. *La Caverna del humorismo* (obra originala 1919an argitaratua). Madril: Caro Raggio

- BERGER Peter L., 1998. *Soziologiarako gonbitea. Ikusmolde humanistiko bat*. Euskarazko edizioa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- _____. 1999. *Risa redentora. La dimensión cómica de la experiencia humana*. Bartzelona: Kairós
- BERGSON Henry, 1914. *The laughter* (obra originala 1899an argitaratua). New York: The MacMillan Company <<https://goo.gl/S5RV4k>> [2015/09/28]
- BLEIBERG Germán eta MARÍAS Julián, 1964. Humorismo. Non *Diccionario de Literatura Española*. Madril: Revista de Occidente, or. 399-400
- BROWN Gillian and YULE George, 1983. *Discourse analysis*. Cambridge: Cambridge University Press
- CICERO, 46 K.a. *Orator*. LOEB Classical Library. Harvard University Press <<https://goo.gl/vO3L58>> [2016/02/04]
- COCA César eta MARTÍNEZ Florencio, 1993. *Los medios de comunicación en el País Vasco*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- CONDE Luis, 2005. *El humor gráfico en España. La distorsión internacional*. Madril: Asociación de Prensa de Madrid
- DEL BURGO Jaime Ignacio, 1980. Programa Foral de Unión de Centro Democrático (1977). *Navarra en la Encrucijada*. Iruña, or. 219–222
- DE PABLO Santiago (koord.) 2016. *100 Euskal Sinbolo*. Madril: Tecnos
- DIAZ NOCI Javier, 1995. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza
- _____. 2012. Historia del periodismo vasco (1600-2010). Non BARANDIARAN Asier (zuz.). *Mediatika. Cuadernos de medios de comunicación*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, or. 1–261 <<http://goo.gl/0DqUXa>> [2015/11/25]
- ECO Umberto, 1996. *El nombre de la Rosa*. Bigarren edizioa gazteleraz. Bartzelona: Lumen
- EMAN (ikerketa taldea) 2017. *Tirabirak = Tiras que aflojan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- ENTREVERNES (taldea) 1982. *Análisis semiótico de los textos*. Itzultzaileak: Iván Almeida eta Juan Mateos. Madril: Cristiandad
- FERNÁNDEZ DE LA VEGA Celestino, 2002. *O segredo do humor*. 2. edizioa. Coruña: La Voz de Galicia
- FREUD Sigmund, 1979. *El chiste y su relación con lo inconsciente*. Lehen edizioa gazteleraz (obra originala 1905ean argitaratua). Madril: Amorrortu <<http://goo.gl/CicFJO>> [2013/04/29]

- GARZIA Joxerra, 2004. *Kurrin-kurrun vitae. Maisu baten ikarak eta ostikadak*. Zerberri. Irun: Alberdania
- GASCA Luis eta GUBERN Román, 1991. *El discurso del cómic*. Madril: Cátedra
- GONZÁLEZ Santiago, 1996. El periodismo durante la transición vasca. Non *La transición en el País Vasco y España*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, or. 203–207
- GONZÁLEZ MARCÉN José Miguel, 1981. Introducción. Non *Comix. Antología española del underground, 1970-1980*. Bartzelona: La Cúpula, or. 5–14
- GREIMAS Algirdas J., 1973. La isotopía del discurso. Non *Semántica estructural*. Gaztelerazko edizioa. Biblioteca Románica Hispánica. Madril: Gredos, or.105-155
- _____ eta COURTÉS Joseph, 1982. *Semiótica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje*. Itzultzaileak: Enrique Ballón Aguirre eta Hermis Campodónico Carrión. Madril: Gredos
- HARANBURU L., 1978. *Sabino Arana Goiri. Obras escogidas. Antología política*. Euskal Historia. Donostia
- HOBBS Thomas, 1995. *Leviathan edo Materia, forma eta boterea estatuan, elizakoan zein zibilean*. Itzultzailea: Josu Naberan (obra originala 1651ean argitaratua). Bilbo: Klasikoak
- IRAZGOITI Martin, 1985. *Europako hizkuntzak*. Donostia: Elkar
- JOUBERT Laurent, 2002. *Tratado de la risa* (obra originala 1579an argitaratua). Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría
- JULIÁ Santos, 1991. Sociedad y política. Non *Transición y democracia (1973-1985)*. Historia de España. Barzelona: Labor, or. 27–187
- LEWIS Paul, et al., 2008. The Muhammad cartoons and humor research: A collection of essays. Non *2006 Conference of the Internacional Society for Humor Studies*, Kopenhague. DOI: 10.1515/HUMOR.2008.001
- LOZANO, Jorge, et. al. (1982). *Análisis del discurso. Hacia una semiótica de la interacción textual*. Madril: Cátedra
- MAINER José Carlos eta JULIÁ Santos, 2000. *El aprendizaje de la libertad*. Madril: Alianza
- MANTEROLA Ismael, 2012. *Raemaekerseren marrazkiak. Britainiar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran = Dibujos de Raemaekers: propaganda británica en España y el País Vasco durante la I Guerra Mundial = Raemaekers' cartoons: British propaganda in Spain and the Basque Country*

- during the First World War*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- MIGNE Jacques Paul, 1885. *Patrologiæ. Cursus Completus*. Græca, bol. XXXI. Paris: Garnier Frates
- NÚÑEZ Luis, 1995. *La razón vasca*. Tafalla: Txalaparta
- OIHENART Arnaud, 1992. *L'Art Poétique Basque* (obra originala 1665ean argitaratua). Donostia: Hegats
- ORWELL George, 1945. *Animal Farm* <<http://goo.gl/Qqv35P>> [2015/03/06]
- PLATO, 1892. Philebus. Non *The Dialogues of Plato*. 3. edizioa, bol. IV. Itzulpena: B. Jowett (obra originala K.a. 369-347 urte artean argitaratua). Londres: Oxford University Press <<http://oll.libertyfund.org/titles/768>> [2016/02/05]
- _____. 2012. *The Republic*. Project Gutenberg (obra originala K.a. 380. urtean argitaratua) <<http://goo.gl/a6BVBk>> [2016/02/05]
- PORCEL Pedro, 2011. La historieta española de 1951 a 1970. *Arbor. Ciencia, Pensamiento y Cultura*, or.129–158
- POTTER Stephen, 1954. *Sense of humor*. London: Max Reinhardt
- PUJANTE David, 2003. *Manual de retórica*. Madril: Castalia
- QUINO, 1979. *Mafalda*, bol.IV Bartzelona: Lumen
- QUINTILIAN, 2011. Chapter 3. Non *Institutes of Oratory* (obra originala K.o. 95. urtean argitaratua) <<http://goo.gl/6NJehN>> [2016/02/04]
- RANCIÈRE Jaques, 1940. Sobre la división de lo sensible y las relaciones entre política y estética. Non *La división de lo sensible. Estética y política* <<http://esferapublica.org/esteticapolitica.ranciere.pdf>> [2017/02/21]
- RICHTER Juan Pablo, 1812. *Teorías estéticas*, bol. XV. Madril: Sociedad General Española de Librería
- SEGADO Francisco 2011. *Un país de chiste. Humor gráfico durante la Transición*. Madril: Rialph
- SORAZU Emeterio, 1979. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*. Donostia: Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
- TAYLOR Stephanie, 2013. *What is discourse analysis?* Londres: Bloomsbury
- TUBAU Iván, 1973. *De Tono a Perich. El chiste gráfico en la prensa española de la posguerra (1939 – 1969)*. Madril: Fundación Juan March Guadarrama
- TUÑÓN DE LARA Manuel (zuz.) 1991. *Transición y democracia (1973-1985)*. Historia de España. Bartzelona: Labor

UNSAIN José María, 1990. *Antecedentes del cómic en Euskadi (1894-1939)*. Donostia: Tarttalo

WETHERELL Margaret, et al. (ed.) 2001. *Discourse: Theory and Practice*. Londres: Sage

7.5. Bestelakoak

ARIZMENDARRIETA José María, 1982. *Peru ta Marixe*. Abestia <<http://goo.gl/FWmqfw>> [2015/10/17]

BERRIA (egunkaria) d.g. Informazioa eta ikuspuntua. *Estilo liburua* <<http://goo.gl/oWwgqW>> [2015/03/16]

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA (Secretaría General) 1977. El cristiano ante las Elecciones. *Documentos de la Conferencia Episcopal Española* <<https://goo.gl/fwS1tC>> [2017/03/27]

EUSKADIKO EZKERRA (alderdia) 1982. Estatutos Generales de Euskadiko Ezkerra - Izquierda para el Socialismo. *Revista de Derecho Político*, (15), or.205–221

EUSKALTZAINDIA, 2004. “Euskal Herria” izena. Agindua, 139. *Euskara*, XLIX. Abadiño, or.466-470 <<http://goo.gl/8f9nbx>> [2016/01/15]

EUSKO ALDERDI JELTZALEA (E.A.J.) d.g. Historia eta ideologia. www.eaj-pnv.eus. Webgunea <<http://www.eaj-pnv.eus/historia-eta-ideologia/>> [2017/03/27]

FERNANDO BUESA (fundazioa), 2015. “Bakearen aldeko eta biolentziaren aurkako biñetak (1977-2002)”. *Fernando Buesa Fundazioa*. Webgunea <<https://goo.gl/hX2853>> [2017/02/23]

ESPAÑA (Congreso) 2003. Referéndum sobre el Proyecto de Constitución. *Constitución española*. Webgunea <<http://goo.gl/1XgsCj>> [2016/03/14]

GIPUZKOA (Foru Aldundia) 1998. Antton Olariaga. *Euskara Gipuzkoan*. Webgunea <<http://goo.gl/50EdZk>> [2012/01/03]

RAEMAEEKERS Louis, 1916. Zer den. Grabatua. *Non Raemaekers: Olandi'ar margolari antzetsu erostiaren marku-ostoa*. Erakusketa-katalogoa. Londres: National Press Agency Limited, or.14 <<http://goo.gl/6mZQYn>> [2015/03/02]

ROMERA Ángel (d.g.). *Retórica. Manual de retórica y recursos estilísticos*. Online hiztegia <<http://retorica.librodenotas.com/>> [2012/08/18]

TRANSICIÓN POLÍTICA ESPAÑOLA (fundazioa) 2008. *De la Transición a la democracia en España (1975-1982)*. Power Point aurkezpena <<http://www.transicion.org/900DescubrirEntender.php>> [2017/03/02]

ERANSKINAK

ERANSKINEN AURKIBIDEA

ERANSKINA 1. EGINen agurra lehen alean (1977/09/29).....	2
ERANSKINA 2. EGINen komunikatua erredakzioan izandako grebaren ondoren (1978/12/21).....	3
ERANSKINA 3. Antton Olariagari elkarrizketa.....	4
1. Elkarrizketaren fitxa teknikoa.....	4
2. Glosarioa. Komikiaren lengoaia.....	4
Biñeta.....	4
Bokadiloa.....	4
Enkoadrea.....	5
Errotulazioa.....	5
Eszena.....	6
Karikatura.....	6
Komikia.....	7
Linea.....	7
Sekuentzia.....	7
Tira komikoa.....	7
Trazua.....	7
Txiste grafikoa.....	7
Zinta komikoa.....	8
Zuri-gunea (biñeta arteko).....	8
3. Transkribaketa.....	9
Laburdurak.....	9
B1. Zakilixuten jaiotza.....	10
B2. Imajinarioak.....	23
B3. Naturaren irudikapena.....	26
B4. Erreferenteak.....	30
ERANSKINA 4. EGIN egunkarian agertutako zenbait iritzi-testu feminista 1977an.....	32
Emakume izateko jaio.....	32
Humor machista.....	32
Todos hemos matado a María Isabel Gutiérrez.....	32
Quien bien te quiere te hará llorar.....	33
ERANSKINA 5. Ikerlaneko 'Solajaipausa' orrialdeak.....	34
ERANSKINA 6. 'Emazten fabore', Dehepareren olerkia.....	36
ERANSKINETAKO BIBLIOGRAFIA.....	38
ERANSKINETAKO IRUDIEN AURKIBIDEA.....	38

ERANSKINA 1. EGINen agurra lehen alean (1977/09/29)

AGUR,

a todos los que habéis esperado este periódico. A todos los que habéis hecho posible que la espera termine hoy. Al grupo de fundadores que arriesgó primero. Al millar de colaboradores del primero al último día. A los veintitantos mil-cuarenta partícipes que han dado sin exigir a cambio. A los casi 150 trabajadores que, de cuanto poseemos, venimos volcando en EGIN todo lo transformable en ilusión y fuerza de trabajo. A los que piensan que Euskal Herria, nuestro País Vasco – Álava, Baja Navarra, Guipúzcoa, Laburdi, Navarra, Vizcaya y Zuberoa – no solamente tienen una historia común en tantos elementos esenciales, sino también un presente que aclarar y un futuro que hacer conjuntamente, para bien de todos. Nuestro saludo, también, a cuantos piensan que EGIN debe y puede ser un instrumento para trabajar en Euskadi abriendo el camino para una nueva sociedad; a cuantos trabajadores han levantado casa y familia para vivir y trabajar entre nosotros, y a cuantos sin estar vinculados directamente a esta tierra, han enviado aportaciones económicas –de Castilla, Cataluña, Galicia, Aragón, Andalucía, Extremadura–, apoyo moral y otras colaboraciones. EGIN debe ser tan suyo como de todo el pueblo trabajador vasco.

Comunicado de los Consejos de Administración y de Fundadores de EGIN

Finalizada la huelga

Ante la huelga de un sector de la plantilla de trabajadores de EGIN, comenzada el sábado día 16 de diciembre del presente año, los Consejos de Fundadores y de Administración, manifiestan:

1.- La huelga, cuyo objetivo es la revocación del nombramiento de Mirentxu Purroy como directora del periódico y el ejercicio del derecho a veto de los cargos directivos, está al margen de la lucha que el pueblo trabajador vasco lleva para su liberación y emancipación. En efecto, en el marco de esta lucha, este pueblo se ha dado, con un increíble esfuerzo, un medio de comunicación: EGIN. El fundamento, pues, ideológico y financiero de este periódico se encuentra en la base popular de grandes sectores de Euskadi. En la organización básica que nos hemos dado, se encuentra la Asamblea de Socios Fundadores, que son accionistas que representan cada uno un millón de pesetas, aportadas por grupos de trabajo, cuadrillas, etc., y los cuentaparticipes, que, próximamente, tendrán la opción de convertirse en accionistas y de elegir un representante para la Asamblea de Socios Fundadores. Pues bien, esta Asamblea de Socios, que son, en definitiva, trabajadores de diversas categorías, que representan a muchos cientos de personas, que cargan sobre sus espaldas con muchos millones de pesetas en créditos avalados personal y solidariamente y que hace un mes, aproximadamente, habían acordado avalar de la misma forma 125.000.000, designaron el pasado sábado a Mirentxu Purroy como directora de EGIN.

2.- Quienes llevaban la huelga adelante son también, evidentemente, trabajadores. Pero es necesario especificar:

a) Es aproximadamente la tercera parte de toda la plantilla quienes la han secundado.

b) Fundamentalmente componentes de la sección de redacción de Hernani y del centro redaccional de Pamplona.

c) En el centro redaccional de Bilbao no estaban de acuerdo con ello.

Es, pues, una mínima parte de todo este conjunto de trabajadores, que de una o de otra forma estamos haciendo EGIN, quienes han hecho la huelga.

Pero —y éste es el problema, la contradicción—, esa mínima parte tiene en sus manos el poder de hacer o no hacer el periódico y el poder de hacer el periódico que más les guste, aun cuando no esté acorde con las orientaciones marcadas por la Asamblea y los Consejos representativos.

3.- Hemos utilizado en la selección del nuevo director, entre otros, los criterios de profesionalidad, capacidad, de sacar diariamente el periódico y la adecuación de la persona a los principios fundacionales emanados de la Asamblea.

Hemos visto, después de detallado análisis, que entre las posibilidades que se nos ofrecían, era precisamente Mirentxu Purroy quien mejor cumplía con estos criterios. Y así, por mayoría absoluta la designamos Directora, decisión contra la cual se han vuelto una mínima parte de todos los trabajadores que hacemos posible EGIN.

4.- Es esta misma mínima parte la que se negó a publicar la NOTA de los Consejos, ex-

pliativa de la no venta de espacios publicitarios para quienes propugnaban el SI a la Constitución y quienes, después de haberse decidido a publicarla, escribieron al pie de la misma su desacuerdo.

5.- El derecho de veto no tiene pues, en este contexto ningún sentido.

Si se tratara más bien de participación, de control de la gestión y del producto, sería hablar de otro tema muy distinto. Precisamente, para esto se constituyó, de acuerdo con los trabajadores de la plantilla de EGIN y los Fundadores, un Comisión Mixta Paritaria, que preparara un PROYECTO de funcionamiento interno, teniendo en cuenta, cuáles eran las funciones de cada uno. Y, justamente, de nuevo representantes de la sección de redacción de Hernani y del centro redaccional de Pamplona se negaron a formar parte de dicha Comisión.

Esto, no obstante, en contra de lo que el Comité de Huelga ha manifestado en uno de sus comunicados, el día 13 de diciembre se consultó con el Comité de Empresa para saber su opinión respecto al nombramiento del Director. En aquella reunión el Comité de Empresa manifestó no entrar a juzgar las posibles propuestas, considerando que esto era competencia de los Consejos. No obstante, se señalaron algunos criterios que, decían, deberían cumplirse: profesionalidad y capacidad de sacar diariamente el periódico. Más tarde, en la misma reunión preguntaron si podrían vetar a la persona designada en caso de que vieran que alguna de estas condiciones no se cumplía, a lo que se les respondió que no, haciendo además referencia a un escrito anterior de ambos Consejos y que en el mismo sentido respondía a la alternativa del Comité de Empresa para participar en la Comisión Mixta Paritaria.

6.- Será preciso, en consecuencia, para superar esta contradicción de forma clara, tomar las medidas necesarias para garantizar el periódico que todos queramos.

7.- Esta huelga, por otra parte, ha lesionado gravemente la situación económico-financiera del periódico. Y los trabajadores de la plantilla —al menos el Comité de Empresa—, eran conscientes de ella. Periódicamente estaban siendo informados y la última información con los últimos datos que se tenían, la obtuvieron el día 7 de diciembre corriente.

8.- Esta huelga ha impedido comenzar una gran CAMPAÑA de apoyo económico al periódico. Y los trabajadores de la plantilla de EGIN —al menos el Comité de Empresa— eran conscientes del tema, porque, previamente, habían sido informados el día 12 de este mes.

9.- Esta huelga ha intentado desacreditar la trayectoria profesional, intachable y probada, de Mirentxu Purroy, periodista, licenciada en Filosofía y Psicología.

Denunciamos la campaña denigratoria, que algunos sectores han llevado a propósito de esta huelga contra su persona e historial profesional.

Desgraciadamente, no teníamos en Euskadi escuelas de periodismo, al servicio de nuestro pueblo. Apenas si ha comenzado a hacerse un trabajo serio en este sentido. Para cuántos de los que en este momento trabajan en EGIN como periodistas —muchos de ellos sin título

profesional— está suponiendo nuestro periódico una auténtica escuela profesional. ¿Cómo a quienes apenas si se les ha exigido experiencia profesional, porque desgraciadamente hubo que empezar prácticamente de la nada, vienen en este momento poniendo en duda a una persona con amplia y sobrada experiencia profesional, incluso en la dirección de un periódico diario?

10.- Denunciamos las presiones inculcables que el Comité de huelga ha llevado cerca de Mirentxu Purroy, llegando a pedirle que renuncie a su nombramiento como vía única, efectiva y rápida, para la reanudación de la actividad del periódico. Y no conformes con esto, dicho Comité le chantajea: "En sus manos está, le dicen, entre otras cosas, la continuidad de EGIN y los puestos de trabajo de ciento cuarenta personas que trabajan en el mismo". (Escrito fecha 19-12-78).

11.- Esta huelga ha conseguido que nuestro periódico no haya podido hablar en este período postreferéndum, en el que tan importante hubiera sido su aportación de cara a nuestra futura articulación política vasca, después del rechazo de Euskadi a la Constitución. No ha informado de la gran represión que en este momento está desatándose en nuestro pueblo.

EN CONCLUSION. LOS CONSEJOS DE FUNDADORES Y DE ADMINISTRACION NOS REAFIRMAMOS EN LA DESIGNACION. HECHA POR LA ASAMBLEA DE FUNDADORES, DE MIRENTXU PURROY COMO DIRECTORA DE EGIN Y RATIFICAMOS LA DECISION DE LA MISMA ASAMBLEA EN EL SENTIDO DE QUE LA ELECCION DE LOS CARGOS DIRECTIVOS CORRESPONDE EXCLUSIVAMENTE A LA MISMA. MANIFESTAMOS NUESTRA VOLUNTAD DE QUE EL PERIODICO SEA EL PORTAVOZ DE LAS ASPIRACIONES DEL PUEBLO TRABAJADOR VASCO QUE HA QUERIDO DISPONER DE UN ORGANISMO DE COMUNICACION PROPIC CON SU APOYO MORAL Y SUS APORTACIONES.

Vistas las constantes trabas que se han manifestado a lo largo de la vida del periódico y que han culminado en esta huelga, haciéndonos eco de las asambleas que estos días se han celebrado, será preciso tomar las medidas necesarias que garanticen este objetivo sin ambigüedades.

Hernani, 20 de diciembre de 1978

Reunidos los Consejos de Administración y de Fundadores, hoy día 20 de diciembre comunicaron a las 8,30 de la tarde a la Asamblea de Trabajadores los siguientes acuerdos adoptados por dichos Consejos:

1.- Ratificar la decisión mayoritaria de la Asamblea de Fundadores, celebrada el 16 de los corrientes, de nombrar a Mirentxu Purroy director de EGIN.

2.- Ratificar la decisión de esta misma Asamblea de Fundadores en el sentido de que la elección de los cargos directivos correspondiera exclusivamente a la misma.

3.- Sancionar con el despido a trece trabajadores de la empresa.

ERANSKINA 3. Antton Olariagari elkarrizketa

1. Elkarrizketaren fitxa teknikoak

Data:	2015/06/14
Tokia:	Carlos Santamaría zentroa. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gipuzkoako Campusa. Elhuyar plaza, 2, Donostia.
Baliabide teknikoak:	Grabagailua. Irudi inpresioak.
Iraupena	17:00 – 18:30

2. Glosarioa. Komikiaren lengoia

Antton Olariagaren (A.O) elkarrizketa aurkeztu aurretik, glosario labur hau eskaintzen da, komikiaren lengoaiaren berezko diren zenbait terminorekin, elkarrizketan zehar agertzen horietako gehienak agertzen direlarik. Terminook elkarrizketaren corpusean agertzen direnean, asterisko batekin (*) seinalatzen dira, irakurlea glosariora etor dadin. Jarraian aurkezten dira definituko diren terminoak:

Biñeta – Enkoadrea – Errotulazioa – Eszena – Karikatura – Komikia – Linea – Sekuentzia – Tira komikoa – Trazua – Zinta komikoa – Zuri gunea

Biñeta

Biñeta, komikiaren narratiban, une jakin bat kaptatzen eta erakusten duen enkoadre* narratiboa izango litzateke. Gasca eta Gubernen hitzetan,

cada viñeta delimita una porción de espacio en el que se representa bidimensionalmente, mediante el dibujo, un espacio ficticio, en cuyo interior acontece una acción de duración variable. Como sea que la imagen es fija y la acción representada implica a veces un cierto paso de tiempo, el instante escenificado es, en realidad, un *instante durativo*.

Gasca eta Gubern, 1991, or.12

Nahiz eta biñeten sekuentzia* batekin istorio oso bat konta daitekeen, batzuetan biñeta bakar batek txiste oso bat kontatzeko balioa dauka umore grafikoan. Hortaz, batzuetan zinta komiko* esateko sinonimo modura erabiltzen da.

Bokadiloa

Bokadiloa edo globoa (ingelesez *balloon*) hitz egiten duten pertsonaien esanak biñetan txertatzeko modu grafikoa dira. Gasca eta Gubernen esanetan,

son los recipientes simbólicos o contenedores que encapsulan los diálogos de los personajes parlantes representados en la viñeta, cuya procedencia se indica mediante un rabo o delta invertido dirigido al emisor de la locución inscrita.

Gasca eta Gubern, 1991, or.279

Bokadiloaren forma normalean aldakorra da, marrazkilariaren estiloaren arabera, eta hainbat errepresentazio forma dituzte, ezein oihu egiten duen pertsonaiaren globoa edo amets egiten duenarena ez duten forma berdina. Ez da ikerketa honen intentzioa existitzen diren bokadilo guztiak katalogatu eta deskribatzea (horretarako, zitatutako Gasca eta Gubernen obraren irakurketa gomendatzen da), baina bai Z.en Z.K.etan agertzen den pentsamendu edo amets globoa (*dream balloon*), zeinaren perigrama

se diferenció, adquiriendo el contorno más vaporoso de una nube y su rabo fue eliminado o sustituido por unas pequeñas nubecillas discontinuas, que reforzaban el carácter inmaterial de la representación.

Gasca eta Gubern, 1991, or.298

Aipatu beharrekoa da bokadiloek ez dutela zertan beti testua eduki. Sarri askotan, piktogramak gordetzen dituzte – adibidez, zuhaitz enbor bat zerra batek ebakita pertsonaia lotan ari dela zehazten du –. Honela, adierazpen forma bereziak zehazten dituzte, zinten analisisian zehar aipatuko direnak agertzen diren heinean.

Enkoadrea

Edo laukiratzea. Biñetaren mugak mugarriztatzen duen esparru konpositiboa da. Argazkigintzan edo zinemagintzan, kameraren objektiboak ikusten uzten dituen esparrua izango litzateke, objektibo horren mugen barne. Laukiratzearen ondorioz, planoak sortuko dira, alegia, enkoadrean agertzen diren pertsonaien/objektuen kokapena eta proportzioaren arabera definitutako esparru bisualak. Plano motak: orokorra, osoa, amerikarra, erdi plano, lehen plano, xehetasun plano.

Errotulazioa

Gasca eta Gubernek errotulazioa komikian testuaren txertaketa edo integrazio bezala definitzen badute ere (Gasca eta Gubern, 1991, or.319), Antton Olariagak (A.O.) bere marrazketa-teknikaren pausoetako bat izendatzeko erabiltzen du terminoa, alegia, marrazkia **tintara pasatzea**, normalean errotulagailu baten edo tinta dispensatzen duen boligrafoarekin, marrazkilariaren lanabes ohiko.

Komikigintzan ohikoa denez, lehenengo marrazkia arkatzez egin ogi da, eta gero

tintara pasatzen. 1998an EUSKALDUNON EGUNKARIA periodikoaren kontrazalean, A.O.k halako elkarrizketa sortzen du bere pertsonaiarekin, non bere esku propioa marrazten duen *Rotring* tinta-dispentsadore bat eskuan duela, Zakilixut marraztuz. Modu honetan, bere lanaren ekoizpenaren ataletako bat erakusten du, errotulazio deitzen diona.



Irudia 1: Zakilixuten zinta komikoa, Olariagaren errotulazio-sistema erakusten duena.

Iturria: ©Olariaga (EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1998/06/08, kontrazala).

Eszena

Komikigintzan, eszena Gasca eta Gubernek definitutako *une narratiboa* izango litzateke, normalean biñeta* batek erakutsitakoa (Gasca eta Gubern, 1991, or.12). Eszena, tarte espazio-tenporala izango litzateke, biñeta baten bidez erakutsia.

Karikatura

Karikatura, errealitate jakin baten errepresentazio distortsionatua da, batez ere helburu umoristikoeekin. Bide honetatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2004an antolatutako *XIX. mendea karikaturetan* erakusketa ibiltarian, non karikatura zen ikerketa-objektu, hau honela definitzen zen:

Karikatura distortsioa da [...]. Horretarako baliabiderik eraginkorrenak erabiltzen ditu, batez ere irudia, baina baita testua ere, eta sarritan biak: esaldi batek, hitz bakar batek hankaz gora jar dezake erretratuaren ustezko seriotasuna... Edo/eta alderantziz. Zeren eta umorea ustekabea, paradoxan oinarritzen baita, eta karikaturak, adeitsuena nahiz iraingarriena izan, umorea du helburu.

Gipuzkoa (Foru Aldundia) 2004, or.9

Olariagak “propaganda” bezala definitzen ditu, ezein karikatura nor/zerbaiten distortsioa denez, hau bera irrigarri utzi daitekeen, distortsionatutako pertsona baten duintasuna mintzeraino.

Komikia

Komikia medio grafikoa da, biñeten* bidez istorioak kontatzeko baliagarria dena. Gasca eta Gubernen hitzetan, komikia zera da:

Medio escrito-icónico basado en la narración mediante secuencias de imágenes fijas consecutivas que pueden integrar en su seno textos literarios.

Gasca eta Gubern, 1991, or.10

Komikiaren lengoaiaren berezitasun nagusia, istorioak kontatzeko irudia eta testua bere jatorritik integratzen dituela da —Gasca eta Gubernen hitzetan, “ikonografia” eta “adierazpen literarioa” (Gasca eta Gubern, 1991, or.10)—. Aurreko zitan aipatutako irudien sekuentzia egituratuari biñeta* deritzo.

Linea

Komikiaren elaborazio-prozesuan, linea (edo trazua) errotulazioaren ondorioz sortzen den marra mota izango litzateke, marrakia definitzen duena eta marrazkilariaren estiloaren arabera forma aldagarria daukana.

Sekuentzia

Sekuentzia komiki* baten biñeten* artean sortzen den kate-egituraketa da, zeinaren bidez istorioaren narrazioa artikulatzen den. Sekuentzia, biñetak bata bestearen ondoren jarritz sortzen da, Gasca eta Gubernek dioten bezala, muntaia deritzona.

Las viñetas constituyen una representación lexipictográfica del mínimo espacio o/y tiempo significativo, que constituye la unidad de montaje de un cómic. Por tanto, es a través de su vertebración concatenada, o montaje, como se construye o progresa la narración.

Gasca eta Gubern, 1991, or.440

Tira komikoa

Edo zinta komikoa*. Tira komikoa, lerro batean muntatutako biñeten* bidez egituratzen den istoriotxo bezala definitu daiteke.

Trazia

Ikusi linea*.

Txiste grafikoa

Intentzio umoristikoz ekoiztutako marrakia edo ilustrazioa. Umore grafikoaren sinonimo modura ere erabili daiteke.

Zinta komikoa

Ikusi tira komikoa*.

Zuri-gunea (biñeta arteko)

Biñetak euskarri inpresoan muntatzen direnean, elkarren artean bereizteko utzi ohi den espazioa da zuri gunea, konbentzios elipsi tenporala adierazten duena. Zuri-gune deitzen bazaio ere, badaude hainbat modu biñetak elkarren artean desberdintzeko, batzuetan ere tarterik utzi barik, euren kontornoaz baliatuz, marrazkilariaren estilo narratiboa eta grafismoaren arabera. Aipatzekoa da Espainia mailan horren ezagun izandako Francisco Ibáñez-en *13 Rue del Percebe* orrialdea, non istoriotxo-orrialde baten ohiko muntaketa aprobetxatuz, autoreak orrialdea erditik zatituriko eraikin baten moduan planteatzen zuen, biñeta bakoitza solairu bana zelarik. Etxearen barne-abenturak ikusi zitezkeen erradiografia moduan, eta kasu honetan, biñetek solairu bakoitzeko eszena puntualak (eta komikoak) jasotzeaz gainera, elkarren arteko zuri gunea etxearen hormak eta paretak izango ziren. Ikusten den bezala, marrazkilariaren sormenaren arabera alda daitezke komikian lengoia grafikoak, kasuan kasu.



Irudia 2: '13 Rue del Percebe' seriearen lehenengo alea.

Iturria: © Francisco Ibáñez –*Tío Vivo*, lehen alea, kontrazala (<https://goo.gl/zfJqoy> [2017/03/21])–.

3. Transkribaketa

Elkarrizketaren transkribaketa ez da inoiz prozesu tekniko hutsa: aitzitik, beharrezkoa da selekzioa (Taylor, 2013, or.64). Esku-artearen dagoen kasu honetarako, esan behar da Antton Olariagak (A.O.) gipuzkeraz egiten duela, tarteka erdal espresioak¹ bere diskurtsoan txertatuz. Bere hitz-jokoen eta freskotasunaren esentzia mantentzearen, elkarrizketaren transkribaketan **mantendu egin dira euskalkiaren berezitasunak**, bai eta aipaturiko erdarakadak ere. Hala egin ezean, uste da elkarrizketa honetan agerian geratu ziren bere 'arimaren' nortasun hori galdu egingo zela, Zakilixut pertsonaia ulertzeko lagungarri. Ikerlan honekin batera doan audio C.D.a grabatu zen, A.O.ren esan literalekin.

Laburdurak

Transkribaketan ondoko laburdurak baliatzen dira, corpusaren idazketa arintzearen.

- A.O.** Antton Olariaga.
- A.C.** Aitor Castañeda (ikerlaria, elkarrizketatzailea).
- E.K.N.** Eusko Kontseilu Nagusia (1977ko euskal organo politikoa).
- U.** Umorea.
- U.G.** Umore grafikoa.
- Z.** Zakilixut.

¹ Gogoratu San Martinen premisa, non adierazi bezala, gaztelerara pasatzeko joera duen euskal txistegileak (1.2.3 epigrafea).

B1². Zakilixuten jaiotza

A.C. Nola jaio zen Zakilixut? (Z.)?

A.O. Halako esperientzia izan nuen irudigintzarekin. Bata, momentu printzipalena: egunkari berri bat azaldu zen [EGIN]. Nik karrera bukatu berria neukan, Arte Ederrak, Bilbon. Ordura arte, *Argian* kolaboratzen nuen. Jada *Argian* hasi nintzen kolaboratzen, Valentzian ikasle nintzela: bertatik bidaltzen nizkien gauzak. Eta nire harridurarako, gustatu zitzairen eta argitaratzeko baiezkoa eman. Hura bai poza! *A distancia* gainera! Eta orduan, Bilbon bukatu nuen Valentzian hasitako Arte Ederretako karrera. Eta bertan, *Argiako* batek esan zidan: “Hi, proiektu bat hasi gintuk, hemen daukagu materiala hasteko. Parte hartu nahi *dek?*”. Ni... Txoratzen nengoen!

Ordura arte, nik Valentzian eguneroko batean lana egin nuen, kolaboratzaile bezala, kanpotik. Bidaltzen nituen LAS PROVINCIASERA, erdaraz, ilustrazioak, eguneroko kontuak, eta abar. Eta orduan eskaini zitzaidan hemen lan egitea. Nirekiko nioen: *'Hara, astro guztiek konjuntzio izugarria izan ditek!'*³. Gainera, karrera Bilbon bukatu eta Donostiara etortzeko gogoia nuen, lan bila.

Bigarren osagaia: aukera ematen zidatela euskaraz lan egiteko. Gainera, egunkariaren zuzendaria Mariano Ferrer izango da, nik jada irratitik ezagutzen nuena. Oraindik definitu gabe zegoen nire lana. Baina jakin, banekien komikiekin* lotuta egongo zela, zeren eta garai hartan jada txiste grafikoak* egiten nituen *Zeruko Argian* –orduan, “*Zeruko*” *Argia* zen–. Bai eta *Anaitasunan* Bilbon.

Eta hirugarren osagaia, hori dena egunero [argitaratzea]. Ez astero, ez hilero. Ez: egunero! Eta orduan pixka bat galduta sentitzen zara. Esaten duzu: “*ez dakit zer aterako den hemen!*” eta azkenik, “*tira, ya que hutsunea betea dagoen, segi...*”. Orduan, desafio hitza izango litzateke, osagai moduan, denboraren aldetik; maiztasuna, egunerokoa izatea... Eta gero, periodiko baten barruan lan egitea. Nik lan egin nuen beti kanpotik. Orain, bertara joango nintzen, bertan lan egingo nuen, eta ez bakarrik umore (U.) hori⁴, baizik eta alde grafikoa ere egingo nuen, beste terreno batean. Adibidez, esan ahal zidaten: “mapa bat behar da”. Orduan ez zegoen ez *Google*, ez fusilatzeke *Atlasik*; beraz, informazio zehatzekin, alde grafikoa ere zaindu behar nuen periodikoaren barruan.

2 Galderen blokeak (B), lau orotara: B1, B2, B3 eta B4.

3 Olariagak etengabe botatzen ditu bere buruarekiko arrazoimenak. 'Auto-gogoeta' guztiak kakotx artean jarri dira, italiko. Beste batzuen aipuak badira, letra normalean agertzen dira.

4 Gerora egingo zuen umore grafikoari buruz ari da.

Eta osagai horiekin, nire buruari galdetu nion: *'Beno, eta hemendik hilabete batera zer? Bada, ez dakit zer gertatuko den'*. Ni hasi, hasi nintzen. Hori da Tourra bezala: lekua ezagutzen duzu, ekipo ona duzu inguruan, mendiak ezagutzen dituzu gutxi-gora-behera. Baina igual bidea ez dago zure esku, istripuak eta zuloak ez daude zure esku... Esan nahi dut, buruan baduzu eskema bat, non eta eskema edo modelo horrekin funtzionatzeko konfiantza baduzun zure buruan. Nere ustez, bi gupil baliatu behar dituzu: bata, konfiantza zugan, eta beste aldetik ere... Egoskorra ez izatea. Darwinismoa! Iraun, biziraun. Eta honela, nire ustez irauteko egunero, obsesionatu gabe, gaur biharkoa, eta bihar etzikoa. Hemendik bi astera, nik ez dakit zer gertatuko den, eta ez nau kezkatzen ere! Eta *claro*, entsalada guzti horrekin, osagai guzti horiekin, eskaini zidaten gauza konkretu bat: “Begira, *Solasjaipausa* izeneko orrialde bat dugu, denbora-pasak. Zuk izango duzu hemen tokia komikia* egiteko, nahi duzun formatuan. Gainera, bi kolaboratzaile gehiago izango dituzu, zure *kompintxeak*: Jon Zabaleta eta Eguillor”. Jon Zabaleta jada ezagutzen nuen aurretik, Bilbon ere ezagutu nuen Eguillorren lana. Orrialde berean pisukide izatea horrelako marrazkilariak? *¡Esto es una maravilla!* Eta nik, orrialde hori ordenatu eta diseinatu beharko nuen.

'Eta zer egin behar da orri horretan? Igual, bada... Betiko gurutzegramak? Ez, baina umoristikoa ere egin leike...'. Eta orduan, derrepentean, osagai moduan bezala, Lertxundik egiten zuen *Juana Bixentaren* antzeko zutabetxoa agertu zen, klabe umoristikoan. Eta derrepentean ikusten nuen orrialde hori, analgesiko, aseptiko izan beharrean, indar izugarritzko puntu bat zela⁵. Bakoitza bere terrenoan zebilen, eta orduan beldurra, bertigo txiki bat ere sentitzen duzu, *'hauek gustura geratuko al dira orriari emango diodan antolakuntzarekin?'*.

Burua gehiegi hautsi gabe, gauza estandar batekin hasi nintzen: bakoitzari, *tras!-tras!-tras!*⁶ alde grafikoa bloke batean; gero, hitzak eta denbora-pasak, beste batean. Eta, ikusi: joko bat, nik asmatu-koa, *Silaba-seriea* deitzen zena. Azeri forma bat⁷ ematen nion, eta hitz baten bukaerako silaba zen aurrekoaren hasiera, kate bat osatuz. Eta orduan azeri baten forma marrazten zen. Marrazten nion isatsa azeriari... Joko tipikoa, baina euskaraz. Eta orrialde osoa! Juan Carlos Eguillorren orrialdea ez ezik, dena euskaraz zihoan.

5 Hemen ere Olariagak justifikatzen du ikerketaren hastapenetan azaldu dudana, alegia, *Solasjaipausak* indar handia hartu zuela EGINEN barruan.

6 Eskuarekin zatitzeko keinua egiten du.

7 Behatzekin marrazki baten forma egiten du airean.

Gero, aukera izan nuen ere egunkariko 'sukaldea' ezagutzeko. Bertara joaten zinen, eta hori interesatzen zitzaidan, ikustea nola zorutzen ziren lanean! Eta tira, hori da sarrera edo atarikoak: nola lurreratzen *deten* ni halako proiektu batera.

Gero, garaia. 77a: Preautonomikoa! Egun, txinera da hori! Eta Preautonomikoaren buru... Rubial⁸! Siglekin hasi, eta lau folio betetzen zenituen letra-zopa horrekin⁹.

Arlo zientifikotik, Joantxo Etxebarria eta guzti horiek, zientzia handiagotzen ibili direnak, hara joaten ziren eta beren gauzak esaten zituzten. Hizkuntza aldetik, bada Kintana, eta gero Jabier Mendiguren... Hantxe zebiltzan. Hura dosi baten modukoa zen, alde horretatik. Eta gero, guzti hori pasatzen da zure inkontzientera, eta gauzatzen da komikian* ere, horrelako inkontziente horiek, nire ustez ateratzen direnak... Ematen du zuk zeuk asmatzen dituzula, baina gorde dituzu aspaldidanik, eta gero derrepentean agertzen dira, inkontzienteki. Baina, elikadura hori, izan zen... Determinantea!

Baina nire ustez, hor gertatu zena, sektore askotan gertatu zen garai hartan. Eta niri ere hanka sartzeko beldurra kendu zitzaidan, metodo zientifikoa hori da eta: hanka sartu, zuzendu, beste bat egin. Momentu ona zen hura probak egiteko, eta nik esperimentu horiek alde grafikotik egin nituen. Suizidio bat izan zen! Esperientzia grafikorik banuen, Arte Ederretan, eta beste medioetan. Orduan, bide horretatik, esan nuen: '*nik gauza propio bat egingo dut, eta igual hanka sartuko dut*'. "Eta zer egin behar duzu zuk, aparte diseinatu orrialde osoa, zuria izango den txoko horretan?", hori galdetu zidaten gero. Eta hurrengo pausoa izango zen nire ekarpena diseinuan, aparte, orrialde horrena, edo mapa bat egin behar dela, edo karikaturak* egin behar direla... Orduan, bi aukera nituen: txiste soltea egin, editorial moduan, eguneroko dinamikan eta albisteekin lotutakoak, edo *pelmada* eman eta pertsonaia sortu. Eta azken hori erakargarriago iruditu zitzaidan, zeren eta *Anaitasunan* jada *Kaleko* pertsonaia sortu nuen. Eta esan nuen: '*Egingo banu zerbait, horren antzekoa, kaletik ibiltzen dena edo...?*'. Eta derrepentean esan nuen: '*Gure gizartean, bada gai bat madarikatua dena: *sexua**'. Eta ez dakit zergatik! Azkenean haragi-puskak dira, zer arraio! Beno, *sexua* zerbait gehiago ere bada, badakigu...

8 Ramón Rubial, garaiko P.S.E / P.S.O.E.ko lehendakari ohia, autonomia estatutua lortu eta prestatu behar zuen Euzko Kontseilu Nagusiko (E.K.N) presidente izan zena. Preautonomikoa, Estatu zentralarekin adostu beharreko autonomia proiektua izango da, nahiz eta Olariagak E.K.N.rekin nahastu duen.

9 Demokrazia Espainiara heltzen ari dela, hainbat plataforma, gizarte mugimendu eta alderdi politiko kalera irteten dira, bakoitza bere errebindikazio propioekin.



Irudia 3: Kalekoren lehen zinta.

Iturria: ©Olariaga (*Anaitasuna*, 1976/01/15, or.26).

A.C. **Tira, edo beharko luke... [barreak].**

A.O. Bai, bada, bada. Baina beno, sentimenduak ere haragi-puskak dira. Baina tira, esan nahi dut: desafioa izan zela pertsonaia nola eraiki. Eta orduan, galdera da nolako pertsonaia sortu... Alde grafikotik, izan behar du oso sinplea. Horretaz kontziente nintzen: aldizkari batek beldur pixka bat ematen dizu, zeren eta gorde eta igual hurrengo urtean berriro irakurri dezakezu. Egunkarian ez: egun batean amaitzen da, gehienez hurrengo egunera arte, eta gehiagorik ez. Hori da bere destinoa. Paperaren kalitatea kaxkarra da oso, ez da koloretan, zuri-beltzean baizik (orduan behintzat). Eta orduan, esaten nuen: *'Beno, pertsonaia kondizio hauetan badakit nola egin, araudia badakit zein den; behar dut produktu efimero bat'*. Nik hori jarriko nioke *distintivo* bezala: jogurtak baino gutxiago irauko du, eta gero, beti esan dut: izugarrizko suertea izango duzu irakurlearen begi-aurrean sei segundo irauten baditu zure produktuak. Eta begira: gero zerbaitek atentzioa deitzen badio, igual hamabi, hoge... Orduan, halako hiru-hankakoa zen pertsonaia: hasieran, gogoratzen dut egin nahi nuela euskaraz, alde grafikotik U.a egin nahi nuen, eta sexu-kontuak garatuz. Hirukote horrekin. Ez nekien norainoko joko emango zuen. Agian nazka-nazka amaitzen nuen handik bi astetara. Beste zerbaite bilatuko diogu bestela, ez dakit, igual paretak pintatzen *graffitero*¹⁰ bihurtuko dugu... Edo auskalo zer! Eta gero, batez ere, sexuaren *rolloa*, tratatzen dela oso gutxitan, eta nik uste dut liburuetan edo bazegoela materiala.

Eta gero, *hombre*... Barre egitea, da jendearekin, baina ez jendeaz. Nik hori errespetatzen saiatu naiz. Konplizitatea bilatuz, elkarrekin barre egiteko, baina... Zerbaite buruz, gai bati buruz, pertsonaia konkretu bati buruz, lotsagabeki ere barre egin dezakegu bera lotsabakoa baldin bada.

¹⁰ Izatez, Olariagak garai hartan sortu zuen *Hormasprayko* pertsonaia, kaletik pintada aldarrikatzaileak egiten zebilena, *Zeruko Argiarako*.

Gakoa, nola barre egin.

Orduan, hiru hanka horietan, ikusten nuen tradizioak, U.an, gure euskararen ezagutzen ez ditugun U.-formak daudela, txisteak, ateraldiak, solasaldietan dagoen U eskatologikoa, tradizioan sartuta, eta ez dugu ezagutzen hemendik dagoen materiala! Hartzen duzu, adibidez, *Peru ta Marixe*¹¹. Oso ipuin zaharra dela dirudi, baina hor azpian dagoen jokoak igual posible egiten du gaur egungo bikote baten historia kontatzea. Gero irakurtzen duzu Juanito San Martinek¹² kontatzen dituen gauzak Eibarren, eta esaten duzu... *Buah!* Eta nik guzti hori pixkanaka elikatzen dut, eta batera sartu, eta ikusten dituzu benetako *marabillak*. Eta gero jendeak laguntzen dizu: 'hi, ikusi al duk hau? Entzun al duk beste hau?'. Eta nik beti esaten dut euskaraz ezagutzen ez dugun material pila dagoela. Igual hortik entzuten dugunean: '*gure hizkuntza pobrea da*'... Bueno! Bidaiatu ezak pixka bat, eta ireki belarria. Zer badago jendea, adinekoa, U.-espresioak dituen... *Claro!* Lokalismoak dira¹³, tokian tokikoak, baina esan nahi dut, materiala badugula. Zer gertatzen da? Alper hutsak garela.

Beno, eta alde horretatik ikusi nuen terrenoa gero eta aberatsagoa zela, eta sekulan ez zela bukatuko, ni ez banintzen aspertzen behintzat! Eta hori aplikatu, sexu kontura adibidez, egunerokotara. Eta horretarako abiapuntua izan zen, hain justu harrigarriena niretzat, zeren eta hasi nintzen erabiliz, *a tope*, 'erotismo' hitza, eta gero hori naturarekin lotu. Eta ematen zuen baserritarren kontua zela: natura, lurra, ura... Eta azkenean, badirudi ezjakin baten *erreflexioa* dela naturaren aurrean, hiri bateko eskemak aplikatuz. Azken finean, hori da ezjakintasunak egiten duena: erakustea ditugun eskemak zein desegokiak diren. Eta horrek U.a du distortsio bat

11 *Marixe'k Peru bialdu kanpora ta agure pilua etxera inguratuta dantzan ziarduan. Ango soñua, angu kazkañeta-otsa, angu ajui ta artakiak zer ziran...! Peru ar baiña antxiñako azeri zaña zan eta Marixe'k kanpuan zula uste ebanaren, antxe albuhan zaragian sartuta eguan.*

Marixe'k dantzan ziarduan eta auxe kantetan eban:

*Peru gurie Londres'en,
gu hemen dantzatzen,
baleki zelan gabiltzen...*

Urten zan Peru zaragitiik eta egundo iñok astindu ba-euzan, astindu euzan. Laster uxatu euzan etxe-aldetik.

(Arizmendarrieta, 1982)

12 Ikerketa honetan aipatu den Juan San Martin euskalgilea.

13 Juan San Martinek berak egiaztatzen du lokalismoen fenomenoak ikerketa honetara ekarri diren bere obratan, zeinetan Plazentzia - Eibar aldeko txisteak gailentzen dituen (San Martin, 1987, or.43):

Baina, Plazentzia – Eibar zer moduz? A! Han bertan, adinekoei adi. Koloreak? Ortzadarrak baino gehiago. Beltzetik nahi duzula? Ba, hartu beltzetik:

- Gauza bat nahi nuke jakin.

- Zer?

- Non hil behar naizen.

- Zertarako?

- Haraxe ez joateko.

sortzen duelako. Eta hori posible da, *konportamendu contradictorio* hori: eskema oker bat aplikatu, situazio berri bati. Edo berandu aplikatu, edo ezberdin. Edo alderantziz. Orduan lortzen da komikotasuna. *Hombre!* Ariketa oso bat da buruarekin egiten duzuna. Igual batzuetan pirueta zaila egiten duzu. Igual ez da *inmediatoa* ulertzeko. Igual batzuetan bai, beste batzuetan ez. Hasieran, nik ikusten nuen oso-oso ondo... Ni oso pozik nengoen, nire *inseguritate* guztiarekin ere. Pozik, ulertzen zelako. Pozik aguantatzen duzulako egun batean, eta bestean, eta bestean. Ez zidaten *bronkarik* botatzen... Orduan, hasiera izan zen konfiantza hartzeko, eta nire ustez, pertsonaiak berak bidea egin duela, berez, baina *personajea* izan delako eta nik berarekin elkarrizketa sortu dudalako. Jada, bere bizitza propioa duela kontsideratzen dut. '*Hombre! Baina ez ezazu esan ez duzula harekin zer ikusirik!*'. Bai! Izango dugu, baina berak esaten dituenak, nik ez ditut horrela ikusten. Beste batzuetan bai, ikusten ditut berak esaten duen moduan, eta *ya está*. *Pues* igual, Grezian¹⁴ zerbait pasa bada, gaur egun, posible da pertsonaiak eta biok ados egotea. Ni igual *ridículo* sentitzen naiz bere aurrean, agian hark gehiago daki nik baino, zeren eta berak askotan hitz egiten du liburuez. Baina hasierako epokari buruz ari garenez, nire ustez *carneta*, ezaugarri *identitarioa* da *inseguritate* horrek ematen duen lotsak, lotsagabe izateko beharra... '*Beno, ba egin dezagun bidea!*'.

Tira, oso luzea izan da hasiera hau, baina edukiaren aldetik hori izan zen. Zer gertatu izan den gero? *Kriston* laguntza izan duela edukiaren aldetik euskarazko ekipoak. Nire ziurtasunik ezak euskararen aldetik: '*hau nola esan leike?*'; zeren euskararen problema, lehen esan duguna, lokalismoena, eta euskaraz nola esan hemen eta han... Eta nire ustez beste sektore askotan gertatzen zen hori ere. Nik zerbait idazten baldin badut, ulertu behar da, Donibane-Garazin, eta Pasaian... *Claro*, arriskua dago nahiko neutro, aseptiko, gatzik gabekoa egitea. Zerbait jarri behar baduzu, aldian behin, bada, egokitu.

Euskararen indarra, guk etxean genuenetik ikusten nuen nik. Eta hasieran

14 Hain justu, elkarrizketa hau egin zen aurreko egunean (9an), zinta hau argitaratu berria zuen, Greziako austeritatearen kontrako erreferenduma zela eta (BERRIAREN kontrazala):



© Olariaga.

ere saiatzen zen hori egiten, ia nola egiten da, eta gero esaldiak osatuz, indar gehiago daukalako, adibidez hikak... Nire ustez, *incluso* goxoago, momentu horretan indar gehiago dauka. Hizkuntza aldetik ekipo hori zegoen, eta babestua sentitu nintzen alde horretatik. Azken finean, ikusten nuen nire mahai bat bakana, aparte, marrazkiak eta egiteko; banekien nora joan igerilekuan helduleku bat edukitzeko, euskararen aldetik eta abar. Banuen informazio gaindosia. Egunkari batek denetatik ematen dizu. *Claro!* Garai hartan idazteko makina besterik ez zegoen. Hura zen *impresionantea*. Niretzako inpakturik handiena izan zen isiltasuna erredakzioetara iritsi zenean. Jada ez zegoen makinarik, ez zegoen *Olivettirik*, orain *Macak* zeuden. Orduan, bide horretan ere, pixka bat pelikuletako erredakzioen giroa zen. Gero jada erabaki nuen kanpotik lan egitea. Baina erredakzioan nengoen bitartean, nire ustez, azken momentuko gai baten lehentasuna daukazu, eta igual batzuetan komeni zen, gaia polita bazen, horri buruz zerbait egitea. Zeren eta batzuetan ere, ez da dena sexuari buruz izan behar. *Claro*, erreferentea zen hori, baina... Tira, irudi aldetik nik garbi ikusi nuen bikote bat ohean egon zitekeela, baina azpiegitura *finantzieroei* buruz hizketan. Larrutan daude? *Pues* halakoa da momentua.

Insistitzen da sexu *explizitoan*, giro goxoa zen, exotikoa. Eta nik maneiatu ditut egoera horiek modu naturalean. Eta horrek ez du esan nahi gaia sexuala izango denik! Baizik eta nik egun propio egiten dut kontrakoa: *deskontestualizatu* irudia eta ekintza. Eta batek esaten du: '*Ah*, claro, es que *aritu*ko *dira* ez dakit zertan...'. Ez, ez, ez. Zer pentsatzen duzu? Preserbatiboen kontu hori amaitu da jada *bastante!* Biluzik harrapatu dituzu eta kito.

Eta askotan ere galdetzen didate, 'eta hire pertsonaiak, zer lanbide du?', eta nik beti esaten dut, eta egia da: 'nik sekulan ez dut lanean harrapatu [barreak], ni baino hobeto bizi da!'. Baina *claro*, hori hasierarako *impensablea* zen!

Hasierako bataila zen bizirautea. Nola sortu, koherentzia minimo bat pertsonaiari igual gaineratik eman... Orduan, halako nortasun bat lortzeko, igual errepikakorra ere izan behar zara, obsesiboa... '*honek beti buruan sexua besterik etzeukak!*'... Beno, igual horrek ematen dit aukera gauza atrebituagoak esateko.



© Olariaga (5. eranskina, or.13)

Hasierako desafioak horiek ziren: gauzak egin gabe zeudela gizartean, baina bai eta nire buruan ere! Iguale-iguale-iguale... Eta alde horretatik saiatu nintzen gizartean gertatzen zena, *pues* eramaten dut iguale *tangentzialki* edo.

Eta erreferentziak, zer hitz erabiltzen zen, zer euskara mota erabiltzen zen, gaur egun espantua sortzen du, iguale *incluso enkorsetatu* dalako oraindik ere. *Kriston* grazia egiten zidan aditzak, 'duk-dun'... 'gidoi-ene'¹⁵. Eta sakondu nituen bokadiloetan*. Eta gero, erabili genuen jada 'dunk'¹⁶. Kendu gidoia eta, 'duk' ordeztu, 'duk' edo 'dun'. Zer jarri? Bientzat? Beno, jeneralean lanean, neska-mutilentzat, 'dunk' jarri eta listo. Problema tekniko txiki bat. Baina nire ustez, *interlocutoreak* interpretazioa zeini egiten zaion, niretzat *triunfo bat* izan zen, aurkikuntza bat. Nik gustura hartu nuen. Eta oso goiz hasi zitzaidan halako kezka, zeren askotan nik, hizkuntzaren *musikalitateari* so, belarria jarrita, nire etxean edo, emakumeei esaten zitzaizkien gauzak eta, indar bat zeukaten, eta hor, gizartean ere badago, bada mutilak neskari hika egiten diola, baina neskak mutilari ez, edo atzerriko ez dakit zeini bai, baina besteari ez... Eta halako lio bat zegoen. Baina oso gozosa zen niretzat belarrian zer erregistro musikal zeukan 'duk-dun-dunk' horrek, eta nik hori gorde nahi nuen.

A.C. Eta Z.en itxurari dagokionez, badaugu artikulu bat, duela gutxi atera dena, hala dioena: “Zakilixut es un personaje representado por la figura ridícula de un monigote cuyo esquema facial exhibe ostentosamente los motivos gráficos que le dan nombre.” (Lorente, 2015, or.543). Z.en aurpegiak halako zakil baten itsura ote dauka, edo inpresio soila ote?

A.O. Bada, izango da inkontzienteki sortu den zerbait. Baina nire ustez, hasierakoak sudur handiagoa zeukala, bai, baina begiak txikiagoak zituen,

15 Garaiko euskararen erabilera ez sexista praktikatzeko hasia zen. EGINEK apustu sendoa egiten du ere kolektibo feministen alde, ezkerreko espektroko kokatzen delarik.

Dirigido por Mariano Ferrer, el nuevo diario guipuzcoano intenta captar especialmente a un público joven, situado próximo a la órbita de la izquierda abertzale, y deja bien claro que dedicará grandes espacios a informar sobre asuntos tradicionalmente abandonados por otros medios: mujer, ecología, marginalidad, etc.

Coca eta Martínez, 1993, or.69

16 Forma honen erabileraren eredu barregarri bezain erabilgarria da Sustrai Colina kazetariak Zakilixuti berri egiten dion fikziozko elkarrizketa (Colina, 1998).

eta bere historian eskuak adierazpen grafiko *potenteagoa* egitean estiloz aldaketak egin ditut, eta egin ditut marrazki eskematikoagoak. Zeren eta azkenean, ni neu ere dibertitu egin behar naiz alde grafikotik, eta hori oso inportantea da. Eta, *igual que* paleta baduzun kolore desberdinekin funtzionatzeko, eta horiekin agian aspertu egiten zara, edo saiatzen zaren beste gama batzuk bilatzen, trazuekin* eta linearekin ere sartzten zara. Eta hori egunero egiteak, nire ustez, zeinu *identitarioak* edo baditu. Eta hori eskematikoki ere egin *leike*: bi globo, eta sudur *potente* bat eta gero kokotxa. Ondoren, bi globo horiekin, sudurraren kurba luzatuarekin eta kokotxaren kurba horrekin definiturik geratuko litzateke pertsonaiaren perfila. Eta hori, baten batek uste baldin badu barrabilak edo zakila direla, eskubide osoa du. Baina orduan, kokotxa zer da...?

A.C. **Barrabilak, agian? Sudur/zakil luze horri lotzen zaizkionak...**

A.O. Beno, eta orduan begiak zer dira? Barrabilak ere bai? Beno, seguru aski, askori bururatu zaie izan daitekeela karikatura *sexografikoa* (hitza asmatu dut). Karikatura* *sexografikoa* izan *leike*? Bueno, *pues ya está*.

A.C. **Ezagutzen al duzu pertsonaia hau?**



© Óscar Nebreda.

[El Jueves aldizkariko Cojonciano doktorearen inprimatutako irudi hau erakusten zaio. Arretaz begiratzen du].

A.O. Estiloak eta, gogorarazten dit *El Jueves* edo halako zerbait...

A.C. **Garaian jaiotako Profesor Cojonciano da.**

A.O. Ah, *Cojonciano*! Bai, estilo aldetik... Óscarrena¹⁷! Nik garai horretan *El Jueves*en lan egingo banu... Nik halako gauzak saihestu egin ditut [titiak behatzarekin seinalatzen ditu]. Gauza hauek *explizitoegiak* iruditzen zaizkit. Nik nahi nuen, *igual* hau zure buruan sortzea, baina hitzen bidez. Baina notario lana egin gabe. Beti izan dut halako sexu esplizitua marraztearen kontrako jarrera... Nahiago dut misterio pixka bat hor uztea. *Igual*, nahiago duzu segundo bat lehenago moztu eszena*, pasa eta handik hiru segundotara errekuperatu¹⁸. Tartean, denok dakigu zer gertatu den.

17 Óscar Nebreda, *Profesor Cojonciano*ren marrazkilaria, *El Papus* aldizkariaren sortzailea eta hainbat urtetan *El Jueves*eko zuzendari. Pertsonaia

18 Pentsamendu zinematografikoa erakusten du Olariagak. Modu horretan azaltzen du gero biñeten narratologiarekin sortzen den elipsi efektua, zineman ere egiten dena.

Niretzat, eredugarri izan zen *Hermano Lobo* adibidez, nire garaian. Nik ezagutu nituen Valentzian *Hermano Lobokoak*. Beno, *La Codorniz* eta horiek gutxiago gustatzen zitzaizkidan. Kontu politikoak jorratzen zituzten, eta gero zegoen *El Jueves* ere... *Claro, El Papis* oso *potentea* zen bere garaian. Eta da beti Mediterraneo inguruko estilo hori. Da estilo pixka bat *desmadratuagoa*. Eta nire ustez, badaukana atzean talde-lana, nabaritzen da hala dela, eta hori, *Charlie Ebdoren* erredakzioa ikusten duzunean, eta bilerak, eta egunero ikusten duzu gauzak eztabaidatzeko, eta ez dakit zer... Hor, ikusten da halako fenomeno (edozein lanetan bezala), *brainstorming* bat edo halakoa sortzen dela, kutsakorra dena: zuk *A* esaten duzu, nik *A* ber bi... Mus partida da. Eta sortzen dira eta egiten dira lanak. Nire ustez aldizkari asko ez lirakekeela izango izan direna, talde lanik egon ez balitz.

Eta askotan hori da funtzionatzen duena *revista* batzuetan. Baina nire ustez, linea bada satirikoa, eta satirikoa sexura ere eramanez, non eta gordinkeria ez den bakarrik sexuala baizik eta jada jendearen tratamendua, eta gogorragoa da. Da barre egitea osagai guztiekin: *irreverentea* behar du izan, baloreak hankaz gora jarri behar ditu... Ezaugarri propioak baditu, satirikoak¹⁹. Eta *incluso* beti daude sarkasmoak U bezala; kantuan esaten da: *no sarcasm in the classroom*²⁰, 'sarkasmorik ez ikasgelan', hori dela ikasle batentzat min gehien ematen diona, irakaslearen sarkasmoa: besteen aurrean *ridikuloan* utzi, baina modu finean, zanpatuz barruraino. Sarkasmoa ere oso arma *peligrosoa* da, eta U klasikoa da, oso ondo ikusten da kantu horretan²¹, U.ari aplikatu ahal dana. Orduan, holako gauzak azaltzen dira igual lan-taldean funtzionatuz. Eta periodiko baten barruan, hasieran, ni aparte nengoen, mahaiari, eta jendea etortzen zen ikustera nik nola marrazten nuen, baina ez zegoen interferentzia ez grafikorik, ez estilistikorik. Batek igual esan zezakeen “zergatik ez duk egiten ez dakit zer, egin ezak holako zerbait”... Ez zegoen *propuesta* dialektikorik...

19 Hitz hauek zuzenean eramaten dute Jean Paul Richterren esanetara:

El satírico ordinario puede en sus obras o en sus críticas apoderarse de algunos errores o verdades faltas de gusto, y atarlas sobre su picota [...], pero el humorista prefiere proteger la tontería individual, y dirigirse por el contrario contra el verdugo y todos los espectadores, porque no es la tontería de tal o cual [...], sino la simpleza humana, es decir, la universal.

Richter, 1812, or.139

Richterren esanak hartuaz, Olariaga umorista da “satiriko trauskila” baino. Hark aipatzen duen “umore mediterranea”, satirikotik gertuago ibiliko litzateke umorismotik baino.


20 *Pink Floyd* taldearen *Another brick in the wall* abestiari men egiten dio (1979). Benetako letra *no dark sarcasm in the classroom* da, sarkasmo beltza aipatuz Olariagaren sarkasmo generikoa baino.

21 *We don't need no education / We don't need no thought control / No dark sarcasm in the classroom / Teachers leave them kids alone / Hey! teacher! leave us kids alone! / All in all you're just a another brick in the wall.*

A.C. Z. sortzeko, garaian zegoen marrazkigintzaren arloan, eredu jakinik hartu al zenuen?

AO. Orduan, aipatu ditudan albistegi horiek zeuden U.a egiteko, baina aldizkariak ziren.

Karikatura*, bestalde, ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Egin izan dut, bai, baina nire ustez, zailtasun teknikoak ere banituen karikaturak egiteko. Gero, denborarekin, erabaki dut ezta saiatzea ere, zeren eta iruditen zait karikatura* propaganda egitea dela, nahiz eta gaizki eta *ridikuloan* utzi. Beno, salbuespen batzuk bai, egongo ziren, gai berezietan eta, baina *en general*, ez zait gustatzen karikatura* egitea.



Irudia 4: Olariagaren karikatura batzuk.

Iturria: ©Olariaga (EGIN, 1977/10/22, or.22).

Orduan, hor, erreferenteak, hemen inguruan edo telebistan ezagutzen nuen bakarra, egunero ateratzen zen²². Gero kanpoko aldizkariak, egunkariak eta... Bada, derrepentean gertatzen zen LE MONDEK biñeta* bat ateratzen zuela lehendabiziko orrialdean, egunero, argazkiaren orde, ez dakit zer... Gero, Mingoteren asuntua ere, bazegoena hor, edo Chumi Chúmezek egiten zituenak, autore espainol peto batzuk... Euskaraz ez zen egunero [U.G.rik]. Bazeuden aldizkariak, nik nahiko azkar ezagutu nuen Jon Zabaletaren marrazkiekin. Baina gehienak ziren ilustratzaileen lanak²³, ipuingintza arlokoak. Baina *periodismoa*²⁴, barru-barrutik ez zen

22 Azkenean, ez du zehazten zein, nahiz eta gero kanpoko iturriak aipatuko dituen.

23 Olariagak mahiz ibili da ilustratzaile (aurretik ere hala aitortu du). Interesgarria da bi diziplinen artean egiten duen bereizketa: ilustrazioa batetik, komikigintza bestetik. Komikigintzan ez dago hain argi honen eta umore grafikoaren artea egiten duen bereizketa.

24 Aipua eramaten du aurretik aipatu den iritzi ikonografikoaren kontzeptura: umore grafikoak kazetaritza-generako bezala.

ezagutzen. Eta, *claro*: aldizkariak zeuden, baina egunero-egunero ez. Orduan, abentura doblea izan zen niretzat, salto bat izan zelako, egunero nola kondizionatuko nuen, nire burua nola kokatuko nuen...

Eta eredu estilistikoan... *Hombre!* Nik ezagutzen ditut Fontanarrosa²⁵ bat Argentinatik izugarri gustatzen zaidana. Gero *Quinoren* mundua, ez bakarrik *Mafalda*, baizik eta bere U.G.a; azken finean, eskola franko-belgak linearekin* daukan estiloa, Argentinan ere badaude linearekin ere oso...²⁶ Eta inbidia ematen zidaten. *Chumi* eta hauek pintoreak dira gehiago: trazua* lodiagoa zeukaten, kolorea ere maneiatzen zuten beste modu batean... Gero, *claro*, segun zein lan diren egokitu behar dituzu zure obrak.

Baina nik, nagusiki, eta beti, lehenago esan duguna: nik garbi ikusi nuen hasieratik oso lan *efimeroa* izan behar zela, egunkari bateko lanean, ezin baituzu sei egunetako lanak hartu biñeta bat egiteko, zeren eta iraungo du zure bista aurrean hogeitasei segundo gehienez, suerte handia izanda. Eskala kontua inportantea zen orduan: zenbait denbora behar duzun produktu duina egiteko. Baina izan behar zen eskala-kolpea: '*Aizu, lau ordu daramazkizu eta zer egiten duzu horrekin? Ez, es que ni pentsatzen ari naiz...*'. Ez. Izan behar duzu ere *agilidade* bat zeure profesioan. Emaitzak, gero, gutxienez, lau proposamen, bat egin, eta hori joango da, eta *ya está*.

A.C. Halako korrante estilistiko konkretu baten barruan sartuko al zenuke garaian egiten zenuen Z.en zinta*?

A.O. Nik *ridikuloak* ikusten ditut, gaur egun, bidaltzen nituenak. Adibidez, biñeta* baten *desamparoa* totala da. Beno, gogoratzen dudanez, dena da hutsune zuria, *personaje* txiki bat, errotulazio* txarrarekin. Zuria da nagusi. Oso pobrea da. Eta hor ikusten da badagoela *componente* bezala segurtasunik eza. Beldur pixka bat, estetikoa. Bai, ideiak badaude, baina gauzatzea igual, niri behintzat, lotsa pixka bat ematen dit.

A.C. Karreran zehar, izan al zenuen komikigintzarekin bestelako esperientziarik?

A.O. Komikiarekin? Beno [pentsatzen du], nik komikia* *deboratu* dut txikitatik. Nire imajinarioan, nire *dibertimendu* maximoa ziren komikietako indioak, zaldiak eta, kopiatzea. Ez kalkatzea, eh? Nik beti esaten dut kopia eskolaratu behar dela. Kalkoa, desastrea da. Umeei esaten zaie: 'Kalkatu, eta aterako da!'. Ez: kopiatu, nahiz eta kopia txarra izan, behin eta berriz,

25 Roberto Fontanarrosa (1944-2007). Marrazkilari eta idazle komiko argentinarra.

26 Ez du esaldia amaitzen. Ulertzen da eskola franko-belgaren marrazki-estiloa Argentinan eraginik baduela, Olariagaren baieztapenaren arabera. Edozelan ere, marrazkilariak 70. hamarkadan erabiltzen duen trazua ("linea"), oso mehea eta lodigunerik gabekoa da, uniforme eta garbia, bihurtzen da. Tinta eta trazua modu honetan erabiltzeko tendentziari buruz ari da.

kopiatu, eta ez kalkatu... Eta gure kolegioan bagenuen halako biblioteka, eta gune bat komikiekin. Eta guretzat *inaccesibleak* ziren komiki* amerikarrak, hantxe zeuden. Erosteke, material pila bat eta... Gero, baziren produktuak Espainiatik zetozenak, *Capitán Trueno*, eta garaiko guzti horiek... *Claro!* Gure ekonomian zen, edo hori, edo beste zerbait: zure dirua zertan gastatu. Eta ibiltzen zinen komikia desiratzen.

Gero, *Diego Valor* seriea adibidez irratiz ematen zen. Komikia* ere erosten genuen²⁷. Eta zen audiobisuala guztiz: audioa irratian, imaginario guztia martxan jartzen zenuen, eta bazegoen gero komikian ere. Hori zen bisuala. Eta pertsonaia berbera zen, eta zen portzentaje berberean bi medio: etxean entzuten du jendeak irratian, eta gero komikia*. Orduan, botatzen zuten egunero arratsaldeko ez dakit zein ordutan. Gero joaten zinen, baina zita ordu horretan zen, audioa. Imaginatzen zenituen biñetak buruarekin. Oso onak ziren aktoreak. Baina gero, ostiraletan edo ez dakit zer egunetan ateratzen zen kioskoetan, eta oraindik ikusten dut nire burua kioskoan *Diego Valor* erosten. Nik buruan daukat ostiraletan, arratsaldeko zazpitan, erdi-negu udazkenetan, eta etxean piztu argiak eta *Diego Valor* irakurtzen.

Geroztik, guk informazio grafikoa izan dugu zortea izan genuelako gure kolegioan bazegoelako biblioteka oso bat komiki* amerikanoekin. Ordu pila egiten genituen arratsaldean. Izaten genituen ostegunetan arratsalde libreak, nahi genuena egiteko, futboleko aritzeko, eta irteten ginenean, bibliotekara. Gozamina zen hura.

Gero, pixkanaka-pixkanaka, dirua daukazunean, bada joaten zara eroatera beste toki batzuetara: Iparraldera adibidez, eta zortez frantsesez zerbait moldatzen ginen. Eta jada 80. hamarkadan, jada etorri zenean, gaindosi bat egon zen hemen errebista pilo horiekin. Eta orduan, gure estiloa eta gure perspektibak ere, zeren eta mundu osoko gauzak etortzen ziren... *Gozada* bat izan zen informazioaren aldetik. Konplexu iturria ere bai, zeren ikusten duzu zure lanak ez duela pitorik ere balio holako maisuen alboan. Baina pozik. *Claro!* Guretzako betikoa izan da, ez alde horretatik bakarrik, baizik eta U.G.a egiterakoan, niri askotan galdetzen zidaten: 'Hik, horretatik bizitzeko asmoa daukak edo zer...?'. Ahaleginduko nauk! Gaur egun ezinezkoa da, baina zortez, tokatu zait epoka bat gauzak egiteko beharra zegoena.

27 *Diego Valor* seriea SER katearen bidez botatzen zen, eta bere komiki serie propioa ere bazeukan.

B2. Imaginarioak

- A.C. Sartu gaitzen orain imaginarioen arloan. Z.ek daukan *hizkuntza*, edo gauzak esplikatzeko moduan, sarri askotan erabiltzen du 'erotiko' hitza [jarraian datorren Z.K paper batean inprimatua erakusten zaio].



© Olariaga (5. eranskina, or.67)

- A.O. Hasieran bai.
- A.C. Eta 'sexu' edo 'sexual' ere bai. Berak zerbaiti 'erotiko' deitzen dionean, edo zerbait 'sexuala' dela dionean, zer esan nahi du? [aurreko Z.K. eta jarraian datorrena aurrean dituela].



© Olariaga (5. eranskina, or.56).

- A.O. Nire ustez, hasieran... Beno, *a posteriori* egiten dudana *erreflexio* bat da: adibidez, gaur egun gauzak ez nituzke honela esango. Hasierakoa baliza bat da, bere terrenoa zein dan definitzeko. Hitz bakarra, pixka bat unibertsa, 'erotiko', 'erotismo', 'eros'... erroa hi ere hartu eta osatzen da deriba. Horrekin jokatzeari, argi uzteko gaur egun badaudela *matiz* asko, askok indar handiagoa daukatenak. Eman dezagun: garai hartan pentsaezina zen 'txorta' hitza harreman sexualen arloarekin lotzea. Edo hitzak asmatzea ere, eta nik hiztegi erotikoa bat egin dut barne-funtzionamendurako. 'Jo, es que ez da ulertzen! – Bada, pentsatu pixka bat zer irakurtzen ari zaren. – Ah, bai, konturatzen naiz hori esan nahi duzula'. Krisi kulturala! Eta askotan nik egiten ditut hitz-jokoak abizenekin, toponimoekin, eta abar, baina jendea ez da konturatzen zer irakurtzen duen. *O sea*, Euskal Herrian (E.H.) izan leikeen U.-zentro potenteena, 'Barrenetxea' izango litzake. Zergatik? Zer osagai dago

'Barren-etxea' esateko? Jendea ez da konturatzen 'barre(e)n'... 'etxea'... Zer da? *Claro*, egun, *Bilbao center* jarriko litzateke *Barrenetxea* beharrean...

Nik errespetatzen dut, baina esaten duzu: '*Jendeak zer esaten duen ere ez da kontziente*'. Eta orduan, erotismotik ere, hizkuntza erotikoa, badaude hitz-jokoak egiteko, eta adierazpenerako tradizioak joko ematen du: 'Pasarte' bat, 'pasadizoa' esaten baldin bada, zergatik ezin dakioke esan 'txortadizoa' episodio sexual bati? Orduan, lotu egiten duzu tradizioan, bukaera bat, euskaraz, 'pasa-dizo', eta txortari aplikatuta. '*Baina es que ez dakit zer den 'txorta'... – Beno, ba ikasi ezak zer den*'.

Orduan: alde batetik lokalismoak dira. Beste tokiren batean igual esaten da beste modu batean. Eta horregatik generikoa da 'erotismoa', konkretuki egoera bat edo zehazten duena. Terrenoa pintatzeko da. Hortik dijoa dana. Absurdoa litzateke nik klaseak erotismoari buruz ematea. Baina jokozelaia definitzeko zerbait da.

Sexuari buruz? Beno, bada *ya está*: errekurtsio bat da, behin eta berriz hasieran eta amaieran agertzen dena asko eta asko, esateko: '*Aizu!* –abisu bat izango balitz bezala– *hau, sexuarekin*'.

Gogoratzen Z.ek lehendabiziko tiratan ikusten dituela bi harri. Orduan, konturatzen zara: '*erotismoa... Ah, bi harri! Zer dira?*'. Beno, zalantzak, irakurleak izango ditu, *a ver* bi harri horiek zer diren. Bada, bi forma sexual. Naturarekin lotu, eta *ya está*. '*Ah, vale-vale-vale... Orduan, natura, erotismoz beterik dago*'. Konklusioa.

Orduan, *vale*, terrenoa *situatu* egin behar dut. Naturan ikusten dituzu forma batzuk, eta gauza sexuarekin lotzen dituzu. Arkaitz bat, ez dakit zerekin, eta ikusten dituzu tapa sexualak. Orduan, gauza txikiarekin ere ez gara obseso bihurtuko!

Orduan, gauza hori da, pixka bat hasieran, baina nire *inkapazitatea* hiztegi aldetik gauzak adierazteko, eta premia jokozelaia definitzeko, erotismoa, nire ustez, hortik etorriko zen. Hori da *a posteriori* pentsatzen dudana nik, eh? Momentuan, ez nuen hainbeste pentsatzen. Erotismoa dela, ez dela... [marrazten ariko balitz bezalako keinua eginez]... Holaxe! [obra berri bat egingo balu bezala]. Nola definitu? Ideiarik ez... Zen, sexuari buruz zihoala asuntza, edo irakurketa sexuala. Alegia: prisma sexualetik, errealitatea ikusi. Dena dago erotismoz josia. '*Dena, zilegi da*', sanao dalako. Esan nahi dut, *erridikulizatuz*. Baina azken finean izango litzake optika edo ikuspuntu batetik errealitate sinpleena ere ikustea.

A.C. Batez ere, eta gainera, Z. dabilen ingurune teluriko edo natural horretatik, badirudi emakume baten gorputza ateratzen ari dela:

titiak, mendien kurbak... Eta bazen EGINEN feminista batek idatzitako iritzi-testu²⁸ bat, Z.i kritika eginez, U. matxista zela, pertsonaia desagertu behar zela andrea agertzeko, Marizikin gora eta behera... Zergatik espresuki emakume baten figura?

A.O. Beno... Nire ustez, planteamendua *emergente* izango litzake. Esplizituki, grafikoa ari naiz izaten. Pixkanaka beste forma naturaletan, naturan aurkitzen ditugunak. Pixkanaka emakumea lurretik aterako balitz bezala. Eta gero, ohe-kide bihurtzen zaio [Z.i]. Eta azaltzen da biñetatan, esplizitatua.

Hasieran, [Z] bakartia da. Aldian behin ditu emakumeekin topaketak. Hasieran, badira gehiago *bakarlokioak*, esango nuke nik. Bere fantasiekin. Hasieran izan da pertsonaia definitzeko, ez zaio inoren aldamenean jarri behar. Bera bakarrik dioa, bere burutazioekin, bere mundua pixka bat esplizitatu behar dut. Kanpoan ikusten ditu gauzak... Ikusten duela emakumerik? Bada, ikusten ditu emakumearen aztarnak. Oihartzunak edo formak bezalakoak dira, baina nire ustez, inkontzienteki zela, ez ziezaiola ezerk enbarazu egin, bere perfila pixka bat sendotzen joateko. Eta gero, *emergentea*... guzti horretatik, pixkanaka eszenategian aterako dira *bambalina* artetik bestelako *personaje* horiek, eta ibilbidean integratuko. Nire ustez, hori izan zela, inkontzienteki [bat-batean pentsakor geratzen da]... Beno, inkontzienteki, ez naiz gogorutzen, baina bai premia: bera bakarrik, eta bere *bakarlokioekin*. Ideia zen bere mundua sortzea. Berarentzat behintzat ez zen interpelaziorik. 'Aizu!' bat bere atzetik edo. Berdin zen. Hasieran, eh? Gero bai, pixkanaka posible da elkarrizketa txakur batekin, elkarrizketa aitona batekin, edo '*hik zer egin duk?!*' harri bati. Eta gero, bidaiaria bezala, emakumea, geroz eta indar gehiago hartuko duena eta erantzuna emango diona. Orduan, asuntoa da sortzen duzula, komatxo artean, obseso bat. Sexua buruan, gainera horrek erakartzen duelako. Baina pentsatzen dut, ez duela eramaten obseso baten mugara. Kezka: mugatan geratzen zaiola berari, *inseguru* sentitzen delako terreno horretan, estimulu horiekin. Eta gero, aldamenean, bidaiari moduan, tartean emakumeak gauzak sortzen dizkio, eta batzuetan elkarrizketa bat da. Zeren eta askotan, bestea geratzen da gainetik, *erridikulizatzen* du, eta bera saiatzen da... Orduan gertatzen da joko. Eta nire ustez, asmoa ez zen, baina ez eta inondik ere, bata bestearen gainetik jartzea, egoera batzuk islatzea baizik. *Claro*, bestela kartzelan egongo

28 HUMOR MACHISTA (*Euskal Emakume Borrokan*).— Hace tiempo que Zakilixut no vuelve de su viaje por la tierra. ¡Y qué tierra! Si no hay colinas, hay cavernas; si no hay orificios, hay prominencias... ¡Pobre Zakilixut, que no ve nada más ni después de muerto Franco! Ya es hora de que desaparezca y de que ELLA salga. Pero no una Marizikin ambigua y perezosa. No una imagen retorcida de lo que creen que somos, de lo que quieren que seamos, sino una imagen de lo que realmente somos. En una naturaleza donde, si se quiere, hay sitio, símbolos y erotismo para todos. Y no el humor de siempre para los Zakilixut de siempre.

EGIN, 1977/11/16, or. 15

litzake, etxean preso.

A.C. Jaso al zuen Z.ek kritikaren bat?

A.O. Bai, kartaren bat heldu zitzaidan. Gero igual zer edo zer publikatuko zuten, ez dakit. *Pues* igual: “Hau ezin da *holan* egin”... Egoera horretan, bada, ez duzu ezer ulertzen. Zein da juzkua? Eta askotan, *erridikulizaturaz* egoera *ridículo* batean, geratzen *zea* 'deskafeinatua' situazio baten aurrean, ez dakizulako maneiatzen. *Evidentea* da azkenean.

B3. Naturaren irudikapena

A.C. Naturari buruz: badirudi Z, hirira jauzi egin aurretik, naturan barrena dabilela, ingurune lau eta nahiko geldo baten gainerik. Pentsa liteke, agian, ingurune hori Euskadi bera dela, baina eusko lurra berez menditsu eta kontraste handikoa da. Ingurune horiek zeri egiten diote bada erreferentzia?


A.O. Bada, ezeri; zuhaitzak azaltzen baldin badira, alde grafikotik beharrezkoak direlako da. Baina ez konkretuki ez dakit zein baliabide erabili nahi dudalako; ez dakit non, edo '*gaur Iparraldera bidalduko dut*'... Ez, inkontzienteki igual esan dut: '*beno, hemen itsasontzia jarriko dut*', baina kontzienteki interesatzen zitzaidalako itsasoa marraztea.

Oso pobreak dira hasieran [paisaiak]: horizonte-linea, eta gainerik azpikoa. Baina hemen ez dago mendirik. Beno! Tokatu zaio mendirik ez ateratzea, baina aizu, argazki batean enkoadreak* kanpo gauza asko uzten ditu! Esan nahi dut: zela joko fotografiko batena. Azken finean, gauza gehiago, gero eta gehiago inkorporatzen dituzu. *Interiorenak*, adibidez, dira ezberdinak: momentu batean, hau pasa da atiko batera. Neska batekin azaltzen zen beti [Z.], sabaia okertzen den ganbara batean. Beno, igual niri gustuko egiten zitzaidan, madarikazioa den atiko hori, sabaiarekin burua jotzen duzun bazter horietarikoa... Erakargarria egiten zitzaidan. Atikoa bere garaian erakargarria zen. Eta hori izan zen azken finean, mendi-punta. Orduan: ez dira kontzienteki aukeratuak [eszenarioak]. Igual linea bat egin, horizontearena, situazioa pixka bat kokatzeko, lur baten gainean pertsonaia egonkortzeko. *Paupérrimo* geratzen da! Baina elementuak behar baldin badira horizonte-horizontal horretan, zuhaitz bat, txori bat egin... Igual azalduko da! Eta baldin eta txoria ekarri behar badut, ekarriko dut...

A.C. Badira une jakinak arbola horiek, batzuetan, oso ondo ñabarturiko hostoak dituztela, xehetasun handiekin; baina beste batzuetan hostoak biltzen dira masa uniforme batean [jarraian datozen bi Z.K.ak erakusten zaizkio, inprimatuak].



© Olariaga (5. eranskina, or.14).



© Olariaga (5. eranskina, or.39).

A.O. Bai! Bai...!

A.C. **Ñabardura horien atzetik zeinu edo adierazpide konkreturik ba al dago?**

A.O. Beno, nire ustez, *ya que* influentzia aipatzen duzun, artearena, *en general*, eta nik deitu diot efektuari *submarinoarena*. *Pop Art*²⁹, amerikarra, forma horiek, oso elaboratuak, linealak; begetazioak tratamendu berezi bat dauka, garai hartako diseinatzaileen zerbait hartu... Jende askoren lanetan ikusten da 'Poperoa' dela. Ez bakarrik musikan: mundu hori derrepentean sartzen zaigu. Kontraste *potente* hori, arte dramatikoa, bai eta jantzietan ere, nola jendea janzten zen! *Pop*arena, musikatik hasi eta hor, naturaren forma begetal horiek, eta konposaketan, eta lineen tratamenduan, horixe dagoela [azaroaren 15eko zintaren arbola —lehen bi biñetena— seinalatzen du].

Holako tira* batean adibidez ikusten duzu hostoez betetako zuhaitzari sinplifikatzen diodala forma, eta gero emakume baten sinboloa bihurtzen dela, zuhaitz batetik abiatuta. Ez dakit, igual kontrastez? Nola *hustutzen* den sinboloa. Baina lotura hori, igual berez, kontzertua oso beteta dagoelako zuhaitza hutsik izanda. Eta beste batzuetan, hauen [zuhaitzen] forma 'Poperoagoa' da, hostoen forma horietan, edo linean, eta masak, nola ez diren koloreztatzen, bada, nola diren halako perfil itxiak (*Pop*aren ohikoa da), linearen bidez ixten dira masak. *Frondosidade* bat egin dezakezu, itxuraz oso itogarria den paisaia, belarrez, baina linea* hustuz.

29 Olariaga ez da abangoardia jakinen menpe jarri, baina oraingoan *PopArta* aipatzen du. Inkontzienteari egiten dizkion hainbat aipamenengatik, surrealismoarekin ere lotu dakiok; bai eta sexuaren errepresio sublimatuari egiten dizkion keinuengatik ere: badirudi Z. bere sexu ardurak kanporatzeko bidea dela, bai eta beregandik urrundu eta, hasieran bezala, beraz gairik gaitortutako pertsona berri bat osatu arte. Halako *alter-ego* baten moduan.

Dana beteta. Eta itogarria izan daiteke, baina lineak dira. Eta linearen indarra... Modan jarri zen, adibidez Eguillorrek kartelismoan, eta orduan gustu hartzen hasi nion *rollo Poperoari*. Indarra bazeukan. Baina gero aspertu egiten zara, eta beste bide batzuk hartu.

A.C. **Lehen oso gauza interesgarria aipatu duzu: Z naturako elementu jakinekin etengabe topatzen ari dela, hain zuzen. Nik hemen daukat zerrendatxo bat, elementu natural horiekin. Z.ek irakurketa propio bat egiten die. Esango al zenidake zer den, pertsonaiarentzat, harria?**

A.O. Igual inkontzienteki, niretzat, beretzat baino, arestia da. Eskultura da. Eta harria.. Ezagutuko dituzu lan batzuk, artelanak, naturan ere presente dauden harrien formak, adibidez, ibai batean, erakargarri egin zaizkit beti material bezala. Eta beren formengatik. Dekorazioa? Ez nuke esango. Ambientazioa? Ez nuke esango. Parte hartzen dute eszenan. Harri batzuk jarrita, zentzu bat ematen dute, eta pisu bat. Oso zeinu *potenteak* dira. Ikonismo aldetik, badira solidoak, irudiari *estabilitatea* ematen diotenak, karga, astunak dira, baina aldi berean ere forma atseginak sortzen dituztenak. Eta nik askotan, itsasertza, oraindik ere, harri borobilez ikusten dut, halako pasillo handi bat.

Atzo, kasualitatez, Frantziako Tourra pasa zen Normandiatik. Eta ni joan nintzen bertara. Gaztelugatxe antzeko tunelekin, eta holako eraikuntzak zeudek. Itsas-labarra da, ez dakit zenbat kilometrokoa... Eta hondartza, izugarrizko harriekin, tamaina honetakoak [keinua egiten du eskuekin], eliptikoak direnak, gastatuak. *Xuabe-xuabe-xuabeak*... Tamaina honetako harriz osatutako hondartza. Itsasoak lan egin du hor. Zu hantxe zaude, bainua hartzen duzu, eta gero esertzen zara harri horien gainean, eta etzan ere bai, nahikoa handiak dira, *enkajutzen* dituzu batak eta besteak hor, eta niretzako *impresionanteak* dira.

Atzo, egon ginen emaztea eta biok, eta bertatik [behatzarekin kanpoa seinalatzen, Donostiako hondartzetako batera] pasatzen zarenean, begiraka... Harria da protagonista, eta joaten baldin bazara Aizkorrira, mendian harria da presente. Hemen ere harriak pisu handia hartu du. Eta Oteizaren harri batzuk niri gehien gustatzen zaizkidanak dira. Aguantatzen ez dena, harriaren simulazioa egitea da, *fibrarekin* edo. Edo egitea beste material batzuekin... Niri horrek sutan jartzen nau.

A.C. **Eta arbola zer da?**

A.O. Nik beti erabili izan ditut zuhaitzak elementu grafiko modura. Basoetan daukaten indarra, goraka, edo sustraiak, beheraka... Ikonikoki, oso *potenteak*. Batez ere biluzik daudenean, beren zainak agerian daudenean.

Forma oso aberatsak dira. Orduan, elementu *decorativo* bezala erabili daitezke, baina gehiago dira. Nire ustez, nortasun puntu bat ere da zuhaitzarena. Eta zuhaitzen artean, igual pagoa gustatzen zait. *Claro*: ari naiz formarekin, ez naiz osagaietan sartuko. Zeren eta beti ari dira eztiak daukan usaina, udaberrian gaudenean... Baina *claro*, hori *ya* komiki batean ezin da jarri...

A.C. Eta hodeia, zer da Z.entzat?

A.O. Beno, nire ustez, igual, jeneralak direla esan diat. Eta bereak egiten dituela. Baina igual zuk hamar gauzen zerrenda atera, eta igual egongo gara ados sei-zazpitan. Itsasoa bera: itsasoak daukan magia, olatuak bare daudenean, suabe dagoenean... Esan nahi dut: beti daudela elementuak naturan, eta herri honetan, nola kantuan, horri dedikatua egon da. Sinbologia, arte manifestazioak, literatura... Gauza asko daude elementu horiei buruz, igual sartu zaizkigunak, inkontzienteki ere barruan. Eta *apreziatzea* eramaten gaitu edo.

A.C. Gero, oso portaera komuna da Z.engan, menditik ibili eta bat-batean gora begira jartzea. Badirudi zerutik halako grazia datorkiola txiste bat burutzeko edo. Zer dago, bada, zeruan?

A.O. Askotan gora begiratzen jartzen da atentzioa eramateko beste nonbaitera. Alegia, igual, zerbait gogoratzen du, irakurri duena. Edo esaera zahar bat. Eta orduan, begiak, edo itxi, edo gora begiraka jartzen ditu. Goian ez dago ezer ez. Lore bati begiratzen badio, badirudi loreak atentzioa deitzen diola. Ez: abstrakzioa indartzeko da. Badirudi iturria dela, iturrik datorkion zerbait edo. Lehenago, baten-batek esandakoa, irakurritakoa, edo buruan daukan asunto bat. Keinu bat besterik ez da.

Gero, elementu grafiko moduan, nik begi handiak propio jarri nizkion. Pixkanaka, gero eta handiagoak. Espresio-bide aberatsa. Egunkari batean mugitzen ez den pertsonaia batentzat, bista aldatzea ezkerretik eskuinera, bi biñetako irakurketa batean, sekuentzia* bat osatzen du. Horrek esan nahi du, oso primitiboa dela animazio tipo hori: *South Park* paralitikoa da. Baina esan nahi dut: begiratzen duzu hara, eta hona, eta ematen du denbora pasa dela eta bera ere zerbait mugitu dela. Eta orduan, begiak aurrean behar dituzu. Edo harriduran jartzen baduzu ere, begiak zabaldu egingo dira. Gora begiratuz edo, berdin du: bereizgarriak diren keinu guzti horiek, *mínimo–mínimamente* eskuak geldi daude, eta aurpegia bakarrik dago hor. Oso aberatsak dira, fisionomian, oso sentiberak garelako denok. *Igual que* aho horretan irribarre txiki bat jartzea, eta bi komatxo jartzea, ironia toke bat ematen dio esaldiari, edo tristura, berdin zait, izugarritzkoa. Ekonomia *gestuala* fisionomian, *marabilla* da.

B4. Erreferenteak

A.C. Animazioari buruz hitz egin duzu. Zinemagintzatik zer edo zer edan zenuen garai hartan?

A.O. Asko. Zinema asko gustuko dut. Hemen [Z.K.etan], elementuak geldoak dira, ezin dira mugitu. Oso zaila da zinematik halako itzulpen bat egitea, komiki* geldo batean. Baina nik beti, gauzak adierazteko, desberdindu ditut zinema kontuak. Eta beti aipatzen dut Chaplinen³⁰ sekuentzia* *marabillosa*: neska itsuarekin³¹. Zain dago neska itsua, eta kotxe bat etortzen da, eta Chaplinek ez daki nola abordatu. Eta orduan itxoiten du, kotxea geratu (*Kriston* kotxe zaharra da); atea irekitzen da, bera jaisten da eta atea ixten da... Blum! Eta orduan bera mugitzen da, neska itsuarengana. Entzun duenean, kotxearen zarata, aberats bat datorrela, atea ixten dela, ez dela *kaskajo* kotxe bat, baizik eta zoragarria, eta orduan kasu egiten dio neskari. Zoragarria da: iruditzen zaio etorri dela aberats bat. Eta da keinu bat, zine mutuan, holako hizkuntza... Ez da hitz erdirik behar gauzak esplikatzeko. Musika pixka bat igual, baina besterik ez. Iruditzen zait akto erreala.

A.C. Musikarik ere edan al zenuen?

A.O. *Popetik*, pila bat. Musika asko gustatzen zait. Gainera, denetatik! Beno... 'musika' deitzen zaion *bakailaoa*... Jateko ez besterik! Musika klasikoa ere entzuten dut.

A.C. Eta literaturatik? Zeren eta badirudi Z.en txisteeek bertsolaritza gogorarazten dutela. Nola helburu jakin batera ailegatzeko, gainontzekoa eraiki eta amaieran halako ateraldia egin.

A.O. U.an, oso erabilia den teknika duk hori: eraikitzen joan, pista batzuk eman, eta gero, ezustekoa! Zuk espero ez duzuna, bat-batekoa. Orduan, sekuentzia* logikoa sortzen duen zerbait, ezustekoan amaitzeko. Bertsolaritza eta komikigintza umoristikoa modu paraleloan tratatu izan ditut, alegia: alde batetik puntua edo gaia ematen dizute; aukeratzen duzu puntu bat. Gero, horri erantzuten diozu. *Vale!* Baina beti pentsatuz amaieran eman behar diozula horri. Batzuetan izaten da hitz-joko bat, beste batzuetan izango da erantzun ilogiko bat. Beste batzuetan izaten da absurdoen jokia. Zeren eta U absurdoa, asko egin dut. Egunero gauza bera balitz... Baina batzuetan bat da, beste batzuetan bestea, beste batzuetan suspensea, edo beste galdera bat botatzen duzu, besteak erantzungo du... Baina ez dio traiziorik egiten bertsolaritzaren eraikuntzari: ahapaldi horiek bete egiten dute. Hitzak osatu, eta sarrera bat. Gero, pixka bat girotu

30 Eszena kontatzen hasita, Chaplin baino *Charlot* esan beharko luke, Chaplinen pertsonaia.

31 *City Lights* (1931) filmearen eszena famatua, hemen ikusgarri: <https://goo.gl/MyDgQs> (2015/10/18).

duzunean, estimulu bat bota, adibidez izenena (objektu batena, pertsona batena, ez dakit zer...); eta gero, bere erantzuna. Da *planteamiento, nudo, desenlace*, planteamendu klasiko-klasiko-klasikoa, kontatzen dituzten edozein istoriorena.

A.C. Hori al da Z. sarritan bertsoan aritzearen arrazoia?

A.O. Bere izateko modu naturala. Gainera, asko irekitzen dut nik bertsoa. Gaia dela estropadena? Nik baditut estropadei buruz bertsoak, kantatu direnak. Bada, igual destripatu egiten dut bertso bat, nahita. Baina, berez, etorri da 1932an, halako estropadak Ondarroan egin zirenean. Halako bertsoetan, pase bat badauka errealak, baina zuk gero horrekin bide bat egiteko edo irekitzeko, baduzu aukera. Edo pare bat hitzekin, askotan egiten da.

A.C. Ba al zenuen bertsolari maiteagorik?

A.O. Gaur egun zuzenean entzuteko... Azken generaziokoak, niri harrigarriak iruditzen zait Maialen Lujanbio.

A.C. Baina garaian, ba al zenuen bertsolari eredugarriak, Txirrita, Pernando Amezketarra, Lazkao Txiki...

A.O. Bai, beno, Txirrita, Errota... horiek beti. Hartzen duzu adibidez Peio Errotaren bizitza, nola dagoen kantatua horietako batetik eta lezio bat da. *Marabilla!* Eta askotan joaten zera halako gauzetara, baina korapiloa ez da bertsoak egitea, baizik eta bertsoaren estruktura kopiatzea, ikastea besteen bertsoetik, eta nola irudien bidez, halako soluzio bat etortzen ote den.

Baina 'bertso' esaten dudanean, aforismo bat esaten dut. Nik gaur egun asko irakurtzen ditut bertso anitz, eta baditut lagun idazleak... Literaturarekin jolasa etengabea da, bai ahozko literaturatik, bai idatzitik. Niri gustatzen zait leitzea, eta askotan. Baina saiakeran ere saiatzen naiz, eta momentu batean, honek, edo neskak, edo ez dakit zeinek, irakurtzen ditu liburuak... Baina horiek dira berantiarak, esan nahi dut: hasieran, ereduak ziren gehiago beste aldizkarietatik, edo egunkaritik hartutako albisteak. Eta horiek manipulatu. Ez ziren hainbeste liburuak. Gero hasi nintzen liburuekin. Hartu, eta derrepente, ni hasten naiz leitzen dibulgazio zientifikoa, eta esaten da ez dakit zer neuronei buruz, eta abar. Baina gauza bera gertatu zitzaidan *Mad Men* [filmea] ikusi nuenetik. Kanean, autobusa hartzen duzu, eta etortzen naiz Hernanitik hona, eta entzuten dituzu konbertsazioak... Iturriak edonon daude. Jarrera, bertsolariarena: jokoa, gaiak... Denetatik ateratzen duzu! Bada, telebistatik, autobusetik, irratitik... *Claro!* Ezin zara 24 ordu honela ibili. Merezi baldin badu, ba geratu egingo da [memorian].

ERANSKINA 4. EGIN egunkarian agertutako zenbait iritzi-testu feminista 1977an

Emakume izateko jaio

Observé un día, hace ya tiempo, que en una de las escuelas municipales donde doy algunas clases, aún siendo coeducacional, el régimen mixto parecía obedecer más a la necesidad de incluir niños y niñas en la escuela que a una voluntad de educación idéntica y conjunta.

Me di cuenta de que a determinadas horas las niñas iban a clase de labor, mientras que los niños aprendían pretecnología; que cuando los niños jugaban al rugby, las niñas tenían clase de rítmica; que los niños jugaban en un patio y las niñas en otro y que todo esto, además, a las niñas y a los niños les parecía absolutamente lógico y natural y que, cuando un día pregunté en clase por qué los niños no hacían labor, las mismas niñas contestaron que los niños no querían y se quedaron consternadas cuando to les razoné que si los niños no aprendían a coser y guisar, ellas se verían obligada irremisiblemente durante todas sus vidas a guisar y a coser para los hombres que las rodearan, ya fueran sus hijos, hermanos, padre o marido. Me quedé a mi vez consternada pensando hasta qué punto las mujeres nos educábamos en unas estructuras machistas desde nuestra infancia.

María José Rague-Arias

Vindicación Feminista (10/77) | EGIN, 1977/10/14, or.15

Humor machista

Hace tiempo que Zakilixut no vuelve de su viaje por la tierra. ¡Y qué tierra! Si no hay colinas, hay cavernas; si no hay orificios, hay prominencias... ¡Pobre Zakilixut, que no ve nada más ni después de muerto Franco! Ya es hora de que desaparezca y de que ELLA salga. Pero no una Marizikin ambigua y perezosa. No una imagen retorcida de lo que creen que somos, de lo que quieren que seamos, sino una imagen de lo que realmente somos. En una naturaleza donde, si se quiere, hay sitio, símbolos y erotismo para todos. Y no el humor de siempre para los Zakilixut de siempre.

Euskal Emakume Borrokan – EGIN, 1977/11/16, or.15

Todos hemos matado a María Isabel Gutiérrez

Una vez más, la tragedia a la que se ve sometida la mujer tiene ya una víctima: M. Isabel Gutiérrez Velasco. ¿Hasta cuándo van a tener que aguantar las mujeres las vejaciones a las que se ven sometidas por una sociedad machista y represora? Y más en este caso concreto en que, por circunstancias de la vida (creadas por los que detentan el poder), se ven obligadas y arrastradas a una vida marginada.

No les culpemos a ellos, no huyamos de esta realidad, no escondamos la

cabeza como los avestruces. La culpa es de nosotros que, con nuestra indiferencia, mantenemos unas instituciones y unas estructuras opresoras y decadentes. No es hora de lamentarse ni tampoco de denunciarlo, es hora de actuar y participar directamente en los problemas cotidianos que nos atañen y a la voz de ¡YA!

Los marginados no tienen la culpa, la culpa es de quienes no hacemos nada para mejorar nuestra sociedad y crear un mundo más justo y humano. Desde este lugar quiero gritar a todos los vientos y que mi voz llegue a todos los hermanos de Euskadi: “Amnistía para los presos comunes”, que son la consecuencia de la miseria y la lacra de una sociedad corrompida. “Amnistía para la mujer” y los mal llamados “delitos”, que no constituyen delitos en sí, porque las leyes no las hicieron las mujeres sino nosotros los machos, y que esto quede claro.

Gotzon Monasterio (Vizcaya) – EGIN, 1977/11/16, or.15

Quien bien te quiere te hará llorar

Estuve ayer en la rueda de prensa al final de las I Jornadas de la Mujer de Euskadi. Se trataron muchos puntos de interés, que creo sería interesante seguir comentando, pero hoy sólo voy a tocar un punto, la información, por la extensión que allí se le dio y la virulencia con que se atacó.

Sólo se nombró a un periódico, a EGIN y para atacarlo duramente, dándose la curiosa circunstancia de que ha sido durante las Jornadas y antes, quien con más profundidad trata nuestra problemática. Con lo cual no digo que no tenga fallos.

Por lo tanto, no me basta la explicación que luego me dieron algunas de las que atacaron, ante este comentario mío: “Es que a los demás periódicos no merece la pena atacar, si atacamos a EGIN, es por lo que representa y lo que esperamos de él”. Curioso amor éste.

Precisamente como feminista, creo que algo que debe singularizarnos, por oposición a las relaciones de violencia y presión, son nuestras relaciones positivas. Y allí de positivo hacia la compañera de la prensa y hacia EGIN, no hubo nada en absoluto. Todo fue marcadamente negativo. Sobre la información del primer día de las Jornadas, dedicado a la sexualidad y que apareció en la prensa del viernes 9, el ataque fue especialmente violento, diciendo que “se señala como casi único el tema del lesbianismo y que daba la impresión de que eso había sido lo principal en las Jornadas, dando una visión falsa del feminismo”.

Cojamos el artículo en cuestión (EGIN, viernes 9, página 6). El resumen de la Jornada del día 8 ocupa media página en la sección de Euskadi, de la que casi la mitad es un bonito poema feminista de las Jornadas y una foto pequeña en la que se aprecia algo del lleno impresionante del aula magna de la Universidad. El resto del texto, está dividido en cuatro puntos: El primero de 41 líneas de extensión (el más extenso) da una visión general, incluida la Fiesta, totalmente positiva de la Jornada.

El segundo punto, 31 líneas y media, trata con sumo respeto y línea ideológica correcta (como podía hacerlo cualquier “informador” de un grupo Gay sobre su problemática) señalo lo de “informador” por lo que puede tener de aséptico el párrafo al decir: “como dice la ponencia” y situarse el informador desde fuera de la problemática. Este sea tal vez el punto más grave de la prensa, pero de toda y no sólo de EGIN: que sus representantes (salvo honrosas excepciones) lleguen “al humo de las velas”, es decir, a la hora de las conclusiones, de las puestas en común, sin haber participado en la discusión de los grupos y se dejen impresionar tal vez por el más brillante orador dé última hora.

Pero sigamos analizando la problemática reseña de la jornadas del jueves. El tercer punto 23 líneas, está dedicado a la violación y el cuarto punto 27 líneas, está dedicado al aborto. Todos ellos en la misma línea de una visión positiva y respetuosa.

¿Dónde está pues esa super-información casi exclusiva, sobre el lesbianismo? Es cierto que en el párrafo segundo sobre el lesbianismo se dice que fue el punto que suscitó mayor interés. Tal vez esta afirmación sea discutible y hubiera sido mejor decir, simplemente, que suscitó un gran interés. No lo niego, pero también en ese mismo párrafo se afirma que la ponencia sobre violación recibió el mayor aplauso, y así fue en efecto.

Quiero hacer señalar con esto, la enorme injusticia, con respecto a la prensa, del trato que por parte de los grupos feministas se le dio a EGIN, en la citada rueda de prensa. Y como feminista me gustaría que fuésemos más exactas y leyésemos con más detalle y auténtico espíritu crítico.

Ana (Lejona) – EGIN, 1977/12/14, or.15

ERANSKINA 5. Ikerlaneko 'Solasjaipausa' orrialdeak

Jarraian, ikerlan honetan aztertutako *Solasjaipausa* orrialde guztiak biltzen dira, Euskal Herriko Unibertsitateko (E.H.U.) hemeroteca zentraletik jasoak. Artxibo digitaletik inprimatu egin ziren, eta orrialde bakoitzari zenbaki bana inprimatu, 1etik 72ra (beraz, bere orrialde-zenbateka propioa daukate orriok aurkibide honetatik at). Korpusean, 5. eranskin honi egiten zio erreferentzia, *Solasjaipausa* orriari dagokion zenbakia segidan (5. eranskina, or.1).

ERANSKINA 6. 'Emazten fabore', Dechepareren olerkia

Olerkia jatorrizko euskaran
(Dechepare, 1545, atal.Emazten fauore).

Emazten fauore

01. Emaztiac ez gayz erran ene amorecatic,
guiçonec vci valiçate elaydite faltaric.
02. Anhiz guiçon ari bada andrez gayzqui errayten
arhizqui eta desonesqui baytituzte aypacen
yxilica egoytia ederrago liçate
andrec guiçonequi beci huxic ecin daydite.
03. Çuhur gutic andregatic gayzqui erran diroyte
hayez hongui erraytea onestago liçate
emazteac cerengatic gaiz erranen dirate
handi eta chipi oro hayetaric guirade.
04. Balentia sinplea da andren gayz erraytea
bat gayz erran nahi vadu oro vardin sarcea
yxil ladin nahi nuque halaco den gucia
damu gaycic emazteac hari eman dithia.
05. Andren gayz errayle oroc bear luque pensatu
bera eta verce oro nontic guinaden sorthu
ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu
amagatic andre oro behar luque goratu.
06. Guiçonaren prouechuco emaztia bethi da
oro behin hayetaric sorcen guira mundura
sorthu eta hil guinate harc haz ezpaguiniça
haciz guero egun oroz behar haren ayuta.
07. Haren escuz ossoan behar soynera eta iatera
eri denian andre gabe galdu guiçon egurra
hil badadi hura nola nor doaque gaynera
ordu oroz behar tugu ezta heben cer duda.
08. Emazteric ezten lecuyan eztacusat plazeric
ez guiçona ez echia behinere xahuric
echian den gauça oro gayzqui erreglaturic
parabiçuyan nahi enuque emazteric ezipaliz.
09. Emaztiac eztut ençun lehen guiçona iauquiric
bana guiçonac emaztia bethiere lehenic
gayxteria ialguiten da bethi guiçonetaric
ceren bada daraucate emaztiari hoguenic.
10. Bertuteac vehar luque guiçonetan handiago
emaztetan nic dacussat honguiz ere guehiago

Olerkia, euskara egokituan
(Etxepare, 1545).

Emazten fabore

- Emaztiak ez gaiz erran ene amorekatic
gizonek uzi balizate elaidite faltarik.
- Anhiz gizon ari bada andrez gaizki erraiten
arhizki eta desoneski baitituzte aipazen
ixilika egoitia ederrago lizate
andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.
- Zuhur gutik andregatik gaizki erran diroite
haiez hongu erraita onestago lizate
emazteak zerengatik gaiz erranen dirate
handi eta xipi oro haiatarik girade.
- Balentia sinplea da andren gaiz erraita
bat gaiz erran nahi badu oro bardin sartzea
ixil ladin nahi nuke halaco den guzia
damu gaizik emazteak hari eman dithia.
- Andren gaiz erraile orok bear luke pensatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sorthu
ama emazte luen ala ez nahi nuke galdatu
amagatik andre oro behar luke goratu.
- Gizonaren probexuko emaztia bethi da
oro behin haiatarik sortzen gira mundura
sorthu eta hil ginate hark haz ezpaginiza
haziz gero egun oroz behar haren aiuta.
- Haren eskuz osoan behar soinera eta iatera
eri denian andre gabe galdu gizon egurra
hil badadi hura nola nor doake gainera
ordu oroz behar tugu ezta heben zer duda.
- Emazterik ezten lekuian eztakusat plazerik
ez gizona ez exia behinere tsahurik
exian den gauza oro gaizki erreglaturik
parabizuiian nahi enuke emazterik ezipaliz.
- Emaztiak eztut enzun lehen gizona iaukirik
bana gizonak emaztia bethiere lehenik
gaixteria ialgiten da bethi gizonetarik
zeren bada daraukate emaztiari hogenik.
- Bertuteak behar luke gizonetan handiago
emaztetan nik dakusat hongiz ere gehiago

mila guiçon gazxtoric da emazte batendaco
guiçon baten mila andre bere fedean dago.

mila gizon gazxtoric da emazte batendako
gizon baten mila andre bere fedean dago.

11. Hec guiçoner vecha valite eliçate bat honic
eztirovte deuscay denic vci iauqui gaberik
bana anhez emazte da escapacen çayenic
anderetan ceren bayta vertutea hobenic.

Hek gizoner beha balite elizate bat honik
eztiroute deuskai denik uzi iauki gaberik
bana anhez emazte da eskapazen zaienik
anderetan zeren baita bertutea hobenic.

12. Nic eztañçut emaztiac borchatuic guiçona
bana vera çoraturic andriari darrayca
cenbayt andre hel baledi oneriztez hargana
ceyn guiçonec andriari emayten du oguena.

Nik eztañçut emaztiak borxaturik gizona
bana bera zoraturik andriari darraika
zenbait andre hel baledi oneriztez hargana
zein gizonen andriari emaiten du oguena.

13. Ieyncoac emaztea mayte mundu oroz gaynetic
cerutica iayxi cedin harçaz amaturic
emaztiac eçarri du gure anayeturic
andre oro laudaceco haren amorecatic.

Ieyncoac emaztea maite mundu oroz gaineric
zerutika iaitsi zedin hartaz amaturic
emaztiak ezarri du gure anayeturic
andre oro laudazeko haren amorecatic.

14. Irudi çayt emaztia dela gauça ezta
donario gucietan guciç gauça emya
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia
harçaz gayzqui erraytia vilania handia.

Irudi çayt emaztia dela gauça ezta
donario guciçetan guciç gauça emya
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia
hartaz gayzqui erraitia bilania handia.

15. Munduyan ezta gauçaric hayn eder ez placentic
nola emaztia guiçonaren petic buluzcorric
besso viac çabalduric dago errendaturic
guiçonorrec daguiela harçaz nahi duyenic.

Munduian ezta gauzaric hain eder ez placentik
nola emaztia gizonaren petic buluzcorric
besso biac çabalduric dago errendaturic
gizonorrec dagiela hartaz nahi duyenik.

16. Io badeça dardoaz ere gorpuzaren erditic
aynguruyac bano oboro ez larraque gayzquiric
bana dardoaz ematuric çauriere sendoturic
bere graciaz ezarteintu elgarrequi vaqueturic.

Io badeza dardoaz ere gorpuzaren erditik
Ainguruiac bano oboro ez larrake gayzquiric
Bana dardoaz ematuric çauriere sendoturic
Bere graciaz ezarteintu elgarreki baketuric.

17. Nor da guiçon modorroa harçaz orhit eztena
Eta guero halacoa gayzerrayten duyena
Ezta guiçon naturazco hala eguiten duyena
Ceren ezta eçagucen hala hongui eguina.

Nor da gizon modorroa hartaz orhit eztena
eta gero halacoa gayzerraiten duyena
ezta gizon naturazco hala egiten duyena
zeren ezta ezaguzen hala hongui egina.

ERANSKINETAKO BIBLIOGRAFIA


- ARIZMENDARRIETA José María, 1982. *Peru ta Marixe*. Abestia <<http://goo.gl/FWmqfw>> [2015/10/17]
- COCA César eta MARTÍNEZ Florencio, 1993. *Los medios de comunicación en el País Vasco*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- COLINA Sustrai, 1998. Zakilixut: “Umorea jarrera bat dunk”. Elkarrizketa. *Argia*, uztailak 30. <<http://goo.gl/704gMZ>> [2012/03/07]
- DECHEPARE Bernard, 1545. *Linguae Vasconum Primitiae* <http://www.vc.ehu.es/gordailua/Etxepare_1.htm> [2017/03/28]
- ETXEPAPE Bernard, 1545. Emazten fabore. Olerkia. Non *Linguae Vasconum Primitiae* <<http://goo.gl/OkNYAt>> [2015/11/11]
- GASCA Luis eta GUBERN Román, 1991. *El discurso del cómic*. Madril: Cátedra
- GIPUZKOA (Foru Aldundia), 2004. *XIX. Mendea karikaturetan. Umorea, distortsioa eta kritika soziala*. Ormaiztegi: Zumalakarregi Museoa
- LORENTE Eneko, 2015. Mirar al sesgo. El humor gráfico de Olariaga y Eguillor en la primera época del diario EGIN. Non FERNÁNDEZ Antonio (zuz.). *El humor y la ironía como armas de combate. Literatura y medios de comunicación en España (1960-2014)*. Sevilla: Renacimiento, or.530–552
- RICHTER Juan Pablo, 1812. *Teorías estéticas*, bol. XV. Madril: Sociedad General Española de Librería
- SAN MARTIN Juan, 1987. Euskal Umorea. *Egan, Euskalerraren Adiskideen Elkarteko Boletinarean Euskarazko Gehigarria* (1,2), or. 41-50 <<http://goo.gl/vHs3il>> [2013/12/31]
- TAYLOR Stephanie, 2013. *What is discourse analysis?* Londres: Bloomsbury

ERANSKINETAKO IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Zakilixuten zinta komikoa, Olariagaren errotulazio-sistema erakusten duena...	6
Irudia 2: '13 Rue del Percebe' seriearen lehenengo alea.....	8
Irudia 3: Kalekoren lehen zinta.....	13
Irudia 4: Olariagaren karikatura batzuk.....	20

Barraskilo eta elefanteen herria dagoenik ba al dakizue?

Barraskiloba eta elefantea



URGENTE

Parlamentariet:

Juana Bixenta Olabe, parlamentarien neska nauzue, eta Arestiren hura parafraseatuz, nere parlamentarien etxea defendituko dut erabat egia izango ez bada, zuen gorabeherak astintzen ahaleginduko naitzazue. Kuraje xumurrenean, horondate underground ezti batetan.

Ziriak ziri, eta zoroak ero, nahiko neska guizki ordaindua naizenez, txantajeraren batek edo bestek ez dizue kaltetik egingo. Aski lan izango baitut Bandrosen mil rayas plantxatzen eta Irujoren errejimenu zainduarazten.

Bihar arte, beraz.

*Juana Bixenta Olabe
parlamentarien neska*

Beltra Superbeltra


ALGUNOS PERSONAJES DE LA HISTORIA

J. C. EGUILOR

TXANGURRO MARX UNA MEJORA DE BAKUNIN Y BUSCA IGUSI...	MISS MARTIARTU DEL PNV DE TODA LA VIDA.	ZORTXI DE LA IZQUERDA ABREKTIALE	MIREN PUNETAGORRI COLECCIONISTA DE PEGATINAS...
JON-JON ÁCRATA PRECOZ	EDUÑO LOPERENA TECNOCRATA NEO-DEMOCRATA	NARI-BELTZA VACA FILÓSOFA...	SOR EDERTO MONJA NAVARRA Y CARLISTA (TENDENCIA ANARCO)

(CONTINUARA)

zakilixut



LURRA EMEA DENIK DUDARK EZ.

Crucigrama

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11

HRIZONTALES: 1. Coloca en un lugar. 2. Relativo a la navegación. 3. Piezas de artillería. 4. Artículo neutro. Onda Campeón. 5. Pasta para pegar. En Méjico, cualquier embarcació. 6. Estación del año. Acometo. Embisto. 7. De color moreno oscuro. Velas pequeñas que se largan en tiempo de bonanza. 8. Pronombre personal. Aféresis de ahora. Voz de mando. 9. Ninfa marinas. 10. Batracios. 11. Igualdad de nivel.

VERIFICALES: 1. Planta crucifera hortense. 2. Plantas de flores olorosas, abundantes en las orillas del Nilo y del Ganges. 3. Substancias usadas para pintar o teñir. 4. Símbolo del sodio. Espacio de tiempo. Marchar. 5. Tela, especialmente la de lana muy tupida y pelo más o menos corto. Hablar en público. 6. Adorno en forma de huevo. Conjunto de partículas sueltas de piedra o de metal. 7. Canelón de cuna. En plural, nombre propio de mujer. 8. Pronombre personal. Une. Antigua moneda romana. 9. Extrélas. 10. Alargar, adelantar una cosa. 11. Artículo determinado.


(La solución, mañana)

Zirkoko enanoa

Zirkoan lan egiten duen enano bat etxeorraz hortetako batetan bizi da, 30 etxebizitzan. Lanekoan aszentsorea hartu eta atarira jeisten da. Zirkotik etxerakoan, ordea, goizeko ordubiak aldera, beti, 22 etxabizitzako botoia sakatzen du eta aszentsorean igotzen da haraino. Gero beste zortzi etxabizitzak oinez igotzen ditu. Zergatik ez doa zuzenean bere etxeraino?

Soluzioa.

...tako boteraino. or-1
kia da enanoa, non ez baita ailegaitzen 25



Parlamentariak:

Ehulzioak tradizioaren galtzea omen dukar. Baina galduek dituzue zeuek ere tradizio jatorrenak: Ez dut ez Injuj errozarria errezatzen ikusi, ez Mugica Herzog Angelus garaiari txupela kentzen nabarmendu, ez Ortiz Gurizumuko dantaldian nerekin arraimatuz goxatu.


